

EIBARKO  
EUSKERIAREN  
DEKLINABIDIA ETA  
ENTONAZIÑUA

---

Imanol LASPIUR ZABALA



*Euskara*  
*Batzordea*



EIBARKO  
EUSKERIAREN  
DEKLINABIDIA ETA  
ENTONAZIÑUA

---

Imanol LASPIUR ZABALA


*Euskara*  
*Batzordea*

*Izenburua: Eibarko euskeriaren deklinabidia eta entonaziñua*

*Egillia: Imanol Laspiur Zabala*

*Argitaratzaillia: Eibarko Udala. Euskera Zerbitzua*

*Laguntzaillia: Kutxa Fundazioa*



*Testuen egokitzapena: Serafin Basauri*

*Diseiñua eta maketaziñua: Koldo Mitxelena Zumaran*

*Inprimategixa: Gertu kooperatiba*

*Tiradia: 800 ale*

*ISBN: 84-89696-15-2*

*Lege Gordailua: SS-1224/99*

*1999ko azarua*



<b>1.5 - PORTALE / PORTALEA leku-izen berezixaren deklinabidia</b> .....	<b>48</b>
1.5.1 - ERMUA eta PORTALEA izenaren esaldi deklinatuen adibidiak .....	49
1.5.2 - PORTALE izenaren deklinabide taula (eibarreraz/batuaz) .....	50
<b>1.6 - Diptongoz amaitutako berben deklinabidia</b> .....	<b>51</b>
1.6.1 - (-ai): JAI / JAIXA / JAIXAK .....	51
1.6.2 - (-ei): ANDRAGEI / ANDRAGEIXA / ANDRAGEIXAK .....	52
1.6.3 - (-oi): KAMIOI / KAMIOIA / KAMIOIAK .....	53
1.6.4 - (-au): GAU / GABA / GABAK .....	54
<b>1.7 - Leku-izen berezixen deklinabidia</b> .....	<b>55</b>
1.7.1 - Bokalez amaitzen diranak:	
DONOSTIA (-a) / LASARTE (-e) / OÑATI (-i) .....	55
BILBO (-o) / ELORRIXO (-o) / MUTRIKU (-u) .....	56
1.7.2 - Konsonantez amaitzen diranak:	
LEON / ARAGON / MONDRAGON .....	57
EIBAR / GORLIZ / ZARAUTZ .....	58
<b>1.8 - Konsonantez amaitzen diran persona-izenen deklinabidia:</b>	
AITOR / SIMON / ANDRES .....	<b>59</b>
<b>1.9 - Aste-egun izenen deklinabidia:</b> .....	<b>60</b>
ASTELEHEN / MARTITZEN .....	60
EGUASTEN / EGUEN / BARIKAKU .....	61
ZAPATU / DOMEKA .....	62
<b>2 - IZENORDAIÑEN DEKLINABIDIA</b> .....	<b>63</b>
<b>2.1 - Persona izenordaiñen deklinabidia</b> .....	<b>65</b>
2.1.1 - Lehenen eta bigarren personako izenordaiñ arrunt eta indartuena:	
ni, neu / hi, heu .....	65
zu, zeu / gu, geu .....	66
zuek, zeuek .....	67
2.1.2 - Hirugarren personako izenordaiñ indartuena: berau, berori, bera .....	68
eurok, eurak .....	69
2.1.3 - Hirugarren personako izenordaiñ bihurkarixena:	
bere / euren .....	70
<b>2.2 - Galdetzailliak eta galdetzaillietatik eratorritako izenordaiñen deklinabidia</b> .....	<b>72</b>
2.2.1 - Nor/nortzuk, zein/zeintzuk, zer/zera/zertzuk, zenbat .....	72
2.2.2 - Iñor, edonor/edozein, norbaitt/zenbaitt .....	76
2.2.3 - Ezer/zerbaitt/zeozer/edozer .....	78
<b>2.3 - ALKAR izenordaiñaren deklinabidia</b> .....	<b>79</b>
<b>2.4 - BESTE berbiaren deklinabidia</b> .....	<b>80</b>

<b>3 - ERAKUSLIEN DEKLINABIDIA</b> .....	<b>83</b>
3.1 - Erakusle arrunten deklinabidia : hau, hori, ha .....	85
3.2 - Erakusle indartuen deklinabidia: hauxe, horixe, haxe .....	90
3.3 - Adberbixuak erakuslien orde, erakuslien deklinabidian .....	93
3.4 - Erakusliak izenaren aurretik eta atzetik, deklinabidian .....	94
3.5 - Erakusliak izenaren atzetik eta izenari lotuta, deklinabidian .....	95
<b>4 - ZENBATZAILLIEN DEKLINABIDIA</b> .....	<b>97</b>
4.1 - Bat / batzuk-en deklinabidia .....	98
4.2 - Asko eta gitxiren deklinabidia .....	101
4.3 - Beste zenbatzaille zehaztugabe batzuen .....	102
4.4 - Zenbatzaille zehaztugabe orokorrena: DANA, GUZTIA, OSO .....	104
4.5 - Zenbatzaille zehaztuena: .....	108
BI .....	109
HIRU .....	111
LAU .....	113
BOST, HAMAR .....	115
SEI, ZAZPI, ZORTZI .....	117
BE(D)RATZI .....	119
HAMAICA .....	121
HOGEI .....	123
<b>5 - ADBERBIXUEN DEKLINABIDIA</b> .....	<b>125</b>
<b>5.1 - Leku-adberbixuen deklinabidia</b> .....	<b>126</b>
5.1.1 - Leku-adberbixo arruntena: HAMEN, HOR, HAN .....	126
5.1.2 - Leku-adberbixo indartuena: HAMENTXE, HORTXE, HANTXE .....	127
5.1.3 - “Ber-”aurrizkidun leku-adberbixuena: BERTAN, BERTANTXE .....	128
5.1.4 - Galdetzaille eta eratorriena: .....	129
NUN, IÑUN, EDONUN .....	129
NUNBAITT, NORABAITT, NUN-NAHI, .....	130
<b>5.2 - Denbora-adberbixuen deklinabidia</b> .....	<b>131</b>
5.2.1 - Galdetzailien eta eratorriena:	
NOIZ, IÑOIZ, EDONOIZ, NOIZBAITT, NOIZNAHI .....	131
5.2.2 - Denbora-adberbixo arruntena:	
ASPALDI, ATZO, AURTEN, BETI, BIXAR .....	132

<b>II - EIBARKO EUSKERIAREN ENTONAZIÑUA</b> .....	<b>135</b>
<b>1 - Azentua</b> .....	<b>137</b>
<b>2 - Azentu diakritikua</b> .....	<b>140</b>
<b>3 - Entonaziñua</b> .....	<b>145</b>
<b>3.1 - Berba alkartuak</b> .....	<b>145</b>
<b>3.2 - Kate fonikuak</b> .....	<b>146</b>
<b>3.3 - Eibarko euskeriaren 15 entonaziño-arau</b> .....	<b>149</b>
3.3.1 - Agintera eta erregu esaldixak .....	149
3.3.2 - Galderazko esaldixak .....	149
3.3.3 - Agurrak, saluduak eta eufixak (interjekziñuak) .....	151
3.3.4 - Harridurak (admiraziñuak) .....	152
3.3.5 - Ezezko esaldixetan .....	152
3.3.6 - Erderaz 3 silabako oxitonuak diranian .....	152
3.3.7 - Erderaz 4 silabako oxitonuak diranian (hirukuak moduan) .....	153
3.3.8 - Berba proparoxitonuak (esdrujuluak) - (esdrujulo eta sobre-esdrujuluak) .....	153
3.3.8.1 - 3 silabako proparoxitonuak .....	153
3.3.8.2 - 4 silabako proparoxitono jatorrak .....	154
3.3.8.3 - 5 silabako proparoxitono jatorrak .....	154
a) Atzen 3 silaban azento nagusixa daroienak.....	154
a bis) Bost silabako erdal-izen paroxitonuak diranian .....	155
b) Atzen laugarren silaban azento nagusixa daroienak .....	155
c) 5 silabakuetan, azento dominantia aurrengo silaban daroienian .....	156
3.3.8.4 - 6 silabako proparoxitonuak .....	156
3.3.9 - 7 silabako sobre-esdrujuluak.....	157
3.3.10 - Lau silabako erderazko oxitonuetatik datozen euskal-esdrujuluak .....	157
3.3.11 - Hiru silabako erdal berba oxitonuak diranian.....	158
3.3.12 - Lau silabako erdal berba oxitonuak diranian .....	158
3.3.13 - Bost silabako erdal berba oxitonuak diranian.....	159
3.3.14 - Bost silabako erdal berba paroxitonuak diranian .....	159
3.3.15 - Sei silabako erdal berba paroxitonuak diranian .....	160
<b>3.4 - Eibarko leku-izen batzuen eta abizenen entonaziño jatorra</b> .....	<b>161</b>
3.4.1 - Eibarko leku-izen batzuen entonaziño jatorra .....	161
3.4.2 - Eibarren ezagunen doguzen abizenen entonaziñua .....	161
<b>3.5 - Entonaziñuak syntaxixan daukan eragiña</b> .....	<b>162</b>
<b>3.6 - Zenbait esaldiren entonaziño-kurbak</b> .....	<b>163</b>
<b>3.7 - Adibidiak eibarrerazko tonada petuan</b> .....	<b>167</b>
<b>BIBLIOGRAFIXIA</b> .....	<b>169</b>



## HITZAURRIA

Eskuartean dakazun hau liburuau, Eibarren gerra osteko euskaltzale aintzindarixetako bat eta, azken urtiotan, Udalaren Euskara Batzordearen ekimenez, Eibarko Euskara Mintegiko zutabietako bat izan dan Imanol Laspiur Zabalarena dozu, irakurle. Berak, ondorengo orrixetan Serafin Basaurik agertzen dabenez, eibarreraren deklinabidia eta entonaziñuaren hau bihara ezin izan zeban amaitu eta, zein aproposagua Serafin bere adiskidia baiño, aurrez Imanolek egindako ilduari jarraitu eta liburua atontzeko.

Halantxe ba, esan eta izan. Hauxe da azken urtiotan egindako biharraren eta ahalegiñaren seigarren frutua. Udalak aurrez kaleratuta dittu eta: “Eibarko euskeraren esakerak eta bestelako berezitasun batzuk”, “Eibarko aditza”, “Eibarko euskara: gutxiespenaren historia” eta “Flexiones verbales y lexicón del euskera dialectal de Eibar” oiñarrizko liburu mardularen ediziño barrixa, eta, ...*eta kitto! Euskara Elkarteak*, Imanolen omenez, beronek egindako artikulubildumiarekin, kaleratutako “Eibarrera jatorraren bidetik” liburua.

Horrekin guztiorrekin, Eibarko euskeriaren oiñarrixak jaso eta eguneratu, eta, berreskuratze ahalegiñian, trasmisiñorako tresna egokixak eukitzia da, helburua.

Liburu hau garrantzitsua da, alde batetik, eibarreraren erabillera finkatzeko balio dabelako eta, bestetik, berezittasun batzuk jasotzeko dalako. Batez be entonaziñua dala eta; azken batian, entonaziñua da eta, eibarreraren berezittasun haundixenetakua, eta, zoritxarrez, berreskuratze-ko, esan leike, arazo haundixena.

Honekin publikaziñuonekin Eibarko Udalak berak be, Imanol Laspiur Euskaltzain urgazlea eta euskaltzalia omendu nahi dau eta eskerrak emon bere bihar eskerga dala eta. Bai bere bizi-tzan zihar egindakuagaittik eta, jakiña, azken urtiotan Euskara Batzordiarendako egin dittuan ekarpenegaittik.

**Iñaki Arriola Lopez**

Alkatea

**Maria Jose Telleria Etxeberria**

Euskara Batzordeburua



## Atarikua

**A**rgittara dakargun liburu honekin, gure Imanol Laspiur adiskide ahaztueziñaren beste lan bikin gatoz; Eibarko euskeria sendotzeko eta azaltzeko dihardugun lanian erremintta bihar-biharrezkuak izango dittugun lan bikin: bata, morfologixiaren esparruko deklinabidia; eta bestia, ahoskeraren parte garrantzitsua dan entonaziñua.

Aspaldi txamarretik dihardu Eibarko Udalaren “Euskara Batzordia”k eibarreraren berreskuratze ahalegiñian. Oin dala lau urte “*Eibarko euskeraren esaerak eta bestelako berezittasun batzuk*” argittaratu zan; ointxe urte bi “*Eibarreraz idazteko oiñarrizko erizpidiak*”; eta ixa jarraixan “*Eibarko Aditza*”, nun beroni egin jakon Sarrera Orokorrian aittatzen dan “*deklinabidiaren liburua eta baitta beste batzuk be*” etorriko zirala, “(...) *eibartarron jardun linguistikua jatortzia, eguneroko bizimodurako egokittuz eta belaunaldi gaztiendako eta eibarrera ikasi eta sakondu gura dabenandako erreferantzia izango dan corpusa osatu eta eskintzia*” helburu. Halan, “Euskara batzorde”ko billera batian, *Eibarko Aditza* amaittu barri, ondoren jorratu biharreko gaitzat aittatu izan ziran bai deklinabidia eta baitta entonaziñua be. Imanoli eskindu jakon batari zein bestiarri ekitzeko aukeria eta deklinabidiarena arazo barik hartu zeban beregain, baiña ez, ostera, entonaziñua edo azentu kontuarena, gaixa zailtasunez beteta ikusten zeban-eta. Zendu ostetxuan, ordenadorian zeukazen lanak arakatzen gendela, ezustekua hartu genduan entonaziñuarena be bazeguala ikustian, ez genkixan-eta “Batzordiak” aspaldi txamarretik erreklamatzan zetsan deklinabidiakin batera, ixillixan, entonaziñuarena be prestatzen ziharduanik. Gai bixen artian nolabaitteko loturia ikusten zeban, itxuria, eta bixak batera ziharduan lantzen. Atzenengo apuntiak, *Deklinabidian*: uztaillaren 23kua eta *Entonaziñuan*: uztaillaren 24kua. Ezingo zeban, zoritxarrez, aurre-ra segidu, hórretxetan egunotan etetzen da-eta euskeriaren aldeko haren jardun aberatsa. Imanolen eskutik datorkigun hil-osteko opari honegaittik esker onez, “Euskera Batzordiak”, bere aldetik, lan bixok publikaziño batian argittaratzia erabagi zeban.

Deklinabidia da bixotan trinkuena eta lehenengo partia osatzen dabena. Honen zati batzuk bizi zala entregau zittuan Imanolek: “Erakusliena” eta “Izenaren deklinabidia”ren parte bat, polemiko txamarra izan genduan “Portalea” izenarena tartean. Hau lanau eskuratu genduanian, guztiz amaittuta zeukan “Izenaren deklinabidia” eta “Erakusliena”ren gehixena, baiña deklinabidia osotasun batian agertzeko parte batzuk falta ziran eta ha osatzia pentsau genduan, harek egin zeban bide berbera jarraituz; zera: Imanolek jarrittako taula-antolaketa berakin, ejenpluetarako ahal dala Toribio Etxebarriaren *Lexikoira* joteko irizpidiakiñ, eta falta zana osatuz juateko, argittaratu bako haren beraren *Euskara ikasbidea* obra mardulakin, nun makiñatxo bat azalpen eta ejenplu argi topau dogun.

Batuaren eta eibarreraren artian ez dago egon alde alde haundirik deklinabidian; agiriko batzuk aittatzekotan: fonetikiaren eragiña, ergatibo pluralak, instrumentalaren erabilpen urrixa, mugagabe pluraletak (-tzuk) atzizkixa, pluraletak azentu bereizgarriak..., etab. Hori esanda, hemen aurkezten dogun Deklinabidiaren ezaugarrietako bat, daukazen ejenplu pillua dala esango neuke eta ez gitxi (350 baiño gehixago (TE) markia albuana dakenak) Toribio Etxebarriaren *Lexikoittik* etaratakuak eta didaktikotasunari begira “*Eibarreraz idazteko oiñarrizko irizpidiak*” jarraituz aldatu diranak. Ejenpluetan, gauza asko ikasi geinke deklinabidiaz aparte, esate baterako: Toribio Etxebarriaren adibide honetan, “*Oiñatiko gaztaiña heziagaz egindako zaria*” erabiltzen zala Eibarren; gaur eguneko “*Semana Grandian*” edo “*Aste Nausixan*” barik “*Andra-marixetan*” juaten zala lehen Donostiara; eta hainbat eta hainbat esamolde jator. Ikasteko nahiz erakusteko nahiz, beste barik, zuzen erabiltzeko, danondako datoz ondo deklinabide-taulok eta hórretako bakotxakin batera datozen adibidiak; eta, batez be, Eibarko euskeria ondo ez dakixan eta erabilli bihar edo egin nahi daben jendiarendako dira taulok eta adibidiok komenigarriak. Aittatzekua da, deklinabide mugagabiaz diharduan (1.4) atala, nun mugagabia “*Eibarren beti erabilli dala ondo, jator eta zuzen*” esaten daben eta kezkatuta agertzen dan esa-

molde jatorren ordez erderiaren kopixa hutsak diranak entzun eta eskribidu be egitten diralako. Beti erabili izan dittugun aste-egun izenen ordez euskera batuarenak darabiguzelako be agertzen dau bere keja. Eta liburu guztian zihar agertuko dau Eibarko euskeriaganako zeban maittasuna.

Eibarko euskeriaren entonaziñuaz dihardu bigarren partiak. Berbeta bakotxak dauka bere entonaziñua, eta eibarrerak be bai beria. Gure “doiñuan”, gure “kantuan” jardutziak, berez, geure euskeran jartzen gaittu berbetan; entonaziño hori gure euskeran jardutzeko “txipa” dala esango neuke eta doiñu arrotzakin dihardugunian “txipa” aldatu eta beste berbeta batera joten dogu konturatu barik, geuria baztartuz. Entonaziñua gure berbetiaren doiñua da, eta doiñua beti izaten dogu lagungarri “letria” gogortzeko. Geure euskeriakin lotzen gaittu, nolabait. Horregaittik, ba, gure entonaziñua gordetzeko ahalegiñ hau; honekin, eibarreraren osagarri morfologikuak gordetzeko be lagungarri dala uste dogu-eta.

Eibarko euskeriaren azentu eta entonaziñuaz jardutzeko ez zan iñor Imanol baiño egokixagorik. Bazekixan, bai, Imanolek euskal-azentuaren barri: Oin dala 20 urte argittaratu zan haren “*Azentu diakritikua Eibarko euskeran*” saiakera bikaiña eta Txillardegi, Hualde eta Gaminderen lanak hurretik jarraitzen zittuan. Entonaziñuaren gaiñeko lana eskindu jakonian, goian esan doran moduan, hain zaila ikusten zeban eze ez zeban baietzi esan. Gero, oster, “...*eta kitto*” aldizkarixan argittaratu zittuan artikuluak -*Euskera jatorraren bidetik* liburuan bildu ziranak- modu didaktikuago eta egitturatuago batez azaltzia izango zeban helburu Imanolek, berak hemen diñuan moduan, “*eibarrerak azentu kontuan eta, batez be, entonaziñuan dittuan partikularidade edo berezittasunak agertu eta ahal danik eta errezen aztertu*”z, eibarreraren azentu eta entonaziñuaren deskripziño akademikuak hizkuntzalarientzat lagata. Haren Eibarko euskeriaren entonaziñuaren perzepziñua “belarrixan” oiñarrittuta dago, horretarako zeban sensibilizaziñuan eta “belarri” benetan fiñian. Halatxe jardutzen zeban berak, 80 urtetik gorako eibartar zaharrekin berbetan eta, batez be, entzuten eta háregandik jasotzen: “*Beti esan dot nik, azentu legedi hau eibartar peto jatorrengandik entzuren entzunaz eta erabillixaz ikasten dala*”. Halanda be, bere irakasle senari jarraituz, ikutu didaktiko haundixakin, 15 entonaziño arau emoten dittu, errez ikasi eta jarraitzekuak eta, horrez gaiñera, 13 entonaziño kurba eta 45 adibide eibarrerazko tonada petuan. Lan honek ez dau, biharbada, Eibarko azentu eta entonaziñuaren gaiñian dana azalduko eta hizkuntzalari gaztiak badake euki zeri oratu; baiña ikasi gura dabenak badauka darabigun tonada arrotza zuzentzeko beste arau eta ejenplu, era errezia jarritta. Hori zan Imanolen helburua, dotore asko bete dabena.

Ze momentutan eta ze testuingurutan datorkiguz Imanolen lanok? Ez zeukan harek esperantza haundirik Eibarko euskeriaren etorkizunari begira. Etsi-txamartuta ikusten neban eta, esan be, halatxe esan zetan behin: “*Gu bagabixak zeozer egin nahixan baiña Eibarko euskaria hilda dagok*”. Ezkor izateko motibuak ez zittuanik ezin, ba, esan. Izan be, alde batetik euskeriaren transmisziñuan izan dogun porrot penagarriakin, eta bestetik, egin dan ahalegiñ eta indar guztia euskera batuaren alde jartziakin, baztarrian laga dogu geure herri-berbetia. Hizkera formala, jasua, indartu dogu eta hiru hamarkadatan mailla haundixa konsegidu da euskeriaren batasunian, bihar-biharrezkua zana, irakaskuntzan, komunikabidietan eta administraziñuan aurrera egingo bazan; poztekua da hori eta poztu egin bihar gara. Baiña bistan daguana ezin geinke ukatu: berbetan darabigun euskaria, jeneralian, pobria da, lagunarteko hizkeran eta adierazkortasunian hutsuna nabarmenak dittuana; entonaziñua arrotza, ahoskeria traketsa eta idatzixaren bendekua; ez gatzik eta ez piparrik. Hórretxek dittugu aspaldittik datorkiguzen euskera “mintzatua”ren ajiak eta, berandu baiño lehen, erremedixuak jartzen hasteko momentua da. Eta honetan, euskalkixak eta herri-berbetak -eibarrerak gure kasuan- asko lagundu leikie. Herrixetako euskerak eta euskalkixak sendotzen badira, euskera batua be sendotu egitten da, bai idatzixa bai eta “mintzatua” be, batez be, naturaltasuna irabaziz. Batua ala euskalkixa, euskaria da-eta azkenian jokuan daukaguna.

Herrixetako euskeren eta euskalkixen egoera makal hori astindu eta bizkortzeko, danon lan bateratua da premiñazkua, bai Euskaltzaindiaren Jagon Saillarena, Unibersidadiarena, Hezkuntza sistemiarena, euskaltegixena eta, batez be, herrixetako euskera batzordietan eta herri-aldizkarixetan urtietan zeregiñ horretan diharduten euskaltzalien jarduna. Horrek, luzera, emongo dau frutua; seguru. Hori da bidia

eta horri ekin bihar detsagu, itxaropenez, batzuk dinamizatzen, beste batzuk materixalak prestatzen eta abar. Desafixo gogorra daukagu eibartarrok, baiña ez nago etsitta. Bihar diran bittartekuak jarri ezke-ro asko egin leike-eta: alde batetik, hezkuntza sisteman, eskolan eta euskaltegixetan, irakasliak prestatzen badira; eta bestetik, “Euskara Batzordean”, “...*eta Kitto*”n, eta herrixan egon leikezen euskera tal-dietan geure ahalegiñak bateratuz. Pozgarrixena da, egoera honi bueltia emoteko ez dot esango baiña herri-berbeten gainbehera hau etetzeko behintzat, zaharraguen lekukua hartuko daben gazte bihargiñak eta komunikaziñuan, euskalgintzan eta hizkuntzalaritzan ondo prestatuak badarela ikustia.

Datozela gaztiok zeregin honetara eta ajiok benderatuz, eibarreraren eta euskera “mintzatua”ren hobetzia ikusteko izan gaittiala.

Argittaratze honekin, gure esker ona Arrateri, lanok berreskuratzeko emon deskuzen erreztasune-gaittik eta gure omenaldixa, barriro be, Imanoli, euskeriari orokorrian eta, batez be, Eibarko euskeriari eskindu detsan guztiagaittik.

Serafín Basauri

**Oharra:** *Eibarreraz idazteko oiñarrizko irizpidietan*, erakusle pluralak azentuakin idazia erabaki zan singularretatik bereizteko. Kasu horretan izan ezik, eibarreraz be ez da, ba, azentu grafikorik erabilli bihar eta aditzen emon bihar da, liburu honetan agertzen badira, entonaziñua markatzeko bakarrik darabiguzela.



# I - Eibarko euskeriaren deklinabidia





## 0 - EIBARKO EUSKAL DEKLINABIDIA

Aspaldixan neukan Eibarko euskal deklinabide edo deklinaziñua aztertu eta nolabaitt burutzeko asmua eta halako batian heldu netsan lanari. Hasi eta taula (tabla) batzuk gertatziari ekin netsan, baiña fonetikazko arazotxo batzuekin aurkittu nintzan. Esate baterako *noruntz* ala *norutz* idatzi bihar genduke? *zuengan*, *zuegan* ala *zuean*, *zuengana*, *zuegana* ala *zueana...*, *horrengandik*, *horregandik* ala *horreandik...*, *amaren etxia* ala *aman etxia*, *amarengana* ala *amagana* eta abar.

Lehelengo, Toribio Etxebarriaren FLEXIONES VERBALES DE EIBAR izeneko lanian daukan LAS DECLINACIONES izenburupeko GIZONA sustantibo mugatu edo determinaua zela deklinatzen daben aztertu neban. Bere erara eginda dauka, bai singularrian eta bai pluralian, baiña horixe bakarrik, besterik ez. Bihar bada, Toribio ez zan konturatu badala deklinabide mugagabe edo indeterminaua be eta horri ez zetsan ikutu be egin. Gaiñera “gizona” mugatu berbiaren deklinabidia bakarrik egin eban eta ez besterik, ezta *bizidunak* (animados) eta *bizigabiak* (inanimados) diranik be. Arrazoi guzti hórregaittik, esango neuke deklinaziño kontu hori ikutu bakarrik egin ebala eta hau biharrau egin bakua dala.

Dana dala, deklinabide mundua bera bakarrik nahiko haundixa da eta sakon eta zabal aztertzea merezi ebala pentsau neban. Baneukan halako taula (tabla) pillo bat eginda, baiña hasieran esan doran fonetikazko neure dudekin. Gauza bat da zela ahoskatzen edo pronunziatzen dogun eta zelan idatzi edo eskribidu bihar gendukian, seguru asko antxiña batian esaten genduzen letraren batzuk gaur egunian jan egiten dittugulako. Bihar bada, antxiña, *amarendako* esaten zana gerora *amandako* esan izan da, baiña nola idatzi? *amarendako*, *ama(re)ndako* ala *amandako*? eta *zein amaren semia* esaten zana gero *zein aman semia* baldin bada, zela idatzi?

Horretan, zorionez, Eibarko euskeriaren azterketa sakon baten arduraren gabizen batzuek 1997. urtian Portalian egin dittugun batzarretan fonetikazko zenbaitt aspektu aztertu dogu, zera, kaso bakoitza zela idatzi erabagitzeko. Holan, ahoskatze kontu horretan eibartar edo eibarrera berbetia zabal xamar hartuaz, nahikua zehatz, nahikua sakon aztertu eta eztabaidatu ondoren geure erabagixak hartu dittugu. Baiña, aurrez, Miren Azkarate euskaltzaiñari egindako bisitatxo batian harek emondako konsejuto batzuk kontuan hartu ondoren.

Neri dagokidanez, Eibarko euskal deklinabiderako lau-bost bat kasu erabagi dittugu eta nere lanari ekin detsat barriro, zera, geldittuta neukan lana aurrera eruateko. Esan biharra daukat, jakiña bada be, Eibarko gure euskal berbetiak inguruko bizkaiera formak dittuen fonetikazko fenomenologia bera daukala zati haundi batian, baiña geure berezittasun nabarmenak tartian dittuala, eta hórretxek dira, hain zuzen, agirixan jarri nahi dittugunak.

Eta, besterik barik, neure deklinabide lan hau taulaka taulaka presentatzen dot. Badakitt batek edo bestek esango dabela, “hau ez ete litzake hobeto hola?” edo “beste hau zegaittik ez beste hone-tara?”. Baiña halako galderak egiñak izan dittugu neure eta geure buruetan eta, edozein modutan be, atzen erabagixa hartu biharra egon da. Hona ba, hemen, nere lan hau.

Baiña aittatutako taula edo tablok emon baiño lehen, Toribio Etxebarriak bere LAS DECLINACIONES horretan diñuana ( Euskaltzaindiko EUSKERA aldizkarixak emona, VIII-IX, 1963-64 alian, 59. orrialdixan) nahi neuke azaldu hamen:

“En euskera las declinaciones, o mejor dicho, la declinación, porque no hay más que una sola, se verifica por desinencias que siempre van unidas a la raíz.

Son declinables en euskera el sustantivo, el adjetivo y los pronombres, y además el participio y los adverbios, cuando se emplean sustantivados o en oficios de adjetivo”.

Las desinencias de los casos en el habla de Eibar tienen las formas siguientes”:

Singular		Plural	
Nominativo	Gizona	Nominativo	Gizonak
Genitivo	Gizonan	Genitivo	Gizonen
Dativo	Gizonari	Dativo	Gizoneri
Acusativo	Gizona	Acusativo	Gizonak
Vocativo	Gizona	Vocativo	Gizonak
Ablativo	Gizonakin	Ablativo	Gizonekin
	Gizonagaz		Gizonegaz
	Gizonalako		Gizonenlako
	Gizonandako		Gizonendako
	Gizonantzat		Gizonentzat
	Gizonera		Gizonetara
	Gizonian		Gizonetan
	Gizonagana		Gizonengana
	Gizonagaittik		Gizonegaittik
	Gizonagandik		Gizonegandik
	Gizonerutz		Gizonetarutz
	Gizonetik		Gizonetatik
	Gizonerañok		Gizonetarañok

Horixe da Toribio Etxebarriak euskal deklinaziñuaren gaiñian diñuan gauza bakarra. Bere erara egindako horretan, singular atalian Ergatibo (Norek) kasorik ez dau aittatzen, ez eta Inesiborik (Norengan), ezta Norenganako kasorik be. Ostera, Hurbiltze Adlatibo (Noreganutz) kasuan Gizonerutz diño eta ez dot uste hori jatorra danik. Baitta, Gizonalako diño, baiña hori ez da deklinabide kasua, zegaittik-eze amaierako lako hori izenlagun edo adjetibua da (lako = bezelako, moduko). Orduan, kendu hobe.

Bada, Eibarren asko erabiltzen bada be eta Toribiok hala agertzen dau, Muga Adlatibo (Noraiño) kasuan Gizonerañok formia, “honañok”, “harañok”, “etxerañok” eta abar esaten diran moduan, baiña, nere uste apalian, hori deformaziño bat da eta nik *honaiño*, *haraiño*, *etxeraiño* eta horrela erabilliko dittut, zera, amaierako **-k** barik. Gaiñera, “gizoneraño” ordez *gizonaganaiño* erabilliko dot, eze, Gizona berbiaren deklinabidiari bizidun tratamientua dagokixo eta ez bizigabiena.

Eta, beste barik, sartu gaittezen ondorengo deklinabide tauletan zihar.

## **1 - IZENAREN DEKLINABIDIA**



## 1.1 - Izen arrunt bizidunen deklinabidia

### 1.1.1 - Konsonantez amaittuak : GIZON (1/2)

KASUA	Mugatu singular.	Mugatu plurala	Plural hurbilla
1- Absolutua	gizona	gizonak	gizonok
2- Partitibua	---	----	----
3- Ergatibua	gizonak	gizonak	gizonok
4- Datibua	gizonari	gizoneri	gizonori
5- Genitibua	gizonaren	gizonen	gizonon
6- Leku genitibua	----	----	----
7- Instrumentala	----	----	----
8- Soziatibua	gizonakin / gaz	gízonekin / gaz	gízonokin /gaz
9- Motibatibua	gizonagaittik	gízonengaittik	gísono(n)gaittik
10- Destinatibua	gizonantzat gizonandako	gízonentzat / gízonendako	gízonontzat gízonondako
11- Prolatibua	----	----	----
12- Inesibua	gizonagan	gízonengan	gísono(n)gan
13- Ablatibua	gizonagandik (1) <b>gizonetik</b>	gízonengandik (3) <b>gízonetatik</b>	gísono(n)gandik ----
14- Adlatibo soilla	gizonagana (2) <b>gizonera</b>	gízonengana (4) <b>gízonetara</b>	gísono(n)gana ----
15- Muga adlatibua	gizonaganaiño	gízonenganaiño	gísono(n)ganaiño
* - Muga adla.gain.eraiki.	gizonaganaiño	gízonenganaiño	gízononganaiño
16- Hurbiltze-adlatibua	gizonaganutz	gízonenganutz	gísono(n)ganutz
17- Adlatib.gaiñ.eraikixa	gizonaganako	gízonenganako	gísono(n)ganako
18- Banatzaillia	-----	-----	----

- Adibidiak:
- 1 - **Gízonok** Eibarren ez gara hain txarto bizi. (*gu gízonok*)
  - 3 - **Gízonok** agintzen ei dogu etxian, baiña andrak dira nagusi.
  - 4 - **Gízonori** ez jakuz asko gustatzen umekerixak.
  - 5 - Gaurko **gízonon** ohiturak ez dira atzokuenak lakuak.
  - 8 - Gaur zuekin **gízonokin** juango gara geu be.  
- Ez da ezer munduan **gizonagaz** zer ikusixa daben gauzarik, neri ardura ez destanik (TE).
  - 9 - Hórregaittik **gízonongaittik** gagoz gu egoera honetan.
  - 13 - Gu **gízonongandik** ez dozue barriketa gehixegi jasoko.
  - 13/14 - (1) (2) **Gizonetik gizonera** berba egingo dogu.  
**Gizonetik gizonera** bada alderik; ez dira danak bardiñak.
  - 14 - **Gízonongana** etortzen jakuz arazorik astunenak.
  - 15 - **Gízononganaiño** heldu jaku andrak darabixen ixilleko kontua.
  - 16 - Bialdiguzue emakumiok **gízononganutz**.
  - 17 - **Gízononganako** gorrotua daukazue zenbait andrak.

1.1.1 - Konsonantez amaittuak : GIZON (2/2)

KASUA	Mugagabia
1 - Absolutua	gizon
2 - Partitibua	gizonik
3 - Ergatibua	gizonek
4 - Datibua	gizoni
5 - Genitibua	gizonen
6 - Leku genitibua	----
7 - Instrumentala	<b>gizonez</b>
8 - Soziatibua	gizonekin / gaz
9 - Motibatibua	gizone(n)gaittik
10 - Destinatibua	gizonentzat gizonendako
11 - Prolatibua	gizontzat
12 - Inesibua	gizone(n)gan
13 - Ablatibua	gizone(n)gandik
14 - Adlatibo soilla	gizone(n)gana
15 - Muga - adlatibua	gizone(n)ganaiño
* - Muga adlatibo gaiñian eraikixa	gizone(n)ganaiño
16 - Hurbiltze - adlatibua	gizone(n)ganutz
17 - Adlatibo gaiñian eraikixa	gizone(n)ganako
18 - Banatzaillia	gizoneko

- Adibidiak:
- 1 - Zein **gizon** etorri da?
  - 2 - Hor ez dago **gizonik**.
  - 3 - **Bi gizonek** guzurra diñue.
  - 5 - **Hiru gizonen** indarra dauka.
  - 7 - **Gizonéz** dana beteta dago.  
- **Gizonéz** aspertuta ei dago hori andriori.
  - 8 - Ez daki zein **gizonékin** ( **gizonégaz** ) ezkondu.
  - 9 - **Bost gizonengaittik** bakarrik arduratu dira.
  - 10 - Hori ez da ona **edozein gizonentzat/dako**.
  - 11 - Guk behintzat **gizontzat** zaittugu.
  - 12 - **Zenbat gizonengan** daukazu konfiantzia?
  - 14 - **Hainbat gizonengana** juan da.
  - 16 - **Zein gizonenganutz** juan neiñ nahi dozu?
  - 18 - **Gizoneko** gaztai bana banatu eben.

## 1.1.2 - “-a” organikoz amaittuak: ANDRA (1/4)

KASUA	Mugatu singular	Mugatu plurala	Plural hurbilla
1- Absolutua	andria	ándrak	ándrok
2- Partitibua	---	----	----
3- Ergatibua	andriak	ándrak	ándrok
4- Datibua	andriari	ándreri	ándrori
5- Genitibua	andriaren	ándren	ándron
6- Leku genitibua	----	----	----
7- Instrumentala	----	----	----
8- Sozatiabua	andriakin / -gaz	ándrekin / -gaz	ándrokin / -gaz
9- Motibatibua	andriagaittik	ándre(n)gaittik	ándro(n)gaittik
10- Destinatibua	andriantzat andriandako	ándrentzat /-dako	ándrontzat/-dako
11- Prolatibua	----	----	----
12- Inesibua	andriagan	ándrengan	ándrongan
13- Ablatibua	andriagandik andratik	ándrengandik ándretatik	ándrongandik ándrotatik
14- Adlatibo soilla	andriagana andrara	ándrengana ándretara	ándrongana ándrotara
15- Muga adlatibua	andriaganaiño	ándrenganaiño	ándronganaiño
* - Muga adla.g.eraik.	andriaganaiño	ándrenganaiño	ándronganaiño
16- Hurbiltze-adlatibu.	andriaganutz	ándrenganutz	ándronganutz
17- Adlat.gaiñ.eraikia.	andriaganako	ándrenganako	ándronganako
18- Banatzaillia	----	----	----

- Adibidiak: 1 - “Nere *andria andra* ona da, auzuan .....
- “*Andria* gaurko egunez, *gizona* beste eskubidietan” (TE)
  - *Ándrok* eta *gizonok* alkarren arteko tikimikixetan beti.
- 1/3 - *Ándrak* datoz eta *ándrak* diñue, bata absolutua eta bestia ergatibua.
- 5/10 - *Gizonok* laga deiguzen *ándren* gauzak *ándrentzat*.
- 8 - Geure *ándrekin/gaz* baiño hobeto ez gabiz iñokin.
- Horri beti *ándrekin* ibiltzia gustatzen jakok.
- 9 - Nere *andriagaittik* edozer egingo neukek.
- 10 - *Andriantzat* erosi juat hau, baiña etxakixat gustoko izango daben.
- 12 - *Gizonok ándrongan* daukagu beti burua.
- 14 - Neure *andriagana* noia harrapatata, zain eukiko dot-eta.

1.1.2 - “-a” organikoz amaittuak: ANDRA (2/4)

KASUA	Mugagabia
1 - Absolutua	andra
2 - Partitibua	andrarik
3 - Ergatibua	andrak
4 - Datibua	andrari
5 - Genitibua	andraren
6 - Leku genitibua	---
7 - Instrumentala	andraz
8 - Soziatibua	andrakin / andragaz
9 - Motibatibua	andragaittik
10 - Destinatibua	andrarentzat / andrarendako
11 - Prolatibua	andratzat
12 - Inesibua	andra(ren)gan
13 - Ablatibua	andra(ren)gandik
14 - Adlatibo soilla	andra(ren)gana
15 - Muga - adlatibua	andra(ren)ganaiño
- Muga adlatibo gaiñian eraikixa	andra(ren)ganaiñoko
16 - Hurbiltze - adlatibua	andra(ren)ganutz
17 - Adlatibo gaiñian eraikixa	andra(ren)ganako
18 - Banatzaillia	andrako

- Adibidiak:
- 1 - Ze **andra** petrala dan hori, beti dago hasarre.
  - 1/3 - **Andra** askok uste dau oindiok *gízonen* bendian bizi dirala.
  - 2 - Simonek etxaukan **andrarik**, bakarrik bizi don gaiñera.
  - 4 - Zein **andrari** galdu jako dirua?
  - 5 - Ez dakizuela zein **andraren** semia dan hori gaztiori?.
  - 5/3 - **Andraren** batek bere guardasola laga dau hemen, ahaztuta.
  - 7 - **Andraz** inguratuta hago sukalde horretan; hori dok ámama.
  - 9 - Ez jakixau zein **andragaittik** daukaan hik burua galduta.
  - 11 - Mikelek gustora hartuko leuke Maritxu **andratzat**.
  - 13 - **Hiru andragandik** jaso dau erreka eta ez daki zer egin.
  - 14 - Gizon baldar horrek ez daki zein **andragana** juan dantzara.
  - 18 - Arabiak **andrako** hainbeste kameillu emon bihar izaten dabe.



## 1.1.2 - “-a” organikoz amaittuak: ALABA (3/4)

K A S U A	Mugatu singularra	Mugatu plurala	Plural hurbilla
1 - Absolutua	alabia	álabak	álabok
2 - Partitibua	----	----	-----
3 - Ergatibua	alabiak	álabak	álabok
4 - Datibua	alabiari	álaberi	álabori
5 - Genitibua	alabiaren	álaben	álabon
6 - Leku genitibua	-----	----	----
7 - Instrumentala	-----	----	----
8 - Soziatibua	alabiakin / gaz	álabekin / -gaz	álabokin / -gaz
9 - Motibatibua	alabiagaittik	álabengaittik	álabongaittik
10 - Destinatibua	alabiantzat /-dako	álabentzat / -dako	álabontzat
11 - Prolatibua	-----	----	-----
12 - Inesibua	alabiagan	álabengan	álabongan
13 - Ablatibua	alabiagandik	álabengandik	álabongandik
14 - Adlatibo soilla	alabiagana	álabengana	álabongana
15 - Muga adlatibua	alabiaganaiño	álabenganaiño	álabonganaiño
* - Muga adla.gaiñ.	alabiaganaiño	álabenganaiño	álabonganaiño
16 - Hurbiltze-adlat.	alabiaganutz	álabenganutz	álabonganutz
17 - Adla.gaiñ.eraik.	alabiaganako	álabenganako	álabonganako
18 - Banatzaillia	-----	-----	-----

- Adibidiak:
- 1 - Atzo **alabia** etorri jakuen Logroñotik, han bizi da-eta.
  - 1/3/8- Hórrek, danetik jakane, **álabak** eta semiak ugari, baiña **álabak** ez jetsane ezer ikasi. Ez jakiñe zer egin **álabokin**.
  - 3 - Romualdari **alabiak** kartia bialdu jetsan Alemaniatik.  
- Zorioneko ezkontzia egiñ ei detsu **alabiak** (TE).
  - 4 - **Alabiari** liburu ederra erregalau jetsanat.
  - 5 - Heure **álabon** esanetan bakarrik bahabil galduta hago.
  - 10 - Dana bere **álabentzat** dauka; ez detsa ezer opa bere buruari.
  - 12- Hirugarren **alabiagan** jarri dabe esperantza guztia.
  - 13 - Aitta zaharra batetik bestera darabixe, **álabengandik** semiengana.

1.1.2 - “-a” organikoz amaittuak: ALABA (4/4)

KASUA	Mugagabia
1 - Absolutua	alaba
2 - Partitibua	alabarik
3 - Ergatibua	alabak
4 - Datibua	alabari
5 - Genitibua	alabaren
6 - Leku Genitibua	----
7 - Instrumentala	alabaz
8 - Soziatibua	alabakin / alabagaz
9 - Motibatibua	alabagaittik
10 - Destinatibua	alabarentzat / alabarendako
11 - Prolatibua	alabatzat
12 - Inesibua	alaba(ren)gan
13 - Ablatibua	alaba(ren)gandik
14 - Adlatibo soilla	alaba(ren)gana
15 - Muga adlatibua	alaba(ren)ganaiño
- Muga adlatibo gaiñ.eraikixa	alaba(ren)ganaiñoko
16 - Hurbiltze adlatibua	alaba(ren)ganutz
17 - Adlatibo gaiñian eraikixa	alaba(ren)ganako
18 - Banatzaillia	alabako

- Adibidiak:
- 1 - Seme bat eta **alaba bi** dittugu. Baiña **alaba** bakarrakin bizi gara.
  - 2 - **Alabarik** ez daukanak ez daki zelako laguntasuna falta daben.
  - 3 - Ez dakigu zuen **zein alabak** euki daben umia.
  - 4 - **Hainbat alabari** egin izan jako ezkontzarako jantzi ederrik.  
**Alaba bati** derrigorrezko ezkontzia eragin zetsen.
  - 5 - **Horrenbeste alabaren** artian ez dittue danak ezagutzen. **Hainbeste** dittue!
  - 5/8 - Egixa da hori mutillori zuen **alabaren batekin** dabillena?
  - 7 - **Alabaz** ondo dagoz hórrek, badittue lau edo bost.
  - 8 - Baneki **zein alabakin** geldittu dan etxian..., baiña ez jakiñat.
  - 10- Ez neuke jakingo **zein alabarentzat** aukeratu hauxe soiñekuau.
  - 11- Ez eben ha neskia **alabatzat** hartu nahi izan.  
**Alabatzakua** ( -tzat + -ko) izan arren, maittiena eben (TE).
  - 17- **Edozein alabaganako** ahalegiñak egingo dittugu, bixondako bardin.

## 1.1.3 - “-e” bokalez amaittuak: SEME (1/2)

KASUA	Mugatu singular.	Mugatu plurala	Plural hurbilla
1- Absolutua	semia	semíak	semíok
2- Partitibua	----	----	----
3- Ergatibua	semiak	semíak	semíok
4- Datibua	semiari	semíeri	semíori
5- Genitibua	semiaren	semíen	semíon
6- Leku genitibua	----	----	----
7- Instrumentala	-----	----	----
8- Soziatibua	semiakin / -gaz	semíekin / -gaz	semíokin /-gaz
9- Motibatibua	semiagaittik	semíengaittik	semíongaittik
10- Destinatibua	semiantzat/-dako	semíentzat /-dako	semíontzat /-dako
11- Prolatibua	-----	----	----
12- Inesibua	semiagan	semíengan	semíongan
13- Ablatibua	semiagandik	semiengandik	semíongandik
	semetik	semíetatik	semíotatik
14- Adlatibo soilla	semiagana	semíengana	semíongana
	semera	semíetara	semíotara
15- Muga adlatibua	semiaganaiño	semíenganaiño	semíonganaiño
* - Muga adla.g.eraik.	semiaganaiño	semíenganaiño	semíonganaiño
16- Hurbiltze-adlatibua	semiaganutz	semíenganutz	semíonganutz
17- Adlat.gaiñ.eraikixa.	semiaganako	semíenganako	semíonganako
18- Banatzaillia	----	----	----

- Adibidiak: 1 - *Semia* ezkondu jako Juliori. Haren *semíak* jatorrak dira.  
 1/8- *Semíok* gora eta *semíok* behera, beti heure *semíokin* diharduk.  
 3 - Zure *semiak* badittu aitta(re)n urak (TE).  
 5 - *Semíen* esanak be oso kontuan hartu bihar dittugu.  
 Gaur eguneko *semíon* eta *álabon* kontuak ez dittun gure mundukuak.  
 9 - Euren *semiagaittik* dagoz hain ondo bizi izaten.  
 10 - *Semiantzat* erosi dot hau; *semiandako* boligrafo ederra, eztá?  
 12 - Joxek *semíongan* dauka jarritta itxaropen osua.  
 13 - Nahikua disgusto jaso dabe euren *semíongandik*.  
 14 - Gaur *semiagana* goiaz bazkaltzera.  
 17 - Bere *semíonganako* maittasun haundixa dauka Arantxak.

1.1.3 - “-e” bokalez amaittuak: SEME (2/2)

KASUA	Mugagabia
1 - Absolutua	seme
2 - Partitibua	semerik
3 - Ergatibua	semek
4 - Datibua	semeri
5 - Genitibua	semeren
6 - Leku genitibua	----
7 - Instrumentala	semez
8 - Soziatibua	semekin / semegaz
9 - Motibatibua	seme(ren)gaittik
10 - Destinatibua	semerentzat / semerendako
11 - Prolatibua	semetzat
12 - Inesibua	seme(ren)gan
13 - Ablatibua	seme(ren)gandik
14 - Adlatibo soilla	seme(ren)gana
15 - Muga adlatibua	seme(ren)ganaiño
* - Muga adlat. gaiñian eraikixa	seme(ren)ganaiñoko
16 - Hurbiltze - adlatibua	seme(ren)ganutz
17 - Adlatibo gaiñian eraikixa	seme(ren)ganako
18 - Banatzaillia	semeko

Adibidiak: 1 - *Zein seme* juan jatzue Tolosara bizi izaten?

1/5 - *Semerren bat* insumiso bidian jarri jakok Bartolori.

2 - Laugarrenekuak ez dake *semerik*, danak álabak baiño.

3 - *Bi semek* egin detse ingeniero karrera, ezta? Joño!

4 - *Hiru semeri* erosi detse pisua, baiña laugarrenari ez.

7 - *Semez* eta *alabaz* ondo dagoz hórrek; zortzi dittue danera.

10 - *Zein semerendako* ekarri dozu txamarra barri hau?

11 - *Semetzako* (-*tzat* + *ko*) daken mutilla euren odoleko letz maitte dabe.

12 - *Zein semegan* daukazue laguntasunik haundiña?

\*13/14 - *Semetik semera* ba dago alderik, ezbardiñak dira bixak.(bizigabien deklinabidia darabigu, biziduna izan arren)

18 - *Semeko* diru mordoxka bat laga dabe gurasuak.

## 1.2 - Izen berezixen deklinabidia (leku-izen / persona-izen)

### 1.2.1 - (-a) bokalez amaittuak : BEGOÑA

KASUA	Leku - izena “Bizigabia”	Persona - izena “Biziduna”
1 - Absolutua	Begoña	Begoña
2 - Partitibua	Begoñarik	Begoñarik
3 - Ergatibua	Begoñak	Begoñak
4 - Datibua	Begoñari	Begoñari
5 - Genitibua	Begoñaren	Begoñaren
6 - Leku genitibua	Begoñako	-----
7 - Instrumentala	Begoñaz	Begoñaz
8 - Soziatibua	Begoñakin / -gaz	Begoñakin / -gaz
9 - Motibatibua	Begoñagaittik	Begoñagaittik
10 - Destinatibua	Begoñantzat / -dako	Begoñantzat /-dako
11 - Prolatibua	Begoñatzat	Begoñatzat
12 - Inesibua	Begoñan	* Begoñagan
13 - Ablatibua	Begoñatik	* Begoñagandik
14 - Adlatibo soilla	Begoñara	* Begoñagana
15 - Muga adlatibua	Begoñaraiño	* Begoñaganaiño
- Muga adlatibo gainian eraiki.	Begoñaraiño	* Begoñaganaiño
16 - Hurbiltze - adlatibua	Begoñarutz	* Begoñaganutz
17 - Adlatibo gainian eraikixa	Begoñarako	* Begoñaganako
18 - Banatzaillia	Begoñako	Begoñako

\* Asteriskodunak agertzen dabe persona izenen berezitasuna

#### Adibidiak:

##### Leku - izena

- 3 - **Begoñak** ez dauka hain elixa ederra.
- 5 - **Begoñaren** izena oso ezaguna da.
- 6 - **Begoñako** Amabirgiñia Athletixan patronia da.
- 13 - **Begoñatik** Arrateraiño datoz.
- 14 - Bixar Bilboko **Begoñara** goiaz
- 15 - Atzo **Begoñaraiño** heldu giñan.
- 16 - **Begoñaruzko** bidia daroiagu.
- 17 - **Begoñarako** abade ona da hori.

##### Persona - izena

- **Begoñak** asko maitte zaittu zu.
- **Begoñaren** anaiakin nintzan eskolan (persona izena ez da deklinatzen Eibarren kasu honetan (“**Begoñaren baitako**”...)).
- **Begoñagandik** asko ikasiko dozue.
- **Begoñagana** noia, nere zain dago-eta
- Botaizu pelotia **Begoñaganaiño**.
- Joan zaittez **Begoñaganutz**.
- **Begoñaganako** maittasun haundixa daukat

1.2.2 - (-e) bokalez amaittuak : ARRATE

KASUA	Leku - izena "Bizigabia"	Persona - izena "Biziduna"
1 - Absolutua	Arrate	Arrate
2 - Partitibua	Arraterik	Arraterik
3 - Ergatibua	Arratek	Arratek
4 - Datibua	Arrateri	Arrateri
5 - Genitibua	Arrateren	Arrateren
6 - Leku Genitibua	Arrateko	-----
7 - Instrumentala	Arratez	Arratez
8 - Soziatibua	Arratekin / Arrategaz	Arratekin / -gaz
9 - Motibatibua	Arrategaittik	Arrategaittik
10 - Destinatibua	Arratentzat	Arratentzat
	Arratendako	Arratendako
11 - Prolatibua	Arratetzat	Arratetzat
12 - Inesibua	Arraten	* Arrategan
13 - Ablatibua	Arratetik	* Arrategandik
14 - Adlatibo soilla	Arratera	* Arrategana
15 - Muga adlatibua	Arrateraiño	* Arrateganaiño
- Muga adlat.gaiñ.eraikixa	Arrateraiñoko	* Arrateganaiñoko
16 - Hurbiltze - adlatibua	Arraterutz	* Arrateganutz
17 - Adlatibo gaiñian.eraikixa	Arraterako	* Arrateganako
18 - Banatzaillia	( <i>Arrateko</i> )	<i>Arrateko</i>

\*Asteriskodunak agertzen dabe persona-izenen berezitasuna.

Adibidiak:

**Leku - izena**

- 2 - Plaentxian ez dago *Arraterik*.
- 3 - *Arratek* bista ederrak daukaz.
- 4 - *Arrateri* oroitarri bat falta jako.
- 5 - *Arrateren* familia nahiko zabala da.
- 13 - *Arratetik* behera jende asko dator.
  - Eibartarrak, *Arratetikuak*, *Arratetik* jatxitzen dittuelako ume txikixak Eibarko ameri (TE).
- 14 - *Arratera* juateko egualdi ona hobe.
  - Ixutik *Arratera*, bide ederra zabaldu dabe (TE).
- 15 - Kalamuatik *Arrateraiño* jua gara.
- 16 - *Arraterutz* goiaz, patxadaz, txiri-txiri.
- 17 - *Arraterako* bidia konpondu dabe.

**Persona - izena**

- Norek ez dau ezagutzen *Arraterik*?
- *Arratek* liburu ederra erosi dau.
- *Arrateri* erlojua galdu jakon atzo.
- Badakigu zein dan *Arrateren* asmua.
- *Arrategandik* ikasi dot hau kantua.
- Zoiiaz *Arrategana*, aguro gero!
- *Arrateganaiño* bazindoiiaz hobe.
- *Arrateganutz* bazoiaz hobe, ez honutz.
- *Arrateganako* joeria dake hónek umiok.

## 1.2.3 - (-i) bokalez amaittuak : IRATI

KASUA	Leku - izena “Bizigabia”	Persona - izena “Biziduna”
1 - Absolutua	Irati	Irati
2 - Partitibua	Iratic	Iratic
3 - Ergatibua	Iratic	Iratic
4 - Datibua	Iratic	Iratic
5 - Genitibua	Iratic	Iratic
6 - Leku genitibua	Iratic	-----
7 - Instrumentala	Iratic	Iratic
8 - Soziatibua	Iratic / -gaz	Iratic / -gaz
9 - Motibatibua	Iratic	Iratic
10 - Destinatibua	Iratic / Iratic	Iratic / Iratic
11 - Prolatibua	Iratic	Iratic
12 - Inesibua	Iratic	*Iratic
13 - Ablatibua	Iratic	*Iratic
14 - Adlatibo soilla	Iratic	*Iratic
15 - Muga adlatibua	Iratic	*Iratic
* - Muga adla.gaiñ.eraiki.	Iratic	*Iratic
16 - Hurbiltze - adlatibua	Iratic	*Iratic
17 - Adlatibo.gaiñ. eraikixa	Iratic	*Iratic
18 - Banatzaillia	Iratic	Iratic

\*Gogoratu: asteriskodunak -gan- artizkiz bereizten dira “bizidunetan”

Adibidiak:

**Leku-izena**

- 1 - *Irati*, Naparruako baso garau zoragarria.
- 3 - *Iratic* entzute haundia dauka danian.
- 5 - *Iratic* luze-zabaleria zenbatekua ete?
- 6 - *Iratic* paguak ebagi dittue aizkoretan
- 14 - *Iratic* ez naiz aspaldixan jua.
- 17 - *Iratic* bidiak nahiko onak dira.

**Persona izena**

- *Irati* emakume izena be bada.
- *Iratic* auto barrira erosi dau.
- *Iratic* begiak ederrak dira.
- (Eibarren ez dogu bizidunetan)
- *Iratic* bazoiaz eruaixozu eraztuna.
- *Iratic* gorrotorik ez eizu euki.

1.2.4 - (-o) bokalez amaittuak: URKO

KASUA	Leku - izena “Bizigabia”	Persona - izena “Biziduna”
1 -Absolutua	Urko	Urko
2 -Partitibua	Urkorik	Urkorik
3 -Ergatibua	Urkok	Urkok
4- Datibua	Urkori	Urkori
5 -Genitibua	Urkoren	Urkoren
6 -Leku genitibua	Urkoko	-----
7 -Instrumentala	Urkoz	Urkoz
8 -Soziatibua	Urkokin / -gaz	Urkokin / -gaz
9 -Motibatibua	Urkogaittik	Urkogaittik
10-Destinatibua	Urkontzat / Urkondako	Urkontzat / -dako
11-Prolatibua	Urkotzat	Urkotzat
12-Inesibua	Urkon	*Urkogan
13-Ablatibua	Urkotik	*Urkogandik
14-Adlatibo soilla	Urkora	*Urkogana
15-Muga adlatibua	Urkoraiño	*Urkoganaíño
* -Muga adlatibo gaiñ.eraikixa	Urkoraiñoako	*Urkoganaíñoako
16-Hurbiltze - adlatibua	Urkorutz	*Urkoganutz
17-Adlatibo gaiñian eraikixa	Urkorako	*Urkoganako
18- Banatzaillia	-----	-----

Oharrak: . Asteriskodunak *-gan-* artizkiz bereizten ditue “bizidunak”.  
 . Banatzaillie kasua ez da normala izen berezixetan (propixuetan).

**Adibidiak:**

Leku - izena

Persona - izena

- |   |   |
|---|---|
| 1 - <i>Urko</i> Eibarko mendi bat da.         | - <i>Urko</i> Larrañaga kantarixa da.             |
| 2 - Elgeta aldian ez dago <i>Urkorik</i> .    | - Antxiñan ez genduan <i>Urkorik</i> ezagutzen.   |
| 3 - <i>Urkok</i> 793 metroko alturia dauka.   | - <i>Urkok</i> ahots (boza) nahiko ona dauka.     |
| 4 - <i>Urkori</i> zaletasun haundixa detsat.  | - Juan zakixoz <i>Urkori</i> , gaur bertan hobe.  |
| 14 -Urte Barri egunian <i>Urkora</i> goiaz.   | - Bixar <i>Urkogana</i> juango gara, bere etxera. |
| 17 -Hónek urki-landarok <i>Urkorako</i> dira. | - Mirenek <i>Urkoganako</i> zer berezixa dauka    |



1.2.5 - (-u) bokalez amaittuak: PERU

KASUA	Leku - izena “Bizigabia”	Persona - izena “Biziduna”
1 - Absolutua	Perú	Péru
2 - Partitibua	Perúrik	Péurik
3 - Ergatibua	Perúk	Péruk
4 - Datibua	Perúri	Péuri
5 - Genitubua	Perúren	Péuren
6 - Leku genitubua	Perúko	-----
7 - Instrumentala	Perúz	Péruz
8 - Soziatibua	Perúkin /-gaz	Pérukin /-gaz
9 - Motibatibua	Perúgaittik	Pérugaittik
10 -Destinatibua	Perúntzat / Perúndako	Péruntzat / Pérundako
11-Prolatibua	Perútzat	Péruzat
12-Inesibua	Perún	*Pérgan
13-Ablatibua	Perútik	*Pérgandik
14-Adlatibo soilla	Perúra	*Pérganana
15-Muga adlatibua	Perúraiño	*Pérganaiño
*-Muga adlatibo gainian eraikixa	Perúraiño	*Pérganaiño
16-Hurbiltze - adlatibua	Perúrutz	*Pérganutz
17-Adlatibo gainian eraikixa	Peruráko	*Pérganako
18-Banatzailia	-----	-----

Oharrak: . Asteriskodunak *-gan-* artizkiz bereizten ditue “bizidunak”.

. Banatzaille kasua ez da normala izen bereizetan.

A d i b i d i a k

Leku- izena

Persona - izena

- 1 - **Perú** Hego Amerikako herrixa da.
- 3 - **Perúk** 23 milloi inguru bizilagun ditu.
- 12 - Ez naiz iñoiz be **Perún** izan.
- 13 - **Perútik** barri txarrak datoz.
- 15 - Pizarro **Perúraiño** heldu zan.
- 17 - Beti **Peruráko** asmotan naiz, baiña...

- Nere lagun batek **Péru** dauka izena.
- Zuen **Péruk** ondo ezagutzen nau ni.
- **Pérgan** sinisten dot, jatorra da-eta.
- **Pérgandik** ikasitako kantuak dakizuez.
- **Pérganaiño** bazoiaz, egon zaittez berakin.
- Ezin dozu ezkutau **Pérganako** gorroto hori.

### 1.3 - Izen arrunt bizigabien deklinabidia

#### 1.3.1 - “Leku-izen” eta bizidun izan leikezenak. (1/3)

Leku-izena (Deklinabide “bizigabian”) : HERRI

KASUA	Mugatu singularra	Mugatu plurala	Plural hurbilla
1- Nor	herrixa	herríxak	herríxok
2- Norik	----	-----	-----
3- Norek	herrixak	herríxak	herríxok
4- Nori	herrixari	herríxeri	herríxori
5- Noren	herrixaren	herríxen	herríxon
6- Nungo	herriko	herríxetako	herríxotako
7- Nortaz/zertaz	----	-----	-----
8- Norekin	herrixakin /-gaz	herríxekin /-gaz	herríxokin /-gaz
9- Noregaittik	herrixagaittik	herríxegaittik	herríxogaittik
10- Norentzat	herrixantzat	herríxentzat	herríxontzat
Norendako	herrixandako	herríxendako	herríxondako
11- Nortzat	herritzat	-----	-----
12- Nun	herrixan	herríxetan	herríxotan
13- Nundik	herrittik	herríxetatik	herríxotatik
14- Nora	herrira	herríxetara	herríxotara
15- Noraiño	herriraiño	herríxetaraiño	herríxotaraiño
* - Noraiño	herriraiño	herríxetaraiño	herríxotaraiño
16- Norutz	herrirutz	herríxetarutz	herríxotarutz
17- Norako	herrirako	herríxetarako	herríxotarako
18- Banatzaillia	(mugagabian)	-----	-----

#### Adibidiak:

- 1 - Gure **herrixa** autoz beteta daukagu, ez dago nun aparkau be.  
- Foballa dala-eta, alkarren ondoko **herríxok** burrukan beti.
- 3 - Eibar inguruko **herríxak** gaur egunian lantegi hobiak dittue.
- 4 - Urkotik begiratu gure **herrixari** eta zulo batian ikusten da.
- 5 - Gure **herrixaren** izena antxiña San Andres de Heybar be bazan.  
- Lehenago, sail haundixak ziran **herrixa(re)nak** (TE).  
- Elgoibar eta Mendaro **herríxen** artian dago Altzola herritxua.
- 6 - Euskal **Herriko** jatorrizko berbetia euskera dogu.  
- **Herriko-etxian** batzen dira Errejidoriak, auzoko autuak erabagitzeko (TE).  
- **Herriko-tabernia** errematera atara dabe (TE).  
- Danian dira **Herriko-Jaun** edo Jauntxoak (TE).
- 12 - Eibarko **herrixan** ez dago lehen aiña (adiña) diru.
- 13 - Eibarko **herrittik** lantegi eta taillar asko jua da kanpora.
- 13/14- Gaurko gaziak **herríxetatik herríxetara** dabiz, baiña gabaz.
- 14 - Euskal presuak euskal **herríxetara** etorri biharra leukie.

## 1.3.1 - “Leku-izen” eta bizidun izan leikezenak. (2/3)

Leku-izena (Deklinabide “bizigabian”) : HERRI

KASUA	Mugagabia
1 - Absolutua	herri
2 - Partitibua	herririk
3 - Ergatibua	herrik
4 - Datibua	herriri
5 - Genitibua	herriren
6 - Leku genitibua	herrittako
7 - Instrumentala	herriz
8 - Soziatibua	herri(re)kin / herri(re)gaz
9 - Motibatibua	herrigaittik
10 - Destinatibua	herrirentzat / herrirendako
11 - Prolatibua	herritzat
12 - Inesibua	herrittan
13 - Ablatibua	herrittatik
14 - Adlatibo soilla	herrittara
15 - Muga adlatibua	herrittaraiño
* - Muga adlatibo gaiñian eraikixa	herrittaraiñoko
16 - Hurbiltze - adlatibua	herrittarutz
17 - Adlatibo gaiñian eraikixa	herrittarako
18 - Banatzaillia	herriko

## Adibidiak:

- 1 - “Bazkari herrikoia” txarto esanda dago. **Herri bazkarixa** da jatorra.  
- Galdaramiño gaiñetik, hiru edo lau **herri** ageri dira, kontuan hartu barik Eibarko herrixa (TE).
- 2 - Behelaiñua daguanian ez da **herririk** ikusten Kalamuatik.
- 2/1 - Motzailiak bagiña letz, **herririk-herri** eruan ginduezen (TE).
- 2/7 - Bersolarixak **herririk-herri**, **herriz-herri** dabiz beti kantuan.
- 3 - **Zenbat herrik** ete dauka Gipuzkuan etnografixa-museo bat?
- 4 - Ez zenduke jakingo esaten **zein herriri** detsazun maïttasun haundiña?
- 5 - Gaztetan Geografixan ikasittako **zenbat herriren** izena ahaztu dogun...!
- 6 - Badakizue Gipuzkuako **zein herrittako** mútillak diran hórrek?
- 11 - Urriñetik **herritzat** hartu genduana, harkatz mordo haundi bat zan.
- 12 - **Hainbeste herrittan** izan naiz, eze, ez neukez errez danak izentauko.  
- **Edozein herrittan** bizi izanda be bardin detsa euren mutillari.
- 13 - **Zenbait herrittatik** lehen baiño jende gehixago dator Eibarrera.  
- Mundu zabaleko **nahikua herrittatik** ekarrittako gauzak daukazuz!
- 17 - Bizkaiko **hiru herrittarako** asmotan gara, eguenian bueltatzeko.
- 18 - Diputaziñuak **herriko** hainbeste jasotzen dau kontribuziñua.

1.3.1 - “Leku-izen” eta bizidun izan leikezenak. (3/3)

Deklinabide “biziduna”: HERRI (Populua / pueblua)

K A S U A	Mugagabia	Mugatu singularra	Mugatu plurala
1 - Nor	herri	herrixa	herríxak
2 - Norik	herririk	----	----
3 - Norek	herrik	herrixak	herríxak
4 - Nori	herriri	herrixari	herríxeri
5 - Noren	herriren	herrixaren	herríxen
6 - Nungo	herrittako	herriko	herríxetako
7 - Nortaz	herriz	*) -----	*) -----
8 - Norekin	herrirekin /-gaz	herrixakin /-gaz	herríxekin /-gaz
9 - Noregaittik	herrigaittik	herrixagaittik	herríxegaittik
10 -Norentzat	herrirentzat	herrixantzat	herríxentzat
-Norendako	herrirendako	herrixandako	herríxendako
11 -Nortzat	herritzat	-----	-----
12 -Noregan	herriregan	herrixagan	herríxegan
13 -Noregandik	herriregandik	herrixagandik	herríxegandik
14 -Noregana	herriregana	herrixagana	herríxegana
15 -Noreganaiño	herrireganaiño	herrixaganaiño	herríxeganaiño
* -Noreganaiño	herrireganaiño	herrixaganaiño	herríxeganaiño
16 -Noreganutz	herrireganutz	herrixaganutz	herríxeganutz
17 -Noreganako	herrireganako	herrixaganako	herríxeganako
18 -Banatzaillia	herriko	-----	-----

\*) Nortazkoa edo instrumentala deitzen dana, Eibarren ez dogu esaten “**herrixaz berbetan dihardugu**” eta halakorik, “**herrixagaittik berbetan**” edo “**herrixaren gainian berbetan**” eta halakuak baiño. Baiña bai, esaten dittugu, “**herriz-herri ibilli**” edo “**herriz aspertuta nago eta mendira noia**” eta holakuak.

Adibidiak:

- 2 - Euskerarik ez badogu, ez daukagu euskal **herririk**.
- 4 - Euskeriak emon detsa gure **herrixari** euskal nortasuna.
  - Hirugarren munduko **zenbait herriri** edozer egitten detse.
- 8/1 - **Zein herrirekin** konparauko zenduke gure **herrixa**?
- 9 - Kanpoko **herríxegaittik** geuriagaittik baiño gitxiago ardura jaku.
- 13 - **Herrixagandik** ezer onik espero badogu, politiko zintzuak bihar dittugu.
- 14 - Guazen zintzo geure **herrixagana** eta erantzungo dau.
- 17 - Euskal **Herrixaganako** maittasun demasa daukat.
  - Afrikako **herríxeganako** zaletasun itzala daukat txiki-txikittatik.

## 1.3.2 - Izen arrunt edo komunen deklinabidia “bizigabian”.

Bokalez amaitzen diranak; [(-a) bokalez]: **ELIXA** (1/5)

KASUA	Mugagabia	Mugatu singularra	Mugatu plurala
1 -Absolutua	elixa	elixia	élixak
2 -Partitibua	elixarik	----	----
3 -Ergatibua	elixak	elixiak	élixak
4 -Datibua	elixari	elixiari	élixeri
5 -Genitibua	elixaren	elixiaren	élixen
6 -Leku genitibua	elixatako	elixako	élixetako
7 -Instrumentala	elixaz	-----	-----
8 -Soziatibua	elixakin /-gaz	elixiakin /-gaz	élixekin /-gaz
9 -Motibatibua	elixagaittik	elixiagaittik	élixegaittik
10 -Destinatibua	elixantzat	elixiantzat	élixentzat
	elixandako	elixiandako	élixendako
11 -Prolatibua	elixatzat	-----	-----
12 -Inesibua	elixatan	elixan	élixetan
13 -Ablatibua	elixatatik	elixatik	élixetatik
14 -Adlatibo soilla	elixalara	elixara	élixetara
15 -Muga adlatibua	elixataraiño	elixaraiño	élixetaraiño
* -Muga adla.gaiñ.er.	elixataraiñoko	elixaraiñoko	élixetaraiñoko
16 -Hurbiltze adlatibua	elixatarutz	elixarutz	élixetarutz
17 -Adlatibo gaiñ.eraik	elixatarako	elixarako	élixetarako
18 -Banatzaillia	elixako	-----	

## Adibidiak:

- 1 - *Nahikua elixa* ikusi dogu Europan zihar ibilli garanian.
  - San Andres *elixia* bada, gitxienez, XIII. mende aurrekoa.
- 2/11 - Elgoibarko kanposantuan ez dago *elixarik*, ha *elixatzat* hartu badozu be.
- 3 - *Elixiak* debekauta dauka bedinkatutako ezkontzia hausitzia (TE).
- 4 - Arrateko *elixiari* aspaldi konpondu zetsen teillatua.
- 6 - Eibarko *zenbait elixátako* abádiak ez dake bihar larregirik.
  - Garai hartan, *elixako* jendiak (*abadiégaittik*) euzkixa hartzen eben (TE).
  - *Elixako* liburuagaz juaten zan mezetara (TE).
  - *Elixakuak* ekarri detsez auzoko gizonari (TE).
  - *Elixakuen* kanpaia izan da (TE).
- 7 - Atsotxo hori *elixaz-elixa* dabil beti, santuak jaten.
- 12 - *Zein elixatan* izan zara, Parrokixan ala Karmélitetan. -Parrokixako *elixan*.
  - Euskal Herriko *élixetan* argizaiolak erabiltzen ziran lehen.
  - Alboko andra gaztiak gaur egiñ dau *Elixan* sartzia (TE).
  - *Elixan* sartzia dator Lege Zaharretik. Lev.12,1-8 (TE).
- 13 - *Zein elixátatik* datorrela diñozu hau jentiau? -Estaziño kaleko *elixatik*.

1.3.2 - Izen arrunt edo komunen deklinabidia “bizigabian”.

Bokalez amaitzen diranak; [(-e) bokalez]: **KALE** (leku-izena)-(2/5)

K A S U A	Mugagabia	Mugatu singularra	Mugatu plurala
1- Absolutua	kale	kalia	kalíak
2- Partitibua	kalerik	----	----
3- Ergatibua	kalek	kaliak	kalíak
4- Datibua	kaleri	kaliari	kalíeri
5- Genitibua	kaleren	kaliaren	kalíen
6- Leku genitibua	kaletako	kaleko	kalietak
7- Instrumentala	kalez	----	----
8- Soziatibua	kalekin /-gaz	kaliakin /-gaz	kalíekin /-gaz
9- Motibatibua	kalegaittik	kaliagaittik	kalíegaittik
10- Destinatibua	kale(re)ntzat	kaliantzat	kalíentzat
	kale(re)ndako	kaliandako	kalíendako
11- Prolatibua	kaletzat	-----	----
12- Inesibua	kaletan	kalian	kalíetan
13- Ablatibua	kaletatik	kaletik	kalietatik
14- Adlatibo soilla	kaletara	kalera	kalietara
15- Muga adlatibua	kaletaraiño	kaleraiño	kalietaraiño
* - Muga adla.gaiñ.eraik.	kaletaraiño	kaleraiño	kalietaraiño
16- Hurbiltze adlatibua	kaletarutz	kalerutz	kalietarutz
17- Adlatibo gaiñ. eraiki	kaletarako	kalerako	kalietarako
18- Banatzaillia	kaleko		

Adibidiak:

- 1 - Antxiñako gure **kalíak** gaurkuak baiño polittaguak ziran.  
 - *Txirixo kalia* zan gure txikittako jolas tokixa (TE).  
 - **Kalia** ala basarrixa nahixago dozu? (TE).
- 2/1 - **Kalerik-kale** doia tanboliña zezena(re)na jotan (TE).
- 3 - Eibarko *hiru kalek* Etxebarria izena dake.
- 4 - *Zenbaitt kaleri* izena aldatu detse Eibarren. Esate baterako: Dos de Mayo **kaliari**, Maria Angela **kaliari**, eta beste batzueri.
- 6 - San Andres **kaleko** jentia bazkarixa egiten dau urtero.
- 12 - Gure gazte denboran joku eta jolas asko egiten genduan **kalian**.
- 12/7- Gabetan gazterixa haundixa dabil **kalíetan** zihar, jota-ke **kalez-kale**.
- 13 - Gure herriko *hainbat kaletatik* behera ura dator.
- 14 - Hogei urtian beragaz eukittako bihargiña bota dau **kalera** (TE).
- 17 - *Zein kaletarako* ekarri dittue hónek farolok?

## 1.3.2 - Izen arrunt edo komunen deklinabidia “bizigabian”.

Bokalez amaitzen diranak; [(-i) bokalez]: **MENDI** (leku-izena)-(3/5)

KASUA	Mugagabia	Mugatu singularra	Mugatu plurala
1- Absolutua	mendi	mendixa	mendíxak
2- Partitibua	mendirik	----	-----
3- Ergatibua	mendik	mendixak	mendíxak
4- Datibua	mendiri	mendixari	mendíxeri
5- Genitibua	mendiren	mendixaren	mendíxen
6- Leku genitibua	mendittako	mendiko	mendíxetako
7- Instrumentala	mendiz	----	-----
8- Soziatibua	mendirekin/-gaz	mendixakin /-gaz	mendíxekin/-gaz
9- Motibatibua	mendigaittik	mendixagaittik	mendíxegaittik
10- Destinatibua	mendirentzat	mendixantzat	mendíxentzat
	mendirendako	mendixandako	mendíxendako
11- Prolatibua	menditzat	-----	-----
12- Inesibua	mendittan	mendixan	mendíxetan
13- Ablatibua	mendittatik	mendittik	mendíxetatik
14- Adlatibo soilla	mendittara	mendirara	mendíxetara
15- Muga adlatibua	mendittaraiño	mendiraiño	mendixetaraiño
* - Muga adla.gaiñ.eraik.	mendittaraiño	mendiraiño	mendixetaraiño
16- Hurbiltze adlatibua	mendittarutz	mendirutz	mendíxetarutz
17- Adlatibo gaiñ. eraiki.	mendittarako	mendirako	mendíxetarako
18- Banatzaillia	*mendiko		

\* mendiko = mendi bakoitzeko

## Adibidiak:

- 1 - Euskal Herriko *mendíxak* zoragarriak dira.  
- Eibarko *zein mendi* gustatzen jatzu gehixen? -Neri Urko *mendixa*.
- 2 - Iñurrategi anaiak Himalayako *mendirik* altuenak igo dittue.  
2/1/4 - *Mendirik-mendi* ebillen igesika (TE). *Mendirik-mendiko* letaia (TE).
- 6 - *Mendíxetako* haixia hartzia kale-zuluetakua baiño hobia dogu.
- 7 - *Mendiz* ibiltzia bai dala ederra, neretzat itsasoz baiño hobia.
- 10 - *Mendixantzat (mendixandako)* txarra da hainbeste baso kentzia.
- 11 - *Menditzat* hartu genduana urriñeko laiñu haundi bat zan.
- 12 - Jai-egun gehixenetan *mendixan* izaten giñan (TE).
- 14/12 - Ene! *zenbat mendittara* juaten giñan gaztetan! Beti *mendixan* giñan.
- 15/2 - Gorbeixa *mendiraiño* ibillixa egin dogu, *mendirik-mendi* egun osuan.
- 16 - Zu beti zeuriari eusten, ahuntzak *mendirutz* joten daben moduan.
- 17 - Pirineo *mendíxetarako* asmua daukagu datorren aste-bururako.

1.3.2 - Izen arrunt edo komunen deklinabidia “bizigabian”.

Bokalez amaitzen diranak; [(-o) bokalez]: **ITSASO** (leku-izena)-(4/5)

KASUA	Mugagabia	Mugatu singularra	Mugatu plurala
1- Absolutua	itsaso	itsasua	itsásuak
2- Partitibua	itsasorik	---	----
3- Ergatibua	itsasok	itsasuak	itsásuak
4- Datibua	itsasori	itsasuari	itsásueri
5- Genitibua	itsasoren	itsasuaren	itsásuen
6- Leku genitibua	itsasotako	itsasoko	itsásuetako
7- Instrumentala	itsasoz	----	-----
8- Soziatibua	itsasorekin/-gaz	itsasuakin /-gaz	itsásuekin /-gaz
9- Motibatibua	itsasogaittik	itsasuagaittik	itsásuegaittik
10- Destinatibua	itsasorentzat	itsasuantzat	itsásuentzat
11- Prolatibua	itsasorendako	itsasuarendako	
	itsasotzat	-----	-----
12- Inesibua	itsasotan	itsasuan	itsásuetan
13- Ablatibua	itsasotatik	itsasotik	itsásuetatik
14- Adlatibo soilla	itsasotara	itsasora	itsásuetara
15- Muga adlatibua	itsasotaraiño	itsasoraiño	itsásuetaraiño
* - Muga adla.gaiñ.eraik.	itsasotaraiñoko	itsasoraiñoko	itsásuetaraiñoko
16- Hurbiltze adlatibua	itsasotarutz	itsasorutz	itsásuetarutz
17- Adlatibo gaiñ. eraiki.	itsasotarako	itsasorako	itsásuetarako
18- Banatzaillia	itsasoko		

Adibidiak:

- 1 - Hau *itsasua*, / bildurgarria, / hamaika gizon galdu / ta ondik hasarria (TE).
- 2/1 - Eibarrek ez dauka *itsasorik*, baiña bere inguruak *itsaso* asko dauka.
- 3 - *Itsasuak* bildurra emoten detsa gure umiari.
  - Poluetako izotzak urtuko balitzaz, *itsásuak* 6 metro igoko ei leukie.
- 5 - Munduko *itsásuen* izenak jakitzia ona da, geure *itsasuarena* letz.
- 6 - *Zein itsasotako* arraiña da hori? Ze rarua dan, ezta?
  - Gure *itsasoko* ura beste zenbait *itsasotakua* baiño zikiñagoa da.
- 7 - Gu autopistaz juaten gara Donostiara, baiña *itsasoz* be juan geinke.
- 12 - Zenbat euskaldunek daki *zein itsasotan* ibilli zan Sebastian Elkano?
- 14 - Ni gustora juaten naiz *itsasora*, baiña mendira gustorago.
  - Caribeko *itsasuetara* eta hango lúrrretara juango nintzake pozik.
- 16 - Aurten igez baiño gitxiago egingo dogu *itsasorutz*.



## 1.3.2 - Izen arrunt edo komunen deklinabidia “bizigabian”.

Bokalez amaitzen diranak; [(-u) bokalez]: **BURU** (5/5)

KASUA	Mugagabia	Mugatu singularra	Mugatu plurala
1- Absolutua	buru	burua	burúak
2- Partitibua	bururik	----	----
3- Ergatibua	buruk	buruak	burúak
4- Datibua	bururi	buruari	burúeri
5- Genitibua	bururen	buruaren	burúen
6- Leku genitibua	burutako	buruko	burúetako
7- Instrumentala	buruz	----	----
8- Soziatibua	bururekin/ -gaz	buruakin/-gaz	burúekin /-gaz
9- Motibatibua	burugaittik	burugaittik	burúegaittik
10- Destinatibua	bururentzat	buruantzat	burúentzat
	bururendako	buruandako	burúendako
11- Prolatibua	burutzat	-----	-----
12- Inesibua	burutan	buruan	burúetan
13- Ablatibua	burutatik	burutik	burúetatik
14- Adlatibo soilla	burutara	burura	burúetara
15- Muga adlatibua	burutaraiño	bururaiño	burúetaraiño
* - Muga adla.gaiñ.eraikixa	burutaraiño	bururaiño	burúetaraiño
16- Hurbiltze adlatibua	burutarutz	bururutz	burúetarutz
17- Adlatibo gaiñ. eraikixa	burutarako	bururako	burúetarako
18- Banatzaillia	buruko	----	-----

- Adibidiak:
- 1 - **Burua** da gorputzaren alderik nausiña (TE).
    - Atzo gabeko batzarrian **buru** zure semia (TE).
    - Ezer ez dakenen **buru** jarri zan (TE)
  - 2 - Ez dozu **bururik** euki hau egitterakuan (TE).
  - 2/1 - Halako **bururik** ez dot ezagutu; haxe bai dala **buru** azkarra!
  - 4 - Egiñ eban kaltia ikusitta **buruari** heldu zetsan, baiña berandu.
  - 6 - Analjesiko bategaz kentzen da **buruko** miña, baiña ez haundi izan guriak ekartzen dittuan **buruko** miñak (TE).
  - 7 - Gauza guztiak **buruz** ikasi bihar izaten genduzen gaztetan eskolan.
    - **Buruz** ekixazen euskal kantu guztiak (TE).
    - **Buruz behera** esegi eben zugatz batetik (TE).
    - Badira judixuen artian, **buruz** ikasten dabenak Eskritura guztia (TE).
  - 11 - Laster **burutzat** hartuko dabe hori, benetako liderra da.
  - 12 - **Buruan** daukaraz hamar mandamentuak (TE).
    - Bere emaztiak **buruan** sartu zetsan Macbeth-i, Erregia hiltzia (TE).
    - **Buruan** sartu jako Arratera igotzia dagan beruakiñ (TE).
    - **Zein burutan** kabitzen da halako astakerixarik!
  - 13 - Ez horri kaso askorik egin, **burutik** eginda dago-eta.
    - Andra koittaua, **burutik** egitten ebalabillen (TE).
  - 15 - Hórrekiñ umiokin bazabiz, **bururaiño** eginda amaittuko dozu
  - 17/10 - Ez dira bardiñak **bururako** eta **buruandako** esatia. Zein da aldia?
  - 18 - Hartzak akabatzen daben ardi **buruko** hamar milla pezeta emoten detsa Naparruako Diputaziñuak artzaiñari.

1.3.3 - Izen arrunt edo komunen deklinabidia “bizigabian”.  
konsonantez amaitzen diranak: **IBAR** (leku-izena)

KASUA	Mugagabia	Mugatu singularra	Mugatu plurala
1- Absolutua	ibar	ibarra	ibárrak
2- Partitibua	ibarrik	----	----
3- Ergatibua	ibarrek	ibarrak	ibárrak
4- Datibua	ibarra	ibarrari	ibárreri
5- Genitibua	ibarren	ibarraren	ibárren
6- Leku genitibua	ibarretako	ibarreko	ibárretako
7- Instrumentala	ibarrez	----	----
8- Sozietibua	ibarrekin/ -gaz	ibarrakin/-gaz	ibárrekin /-gaz
9- Motibatibua	ibarregaittik	ibarragaittik	ibárregaittik
10- Destinativua	ibarrentzat	ibarrantzat	ibárrentzat
	ibarrendako	ibarrandako	ibárrendako
11- Prolativua	ibartzat	-----	-----
12- Inesibua	ibarretan	ibarrian	ibárretan
13- Ablativua	ibarretatik	ibarretik	ibárretatik
14- Adlatibo soila	ibarretara	ibarrera	ibárretara
15- Muga adlatibua	ibarretaraino	ibarreraino	ibárretaraino
* - Muga adla.gaiñ.eraikixa	ibarretarainoko	ibarrerainoko	ibárretarainoko
16- Hurbiltze adlatibua	ibarretarutz	ibarrerutz	ibárretarutz
17- Adlatibo gaiñ. eraikixa	ibarretarako	ibarrerako	ibárretarako
18- Banatzaillia	ibarreko	----	-----

**Oharra:** *Ibar*, konsonantez amaitzen dan hau leku-izen arruntau deklinabide tauletan jartzia ego-kixa dala begitandu jaku, Eibarren gaur egunian ez badarabigu be, Toribio Etxebarriaren *Lexikoiak* badakarrenez eta toponimian behintzat agertzen jakunez (*Ibarra*, *Ibarbea*, *Ibargaiñ*, *Ibarkurutzia*, *Ibarzabal*), eta Udalian “*Ego-Ibarra*” deitzen dan batzorde bat dagan ezkerero.

**Adibidiak:**

- 1 - *Zenbat ibar* egongo da ba, erreka barik?. Erreka bako *ibárrak* ez dira politak
- 2 - *Ibarrik* gehixenak dake erreken bat.
- 3 - *Zenbaitt ibarrek* ezkutuan dauka erreka. Pirinioetako *ibárrak* inguru ederrak dittue.
- 4 - *Zein ibarra* garbittu bihar detse erreka? Deba *ibarrari* garbittuko detse ibaia.
- 5 - *Zenbaitt ibarren* baztarrak ikusgarrixak dira. Nafarruako *ibárren* inguruak ederrak dira.
- 6 - *Zenbaitt ibarrétako* ibaia garbittu egin dira. *Ibárretako* ibaia nahikua zikin dare.
- 10 - *Zein ibarrendako* izango dira bidegintzarako diruak? Deba *ibarrandako* itxuria.
- 11 - *Ibartzat* dogunak ibar itxurarik be ez daka, errekarik be ez jako ikusten eta.
- 12 - *Zenbaitt ibarretan* erreka tapau dittue; nun eta Ego *ibarrian* hain zuzen be.
- 13 - *Hiru ibarretatik* datoz hónek berdurok. Pirinioetako *ibárretatik* datoz mendizaliak.
- 16 - *Zein ibarrétaruntz* juango zarie? Zuriza eta Ansoko *ibárretarutz*.

## 1.4 - Sustantibuen deklinabide mugagabia.

Eibarren beti erabili da ondo, jator eta zuzen euskal deklinabide mugagabia, eta euskal deklinabide mugagabe edo indeterminatu horrek ez dauka zer ikusirik erderazkuekin, eze gure hizkuntza desberdina da bestien aurrian.

Esate baterako *zenbait etxe* esaten badogu, *zenbait* adjetibo zenbatzaille mugagabia da eta euskeraz ez da pluralizatzen, baiña ez da sekula pluralizatzen *etxe* sustantibua be, nahiz eta espainolez *algunas casas* esan, eta frantsesez *quelques maisons*, eta ingelesez *several houses* eta abar.

Baiña gaur egunian erderiaren menpian sufritzen dogun erasua ikaragarria da eta euskal esamolde jatorrak laga eta erderazkuak hartzen ditu zenbait jendek, esan eta idatzi (eskribidu) gainera egiten ditu. Hori benetan da penagarria. Horregaitik ondo ikasi bihar dogu euskal deklinabide mugagabe jatorra, bihar dan moduan, ondo eta zuzen erabili degun.

Begira, zenbait irratitan entzundako eta aldizkaritatik jasotako deklinaziño mugagabe trakets hónek:

### T X A R T O

- “Seirehun eta *hirurogei personek* jaso zuten laguntza”
- “*Zein baldintzapean* egin dezakezun jakingo duzu”
- “Estatu espainiarreko *hainbat espetxetan*...”
- “Beraz, oreinak jarri ditzuzue *okeletarako*?”
- “*Bost ekitaldian* banatua agertu zuten”
- “*Miloi bat personengana* heltzen da”
- “*Hogei personen* kopurua ematen bada...”
- “*hainbat instrumentuentzako*...”
- “*Zenbait pelotetara* iritsi ere ez da egin”
- “Harluxet hiztegia *zortzi liburuetan* osatzen da”
- “*Zenbait lekuetan*...”
- “ikusiko degu nola urte *gutxietan*...”
- “*hogeiren bat personek* agertu dutena”
- “*hoge kilometroetako* lasterketa izango da”
- “*hainbeste gauzen* artean...”
- “*zortzi arloetan* eratu da”
- “horiek ez dira *nahikoak*”
- “*zenbait herrietatik* jende asko etorri zan”
- “*zenbait adituek* diotenez...”
- “*hamabost hizkuntzetara* itzulitako filmea”
- “horietatik *hamaikek* beren buruaz beste egin zuten”

### O N D O

- seirehun personak
- baldintzapetan
- hainbat espetxetan
- okeletarako
- bost ekitalditan
- personarengana
- hogei personarenen
- instrumenturentzako
- zenbait pelotetara
- zortzi liburutan
- zenbait lekutan
- urte gutxitan
- personak
- 20 kilometrotako
- hainbeste gauzarenen
- zortzi arlotan
- ez dira nahikoa
- zenbait herritatik
- zenbait adituk
- 15 hizkuntzatara
- horietatik hamaikak

Ba bai, hórrek esaldixok eta holako beste asko esaten da gaur, gaizki, erderaren kopixia egiñaz. Euskeraz ez daukagu zegaitik pluralizatu sustantibua, nahiz eta erderaz horrela egiten bada be, eta kon-tuan izan Eibarren beti-beti ondo erabili izan dirala mugagabeko deklinaziñuak. Baiña, noiz eta nola deklinatu bihar ditzugu diñogun moduan?


1) Adjetibo zenbatzaille zehaztubako (indefinido) guztiekin: *zein*, *zenbat*, *hainbat*, *hainbeste*, *horrenbeste*, *makiña bat*, *iñungo (ezein)*, *nahiko*, *dozenaka*, *hamaika*...

eta,

2) Zenbatzaille edo numeral adjetibuekin: *bi*, *hiru*, *bost*, *zortzi*, *hamar*, *hamaika*, *milla*, *hoge bat*, *milla bat*, *ehundaka*, *millaka*.

Horretarako, ondoren eta beste barik, zera dogu onena, tabla sinoptiko bat emotea eta bertan, bi zutabe edo kolumnatan jarri adjetibo zenbatzaille zehaztugabiak alde batian eta deklinau bihar diran sustantibuak bestian eta bakoitxak nahi haiña konbinaziño egiñ ahal izango dittu.

### 1.4.1 - Mugagabiaren erabillera zuzenaren grafiko sinoptikua



Eta era horretan deklinatzen dira bokalez amaitzen diran berba guztiak: *kantu, gauza, ardura, persona, buru, kale, itturri, begi, neska, lo-galtze, seme, gazte...*

- Adibidiak:
- Hainbat etxetan bada zoritxarrik. -Zein etxeren fatxadia gustatzen jatzu?
  - Horrenbeste etxetako gauzarik ez dakit nik, bateko edo bittakua bakarrik.
  - Makiña bat kantu badaki gizon horrek. -Zein liburutan irakorri dozu hori?
  - Hamaika ardura eta lo-galtze emoten detsa bere lantegixak Simoni.
  - Hil honetan hiru bat liburu irakorri dot (=dittut).
  - Zortzi bat gaztek jardun eban (=eben) lan hori egitten.
  - Zenbait iturritatik ez dator ur onik Eibarren.
  - Hamaika burutan ez da haixia besterik, arinkerixia ugari.
  - Bost etxetatik hiruk bakarrik emon dau (= dabe) dirua.
  - Eskolan ikasi genduzen hainbeste gauzatatik batzuk ahaztu dittugu.
  - Ehundaka erakundek baietza emon detsa euskal presuak gerturatzari.

## 1.4.2 - PERSONA / GAUZA deklinabide mugagabian

Orrialde honetan *gauza* eta *persona* substantibak deklinauko ditugu, mugagabe eran, jakiña, *persona* (euskera batuan *persona*) eta *gauza* berbak ditugulako, hain zuzen be, asko baiña txarto erabiltzen diranak gaur egunian. Beti letz, aurretik taula eta gero adibidiak emongo dittut.

KASUA	PERSONA Biziduna	GAUZA Bizigabia
1- Absolutua	persona	gauza
2- Partitibua	personarik	gauzarik
3- Ergatibua	personak	gauzak
4- Datibua	personari	gauzari
5- Genitibua	personaren	gauzaren
6- Leku genitibua	-----	gauzatako
7- Instrumentala	personaz	gauzaz
8- Soziatibua	personakin / -gaz	gauzakin / -gaz
9- Motibatibua	personagaittik	gauzagaittik
10- Destinatibua	personarentzat	gauzarentzat
11- Prolatibua	personarendako	gauzarendako
	personatzat	gauzatzat
12- Inesibua	personagan	gauzatan
13- Ablatibua	personagaittik	gauzagaittik
14- Adlatibo soilla	personagana	gauzatara
15- Muga adlatibua	personaganaiño	gauzataraiño
* - Muga adla.gaiñ.eraikixa	personaganaiño	gauzataraiño
16- Hurbiltze adlatibua	personaganutz	gauzatarutz
17- Adlatibo gaiñ. eraikixa	personaganako	gauzatarako
18- Banatzaillia	personako	gauzako

Adibidiak:

- 3 - *Zenbait personak* esaten dabenakin kontuz ibilli bihar da.  
- *Makiña bat gauzak* entretenitzen nau; ez naiz aspertzen.
- 4 - *Nahiko personari* eta *gauzari* gertatzen jako gauza berbera.
- 8 - *Horrenbeste personakin* ez da hor errez zure andria ikustia.  
- Horrek *milla personakin* dauka hartu-emona.
- 12 - *Hainbat personagan* sinisten dot, baiña ez *askorengan*.  
- Batek daki *zenbat gauzatan* dabillen sartuta mutill hori.  
- *Bost gauzatan* bakarrik dauka burua jarritta, ez *gehixagotan*.
- 14 - *Milloi bat personagana* helduko da hau barrixau.
- 18 - *Personako* txartel bakarra emongo da eta ez gehixago.

Beste modu batian deklinatzen dira konsonantez amaitzen diran berbak. Orduan nahiz **mugagabian** nahiz **pluralian** bardin deklinatzen dira eta hori, zeragaittik, fonetikazko legiaren eragiñagaittik, baiña entonaziño desbardiña eukitzen dabe.

Halaxe dittugu *gizon, mutil, ikatz, mustur, edur, tontor, baldar...* eta abar

### M u g a g a b i a

- *Zenbait gizonén* esanak entzun.
- *Hainbat mutilléngandik* ikasi.
- *Edurrétan* ibiltzia gustatzen jako.
- *Zein tontorrétako* erretratua da?
- *Zein mutilléndako* liburua dakarzu?

### M u g a t u p l u r a l a

- *Gízonen* esanak ez dira beti egixa. (danenak)
- *Mútillehandik* ikasi dau neska horrek.
- Pirineoko *edúrretan* ibilli ziran.
- Ez dakizu hango mendi *tontórretako* izenik.
- Hau zuen eskolako *mútillehandako* da.

#### 1.4.3 - Mugagabe pluralen deklinabidia **-tzuk** atzizkiz.

Bada Eibarren asko erabiltzen dogun **mugagabe plural** deklinabidia, bai, **mugagabia**, baiña **plural** zentzunezkua eta hori **-tzu** atzizki edo sufijo bittartez egitten dogu. Oso eibartarra da. Esate baterako normalak dira honako esaldixak: *-zein mendit<sup>u</sup>zut<sup>an</sup> ibilli zarie?* - *Zein gizontzuk esan dabe hori?* eta abar, baiña, kontuz! ezin da esan *\*zein mendit<sup>u</sup>zuetan* edo *\*zein gizontzuek* eta halakorik, “*zein mendit<sup>u</sup>zut<sup>an</sup>”* eta “*zein gizontzuk*” baiño. Erabillera hau, ixa beti **zein** galdetzailiak erabiltzen da, plural baten barruan **zeintzuk** edo **nortzuk** diran jakin nahi danian. Esate baterako, esan deigun “*atzo mendi edérretan ibilli giñan*” eta berbalagunak erantzun leikixo: -“*zein mendit<sup>u</sup>zut<sup>an</sup> ibilli ziñazien ba?*” Horretarako, ikusi deigun taulatxo bat.

	<b>g i z o n</b>	<b>e t x e</b>	<b>m e n d i</b>
1 - Absolutua	gizontzuk	etxetzuk	menditzuk
2 - Partitibua	_____	_____	_____
3 - Ergatibua	gizontzuk	etxetzuk	menditzuk
4 - Datibua	gizontzuri	etxetzuri	menditzuri
5 - Genitibua	gizontzuren	etxetzuren	menditzuren
6 - Leku Genitibua	_____	etxetzutako	menditzutako
7 - Instrumentala	_____	_____	_____
8 - Soziatibua	gizontzugin/-gaz	etxetzugin/-gaz	menditzugin/gaz
9 - Motibatibua	gizontzugaittik	etxetzugaittik	menditzugaittik
10 - Destinatibua	gizontzurentzat gizontzurendako	etxetzurentzat etxetzurendako	menditzurentzat menditzurendako
11 - Prolatibua	gizontzutzat	etxetzutat	menditzutzat
12 - Inesibua	gizontzurengan	etxetzutan	menditzut <sup>an</sup>
13 - Ablatibua	gizontzugandik	etxetzutatik	menditzutatik
14 - Adlatibo soilla	gizontzugana	etxetzutara	menditzutara
15 - Muga adlatibua	gizontzugaraiño	etxetzutaraiño	menditzutaraiño
16 - Hurbiltze adlatibua	gizontzugarantz	etxetzutarantz	menditzutarantz
17 - Adlatib. gaiñ. eraik.	gizontzugaranako	etxetzutarako	menditzutarako

Eta, taula horretako deklinamoduak nola eta zela erabilli agertzeko, jarri deiguzen adibide batzuk, baiña kontuan euki, beti-beti plural baten barruan **zeintzuk** edo **nortzuk** batzuen jakin-nahixan dihardugunian erabiltzen dirala. Ia ba:

- Talde hartako *zein gizontzuk* egin dabe astakerixa hori?
- *Ze asmotzukin* ete zatozie gaur guregana hórrekin arpegixokin!
- Goiko kalian etxe batzuk erre dira. -*Zein etxetzuk* dira erre diranak?
- Ez dakit *zein gizontzuk* etorriko diran egin dogun deixaren erantzunaz.
- Listetako *zein gizontzuri* emon bihar detsazue aittatu dozuena?
- Baneki *zein etxetzuren* gaiñian diharduzuen berbetan...
- Pirineuetako *zein menditzuk* dittuzu gustokuen?
- *Zein gizontzukin* ibilli ziñan, ba, diñozun ibillaldi horretan?
- *Zein menditzutako* egurrak ekarri ete dittue hónek aizkolarixok!
- Ezingo neuke esan *zein menditzutarako* gogua daukaran.
- Hor behe-aldeko ez dakit *zein etxetzutan* lapurrak sartu ei dira.

Eta hórrek moduan beste edozein izen edo sustantibo gramatikal deklinau leike: *zein mutiltzuk...*, *zein neskatzukin...*, *zein txakurtzurendako janarixa...* eta abar.

## 1.5 - PORTALE / PORTALEA leku-izen berezixaren deklinabidia

Eibarren eraberritu dan **Portalea** leku-izenaren deklinaziñua aurrera bota baiño lehen, kontsideraziño batzuk egin nahi nittukez.

Izen hori erabagitzeko nahikua zirriparra, itzaleko eztabaidak, han eta hemen, egon ziran Eibarren, batek bere iritxi eta errazoiak emoten zittuan, eta beste batek beste batzuk eta harutzagokuaak beriak, **Portale** izan bihar ebala, honek, **Portalea** zala, zuzena, horrek, eta **Portalekua** bihar zala, harek. Ni neu ez nintzan burruka horretan sartu eta, gaiñera, ez zestan iñok galderarik be egin. Dana dala, **Portalea** erabagi eben atzenian, baiña nere ustez ez zan hori izen egokixena. Alde bate-tik, agiri zahar gehixenetan **Portale** agertzen dalako eta beste errazoi batzuegaittik be bai. Baiña arazua erabagitta dago eta **Portalea** bada aukeratua, **Portalea-ri** heldu bihar detsagu.

Baiña zela deklinau **Portalea**? **Urumea** ibaixa moduan balitza, **Urumeako**, **Urumeara**, **Urumeatik** eta abar, guk **Portaleako**, **Portaleara**, **Portaleatik** eta halakuak esan bihar gendukez, baiña hori ez da eibarrerazko fonetikan egokitzen, zegaittik eze, azken batian galdetu bihar genduke amaierako **-a** hori **-a** organikua ala artikulo mugatzaillia dan. Baiña **Portale** balitza, orduan, eibarrerazko ahoskera fonetiko jatorrez **Portalian**, **Portaleko**, **Portalera** eta horrela esango gendukez, baiña gaur ofizial antzera “**Portalean**” (nun=inesibo kasuan) idatzitta ikusten da eta badiruri sustraittuta daguala, daguaneko, nahiz eta oindiok irakurtzen dittugun “Portalekua”, “Portalekuan dago” eta halakuak. Baiña **Ermua** hartzen badogu ejenplotzat, **Ermuan**, **Ermukua**, **Ermura** eta horrela egingo genduke **Portale-a**-kin, zera, kaso absolutuan **Portalea** erabili eta inesibuan **Portalean**, baiña gero **Portale** balitza letz deklinau ondorengo danak, bitxikerixa inkongruentia badiruri be. Eta horixe egingo dogu:

1 -	Absolutuan	(Nor)	* Portalea
2 -	Partitibuan	(Norik)	Portalerik
3 -	Ergatibuan	(Norek)	Portalek
4 -	Datibuan	(Nori )	Portaleri
5 -	Genitibuan	(Noren )	Portaleren
6 -	Leku-genitibuan	(Nungo)	Portaleko
7 -	Instrumentalian	(Nortaz)	Portalez
8 -	Soziatibuan	(Norekin / -gaz)	Portalekin /-gaz
9 -	Motibatibuan	(Noregaittik)	Portalegaittik
10 -	Destinatibuan	(Norentzat/-dako)	Portalentzat/-dako
11 -	Prolatibuan	(Nortzat)	Portaletzat
12 -	Inesibuan	(Nun)	* Portalean
13 -	Ablatibuan	(Nundik)	Portaletik
14 -	Adlatibo soillian	(Nora)	Portalera
15 -	Muga adlatibuan	(Noraiño)	Portaleraiño
16 -	Hurbiltze adlatibuan	(Norutz)	Portalerutz
17 -	Adlat. gaiñ. eraikixa	(Norako)	Portalerako
18 -	Banatzaillia		Portaleko

Horrela, esan dogun moduan, **Ermua** balitza letz deklinau dogu, nahiz eta bixok ez diran bardin bardiñak, ze, **Ermua** izenak zortzi kasutan hartzen dau **-a** artikulu mugatzaillia, laster ikusiko dogunez, eta **Portale**-k -eibarreraren fonetikiari bagagozkixo- absoluto eta inesibo kasuetan bakarrik - eta ez beste danetan- eruan bihar leuke, egokittasunez, dalako **-a** mugatzaillie hori; ez dago **-a** mugatzailliakin **Ermua** eta **Ermuan** bakarrik esaterik eta kitto. Ikusi:



Ermua, Ermurik, Ermuak, Ermuari, Ermuaren, Ermuko, Ermuz, Ermuakin/-gaz, Ermuagaittik, Ermuantzat/-dako, Ermutzat, Ermuana, Ermutik, Ermura, Ermuraino, Ermurainoko, Ermurutz, Ermurako.

Baiña, bixok ikusi deiguzen adibide batzuen bidez:

### 1.5.1 - ERMUA eta PORTALEA izenen esaldi deklinatuen adibidiak

#### ERMUA

- Ermua ikaragarri haunditu da
- Bariña aldera ez dago Ermurik.
- Ermuak industria haundixa dauka
- Ermuari zabáluniak falta jakoz.
- Ermuaren izena ezaguna da danian.
- Ermuko jende gehixena erdalduna da.
- Ermuz aspertu dala diño Joxek.
- Ermuakin hartu-emon onak Eibarrek.
- Ermuagaittik ez dabe askok ezer egin.
- Ermuantzat ondo dator Euskotrena.
- Ermutzat hartu dozuna Eitza da.
- Ermuan gau-argi ederrak jarri dittue.
- Ermutik Eibarrera bide motxa.
- Ermura bidia ez da erosua oiñezkuentzat.
- Ermuraino juaten da hori egunero.
- Ermurainoko ibillaldixa nahikua dozu.
- Bazatozie nerekin Ermurutz?
- Ermurako asmotan gara gaur.

#### PORTALEA

- Portalea Bista Eder kalia dago
- Gazterixiak ez eban ezagutzen Portalerik
- Portalek gela pillua dauka barruan.
- Portaleri ez jako ixa ezer falta.
- Portalaren izena erabiltzia nahikua gatxa.
- Portaleko bihargiñak udaletxetik etorritta.
- Portalez
- Portalekin badogu zer-ikusirik aspaldixan.
- Portalegaittik ez balitza, batzuek lanik ez.
- Portalentzat/-dako komenixa da hori.
- Portaletzat daukaguna, lehen "AYA" zan.
- Portalean berbaldi on-onak egon dira.
- Portaletik nator, berriz bertaratzeko.
- Portalera juan biharra daukat.
- Portaleraino lagundu detsagu Lierniri.
- Portalerainoko jentia dago kale honetan.
- Portalerutz juaten ikusi dot Fernando.
- Portalerako dira hónek mahaixok.

Ermuaren gaiñian hauxe adibidiau dakar Toribio Etxebarriak bere *Lexikoian: Mitxel-Ermu zan Ardanzan*.

Portalea izen propixua nolabait deklinau dogu eta, ondoren, euskera batuarekin egon leikian aldia ikusteko, bixak aurrez-aurre jarritta deklinatzen ahaleginduko gara.

Edozein modutan be, esango neuke, nahiz eibarreraz nahiz euskera batuz bardin bardin deklinau bihar dirala bixak, bakoitxari dagokixon bere fonetikazko legia ezarrirta; euskera batu kontuan, izan be, galdera bera egin bihar gendukialako, ia amaierako *-a* hori *-a* organikua ala *-a* mugatzaillia dan, jakiña, eta dirurixanez artikulo mugatzaillia da. Horregaittik, ezin detsagu aparteko tratamenturik emon euskera batuko deklinabidiari. Nere eritxixan, ez dot uste euskera batuz Portaleara, Portaleatik, Portalearako eta halakuak esan eta idatzi bihar dittugunik.

### 1.5.2 - PORTALEA izenaren deklinabide taula (eibarreraz / euskera batuz )

Eta, esandako danaren ondorixoz, hona hemen, Portalea izena, kasurik-kasu deklinauta, alde bate-tik eibarreraz eta ondoren euskera batuz, bixok aurrez-aurre tabla batian jarritta:

KASUA		EIBARRERAZ	EUSKERABATUZ
1 - Absolutua	(Nor)	<b>Portalea</b>	<b>Portalea</b>
2 - Partitibua	(Norik)	<b>Portalerik</b>	<b>Portalerik</b>
3 - Ergatibua	(Norek)	<b>Portalek</b>	<b>Portalek</b>
4 - Datibua	(Nori)	<b>Portaleri</b>	<b>Portaleri</b>
5 - Genitibua	(Noren)	<b>Portaleren</b>	<b>Portaleren</b>
6 - Leku genitibua	(Nungo)	<b>Portaleko</b>	<b>Portaleko</b>
7 - Instrumentala	(Nortaz)	<b>Portalez</b>	<b>Portalez</b>
8 - Soziatibua	(Norekin)	<b>Portalekin/-gaz</b>	<b>Portalerekin/-gaz</b>
9 - Motibatibua	(Noregaittik)	<b>Portalegaittik</b>	<b>Portalerengatik</b>
10 - Destinatibua	(Norentzat) / (Norendako)	<b>Portalentzat /</b> <b>Portalendako</b>	<b>Portalerentzat /</b> <b>Portalerendako</b>
11 - Prolatibua	(Nortzat)	<b>Portaletzat</b>	<b>Portaletzat</b>
12 - Inesibua	(Nun)	<b>Portalean</b>	<b>Portalean</b>
13 - Ablatibua	(Nundik)	<b>Portaletik</b>	<b>Portaletik</b>
14 - Adlatibo soilla	(Nora)	<b>Portalera</b>	<b>Portalera</b>
15 - Muga adlatibua	(Noraiño)	<b>Portaleraiño</b>	<b>Portaleraino</b>
- Muga adlat. gaiñ. eraik.		<b>Portaleraiño</b>	<b>Portalerainoko</b>
16 - Hurbiltze - adlatibua	(Norutz)	<b>Portalerutz</b>	<b>Portalerantz</b>
17 - Adlatibo gaiñ. eraikixa	(Norako)	<b>Portalerako</b>	<b>Portalerako</b>
18 - Banatzaillia		<b>( Portaleko )</b>	<b>( Portaleko )</b>

Esan biharra dago **Banatzaille** kasua raro txamarra egitten dala izen propixuetan. Esate baterako, egoki esan geinke “etxeko, famelixa bat” (etxe bakoitxeko), baiña nekez sortuko litxakigu esaterik “Gipuzkuako mapan billatzen destazun Ermuko, milla peseta emongo detsut” (Ermu izen bakotxeko esan nahi da).

Hor da, ba, bere egunian **Portale**, **Portalea** ala **Portalekua** izan bihar ebala eta hainbeste eztabai-da etara eban izenaren deklinabide kontua nolabaitt eratuta.

Eta amaitzeko, Toribio Etxebarriak bere Lexikoian **Portaleren** gaiñian dakazen adibidiak:

6 - Antxiñakua zan Unzagako Torria, baiña **Portalekua** antxiñakua(g)ua.

14 - Elgeta-kaletik **Portalera** bittartian Txirriztenekua.

## 1.6 - Diptongoz amaitutako berben deklinabidia.

### 1.6.1 - (-ai) diptongoz amaittuak: JAI / JAIXA / JAIXAK (bizigabian)

KASUA	Mugagabia	Mugatu singularra	Mugatu plurala
1- Absolutua	jai	jaixa	jáixak
2- Partitibua	jairik	---	----
3- Ergatibua	jaik	jaixak	jáixak
4- Datibua	jairi	jaixari	jáixeri
5- Genitibua	jairen	jaixaren	jáixen
6- Leku genitibua	jaittako	jaiko	jáixetako
7- Instrumentala	jaiz	jaixaz	jáixez
8- Soziatibua	jairekin /-gaz	jaixakin /-gaz	jáixekin /-gaz
9- Motibatibua	jairengaittik	jaixagaittik	jáixegaittik
10- Destinatibua	jairentzat	jaixantzat	jáixentzat
	jairendako	jaixandako	jáixendako
11- Prolatibua	jaitzat	-----	-----
12- Inesibua	jaittan	jaixan	jáixetan
13- Ablatibua	jaittatik	jaittik	jáixetatik
14- Adlatibo soilla	jaittara	jaira	jáixetara
15- Muga adlatibua	jaittaraiño	jairaiño	jáixetaraiño
* - Muga adla.gaiñ.eraikixa	jaittaraiñoko	jairaiñoko	jáixetaraiñoko
16- Hurbiltze adlatibua	jaittarutz	jairutz	jáixetarutz
17- Adlatibo gaiñ. eraikixa	jaittarako	jairako	jáixetarako
18- Banatzaillia	jaiko	----	----

#### Adibidiak:

- 1 - Ze *jai* dator ba oinguan? - San Juan *jaixak* datoz.
  - Aste guztian *jai* darabill (TE). Domeketan *jai* hartzen da (TE).
  - Hamarrak baiño lehen, *jai* emon detse bihargiñeri, aztorauta ebizelako idi-probiagaz (TE).
- 2 - Benittok ez dau aurten ixa *jairik* be hartu. Biharra eta biharra egin dau.
- 4 - Badakizue *zein jairi* detsaten amorro gehixen? “Hispanidad” *jaixari*.
- 5 - Beste *jairen batzuk* gehixago bagenduz bai ondo!
- 8 - Atzenian bat aspertu egitten da *jaixekin* be. Hainbeste *jai*...aspergarri.
- 9 - Zure bizitzan izan dittuzun *hainbeste jairengaittik* zagoz hain izurratuta.
- 12 - Hori *edozein jaittan* ibiltzen dok ondo; ardaua eran eta kantau eta kantau.
- 12/1- San Fermiñetako *jáixetan* bapo pasau izan dogu! hárek dira *jaixak*, hárek!
- 13 - *Hamaika jaittatik* etorri izan gaittuk geu be ple-ple eginda.
- 16 - Gabonetako *jáixetarutz* urreratuz goiaz: Gabon-*jáixetarako* beti pozik.
- 17 - Antxiñan, San Juan *jáixetarako* jantzi barrixak erosten genduzen.

1.6.2 - (-ei) diptongoz amaittuak: ANDRAGEI / ANDRAGEIXA / ANDRAGEIXAK  
(bizidunian)

KASUA	Mugagabia	Mugatu singularra	Mugatu plurala
1- Absolutua	andragei	andrageixa	andrageixak
2- Partitibua	andrageirik	----	----
3- Ergatibua	andrageik	andrageixak	andrageixak
4- Datibua	andrageiri	andrageixari	andrageixeri
5- Genitibua	andrageiren	andrageixaren	andrageixen
6- Leku genitibua	----	----	----
7- Instrumentala	andrageiz	andrageixaz	andrageixez
8- Soziatibua	andrageirekin/-gaz	andrageixakin/-gaz	andrageixekin/-gaz
9- Motibatibua	andrageigaittik	andrageixagaittik	andrageixegaittik
10- Destinatibua	andrageintzat	andrageixantzat	andrageixentzat
	andrageindako	andrageixandako	andrageixendako
11- Prolatibua	andrageitzat	-----	-----
12- Inesibua	andrageigan	andrageixagan	andrageixegan
13- Ablatibua	andrageigandik	andrageixagandik	andrageixegandik
14- Adlatibo soilla	andrageigana	andrageixagana	andrageixegana
15- Muga adlatibua	andrageiganaiño	andrageixaganaiño	andrageixegandaiño
* - Muga adla.gaiñ.eraikixa	andrageiganaiñoko	andrageixaganaiñoko	andrageixegandaiñoko
16- Hurbiltze adlatibua	andrageiganutz	andrageixaganutz	andrageixeganutz
17- Adlatibo gaiñ. eraikixa	andrageiganako	andrageixaganako	andrageixeganako
18- Banatzaillia	andrageiko	----	----

Adibidiak:

- 1 - *Andragei* soiñekua jantzi eta dotore jarri da gure neskia.
- 4 - Fraiskoren *andrageixari* gertatzen ez jakonik.....!
- 5 - Zein *andrageiren* soiñekua da hau?  
- *Andrageixaren* ustian formal zebillen Bittor.
- 7 - Iñazio *andrageiz* aspertu da, eta patxadaz nahi dau bizi.
- 8 - *Andrageixagaz* ibillera gozuak darabiz aspaldi zure semiak (TE).
- 9 - *Andrageixagaittik* edozer egingo neuke.
- 11 - Zuk *andrageitzat* daukazuak badauka beste lagun bat.
- 12 - *Andrageixagan* konfiantzarik ez badozu zeñekin izango dozu ba!
- 13 - *Andrageixagandik* ikasi dau horrek lorak zaintzen.
- 17 - Poetxio *andrageixaganako* amorixuak jota dago.
- 18 - Ezkontza egunian, *andrageiko* lora txortia emoten dau Udalak.

1.6.3 - (-oi) diptongoz amaittuak: KAMIOI / KAMIOIA / KAMIOIAK  
(bizigabian)

KASUA	Mugagabia	Mugatu singularra	Mugatu plurala
1- Absolutua	kamioi	kamioia	kamíoiak
2- Partitibua	kamioirik	----	----
3- Ergatibua	kamioik	kamioiak	kamíoiak
4- Datibua	kamioiri	kamioiari	kamíoieri
5- Genitibua	kamioiren	kamioiaren	kamíoien
6- Leku genitibua	kamioittako	kamioiko	kamíoietako
7- Instrumentala	kamioiz	----	-----
8- Soziatibua	kamioirekin/-gaz	kamioiakin/-gaz	kamíoiekin / -gaz
9- Motibatibua	kamioigaittik	kamioiagaittik	kamíoiegaittik
10- Destinatibua	kamioirentzat	kamioiantzat	kamíoientzat
	kamioirendako	kamioiandako	kamíoierendako
11- Prolatibua	kamioitzat	-----	-----
12- Inesibua	kamioittan	kamioian	kamíoietan
13- Ablatibua	kamioittatik	kamioittik	kamíoietatik
14- Adlatibo soilla	kamioittara	kamioira	kamíoietara
15- Muga adlatibua	kamioittaraiño	kamioiraiño	kamíoietaraiño
* - Muga adla.gaiñ.eraiki.	kamioittaraiño	kamioiraiño	kamíoietaraiño
16- Hurbiltze adlatibua	kamioitarutz	kamioirutz	kamíoietarutz
17- Adlatibo gaiñ. eraiki.	kamioitarako	kamioirako	kamíoietarako
18- Banatzaillia	kamioiko	----	-----

Adibidiak:

- 1 - Joxek *kamioi* ederra erosi dau, hori bai dala *kamioia*, ez lehengua.
- 2 - Nik ez dot bihar *kamioirik*, autotxo batekin nahikua dot.
- 3 - Zure *kamioiak* zarata haundixa etarutzen dau. -*Kamíoiak* danak etarutzen dabe.
- 5 - Alde deigun *kamíoien* ondotik urriñ, usain txarra dago-eta.
- 7 - Biharra aldatzera doia Martin, *kamioiz* neka-neka eginda dago-eta.
- 11 - Umetan ladrillo bati soka bat lotu eta *kamioitzat* erabiltzen genduan.
- 13 - Gerra denboran *kamíoietatik* mendi-zuluetan behera botatzen zittuen euskal presuak Naparruako Urbasa inguruan.
- 14 - Euskeraz ondo egitten ez eban gazte batek galdetu zetsan Turkua deitzen zetsen errekadista bati Maltzako aldaparan: -Zu, eruango destazu Eibarrera? Eta Turkiak erantzun zetsan, -Bai, botaik *kamioira*.
- 17 - Honek umionek *kamíoietarako* zaletasun ikaragarrixa dauka.

1.6.4 - (-au) diptongoz amaittuak: GAU / GABA / GABAK (bizigabian)

KASUA	Mugagabia	Mugatu singularra	Mugatu plurala
1- Absolutua	gau	gaba	gábak
2- Partitibua	gaurik	---	---
3- Ergatibua	gauk	gabak	gábak
4- Datibua	gauri	gabari	gáberi
5- Genitibua	gauren	gabaren	gáben
6- Leku genitibua	gautako	gabeko	gábetako
7- Instrumentala	gauez	----	-----
8- Soziatibua	gaurekin / -gaz	gabakin / -gaz	gábekin / -gaz
9- Motibatibua	gaugaittik	gabagaittik	gábegaittik
10- Destinatibua	gaurentzat	gabantzat	gábentzat
	gaurendako	gabandako	gábendako
11- Prolatibua	gautzat	----	-----
12- Inesibua	gautan	gabian	gábetan
13- Ablatibua	gautatik	gabetik	gábetatik
14- Adlatibo soilla	gautara	gabera	gábetara
15- Muga adlatibua	gautaraiño	gaberaíño	gábetaraiño
* - Muga adla.gaiñ.eraiki.	gautaraiñoko	gaberaíñoko	gábetaraiñoko
16- Hurbiltze adlatibua	gautarutz	gaberutz	gábetarutz
17- Adlatibo gaiñ. eraiki.	gautarako	gaberako	gábetarako
18- Banatzaillia	gauko	----	-----

**Oharra:** GAU berba sustantibuak ez dau egiten Eibarren, beste euskalki batzuetan moduan, GAU / *gaua* / *gauean* / *gaueko*... eta abar, GAU / GABA / GABIAN/ GABEKO... eta abar baiño.

Adibidiak:

- 1 - *Gau* ona pasau dau bart gure umiak.
- *Gabak* eta egunak labur egiten jakuz bizitza honetan.
- *Gaba*, zerua izarratuta eta giro ederrakin, eguna bezelako pozgarrixa (TE). Neguan *gabia* luzia izaten da (TE).
- 2 - Hil honetan ez dau *gaurik* galdu ama gaixua zaintzen.
- 4 - *Gabari* itzaleko bildurra detsa Mirentxuk bakarrik dagonian.
- 7 - Zan gizon bat, *gabaz* bizi zana (TE).
- 12 - Marruecosen soldau egon nintzarian gustora egoten nintzan *gábetan* zeruko harek izar ederrak begiraten, lurrian etzinda.
- 14 - *Gabera* orduko jota amaitzen dozu hainbeste lanekin.
- 16 - Gaur *gaberutz* eurixa egingo dau, sargori dago-eta.
- 18 - Klinikari egiten daben *gauko* doblia pagatzen detse.

## 1.7 - Leku-izen berezixen deklinabidia

### 1.7.1 - Bokalez amaitzen diran leku-izen berezixen deklinabidia. (1/2)

DONOSTIA (-a) / LASARTE (-e) / OÑATI (-i)

KASUA	DONOSTIA	LASARTE	OÑATI
1- Absolutua	Donostia	Lasarte	Oñati
2- Partitibua	Donostiarik	Lasarterik	Oñatirik
3- Ergatibua	Donostiak	Lasartek	Oñatik
4- Datibua	Donostiari	Lasarteri	Oñatiri
5- Genitibua	Donostiaren	Lasarteren	Oñatiren
6- Leku genitibua	Donostiako	Lasarteko	Oñatiko
7- Instrumentala	Donostiaz	Lasartez	Oñatiz
8- Soziatibua	Donostiakin/-gaz	Lasartekin/-gaz	Oñatikin/-gaz
9- Motibatibua	Donostiagaittik	Lasartegaittik	Oñatigaittik
10- Destinativua	Donostiantzat	Lasartentzat	Oñatintzat
11- Prolatibua	Donostiandako	Lasartendako	Oñatindako
	Donostiatzat	Lasartetzat	Oñatitzat
12- Inesibua	Donostian	Lasarten	Oñatin / Oñatixan
13- Ablatibua	Donostiatik	Lasartetik	Oñatititik
14- Adlatibo soilla	Donostiara	Lasartera	Oñatira
15- Muga adlatibua	Donostiaraiño	Lasarteraiño	Oñatiraiño
* - Muga adla.gaiñ.eraiki.	Donostiaraiñoko	Lasarteraiñoko	Oñatiraiñoko
16- Hurbiltze adlatibua	Donostiarutz	Lasarterutz	Oñatirutz
17- Adlatibo gaiñ. eraiki.	Donostiarako	Lasarterako	Oñatirako
18- Banatzaillia	-----	-----	-----

#### Adibidiak:

- 1/6 - **Donostia** onduan egon arren, ez dot oindiok **Lasarteko** zaldi karrerarik ikusi.
- 2 - Ez dot uste beste **Oñatirik** iñun dagoanik. Bakarra dala uste dot.
- 3 - **Oñatik** daukazen etxe zahar eta jauregi ederrik aiña leku gitxittan egongo da.
- 4 - **Oñatiri** be industrialde ikaragarria jaso detse bere inguruan.
- 5 - **Donostiaren** ederra (edertasuna) benetan da eder.
- 6 - **Oñatiko** Unibersidadia 1540garren urtian sortu zan eta 1807xan itxi.  
- **Oñatiko** gatzaiña heziagaz egindako zaria (TE).
- 6/17- **Donostiako** trena esatia ei da jator eta ez **Donostiarako** trena.
- 12 - Gaztetan Urbixan eta Aizgorrin ibilli ondoren **Oñatin** dantzan egitten genduan.
- 13/14 - **Donostiatik Lasartera** ez dago kilometro gitxi baiño. Alkar ikutzen dagoz.
- 14 - Bazatoz **Donostiara** Andra-Marixetan? (TE).

**Oharra:** Inesibuan **Oñatin** eta **Oñatixan**, bixak erabiltzen dittugu.

1.7.1- Bokalez amaitzen diran leku-izen berezixen deklinabidia. (2/2)

BILBO (-o) / ELORRIXO (-o) / MUTRIKU (-u)

KASUA	BILBO	ELORRIXO	MUTRIKU
1- Absolutua	Bilbo	Elorrixo	Mutriku
2- Partitibua	Bilborik	Elorrixorik	Mutrikurik
3- Ergatibua	Bilbok	Elorrixok	Mutrikuk
4- Datibua	Bilbori	Elorrixori	Mutrikuri
5- Genitibua	Bilboren	Elorrixoren	Mutrikuren
6- Leku genitibua	Bilboko	Elorrixoko	Mutrikuko
7- Instrumentala	Bilboz	Elorrixoz	Mutrikuz
8- Soziatibua	Bilbokin/-gaz	Elorrixokin/-gaz	Mutrikukin/-gaz
9- Motibatibua	Bilbogaittik	Elorrixogaittik	Mutrikugaittik
10- Destinatibua	Bilbontzat	Elorrixontzat	Mutrikuntzat
	Bilbondako	Elorrixondako	Mutrikundako
11- Prolatibua	Bilbotzat	Elorrixotzat	Mutrikutzat
12- Inesibua	Bilbon	Elorrixon	Mutrikun
13- Ablatibua	Bilbotik	Elorrixotik	Mutrikutik
14- Adlatibo soilla	Bilbora	Elorrixora	Mutrikura
15- Muga adlatibua	Bilboraiño	Elorrixoraiño	Mutrikuraiño
* - Muga adla.gaiñ.eraiki.	Bilboraiño	Elorrixoraiño	Mutrikuraiño
16- Hurbiltze adlatibua	Bilborutz	Elorrixorutz	Mutrikurutz
17- Adlatibo gaiñ. eraiki.	Bilborako	Elorrixorako	Mutrikurako
18- Banatzaillia	-----	-----	-----

Adibidiak:

- 1 - **Bilbo**, antxiñatik gure aldietako herririk haundiña (TE).
- 3 - **Bilbok** industria asko eta inportantzia galdu dau atzen urtietan.  
- **Elorrixok** be etxe eta jauregi zahar eder ederrak ditu.
- 4 - Guggenheim museuak baiño mesede gehiago egitten zetsan industriak **Bilbori**
- 6 - **Bilboko** Athletic futbol ekipua bigarren gelditu da aurtengo Ligan.  
- Eibarren bizi izan zan **Elorrixoko** gizon bati “**Elórrixo**” deitzen zetsen.  
- **Elorrixoko** Argiñeta paraje zoragarrian VIII-IX sigloko sarkofaguak dagoz.  
- **Elorrixoko** iturri nausixan ura erandakua ha be (TE).  
- **Mutrikuko** puertua txiki txikixa da, Ondarruakua baiño askoz txikixaua.
- 12 - **Mutrikun** eibartar askok pasatzen dau uda-aldixa.
- 13/14- **Bilbotik Elorrixorako** bidia ez da hain ona izan jua dan hainbat urtetan.
- 15 - Elgetatik zihar **Elorrixoraiño**ko ibillixa eginda gagoz gu.
- 16 - Elgoibartik Debara bittartian **Mutrikuruzko** bidia hartu izan dot sarritan.



1.7.2 - Konsonantez amaitzen diran leku-izen berezixen deklinabidia. (1/2)  
LEON / ARAGON / MONDRAGON

KASUA	LEON	ARAGON	MONDRAGON
1- Absolutua	Leon	Aragon	Mondragon
2- Partitibua	Leonik	Aragonik	Mondragonik
3- Ergatibua	Leonek	Aragonek	Mondragonek
4- Datibua	Leoni	Aragoni	Mondragoni
5- Genitibua	Leonen	Aragonen	Mondragonen
6- Leku genitibua	Leongo	Aragongo	Mondragoko (*)
7- Instrumentala	Leonez	Aragonez	Mondragoz
8- Soziatibua	Leonekin/-gaz	Aragonekin/-gaz	Mondragokin/-gaz
9- Motibatibua	Leongaittik	Aragongaittik	Mondragogaittik
10- Destinatibua	Leonentzat	Aragonentzat	Mondragontzat
	Leonendako	Aragonendako	Mondragondako
11- Prolatibua	Leontzat	Aragontzat	Mondragotzat
12- Inesibua	Leonen	Aragonen	Mondragon (*)
13- Ablatibua	Leondik	Aragondik	Mondragotik
14- Adlatibo soilla	Leonera	Aragonera	Mondragora
15- Muga adlatibua	Leoneraiño	Aragoneraiño	Mondragoraiño
* - Muga adla.gaiñ.eraiki.	Leoneraiñoko	Aragoneraiñoko	Mondragoraiñoko
16- Hurbiltze adlatibua	Leonerutz	Aragonerutz	Mondragorutz
17- Adlatibo gaiñ. eraiki.	Leonerako	Aragonerako	Mondragorako
18- Banatzaillia	-----	-----	-----

\* Inesibuan ez dogu esaten “Mondragonen egon naiz”, ez eta Leku genitibuan “Mondragongo” be, *Mondragon* eta *Mondragoko* baiño.

Adibidiak:

- 3 - *Aragonek* be, Naparruak moduan, mendi-kate ederrak ditu.
- *Mondragok* ikaragarritzko industria kooperatibua sortu dau.
- 6 - Eibarren *Leongo* eta *Aragongo* esaten ta, baiña *Mondragoko*.
- *Mondragoko* Portaloa ( ez Portalona) famosua da.
- 12 - Bai Eibarren eta baita *Mondragon* be San Juan jaixak nagusi.
- 14/6 - Guk ez dogu esaten “Aragoira” eta “Aragoikua” eta bai *Aragonera* eta *Aragonekua*.
- 14 - Ez naiz oindiok *Leonera* heldu, ez dakitt noiz juango naizen.
- Eibartik *Mondragora* bittartian demaseko trafikua dago.

1.7.2 - Konsonantez amaitzen diran leku-izen berezixen deklinabidia. (2/2)  
EIBAR / GORLIZ / ZARAUTZ

KASUA	EIBAR	GORLIZ	ZARAUTZ
1- Absolutua	Eibar	Gorliz	Zarautz
2- Partitibua	Eibarrik	Gorlizik	Zarautzik
3- Ergatibua	Eibarrek	Gorlizek	Zarautzek
4- Datibua	Eibarri	Gorlizi	Zarautzi
5- Genitibua	Eibarren	Gorlizen	Zarautzen
6- Leku genitibua	Eibarko	Gorlizeko	Zarauzko
7- Instrumentala	Eibarrez	Gorlizez	Zarautzez
8- Soziatibua	Eibarrekin/-gaz	Gorlizekin/-gaz	Zarautzekin/-gaz
9- Motibatibua	Eibarregaittik	Gorlizegaittik	Zarautzegaittik
10- Destinatibua	Eibarrentzat	Gorlizentzat	Zarautzentzat
	Eibarrendako	Gorlizendako	Zarautzendako
11- Prolatibua	Eibartzat	Gorliztzat	Zarauztzat
12- Inesibua	Eibarren	Gorlizen	Zarautzen
13- Ablatibua	Eibartik	Gorliztik	Zarautzik
14- Adlatibo soilla	Eibarrera	Gorlizera	Zarautzera
15- Muga adlatibua	Eibarreraiño	Gorlizeraiño	Zarautzeraiño
* - Muga adla.gaiñ.eraiki.	Eibarreraiño	Gorlizeraiño	Zarautzeraiño
16- Hurbiltze adlatibua	Eibarrerutz	Gorlizerutz	Zarautzerutz
17- Adlatibo gaiñ. eraiki.	Eibarrerako	Gorlizerako	Zarautzerako
18- Banatzaillia	-----	-----	-----

Adibidiak:

- 1 - Badirudi **Eibar** beheraka doiala bizilagunez, oindiok be.
  - **Eibar** hazi zanian, Ibergaiñ, Ibarkurutzia eta Ibarbehia barruan hartu zittuan (TE).
- 4 - **Eibarri** eta **Gorlizi** ez jakue bardin begiratu bihar, desbardiñak dira-eta.
- 6 - **Eibarko** industria gehixena kanpora jua da atzen 40 urtietan.
  - **Eibarko** txitxak oilluak; baiña beste leku batzuetako oilluak arranuak (TE).
- 10 - **Eibarrendako** gauzak asmatzen dihardue, baiña ez gara lehenguak.
- 11 - Batzuek, ez dakixelako, **Eibartzat** hartzen dabe zenbait lurralde.
- 12 - **Eibarren** egitten diran gauzak mundu osora doiaz.
  - **Zarautzen** giro eta animaziño ederra egoten da udan.
- 13/14 - **Eibartik Gorlizera** ez doa jende asko, baiña bai **Zarautzera**.
- 14 - Antxiña **Eibarrera** etortzia gauza haundixa zan, gaur ez da halakorik.

## 1.8 - Konsonantez amaitzen diran persona-izenen deklinabidia

KASUA	AITOR	SIMON	ANDRES
1- Absolutua	Aitor	Simon	Andres
2- Partitibua	Aitorrik	Simonik	Andresik
3- Ergatibua	Aitorrek	Simonek	Andresek
4- Datibua	Aitorri	Simoni	Andresi
5- Genitibua	Aitorren	Simonen	Andresen
6- Leku genitibua	-----	-----	-----
7- Instrumentala	Aitorrez	Simonez	Andresez
8- Soziatibua	Aitorrekin/ -gaz	Simonekin/ -gaz	Andresekin/ -gaz
9- Motibatibua	Aitorregaittik	Simonegaittik	Andresegaittik
10- Destinatibua	Aitorrendako	Simonendako	Andresendako
	Aitorrentzat	Simonentzat	Andresentzat
11- Prolatibua	Aitortzat	Simontzat	Andrestzat
12- Inesibua	Aitorrengan	Simonengan	Andresengan
13- Ablatibua	Aitorrengandik	Simonengandik	Andresengandik
14- Adlatibo soilla	Aitorrengana	Simonengana	Andresengana
15- Muga adlatibua	Aitorrenganaiño	Simonenganaiño	Andresenganaiño
* - Muga adla.gaiñ.eraiki.	Aitorrenganaiño	Simonenganaiño	Andresenganaiño
16- Hurbiltze adlatibua	Aitorrenganutz	Simonenganutz	Andresenganutz
17- Adlatibo gaiñ. eraiki.	Aitorrenganako	Simonenganako	Andresenganako
18- Banatzaillia	-----	-----	-----

Adibidiak:

- 1/12 - *Aitor* eta *Simon Andresen* lagunak dira. Lagun onak dira hirurak.
- 2/1/8 - Hor barruan ez dago *Simonik*, hor *Aitor* dago *Andresekin*.
- 4 - *Simoni* ez jakoz gustatzen *Andresi* gustatzen jakozen gauza asko.
- 8 - *Aitorrekin* ibilli ezkerre berandu arte ibilli bihar; gautxorixa da.
- 9 - *Simonegaittik* arduratuta zagoz, baiña egon zaitte nasai, etorriko da-eta.
- 11 - Oker zagoz, zuk *Aitortzat* daukazuna ez da Aitor, ha Juanito da.
- 12 - *Simonen* esanekin bazabiz galduta zagoz; adarjotzaille hutsa da.
- 13/14 - *Aitorrengandik Simonengana* bada alderik, ez dira antzerakuak be-eta.
- 16 - Guazen *Aitorrenganutz*, ia handik hobeto ikusten dogun zera.

### 1.9 - Aste-egun izenen deklinabidia (1/3)

KASUA	ASTELEHEN	MARTITZEN
1- Absolutua	astelehena	martitzena
2- Partitibua	astelehenik	martitzenik
3- Ergatibua	astelehenak	martitzenak
4- Datibua	astelehenari	martitzenari
5- Genitibua	astelehenaren	martitzenaren
6- Leku genitibua	asteleheneko	martitzeneko
7- Instrumentala	astelehenaz	martitzenaz
8- Soziatibua	astelehenakin/-gaz	martitzenakin/-gaz
9- Motibatibua	astelehenagaittik	martitzenagaittik
10- Destinatibua	astelehenandako	martitzenandako
11- Prolatibua	astelehenantzat	martitzenantzat
	astelehentzat	martitzentzat
12- Inesibua	astelehenian	martitzenian
13- Ablatibua	astelehenetik	martitzenetik
14- Adlatibo soilla	astelehenera	martitzenera
15- Muga adlatibua	asteleheneraiño (*)	martitzeneraiño (*)
* - Muga adla.gaiñ.eraikixa	asteleheneraiñoko	martitzeneraiñoko
16- Hurbiltze adlatibua	astelehenerutz	martitzenerutz
17- Adlatibo gaiñ. eraikixa	astelehenerako	martitzenerako
18- Banatzaillia	-----	-----

\*) - Baitta, esaten da, *astelehen arte* eta *martitzen arte*, bixar arte letz.

#### Adibidiak:

- 1 - *Astelehen* goizetik *martitzen* gabereiñoko etengabeko ekiñaldixa daukagu.
  - *Astelehena* beti da astuna. Horregaittik, aintxiña eibartarrak “Astelena” izena jarri zetsen Isasiko pelota-lekuari, astelehenian jai egitten eben-eta ajia kentzeko.
  - *Astelehena* astegun luziena (TE).
  - *Martitzena* zan asteartea edo asteartia, astiak hiru egun zittuanian (TE).
- 2 - Batek esaten eban, ia zergaittik ez egoan *astelehenik* bariko asterik.
- 5 - *Astelehenaren* orduak luziaguak dira asteko beste egunetakuak baiño.
- 11/12 - Zuk *martitzentzat* daukazu gaurko eguna, baiña *eguastenian* gagoz.
- 12 - *Astelehenian* ezin naiz, baiña *martitzenian* juango naiz zure etxera.
- 13/15- Juan zan *astelehenetik* aste honetako *martitzeneraiño* ez dozu gauza askorik egin.
- 15 - *Astelehen arte* eta *asteleheneraiño* esatia bardin bardin da eibartarrantzat.
- 17 - *Martitzenerako* amaittuta euki bihar dogu hau lan guztiau. Ez laga hurrengorako.

## 1.9 - Aste-egun izenen deklinabidia (2/3)

KASUA	EGUASTEN	EGUEN	BARIXAKU
1- Absolutua	eguastena	eguen	barixakua
2- Partitibua	eguastenik	eguenik	barixakurik
3- Ergatibua	eguastenak	eguenak	barixakuak
4- Datibua	eguastenari	eguenari	barixakuari
5- Genitibua	eguastenaren	eguenaren	barixakuaren
6- Leku genitibua	eguasteneko	egueneko	barixakuko
7- Instrumentala	eguastenaz	eguenaz	barixakuaz
8- Soziatibua	eguastenakin/-gaz	eguenakin/-gaz	barixakuakin/-gaz
9- Motibatibua	eguastenagaittik	eguenagaittik	barixakuagaittik
10- Destinatibua	eguastenandako	eguenandako	barixakuandako
11- Prolatibua	eguastentzat	eguentzat	barixakuntzat
12- Inesibua	eguastengan	eguenengan	barixakuan
13- Ablatibua	eguastenetik	eguenetik	barixakutik
14- Adlatibo soilla	eguastenera	eguenera	barixakura
15- Muga adlatibua	eguasteneraino	egueneraino	barixakuraino
* - Muga adla.gaiñ.eraiki.	eguastenerainoko	eguenerainoko	barixakurainoko
16- Hurbiltze adlatibua	eguastenerutz	eguenerutz	barixakurutz
17- Adlatibo gaiñ. eraiki.	eguastenerako	eguenerako	barixakurako
18- Banatzaillia	-----	-----	-----

## Adibidiak:

- 1 - Gure artian, (*asteazkena*) **eguastena** esaten dogu (TE).
  - Hórrek liburuok **eguen** baino lehen entregau bihar dittuzue.
  - **Eguen** arratsaldian ez zan izaten eskolarik (TE).
  - **Eguen-Zuri** egunian, umiak koko jazten ziran (TE).
  - **Barixaku** gaba oso ona da, asteburua hasten da eta jai eukitzen dogu.
  - **Barixaku-Santu** egunian, goizeko seiretan, Jesusen kurutzeko zazpi hitzen sermoia izaten zan (TE).
- 2 - Ez jako horri ez **astelehenik** ez **eguenik** gustatzen, zapatua baiño.
- 6 - Ez dakizula nola jantzi **barixakuko** herri afarirako? Edonola be, bardin da!
- 12 - Burutik arin txamar dabizenak haixia eukitzen ei dabe **barixakuetan**.
  - **Eguengan** datoz gure senidiak eta jaixak ondoren joango dira.
  - Gu gaztiak giñanian **eguenetan** urtetzen genduan kalera nobixiak.
  - Urte guztian, **barixakuetan** egitten eban barau (TE).
  - “**Astelehenian** ezkondu eta **martitzenian** basora, **eguastengan** orbela batu ta **eguen** etxera” diño euskal kantu zahar batek.
- 15/12 - **Eguen arte** luze egitten da astia, baiña behin **barixaxuan** sartu ezkeror arin.
- 16 - Uste dot **eguastenerutz** joan ahala izango naizela zuen lantegira.
- 17 - Esan deskue **eguastenerako** egingo deskuela obria.

### 1.9 - Aste-egun izenen deklinabidia. (3/3)

KASUA	ZAPATU	DOMEKA
1- Absolutua	zapatua	domekia
2- Partitibua	zaturik	domekarik
3- Ergatibua	zapatuak	domekiak
4- Datibua	zapatuari	domekiari
5- Genitibua	zapatuaren	domekiaren
6- Leku genitibua	zapatuko	domekako
7- Instrumentala	zapatuz	domekaz
8- Soziatibua	zapatuakin / -gaz	domekiakin /-gaz
9- Motibatibua	zapatuagaittik	domekiagaittik
10- Destinatibua	zapatuandako	domekiandako
	zapatuantzat	domekiantzat
11- Prolatibua	zapatutzat	domekatzat
12- Inesibua	zapatuan	domekan
13- Ablatibua	zapatutik	domekatik
14- Adlatibo soilla	zapura	domekara
15- Muga adlatibua	zaturaiño	domekaraiño
* - Muga adla.gaiñ.eraikixa	zaturaiñoko	domekaraiñoko
16- Hurbiltze adlatibua	zaturutz	domekarutz
17- Adlatibo gaiñ. eraikixa	zaturako	domekarako
18- Banatzaillia	-----	-----

#### Adibidiak:

- Penagarrixa da gaur egungo Ikastolako umiak dakarren euskeria entzun eta betiko *martitzena, eguastena, eguena, barixakua, zapatua* eta *domekia* esan biharrian, zapla! *asteartia, osteguna, ostirala, larunbata* eta *igandia* esaten ikustia, baiña ez umiak eta gaztiak bakarrik, baita nagusixak be.

1 - *Zapatu* eta *domeka*, aste bakoitxeko egunik onenak dira jentiantzat.

- *Domekia* beti da labur, hurrengo *astelehen* egunaren mamuagaittik.

1/10 - *Zapatua* gizonagaittik (gizonandako) egindakua da; ez gizona *zapatuandako*.

Marc. 2, 27 (TE).

9 - *Astelehenagaittik* gaizki esaten da, baiña, izan be, bada famiaren jabe.

12 - Datorren *zapatuan* Donostiara joango gara eta *domekan* etxeratu.

*Domekan domekan* igotzen dogu Salbadorrera, baketako egun eder bat pasatzera (TE).

17 - *Barixakurako* ez bada be, zatoze, gitxienez, *zaturako* edo *domekarako*.

## **2 - IZENORDAIÑEN DEKLINABIDIA**





## 2.1 - Persona izenordaiñen deklinabidia

### 2.1.1 - Lehenen eta bigarren personako izenordaiñ arrunt eta indartuak (1/3)

KASUA	NI		HI	
	Arrunta	Indartua	Arrunta	Indartua
1 - Absolutua	ni	neu	hi	heu
2 - Partitibua	---	---	---	---
3 - Ergatibua	nik	neuk	hik	heuk
4 - Datibua	neri	neuri	hiri	heuri
5 - Genitibua	nere	neure	hire	heure
6 - Leku genitibua	---	---	---	---
7 - Instrumentala	---	---	---	---
8 - Soziatibua	nerekin	neurekin	hirekin	heurekin
9 - Motibatibua	neregaittik	neuregaittik	hiregaittik	heuregaittik
10 - Destinatibua	neretzat/ neretako	neuretzat/ neuretako	hiretzat/ hiretako	heuretzat/ heuretako
11 - Prolatibua	---	---	---	---
12 - Inesibua	neregan	neuregan	hiregan	heuregan
13 - Ablatibua	neregandik	neuregandik	hiregandik	heuregandik
14 - Adlatibo soilla	neregana	neuregana	hiregana	heuregana
15 - Muga adlatib.	nereganaiño	neureganaiño	hireganaiño	heureganaiño
- M.adl. gaiñ.er.	nereganaiño	neureganaiño	hireganaiño	heureganaiño
16 - Hurbil. adlatib.	nereganutz	neureganutz	hireganutz	heureganutz
17 - Adl. gaiñ.eraik	nereganako	neureganako	hireganako	heureganako
18 - Banatzaillia	---	---	---	---

#### Adibidiak:

- 1 - Galdu gura izan ninduan **ni** (TE). **Ni** naiz gizon bat arduraz betia (TE).  
**Neu** naiz danetatik zaharrena (TE). **Heu** haiz haundiña eta jarri hari buru (TE).
- 3 - **Nik neuk** behintzat ez dot bururik jatxiko (TE). **Nik** ez dot hori esan.  
**Neuk** esango detsat hari bihar jakona (TE).
- 4 - **Neri** ez eidazue halakorik esan. **Hiri** ez jak ardura eta isildu hari. **Heuri** emon deune lehenengo sarixa.
- 5 - **Nere** etxia da hau. **Nere** eguna otsaillaren 21ian da. **Nere kautakuetan** nindoian mendixan zihar (TE). **Nere baten** banenguan eta batera batera jausi naiz (TE). Hi sartu hari **heure** gauzetan, bestienetan sartu barik. Agur, **neriak** egin dau esanaz, gastau zan (TE). **Neure neuria** da zuk ikusi dozun etxia (TE).
- 7 - Instrumentalaren (**nitaz**, **hitaz**...) ordez, **nere gaiñian**, **hire gaiñian**... erabiltzen dogu; baita **neregaittik**, **hiregaittik**... be.  
- Badakitt **neregaittik** gaizki esaka jardun dozuena. Demasak esan jittuek **hiregaittik**.
- 8 - Bazatoz **nerekin**?. **Hirekin** pozik juango nintzakek.  
- Hartixaz **heurekin** hartu biharrekuak eta mogidu hari.
- 9 - **Neregaittik** eizue nahi dozuena. **Heuregaittik** gauaz hain txarto.
- 10 - Mendittik bueltan ondduak zekazen **neretako**.  
- Erdibana egingo jonagu: erdixa **hiretzat**, beste erdixa **neretzat**.
- 12 - Konfiantza guztia jaukat **hiregan**.  
Normalago darabigu "Soziatibua": 8 - Konfiantza guztia jaukat **hirekin**.
- 13 - Iñok ez dau **neregandik** ezer jakingo. Gehixago espero najuan **hiregandik**.
- 14 - Zatoz **neregana** maittia. **Neregana** etorri dok lehenengo, eta **hiregana** bialdu juat gero.
- 15 eta 16 kasuak gitxi darabiguz Eibarren.
- 17 - **Nereganako** gorrotoz dihardu. Juantxok agirixan jon **hireganako** maittasuna.

2.1.1 - Lehenen eta bigarren personako izenordaiñ arrunt eta indartuak (2/3)

KASUA	ZU		GU	
	Arrunta	Indartua	Arrunta	Indartua
1 - Absolutua	zu	zeu	gu	geu
2 - Partitibua	---	---	---	---
3 - Ergatibua	zuk	zeuk	guk	geuk
4 - Datibua	zuri	zeuri	guri	geuri
5 - Genitibua	zure	zeure	gure	geure
6 - Leku genitibua	---	---	---	---
7 - Instrumentala	---	---	---	---
8 - Soziatibua	zurekin	zeurekin	gurekin	geurekin
9 - Motibatibua	zuregaittik	zeuregaittik	guregaittik	geuregaittik
10 - Destinatibua	zuretzat	zeuretzat	guretzat	geuretzat
	zuretako	zeuretako	guretako	geuretako
11 - Prolatibua	---	---	---	---
12 - Inesibua	zuregan	zeuregan	guregan	geuregan
13 - Ablatibua	zuregandik	zeuregandik	guregandik	geuregandik
14 - Adlatibo soilla	zuregana	zeuregana	guregana	geuregana
15 - Muga adlatib.	zureganaiño	zeureganaiño	gureganaiño	geureganaiño
- M.adl. gaiñ.er.	zureganaiño	zeureganaiño	gureganaiño	geureganaiño
16 - Hurbil. adlatib.	zureganutz	zeureganutz	gureganutz	geureganutz
17 - Adl. gaiñ.eraik	zureganako	zeureganako	gureganako	geureganako
18 - Banatzaillia	---	---	---	---

Adibidiak. Persona izenordaiñ hónek guztiok antzera deklinatzen dira eta honen aurreko orrixan egindako oharra balixo dabe honako be. Halanda be zenbait adibide jarriko dittugu:

1 - **Zu** zara **zu** izatekoa!. **Zeu** zara lehenengo etxe honetan (TE). **Gu** gara **geu**, ez hobiak ez txarraguak, baiña **geu** (TE).

1/5 - **Zu** arduratu zaittez **zeure** gauzeekin.

3 - **Zuk** esan dozuna da hori. **Zuk zeuk** esan dozu. **Geuk** jaso dogu hau etxiau.

3/5 - **Guk geure** kulturari eutsi bihar detsagu. **Zuk zeuk** ikusi **zeure** gauzeekin zer egin

5 - **Zure** aitta beti dago umoreko. **Gurian** beti arrapataka. **Gure** Benitto be etorri jakun.

5/3 - **Zeuria** da etxia eta **zeuk** agintzen dozu hamen (TE). Solo hau da **guria** (TE).

8 - **Geurekin/gaz** etorriko zara. **Zurekiñ** ez daukat nik bat be konfiantzarik.

9/4 - **Zuregaittik** ez balitz ez genduke aurrera egingo; eskerrak **zuri**!.

10 - Zelako pitxia ekarri doran **zuretako**!. **Guretzat** ez da ezer geratu.

13 - Barri txarri **zuregandik** jaso dabela esan deskue.

14/5 - Zatoz **guregana**; **guria** pasauko dittuzu Gabonak.

17 - **Zureganako** amorixuak nauka aztorauta.

### 2.1.1 - Lehenen eta bigarren personako izenordaiñ arrunt eta indartuak (3/3)

KASUAK	ZUEK	
	Arrunta	Indartua
1 - Absolutua	zuek	zeuek
2 - Partitibua	---	---
3 - Ergatibua	zuek	zeuek
4 - Datibua	zueri	zeueri
5 - Genitibua	zuen	zeuen
6 - Leku genitibua	---	---
7 - Instrumentala	---	---
8 - Soziatibua	zuekin	zeuekin
9 - Motibatibua	zuegaittik	zeuegaittik
10 - Destinatibua	zuentzat zuendako	zeuentzat zeuendako
11 - Prolatibua	---	---
12 - Inesibua	zuengan	zeuengan
13 - Ablatibua	zuengandik	zeuengandik
14 - Adlatibo soilla	zuengana	zeuengana
15 - Muga adlatib.	zuenganaiño	zeuenganaiño
- M.adl. gaiñ.er.	zuenganaiño	zeuenganaiño
16 - Hurbil. adlatib.	zuenganutz	zeuenganutz
17 - Adl. gaiñ.eraik	zuenganako	zeuenganako
18 - Banatzaillia	---	---

#### Adibidiak:

- 1 - **Zuek** bihargin onak zarie baiña saltzaille txarrak.  
- **Zeuek** etorri zarie ona, iñok deittu barik.
- 3 - **Zuek zeuek** egin bihar dozue hori.
- 3/5 - **Zuek** landu bihar dozue **zeuen** solua.
- 4 - Sekulakuak gertau jatzuez **zueri**.
- 5 - **Zuen** umoria eskertzekua da.
- 5/3 - **Zuek** ez daukazue konfiantzarik **zeuen** buruan.
- 8 - **Zuekin** edozein lekutara jua leike.
- 9 - **Zuegaittik** balitz ez genduke ezer egingo.
- 10 - Barri onak dakaraz **zuendako** (**zuentzat**).  
- Argixa dala? Hartizue **zeuendako** listo-pasauori!.
- 12 - Adore faltia ikusten dot nik **zuengan**.  
(*Adole* dakar T. Etxebarriak *Lexikoian*).
- 13 - Ekimen txikixena be ez da **zuengandik** sortu.
- 17 - **Zuenganako** dogun jarrera alkarrekin jardutekua da.

2.1.2 - Hirugarren personako izenordaiñ indartuak (Singularrak) - (1/2)

KASUA	1. gradua	2. gradua	3. gradua
1 - Absolutua	berau	berori	bera
2 - Partitibua	---	---	--
3 - Ergatibua	beronek	berorrek	berak
4 - Datibua	beroni	berorri	berari
5 - Genitibua	beronen	berorren	beraren
6 - Leku genitibua	---	---	---
7 - Instrumentala	---	---	--
8 - Soziatibua	beronekin	berorrekin	berakin
9 - Motibatibua	beronegaittik	berorregaittik	beragaittik
10 - Destinatibua	beronentzat beronendako	berorrentzat berorrendako	berantzat berandako
11 - Prolatibua	---	---	---
12 - Inesibua	berone(n)gan	berorre(n)gan	beragan
13 - Ablatibua	berone(n)gandik	berorre(n)gandik	beragandik
14 - Adlatibo soilla	berone(n)gana	berorre(n)gana	beragana
15 - Muga adlatib. - M.adl. gaiñ.er.	berone(n)ganaiño berone(n)ganaiño	berorre(n)ganaiño berorre(n)ganaiño	beraganaiño beraganaiño
16 - Hurbil. adlatib.	berone(n)ganutz	berorre(n)ganutz	beraganutz
17 - Adl. gaiñ.eraik	berore(n)ganako	berorre(n)ganako	beraganako
18 - Banatzaillia	---	--	---

**Oharra :** 3. personan ez dago persona-izenordaiñ arruntik eta hónen ordezkariak erakusle arruntok erabiltzen dira: *ha* eta *hárek*; ikusi (3.1). Taula honetan ditudun 3. personako izenordaiñ indartuak, erakuslietatik eratorritak diren, *ber-* aurrizkia aurretik jarriaz. Bigarren gradukoak, errespetuzko harremanetarako be erabili izan dira baiña gaur egunian ez darabiguz zer horretan. 3. graduak dira gehixen darabiguzenak.

Adibidiak:

- 1 - *Berau* da interesik haundiña euki bihar leukiana (TE). *Berori* jarri deilla lehenen, eta bestioek juango gara ondoren (TE). 1/3 - *Berori* da nausi eta *berorrek* esaten dabena izango da onena (TE). -Aittizu Simona: *zu zara zu ta ni naiz berori*. -*Berori* hi? botikarixo kaka-barritsuori! (TE).
- Ha *bera* izan zan herrixaren alde lanik gehixen egin zebana.
- 3 - *Berak* esandako gauzia da esan detsutena (TE). Hori zeregiñori egin deixala *berak* (TE).
- 4 - Neri ez eidazu ezer esan, hobe dozu zuzenian *berari* esatia.
- 5 - Nik (haren) *beraren* semia ekarri dot autuan. Baiña: Harek *bere* semia ekarri dau autuan. [ezkerreko esaldixan *nik hirugarren baten (haren) semia* ekarri dot; eta eskumakuan *hirugarren batek (harek) bere seme propixua*. *Beraren* eta *bere* ez dira, ba, bardiñak].
- 8 - Etorri zaittez *berakin* zer egin geinkixon ikusteko.
- 9 - Haregaittik *beragaittik* geratu gara geratu garan moduan.
- 10 - Nik *berantzat* dakaraz hónnek perretxikuok. Hórrek biharrok *berandako* laga.
- 12/4 - Juan hari *beragana* eta kontaixuaz *berari* hórrek kontuok.
- 13 - *Beragandik* jaso dozu zuk izakeriori.

## 2.1.2 - Hirugarren personako izenordaiñ indartuak (pluralak)-(2/2)

KASUAK	1. eta 2. gradukuen pluralak	3. gradukuen pluralak
1 - Absolutua	eurok	eurak
2 - Partitibua	---	---
3 - Ergatibua	eurok	eurak
4 - Datibua	eurori	eureri
5 - Genitibua	euron	euren
6 - Leku genitibua	---	---
7 - Instrumentala	---	---
8 - Soziatibua	eurokin	eurekin
9 - Motibatibua	eurogaittik	euregaittik
10 - Destinatibua	eurontzat eurondako	eurentzat eurendako
11 - Prolatibua	---	---
12 - Inesibua	euro(n)gan	eure(n)gan
13 - Ablatibua	euro(n)gandik	eure(n)gandik
14 - Adlatibo soilla	euro(n)gana	eure(n)gana
15 - Muga adlatib. - M.adl. gaiñ.er.	euro(n)ganaiño euro(n)ganaiño	eure(n)ganaiño eure(n)ganako
16 - Hurbil. adlatib.	euro(n)ganutz	eure(n)ganutz
17 - Adl. gaiñ.eraik	euro(n)ganako	eure(n)ganako
18 - Banatzaillia	---	---

## Adibidiak:

- 1 - **Eurak** etorri ziran gu (\*baketan) bakian giñan lekura (TE).
- 3 - **Eurok** esan dabe ondo dagozela (TE).
- 4 - Háleri **eureri** emon zetsen sekulako blastiua.
- 5 - **Eurena** dabe bizi diran etxia (TE). **Euren** etxera eruan ginduezen.
- 8 - **Eurekin** juan giñan mendira.
- 9 - **Euregaittik** ez balitz txartuago egongo giñake.
- 10 - Ez neuke nahi neretzat hárek dabizen moduan ibiltzia. **Eurendako** hori bizimoduori.
- 12 - **Eurogan** dake konfiantza guztia jarritta.
- 13 - Daken apurra **euregandik** jasotakua da.
- 14 - **Euregana** jo genduan laguntza billa.
- 17 - **Eureganako** gure iritzixa ezin da hobia izan.

### 2.1.3 - Hirugarren personako izenordaiñ bihurkarixak (bere / euren)

Jarri deiguzen hiru sailletan izenordaiñ posesiboak:

Arruntak	Indartuak	Bihurkarixak
nere	neure	neure
hire	heure	heure
<b>haren</b> (erakuslia)	<b>beraren</b> (beran)	<b>bere</b>
zure	zeure	zeure
gure	geure	geure
zuen	zeuen	zeuen
<b>háren</b> (erakuslia)	<b>euren</b>	<b>euren</b>

Indartuen eta Bihurkarixen artian desbardintasun bat bakarrik daukagu: **beraren** eta **bere**-ren artekoa. Aittatu izan dogu aurrerago 2.1.2 (1/2)-ko 5. kasuaren (Genitibuaren) adibidian **beraren** (indartuaren) eta **bere** (bihurkarixaren) arteko desbardintasuna.

**Ikusi deigun 3. persona singularrekuekin daukagun erabilleria**, sail bakoitzeko adibide batzuen bittartez:

**Arruntak:** *Ni haren autuan etorri naiz.* [ Ez dago intensibotasunik ez eta reflexibotasunik. Esaldi **zuzena** da].

Orduan: *\*Ni beraren/beran autuan etorri naiz* edo *\*ni bere autuan etorri naiz* ez lirake, normatiboki zuzenak izango, bai bata bai bestia sarri-sarri darabiguzen arren.

**Indartuak** (baiña ez bihurkarixak): *Jon aurkittu dot eta beraren autuan etorri naiz.* [ *Beraren* (= *Jonen*) posesibo indartua, aurretik aittatu dogun *Jon* personiari dagokixo eta, horrez gaiñera, *Jon ez dago naiz* adizkixaren barruan; *naiz* adizkixaren barruan dagan bakarria “*ni*” da-eta; **zuzena** da ba, *beraren* jartzia ].

Orduan: *\*Jon aurkittu dot eta haren autuan etorri naiz* ez da esaldi zuzena, *haren*-ekin ez dakigulako *Jonen* ala beste baten gaiñian dihardugun, eta horregaittik dago *Joni* dagokixon “*beraren*” jarri biharra. *Jon* aittatu barik, **haren** autuan etorri naiz, **zuzena** da goixan, *arrunten* paragrafuan, esan dogun moduan.

Beste esaldi hauxe be, normatiboki behintzat, ez da zuzena: *\*Jon aurkittu dot eta bere autuan etorri naiz*; gorigo esan dogun moduan *Jon* ez dagualako *naiz* adizkixaren barruan. *Jonek bere autuan ekarri nau*, ostera, **zuzena** da, *Jon ni-kin batera*, “*nau*” adizkixaren barruan dagualako (*Jonek-ni* ekarri nau).

**Bihurkarixak** (bihurkarixak izateko indartuak izan bihar dira). Izenordaiñ posesibuak aittatzen daben personia, adizkixaren barruan daganian, genitibo bihurkarixak erabilli bihar dira.

Aurreko paragrafuan jarri dogun adibidia barriri ekarriz: *Jonek bere autuan ekarri nau.* [ (= *Jonek Jonen autuan ekarri nau*). *Bere* posesibo bihurkarixa aurretik aittatu dogun *Jon* personiari dagokixo eta, horrez gaiñera, *Jon, ni-kin batera*, “*nau*” adizkixaren barruan dago. **Zuzena** da ba, *bere* jartzia ].

*Jonek haren autuan ekarri nau* be, esaldi zuzena da, baiña, kasu honetan, beste baten autuan ekarri nau, ez berian.

*\*Jonek beraren/beran autuan ekarri nau*, ez da normatiboki behintzat esaldi zuzena, *Jon* adizkixaren barruan dagan ezkerro **bere** erabilli bihar dalako.

**3. persona pluraletan (háren/euren)** : Hemen, arrunten eta bihurkarixen arteko erabillera desbar-diña da kontuan izan biharrekua. Horretarako singularretan (*haren* eta *bere*) jarritako erregela eta adidiak balixo dabe plural hónetan be.

\*\*\*\*\*

Hónen posesibuen gaiñian esan bihar dogu, gaur egunian behintzat, Eibarko euskeran ez daukagu-la irizpide zihatzik posesibuen erabilleran: *Bere* erabilli biharrian *beraren/beran* erabiltzen dogu, eta alderantziz. *Haren* apenas erabiltzen dogun, *bere* eta *beraren* posesibuok lekua jan detselako. Mendebaldeko euskalkixetan oso joera normala da hau guztiau.

Puntu honekiñ amaitzeko, jarri deigun “BERE” izenordaiñ posesibo bihurkarixaren deklinabide taulia, mugagabian:

KASUA	BERE
5 - Genitibua	bere
7 - Instrumentala	berez
8 - Soziatibua	berekin / gaz
10 - Destinatibua	beretzat / beretako
12 - Inesibua	beregan
13 - Ablatibua	beregandik
14 - Adlatibo soilla	beregana
15 - Muga adlatibua	bereganaiño
- M. adl. gaiñian eraikixa	bereganaiño
16 - Hurbiltze adlatibua	bereganutz
17 - Adlat. gaiñian eraikixa.	bereganako

**Euren** izenordaiñ posesibuaren deklinabidia [2.1.2-(2/2)] taulan ikusi geinke.

*Bere*, *euren* eta beste posesibo bihurkari guztiak deklinau egin leikez, eredu mugagabiaren eta mugatuaren arabera.

## 2.2 - Galdetzaillen eta galdetzaillietatik eratorritako izenordaiñen deklinabidia.

### 2.2.1 - Nor / nortzuk; zein / zeintzuk; zer / zera / zertzuk; zenbat (1/4)

KASUA	NOR	NORTZUK
1- Absolutua	nor	nortzuk
2- Partitibua	norik	nortzurik
3- Ergatibua	norek / nork	nortzuek
4- Datibua	nori	nortzuri / nortzueri
5- Genitibua	noren	nortzuen
6- Leku genitibua	----	-----
7- Instrumentala	(nortaz)	(nortzuez)
8- Soziatibua	norekin / noregaz	nortzuekin / -gaz
9- Motibatibua	noregaittik	nortzuegaittik
10- Destinatibua	norendako	nortzuendako
	norentzat	nortzuentzat
11- Prolatibua	nortzat	nortzutzat
12- Inesibua	nore(n)gan	nortzuengan
13- Ablatibua	nore(n)gandik	nortzuengandik
14- Adlatibo soilla	nore(n)gana	nortzuengana
15- Muga adlatibua	nore(n)ganaiño	nortzuenganaiño
* - Muga adla.gaiñ.eraikixa	nore(n)ganaiño	nortzuenganaiño
16- Hurbiltze adlatibua	nore(n)ganutz	nortzuenganutz
17- Adlatibo gaiñ. eraikixa	nore(n)ganako	nortzuenganako
18- Banatzaillia	-----	-----

#### Adibidiak:

- 1 - *Nor* izan da hamen gure aurretik? (TE). - *Nortzuk* datoz gaur afaittara? - *Nortzuek* izan dira nere billa? (TE). Ez daukagu irizpide zihatzik: absolutua eta ergatibua nahastian darabiguz, *nortzuk* zein *nortzuek*.
- 3 - Ai, bazenkixe *norek* eta *nortzuek* darabixen zuen gatzizena!  
- *Nork* / *norek* apurtu dau pitxarra? (TE)
- 4 - Nik ez dakit *nori* edo *nortzuri* daroiazuen txakur hori.
- 7 - Guk ez dittugu, jatorrak badira be, “nortaz”, “iñortaz” eta halakorik erabiltzen. Esate baterako, ez dogu esango “*nortaz berbetan diharduzue*”. Horren ordez “*noren gaiñian*” eta “*noregaittik*” esakerak darabiguz, erderiaren eragiñez, jakiña.
- 8 - Ez dakizuela *norekin* dabillen zuen alabia?. - Ez dakigu *nortzuekin* ibilli dan zuen semia.
- 11 - *Nortzat* hartu gaittuzue ba, zeuen lehengusu gaztetzat ala?
- 14 - Hobe zendukie jakin *norengana* joko daben gure semiak.
- 15 - *Nortzuenganaiño* kolia dagoala uste dozue gaur goixian?
- 16 - Hórrek ez dakixe *noreganutz* doian gure anai gaztia.
- 17 - Zuek ez dozue asmau be egingo *norenganako* joeria daukan horrek.



2.2.1 - Nor / nortzuk; **zein** / **zeintzuk**; zer / zera / zertzuk; zenbat. (2/4)

KASUA	ZEIN		ZEINTZUK	
1- Absolutua	zein		zeintzuk	
2- Partitibua	zeiñik		zeintzurik	
3- Ergatibua	zeiñek		zeintzuek	
4- Datibua	zeiñi		zeintzuri / zeintzueri	
5- Genitibua	zeiñen		zeintzuen	
6- Leku gen.	(zeiñetako)		(zeintzuetako)	
7- Instrum.	(zeiñez)		(zeintzuez)	
8- Sozietibua	zeiñekin / zeiñegaz		zeintzuekin / -gaz	
9- Motibat.	zeiñegaittik		zeintzuegaittik	
10- Destinat.	zeiñendako		zeintzuendako	
	zeiñentzat		zeintzuentzat	
11- Prolatib.	zeintzat		zeintzutzat	
	Bizigabiak	Bizidunak	Bizigabiak	Bizidunak
12- Inesibua	zeiñetan	zeiñe(n)gan	zeintzuetan	zeintzuengan
13- Ablat.	zeiñetatik	zeiñe(n)gandik	zeintzuetatik	zeintzuengandik
14- Adl. soil.	zeiñetara	zeiñe(n)gana	zeintzuetara	zeintzuengana
15- M. adlat.	zeiñetaraiño	zeiñe(n)ganaiño	zeintzuetaraiño	zeintzuenganaiño
* - M. a.g.e.	zeiñetaraiñoko	zeiñe(n)ganaiñoko	zeintzuetariñoko	zeintzuenganaiñoko
16- H. adlat.	zeiñetarutz	zeiñe(n)ganutz	zeintzuetarutz	zeintzuenganutz
17- Adl. g. e.	zeiñetarako	zeiñe(n)ganako	zeintzuetarako	zeintzuenganako
18- Banatz.	-----	-----	-----	-----

Adibidiak:

- 1 - Bixetako **zein** dozu nahixago?. **Zeintzuk** dittuzu nahixago, gorrixak ala baltzak?  
- **Zein** da gabian zarataka ibilli dana?. **Zeintzuk** dira hori egin dabenak? (TE).
- 3 - **Zeñek** asmau dau zorakerixa hori? (TE). **Zeintzuek** jaso dabe etxe hau?(TE).
- 4 - **Zeñi** galdu jako hau erlojuau?. **Zeintzuri** / **zeintzueri** esan dozu gertau jakuela hori?
- 5 - **Zeñena** da hau etxe polittau?. **Zeintzuena** da, ba, gobernatzeko arduria?
- 7 - **Zeñez** / **zeintzuez** instrumentalaren ordezt, **zeiñen gaiñian** / **zeiñegaittik**; **zeintzuen gaiñian** / **zeintzuegaittik** eta **zeiñekin** / **zeintzuekin** darabiguz: **Zeñen gaiñian** edo (9) **zeiñegaittik** diharduzue berbetan?. (8) **Zeñekin** / **zeintzuekin** gogoratzen zara itsasora begira zagozenian?
- 8 - **Zeñekin** gelditzen zara, gorrixakiñ ala baltzakin?. **Zeintzuekin** zoiatz mendira?
- 10 - **Zeñendako** da oparixa?. **Zeintzuentzat** dira, ba, hórrek deixok?.
- 12 - Zein etxetan egon zara; **zeiñetan**?. Aralarko gaillur batzuetan izan da baiña ez daki **zeintzuetan**. **Zeñe(n)gan** dozu zuk konfiantzia jarritta? Askok ez daki **zeintzuengan** jarri euren konfiantzia.
- 13 - **Zeñe(n)gandik** datorkizu zuri jenixo zittalori?
- 14 - Medikuan juañ bihar naiz eta ez dakit **zeiñegana**. Mendixetara juaten zariela, bai, baiña **zeintzuetara**?.

2.2.1 - Nor / nortzuk; zein / zeintzuk; **zer / zera / zertzuk**; zenbat (3/4)

KASUA	ZER	ZERA	ZERTZUK
1- Absolutua	ze(r)	zera	zertzuk
2- Partitibua	zerik	-----	-----
3- Ergatibua	zerek / zerk	zerak	zertzuek
4- Datibua	zeri	zerari	zertzuri / zertzueri
5- Genitibua	zeren	zeraren	zertzuen
6- Leku genitibua	(zertako)	zereko	(zertzuetako)
7- Instrumentala	(zerez / zertaz)	-----	(zertzuez / zertzuetaz)
8- Soziatibua	zerekin /-gaz	zerakin /-gaz	zertzuekin /-gaz
9- Motibatibua	ze(r)gaittik	zeragaittik	zertzuegaittik
10- Destinatibua	zerentzat zerendako	zerantzat zerandako	zertzuentzat zertzueandako
11- Prolatibua	zertzat	zeratzat	zertzuetzat
12- Inesibua	ze(r)tan	zerian / zeragan	zertzuetan
13- Ablatibua	ze(r)tatik	zeretik / zeragandik	zertzuetatik
14- Adlatibo soilla	ze(r)tara	zerera / zeragana	zertzuetara
15- Muga adlatibua	ze(r)taraiño	zereraiño / zeraganaiño	zertzuetaraiño
* - M. adl.gaiñ.eraik.	ze(r)taraiñoko	zereraiñoko / zeraganaiñoko	zertzuetaraiñoko
16- Hurbiltze adlatibua	ze(r)tarutz	zererutz / zeraganutz	zertzuetarutz
17- Adl. gaiñ. eraikixa	ze(r)tarako	zererako / zeraganako	zertzuetarako
18- Banatzaillia	-----	-----	-----

Adibidiak:

- 1 - **Ze(r)** da hor dabillen zarata izugarrixi? (TE). **Ze(r)** gauza ederrak Jaungoikuagandikuak! (TE). - **Ze(r)** ardura desta ba neri zure ezetzak! (TE). **Ze(r)** ba? Ixildu egingo nintzan neuk errezoia eukitta? (TE). -**Ze(r)** daroiazu hor ezkutuan? -**Zera!** ontzako urriak!(TE).  
- **Zertzuk** galdu jakoz ume honi?. 1/3/2 - **Ze(r)** jiñok **zerak**? - ez daguala **zerik**.
- 3 - **Zerek** ekarri detsuz hórrek burukomin guztiok (\*burukomin guzti hórrek)? (TE). **Zerk** bildurtu zaittu ez agertzeko? (TE).
- 3/5 - **Zerek** emoten detsu min? **zeren** penia dozu? - **Zerak** emoten desta min, geure konpondu eziñak.
- 4 - **Zeri** egitten detsazu hainbeste barre? - **Zerari**, honi paillazuoni.
- 6 - Nungua da hori? - **Zerekua**, Elgetakua. (Leku genitiboko kasu honetan ez dittugu (zertako) eta (zertzuetako) erabiltzen.
- 7/8 - Instrumentala barik soziatibua normalago darabigu galderetan: **Zerez** eginda dago? barik **zerekiñ** eginda darabigu, nahiz eta erantzunetan instrumentala be erabiltzen dogun: *galtzairuz, zurez...*
- 9 - **Ze(r)gaittik** dago aitta hain hasarria?(TE).
- 10 - **Zerendako** da hau pieziau? - **Zerantzat** da, makiña honentzat da. 12 - **Ze(r)tan** dago Antxon hainbeste denboran? - **Zerian**, pikutan betiko moduan. 13 - Noregandik dozu zuk afeziñuori? - **Zeragandik**, aitagandik. 14 - **Ze(r)tara** zoiatz taillarrera? -**Ze(r)tara** juango naiz ba? biharrera!
- 14 - Norengana zoiatz hain pozik? -**Zeragana**, andrageixagana.

**Oharra:** ZER eta ZERTZUK bizigabien erara deklinatzen dira, gauzen gaiñian dihardue-eta; ZERA oste-  
ra, bizigabien eta bizidunen erara, gauzeekin zein personekin erabili leikialako.

2.2.1 - Nor / nortzuk; zein / zeintzuk; zer / zera / zertzuk; **zenbat** (4/4)

KASUA	ZENBAT	
1- Absolutua 2- Partitibua 3- Ergatibua 4- Datibua  5- Genitibua 6- Leku genitibua  7- Instrumentala 8- Soziatibua 9- Motibatibua 10- Destinatibua 11- Prolatibua 18 - Banatzaillia	zenbat ----- zenbatek zenbati  zenbaten zenbateko  (zenbatez) zenbatekin zenbategaittik zenbatentzat / zenbatendako ----- zenbana	
	Bizigabiak	Bizidunak
12- Inesibua 13- Ablatibua 14- Adlatibo soilla 15- Muga adlatibua * - M. adl.gaiñ.eraik. 16- Hurbiltze adlatibua 17- Adl. gaiñ. eraikixa	zenbatian zenbatetik zenbatera zenbateraiño zenbateraiño zenbaterutz zenbaterako	zenbatengan zenbatengandik zenbatengana zenbatenganaiño zenbatenganaiño zenbatenganutz zenbatenganako

Adibidiak:

- 1 - **Zenbat** bihar egin bihar dan zeozer lortzeko!. **Zenbat** ume etorri da / dira gaur?.  
- **Zenbat** bidar esan bihar detsut?. **Zenbat** diru pagau bihar da?. **Zenbat** autotan juango gara?. **Zenbat** jendekiñ egin dozu berba?
- 3 - **Zenbatek** egin dau gaur biharra?. **Zenbatek** deittu dau gaur?.
- 4 - Ai, **zenbati** egin detsan kalte txarrixonek!. **Zenbati** esan detsazu?
- 5 - **Zenbaten** artian dake, ba, negoziua?. Gerran hildako **zenbaten** barri ez ete daki gudari honek. **Zenbaten** lepotik ez ete da hau aberastu!.
- 6 - **Zenbatekua** da hau? - Hori, hamar millakua.
- 8 - Zortzi umekin jua izan naiz Parisera. - **Zenbatekin**?, zortzikin?; ez zara zu makala!
- 10 - **Zenbatentzat** prestauko dot afarixa? - **Zenbatendako**?, ba, hamarrendako.
- 12 - **Zenbatian** dago bildotsa?. **Zenbatengan** jarri leike ba konfiantzia?.
- 14 - **Zenbatera** da partidua? - 22ra. **Zenbatengana** ez ete dau jo harek mesede eske!
- 15 - Ez dakit, ba, **zenbateraiño** aittu daben! **Zenbateraiño** zare laguntzeko prest?  
- **Zenbateraiño**ko egixa dan hori, zeinek jakin?.
- 17 - **Zenbatenganako** ezinikusixa dakan batek baiño gehixagok!
- 18 - **Zenbana** doiaz? Hogeita bana, eta partidua 22ra.  
**Zenbana** emon detsezu? Hamarna milla peseta.

2.2.2 - **Iñor, edonor, edozeiñ, norbaitt, zenbaitt** (1/2)

KASUA	IÑOR	EDONOR	EDOZEIÑ
1- Absolutua	iñor	edonor	edozeiñ
2- Partitibua	----	----	----
3- Ergatibua	iñok	edonorek	edozeiñek
4- Datibua	iñori	edonori	edozeiñi
5- Genitibua	iño(re)n	edonoren	edozeiñen
6- Leku genitibua	----	----	----
7- Instrumentala	----	----	----
8- Soziatibua	iñokin / iñogaz	edonorekin /-gaz	edozeiñekin / -gaz
9- Motibatibua	iñogaittik	edonoregaittik	edozeiñegaittik
10- Destinatibua	iñontzat / -dako	edonorentzat /-dako	edozeiñentzat / -dako
11- Prolatibua	iñortzat	edonortzat	edozeintzat
12- Inesibua	iño(n)gan	edonore(n)gan	edozeiñe(n)gan
13- Ablatibua	iño(n)gandik	edonore(n)gandik	edozeiñe(n)gandik
14- Adlatibo soilla	iño(n)gana	edonore(n)gana	edozeiñe(n)gana
15- Muga adlatib.	iño(n)ganaiño	edonore(n)ganaiño	edozeiñe(n)ganaiño
* - M. adl. g .er.	iño(n)ganaiñoko	edonore(n)ganaiñoko	edozeiñe(n)ganaiñoko
16- Hurbiltze adl.	iño(n)ganutz	edonore(n)ganutz	edozeiñe(n)ganutz
17- Adl. gaiñ. eraik	iño(n)ganako	edonore(n)ganako	edozeiñe(n)ganako
18- Banatzaillia	----	----	----

**Oharra:** “Zein”ek “nor”i lekua kendu detsan moduan kendu detsa “edozeiñ”ek “edonor”i. Esan deigun, *edonor* eta *edozein*, *nor* eta *zein* deklinatzen diran modu berian deklinatzen dirala. Ez dogu premiñazkotzat ikusi, *edozeiñ*-en bizigabien deklinabidia hamen jartzia.

Adibidiak:

- 1 - Gauko erromerixan ez da **iñor** izan (TE). Zahartutzian gauzarik tristiena, **iñor** bihar izatia (TE).
  - **Iñor** balitz, ointxe dauka aukeria bere burua aurrera ataratzeko (TE). **Iño(r)** be ez dot ikusi.
  - **Edonor** da gaur lehengo aberatsak beste (TE). **Edozeiñ** kaka-umek jaukaz gaur hirurogei urte (TE). - Ez dakigu ba, **edozeiñ** izan leike hori egin dabena. Hori ez da gero **edozeiñ!**
- 3 - **Iñok** be ez nau maitte. **Iñok** ez dau oindiok halakorik egin. **Edozeiñek** daki hori gaur egunian
- 4 - Ez esan **iñori!**. **Iñori** be ez jako halakorik egin bihar. **Edozeiñi** gertau leikixo hori.
- 5 - **Iñoren** andria beti eder. **Iñoren** bendian bizi biharra ez da ederra. Ez da hori **edozeiñen** laguna.
  - **Iñona**, norberana beziñ ondo edo hobeto gorde bihar da (TE).
  - Bere bizi guztian, **iñon** pekora ibilli zan, beste zintzo asko baiño hobeto (TE).
  - Oiñ dala bi milla urte bezela, **iñon** begixan lastua ikusi eta habia ez norberanian (TE).
- 8 - Ezin leike **iñokin** be fixau. **Edozeiñekin** juango litzake gure mutikua.
- 9 - Ez dogu **iñogaittik** gauza txarrik esan. **Edozeiñegaittik** mesediak egitteko prest.
- 10 - Ez noia gehixago **iñondako** biharrik egittera. - Zeiñendako da, ba, hau? - Hori? **edozeiñendako**.
- 12 - **Iñogan** badozu zuk konfiantzarik ala? **Edozeiñegan** jartzen dau konfiantzia
- 13 - Ez **iñogandik** ezer espero. **Edozeiñegandik** hartuko neuke laguntasuna.
- 14 - Ez da **iñogana** be hurreratu. Ez da ha **edozeiñegana** hurreratu.
- 17 - Ez dau harek **iñoganako** gorrotorik. **Edozeiñenganako** agertuko dau harek jarrera ona.

2.2.2 - Iñor, edonor, edozeiñ, **norbaitt**, **zenbaitt** (2/2)

KASUA	NORBAITT	ZENBAITT	
1- Absolutua 2- Partitibua 3- Ergatibua 4- Datibua	norbaitt ---- norbaittek norbaitti	zenbaitt ---- zenbaittek zenbaitti	
5- Genitibua 6- Leku genitibua	norbaitten ----	zenbaitten zenbaittetako / ----	
7- Instrumentala 8- Soziatibua 9- Motibatibua 10- Destinatibua 11- Prolatibua	(norbaittez) norbaittekin / -gaz norbaittegaittik norbaittentzat / -dako ----	(zenbaittez) zenbaittekin / -gaz zenbaittegaittik zenbaittentzat / -dako ----	
		Bizigabiak	Bizidunak
12- Inesibua 13- Ablatibua 14- Adlatibo soilla 15- Muga adlatibua * - M.adl.gaiñian.eraikia 16- Hurbiltze adlatibua 17- Adl. gaiñ. eraikixa 18- Banatzaillia	norbaitte(n)gan norbaitte(n)gandik norbaitte(n)gana norbaitte(n)ganaiño norbaitte(n)ganaiño norbaitte(n)ganutz Norbaitte(n)ganako -----	zenbaittetan zenbaittetatik zenbaittetara zenbaittetaraiño zenbaittetaraiño zenbaittetarutz zenbaittetarako -----	zenbaitte(n)gan zenbaitte(n)gandik zenbaitte(n)gana zenbaitte(n)ganaiño zenbaitte(n)ganaiño zenbaitte(n)ganutz zenbaitte(n)ganako -----

## Adibidiak:

- 1 - *Norbaitt* ibilli da nere papeletan (TE). *Zenbaitt* izan balitza ez zetsan parkatuko (TE).
- 3 - *Norbaittek* deittu dau (bateronbatek). *Zenbaittek* ikasi daben moduan be ez dogu ikasi-eta.
- 4 - *Norbaitti* jausi jako ba karteriau. *Zenbaitti* ez litxakixo bape gustauko esan dozuna.
- 5 - *Norbaitten* etxian egongo da, lagunuen baten etxian. *Zenbaitten* moduan ez gara gu ohittu!
- 8 - Bakarrik ez da egongo, *norbaittekin* egongo da. *Zenbaittekin* baiño bakarrik hobe.
- 9 - *Norbaittegaittik* dabill hori dabillen moduan. *Zenbaittegaittik* mogidu be ez giñake egingo.
- 10- *Norbaittentzat* badihardu ba idazten. *Zenbaittentzako* ez da hori barri txarra.
- 12- Badauka honek esperantzia *norbaittegan*. *Zenbaittetan* hobe ixillik geratu.  
*Zenbaittegan* ezin leike itxaropenik jarri.
- 13- *Norbaittegandik* laguntzarik badator, hartu. *Zenbaittegandik* ez espero iñungo laguntzarik.
- 14- *Norbaitteguna* badoia ha poz-pezik. *Zenbaitteguna*, hurreratu be ez, hain dira zittalak eze.
- 17- *Norbaitteganako* joera apartekua dauka. *Zenbaitteganako* gorrotuori ezin dabe ezkutau.

### 2.2.3 - Ezer, zerbaitt, zeozer, edozer

KASUA	EZER	ZERBAITT	ZEOZER/ ZEREDOZER	EDOZER
1- Absolutua	ezer	zerbaitt	zeozer	edozer
2- Partitibua	----	----	----	----
3- Ergatibua	ezek	zerbaittek	zeozek	edoze(re)k
4- Datibua	ezeri	zerbaitti	zeozeri	edozeri
5- Genitibua	ezeren	zerbaitten	zeozeren	edozeren
6- Leku genitibua	(ezetako)	(zerbaittetako)	(zeozetako)	(edoziertako)
7- Instrumentala	(ezetaz)	(zerbaittez)	(zeozetaz)	(edozerrez / -taz)
8- Soziatibua	ezekein / ezegaz	zerbaittekiñ /-gaz	zeozekiñ /-gaz	edozerekin /-gaz
9- Motibatibua	ezegaittik	zerbaittegaittik	zeozegaittik	edozegaittik
10- Destinatibua	ezendako	zerbaittendako	zeozendako	edozerendako
		zerbaittentzat	zeozentzat	edozerentzat
11- Prolatibua	ezertzat	zerbaitzat	zeozertzat	edozertzat
12- Inesibua	ezetan	zerbaittetan	zeozetan	edoze(r)tan
13- Ablatibua	ezetatik	zerbaittetatik	zeozetatik	edoze(r)tatik
14- Adlatibo soilla	ezetara	zerbaittetara	zeozetara	edoze(r)tara
15- Muga adlatib.	ezetaraiño	zerbaittetaraiño	zeozetaraiño	edoze(r)taraiño
* - M. adl. g.er.	ezetaraiñoko	zerbaittetaraiñoko	zeozetaraiñoko	edoze(r)taraiñoko
16- Hurbiltze adl.	ezetarutz	zerbaittetarutz	zeozetarutz	edoze(r)tarutz
17- Adl. g. eraik	ezetarako	zerbaittetarako	zeozetarako	edoze(r)tarako
18- Banatzaillia	----	----	-----	----

**Oharra:** *Zerbaitt* baiño normalagua da *zeozer*. T.E-ak *zeozer* jartzen dau Lexikoian.

Leku genitiborik (6) ez darabigu izenordaiñotan. Instrumentalaren erabilleria be barrixa da gurian.

Adibidiak:

- 1 - *Ezer* ez dauka eta harrokerixaz beteta dabill (TE). Ez dot *ezer* entzun. *Ze(g)ozer* darabixe euren artian (TE). *Edozer* jateko da harendako ona (TE).
- 3 - *Ezek* be ez dau ha bildurtuko. *Zeozek* egin detsa kalte. *Edoze(re)k* eragin leikixo txarrera.
- 4 - *Ezeri* be ez detsa begiratzen. *Zeozeri* helduta han pasau eban gaba. *Edozeri* egitten detsa barre.
- 5 - Ha gizajua ez da *ezeren* jabe. *Zeozeren* premiñan bazagoz deittu. *Edozeren* premiñan ni.
- 8 - Ez da *ezekein* akordatzen. Konponduko naiz *zeozekiñ*. Tira! hori *edozerekin* egin leike-eta.
- 9 - *Ezegaittik* be ez dau nahi. *Zeozegaittik* esango eban hori. *Edozergaittik* jausi leike.
- 10 - *Ezendako* be ez da hori. *Zeozendako* izango da pieziori. *Edozerendako* izan leike.
- 12 - *Ezetan* abilla bada pelotan da. Ez dakit, baiña *zeozetan* jardungo dau. *Edozertan* da ha asko.
- 13 - *Zetatik* sortu jako? - *Ezetatik* be ez; berez sortu jako. - *Zeozetatik* izango da ezta?
- 14 - Ez noia ni hara *ezetara*. Badoia hori *zeozetara*. *Edoze(r)tara* joten dau harek.
- 17 - Ez da *ezetarako* gauza. Ez dakit *zetarako* baiña *zeozetarako* bada. *Edoze(r)tarako* kapaz da.

### 2.3 - ALKAR izenordaiñaren deklinabidia

KASUA	ALKAR
1 - Absolutua	alkar
2 - Partitibua	----
3 - Ergatibua	----
4 - Datibua	alkarri
5 - Genitibua	alkarren
6 - Leku genitibua	----
7 - Instrumentala	----
8 - Soziatibua	alkarrekin / alkarregaz
9 - Motibatibua	----
10 - Destinatibua	alkarrentzat / alkarrendako
11 - Prolatibua	----
12 - Inesibua	alkarre(n)gan
13 - Ablatibua	alkarre(n)gandik
14 - Adlatibo soilla	alkarre(n)gana
15 - Muga adlatibua	alkarre(n)ganaiño
- M.adl. gaiñ.eraikixa	alkarre(n)ganaiño
16 - Hurbiltze adlatibua	alkarren(n)ganutz
17 - Adl. gaiñ.eraik	alkarre(n)ganako
18 - Banatzaillia	----

**Oharra:** ALKAR izenordaiñ erreziprokua da, eta teorixan, kasu-marka guztiak hartu leikez izenordaiñ honek ergatibua (NORK) izan ezik. Beste izenordaiñen moduan, mugagabian deklinatzen da.

Adibidiak:

- 1 - Hónek neska-mutilok **alkar** maitte dabe. **Alkar** ikusiko dogu bixar.
  - **Alkar** aittuta juan ziran lapurretan egitteko (TE).
  - Bihargiñak **alkar** hartu eta sindikatuak jarri ziranian, aurrerakada haundixa egiñ eben euren bizimoduan (TE). Uretara jausi ziranian **alkar** galdu eben (TE).
  - Begi onak eta **alkar** ikusi ezin, gauzarik tristiena (TE).
  - Halako martxan **alkar** joko dabe hórrek azkenian.
- 4 - **Alkarri** lagunduz aurrerakada haundixa egin dabe.
- 5 - **Alkarren** artian eruango dogu errezago.
- 8 - Hárek andra-gizon bixak, alde guztietara **alkarregaz** agertzen ziran beti (TE).
  - **Alkarrekin** bizi gara gu aspaldittik.
- 10 - **Alkarrendako** borondate haundixa eben (TE). **Alkarrendako** errespetuan hobeto izango gara.
  - **Alkarrentzat** gorrotua baiño besterik ez dake hórrek.
- 12 - Hurreratu zaittie **alkarregana**.
- 13 - **Alkarregandik** urrin dabiz hórrek.
- 15 - Esan zittuezen gauzak **alkarreganaiño** aillegau ziran.
- 16 - **Alkarreganutz** joten jakin eben eta ondo konpontzen dira oiñ.
- 17 - **Alkarrenganako** amorixuakiñ dagoz hórrek gaixorik.

## 2.4 - BESTE berbiaren deklinabidia (1/2)

KASUA	BESTE (mugagabia)	
1-Absolutua	beste	
2-Partitibua	besterik	
3-Ergatibua	bestek	
4-Datibua	besteri	
5-Genitibua	besteren	
6-Leku-genitibua	bestetako	
7-Instrumentala	(beste(z))	
8-Soziatibua	beste(re)kin	
9-Motibatibua	beste(re)ngaittik	
10-Destinatibua	beste(re)ntzat / beste(re)ndako	
11-Prolatibua	bestetzat	
	Bizigabiak	Bizidunak
12-Inesibua	bestetan	beste(ren)gan
13-Ablatibua	bestetatik	beste(ren)gandik
14-Adlatibo soilla	bestetara	beste(ren)gana
15-Muga adlatibua	bestetaraiño	beste(ren)ganaiño
-M.adl.gaiñ. erai.	bestetaraiñoko	beste(ren)ganaiñoko
16-Hurbiltze adlat.	bestetarutz	beste(ren)ganutz
17-Adlat. gaiñ. erai.	bestetarako	beste(ren)ganako
18-Banatzailia	----	----

**Oharra:** Hau berbiau izenordaintzat, determinatzailetzat eta izenlaguntzat hartu izan da, baiña gehixen-tan izenlagunaren lekuan agertzen da. Deklinatzen darian izenordain bihurtzen da eta izenak dittuan moduan, deklinabide mugagabia (BESTE), mugatu singularra (BESTIA) eta mugatu plurala (BESTIAK) ditu. BESTE izenordain moduan eta absolutubua ixia ez da erabiltzen eta beste kasuetan be oso gitxi darabigu “*bat*”ekin batera ez bada: *beste bat*, *beste batek*, *beste bati*, *beste baten*, *beste bateko*...; halanda be, partitibuan (*besterik*) eta inesibuan (*bestetan*) erabiltzen da.

### Adibidiak

Izenlagun edo determinatzaile moduan:

- Oindiok *beste* pieza pillo bat daukazu egitteko. Gaur *beste* batzuetan baiño hobeto nabil.
- *Beste* etxe horretan bizi naiz. Ez dakagu *beste* erremedixorik, arazuari fronte egin baiño.
- Hara juateko ez dago *beste* biderik. Ez guk, *beste batzuk* egin dabe oker hori (TE).
- Haren ondoren, *beste batzuek* agertu ziran (TE). *Beste baten*, ordittuta, emaztiari eskua ezarri zetsan (TE). *Beste* gizonori ez dot ezagutzen. *Beste* zeinek galdetu zetsun neregaittik?
- Bazara zu ni *beste* jate kontuan (TE). Lehenguari *beste hainbeste* gehitu bihar detsazu...(TE).

Izenordaiñ moduan:

- 1 - Bat edo *beste*, belu baten, agertu ziran (TE).
- 2 - *Besterik* zeu baiño, ez deilla etorri (TE). *Besterik ezian*, arto sikua be ona da (TE).  
Aurtengo Sanjuanak, *besterik ez lakuak*, jendez eta jolasez (TE). *Besterik ez lakua* zan edertasunian, hogeit urte zittuanian (TE). Hamen ez dago haxe baiño *besterik*.
- 3 - ”*Bestek*” barik, “*iñok*” edo “*beste batek*” erabiltzen dogu. Hori egin deixala *iñok* / *beste batek*.
- 4 - Norberak txarto egitten dabena, ez gero *iñori* / *beste bati* leporatu. (*besteri*-ren orde(z)).
- 5 - *Iñoren* etxian ez egin halakorik (*besteren*-en orde(z)).
- 6 - Gaur ez dot *bestetako* hanka-sarturik egiñ. 12 - Gaur *bestetan* baiño hobeto jokatu dot.



## 2.4 - BESTE berbiaren deklinabidia (2/2)

KASUA	BESTE			
	mugatu singularra		mugatu plurala	
1-Absolutua	bestia		bestiak	
2-Partitibua	----		----	
3-Ergatibua	bestiak		bestiak	
4-Datibua	bestiari		bestieri	
5-Genitibua	bestiaren		bestien	
6-Leku-genitibua	besteko		bestietako	
7-Instrumentala	(bestiaz)		(bestiez)	
8-Soziatibua	bestiakin		bestiekin	
9-Motibatibua	bestiagaittik		bestiegaittik	
10-Destinatibua	bestiantzat / bestiandako		bestientzat / bestiendako	
11-Prolatibua	----		----	
	Bizigabiak	Bizidunak	Bizigabiak	Bizidunak
12-Inesibua	bestian	bestiagan	bestietan	bestie(n)gan
13-Ablatibua	bestetik	bestiagandik	bestietatik	bestie(n)gandik
14-Adlatibo soilla	bestera	bestiagana	bestietara	bestie(n)gana
15-Muga adlatibua	besteraíño	bestiaganaiño	bestietaraiño	bestie(n)ganaiño
-M.adl.gaiñ. eraik.	besteraíño <span style="font-size: small;">ko</span>	bestiaganaiño <span style="font-size: small;">ko</span>	bestietaraiño <span style="font-size: small;">ko</span>	bestie(n)ganaiño <span style="font-size: small;">ko</span>
16-Hurbiltze adlatib.	besterutz	bestiaganutz	bestietarutz	bestie(n)ganutz
17-Adlat. gaiñ. eraik.	besterako	bestiaganako	bestietarako	bestie(n)ganako
18-Banatzailia	----	----	----	----

## Adibidiak:

- 1 - Badihardu horrek *bata eta bestia* esaten baiña ez egin kasurik. Hartizue horixe *bestiak* baiño hobia da eta. *Batzuk eta bestiak*, danak antzerakuak. Umiak ez dau nahi *ez bata eta ez bestia*.
- 3 - *Batak* gorrixa nahi dau eta *bestiak* baltza; gatxa alkar aitzia. Guk nahi dogu konpontzia baiña *bestiak* ez. Batzuk harrapau zittuezen, baiña *bestiak* ihes egiñ eben.
- 4 - Esan *bestieri* be etorri deittian. *Batari* gertau jakona baltza eta *bestiari* baltzagua, a zer paria!
- 5 - *Bataren eta bestiaren* esanak entzun dittugu. Ez egin kasurik *bestien* esaneri.
- 6 - Ez da hori talde honetakua *bestekua* baiño. Kale honetakuak *bestietakuak* baiño harruaguak dira.
- 8 - *Batakin zein bestiakin*, bixekin konpontzen gara ondo. Hónekin frakokin baiño hobeto zare *bestiekiñ*. Erabagixa hartu aurretik egin berba *bestiekin* be.
- 9 - *Batagaittik edo bestiagaittik* baiña amaittu barik. Ez jako *bestiegaittik* ezer ardura.
- 10 - Honendako barik *bestiandako* hobe. *Batzuentzat zein bestientzat*, danentzat etorri da ondo.
- 12 - Harek *bestian* joten eban soiñua gure lagunak.
  - *Batian zein bestian*, bixetan bazkaldu geinke ondo. Pentsau *bestiengan* be.
- 13 - *Batetik eta bestetik* atara eben aztarrena. Asko ikasi geinke *bestiegandik*.
- 14 - *Batera eta bestera* eguna emon dot ganora barik (TE). *Batagana eta bestiagana* jo eban baiña ez eban ezer atara. *Bestiengana* be hurreratu bihar da, gauzak konponduz juan deittian.
- 16 - *Baterutz zein besterutz* urten, igual dok; primeran ibilliko gaittuk.
- 17 - *Baterako zein besterako* prest egon bihar da bat. *Bestienganako* maittasuna gauza ederra da



### **3 - ERAKUSLIEN DEKLINABIDIA**



## 3.1 - Erakusle arrunten deklinabidia: hau, hori, ha (1/5)

KASUA	HAU			
	Singularra		Plurala	
1- Absolutua	hau		hónek	
2- Partitibua	----		----	
3- Ergatibua	honek		hónek	
4- Datibua	honi		hóneri	
5- Genitibua	honen		hónen	
6- Leku genitibua	honetako		hónetako	
7- Instrumentala	(honez)		----	
8- Soziatibua	honekin		hónekin	
9- Motobatibua	honegaittik		hónegaittik	
10- Destinatibua	honentzat / -dako		hónentzat / -dako	
	<b>Bizigabiak</b>	<b>Bizidunak</b>	<b>Bizigabiak</b>	<b>Bizidunak</b>
12- Inesibua	honetan	hone(n)gan	hónetan	hóne(n)gan
13- Ablatibua	honetatik	hone(n)gandik	hónetatik	hóne(n)gandik
14- Adlatibo soilla	honetara	hone(n)gana	hónetara	hóne(n)gana
15- Muga adlatib.	honetaraiño	hone(n)ganaiño	hónetaraiño	hóne(n)ganaiño
* - M. adl. g. er.	honetaraiño	hone(n)ganaiño	hónetaraiño	hóne(n)ganaiño
16- Hurbiltze adl.	honetarutz	hone(n)ganutz	hónetarutz	hóne(n)ganutz
17- Adl. g. eraik.	honetarako	hone(n)ganako	hónetarako	hóne(n)ganako

KASUA	HORI			
	Singularra		Plurala	
1- Absolutua	hori		hórrek	
2- Partitibua	----		----	
3- Ergatibua	horrek		hórrek	
4- Datibua	horri		hórre	
5- Genitibua	horren		hórren	
6- Leku genitibua	horretako		hórretako	
7- Instrumentala	(horrez)		----	
8- Soziatibua	horrekin		hórrekin	
9- Motobatibua	horregaittik		hórregaittik	
10- Destinatibua	horrentzat / -dako		hórrentzat / -dako	
	<b>Bizigabiak</b>	<b>Bizidunak</b>	<b>Bizigabiak</b>	<b>Bizidunak</b>
12- Inesibua	horretan	horre(n)gan	hórretan	hórre(n)gan
13- Ablatibua	horretatik	horre(n)gandik	hórretatik	hórre(n)gandik
14- Adlatibo soilla	horretara	horre(n)gana	hórretara	hórre(n)gana
15- Muga adlatib.	horretaraiño	horre(n)ganaiño	hórretaraiño	hórre(n)ganaiño
* - M. adl. g. er.	horretaraiño	horre(n)ganaiño	hórretaraiño	hórre(n)ganaiño
16- Hurbiltze adl.	horretarutz	horre(n)ganutz	hórretarutz	hórre(n)ganutz
17- Adl. g. eraik.	horretarako	horre(n)ganako	hórretarako	hórre(n)ganako

### 3.1 - Erakusle arrunten deklinabidia: hau, hori, ha (2/5)

KASUA	HA			
	Singularra		Plurala	
1- Absolutua	ha		hárek	
2- Partitibua	----		----	
3- Ergatibua	harek		hárek	
4- Datibua	hari		háleri	
5- Genitibua	haren		háren	
6- Leku genitibua	haretako		háretako	
7- Instrumentala	----		----	
8- Soziatibua	harekin		hárekin	
9- Motobatibua	haregaittik		háregaittik	
10- Destinatibua	harentzat / -dako		hárentzat / -dako	
	Bizigabiak	Bizidunak	Bizigabiak	Bizidunak
12- Inesibua	haretan	hare(n)gan	háretan	háre(n)gan
13- Ablatibua	haretatik	hare(n)gandik	háretatik	háre(n)gandik
14- Adlatibo soilla	haretara	hare(n)gana	háretara	háre(n)gana
15- Muga adlatib.	haretaraiño	hare(n)ganaiño	háretaraiño	háre(n)ganaiño
* - M. adl. g. er.	haretaraiño	hare(n)ganaiño	háretaraiño	háre(n)ganaiño
16- Hurbiltze adl.	haretarutz	hare(n)ganutz	háretarutz	háre(n)ganutz
17- Adl. g. eraik.	haretarako	hare(n)ganako	háretarako	háre(n)ganako

#### Oharrak:

(1) Tauletan, “Eibarreraz Idazteko Oiñarrizko Erizpidiak”-en erabagi zan moduan, erakusle pluralak azento grafikuakin jarri ditudu, singularretatik bereizteko. Adibidietako azalpenetan eta, ostera, entonaziñua bihar dan moduan bereizteko, singularreri be azentua jarri detsat. Baiña azalpen eta adibidietan bakarrik.

(2) Ikusi: Leku-denborazko kasuetan (6,12,13,14,15,16,17) “3.3” atala, nun azaltzen dan erakuslien orde adverbixuak erabiltzeko daukagun modua. Gaur egunian, Eibarren, asko zabaldua dago gramatika arauetatik kanpo dagan erabilleriori.

(3) Ikusi baita “3.4” eta “3.5” be, nun azaltzen dan, batian erakusliak izenaren aurretik eta atzetik (errepikauta) erabiltzeko daukagun modua, eta bestian erakusliak izenaren atzetik eta beroni lotuta erabiltzeko dogun modua 1. eta 2. gradu erakusle singularrekin.

#### Adibidiak:

1 - Absolutu singularra: **hau dator, hori doia, ha dabil.**

Absolutu plurala: **hónek datoz, hórrek doiaz, hárek dagoz / dare.**

- Gu danon artian **hau** da argixena (TE). Gizon **hau** zorua ez bada gitxi falta jako (TE).
- Txakur **hori** da ehiztari onena (TE). **Hori** da ni galdu guran ibilli zana (TE).
- Jentillak, **hórrek** ziran hamengo lezetan bizi izan ziranak Ebangelixua(re)n aurretik (TE).
- Gizajo **ha** ez dago ondo (TE). Begira nintzan artian jausi zan **ha** (TE).
- **Hárek** dira zuen mendixetan gordeta (darenak) (TE).

2 - Partitibua mugagabian izango litzake, baiña oso raru da erakusliekiñ.

3 - Ergatibo singularra: **honék badaki, horrék dakar, harék darabil.**

Ergatibo plurala: **hónek badakixe, hórrek dakarre, hárek darabixe.**

## 3.1 - Erakusle arrunten deklinabidia: hau, hori, ha. (3/5)

Oharra: Halanda be, berbaldi bakotzeko enfasi berezi batek aldatu eragin leike entonaziñua. Esate baterako: - **Honék** ez daka errazoirik. - **Norek** ez daka? - **Hónék** (batek).

- **Honék** esan desta ez juateko haréngana (TE). **Horrék** asmau dau matasa guztia (TE).
- **Harék** esan dau azkenengo berbia (TE).

4 - Datibo singularra: *emoixok honí, esaixon horrí, harí erosi detsat.*

Datibo plurala: *emoixuek hóneri, esaixone hórleri, háleri erosi detsat.*

- *Ikasle honí ez jakoz gauzak ondo urten. Hóneri bai jausi jakuela amama!*

5 - Genitibo singularra: *honén etxia, horrén autua, harén semia.*

Genitibo plurala: *hónen etxia, hórren autua, háren semia.*

- **Honen** txakurra erbilarixa (TE). **Haren** dendan saltzen dan gauzia, ona, hobia eta onena (TE). **Hónen** etxian beti dabiz umore onian, halakotxe umoretsuak dira **hónék** izan be.
- Háren** taillarrian, bihargiñak beti kontra; zitalak be badira **hárek** eta.

6 - Leku genitibo singularra: *etxe honetáko, etxe horretáko, etxe haretáko.*

Leku genitibo plurala: *etxe hónetako, etxe hórretako, etxe háretako.*

- *Etxe honetáko* gauzak beti ordenan. *Etxe horretáko* bentanak zikiñak dagoz. *Etxe haretáko* peoria politta da. *Mendi hónetako* bidiak konpondu egin dittue.

7 - Instrumentala: Ez dogu Eibarren erabiltzen, baiña neuk jasotakua da **horrez gain** (= hortik aparte) eta biharbada **honez gain** (= eta gaiñera) be bai, nahiz eta atzen honekiñ ez nagan hain seguru erabiltzen dan ala ez.

8 - Soziatibo singularra: *honékin/gaz, horrékin/gaz, harékin/gaz* (bakarrakin)

Soziatibo plurala: *hónekin/gaz, hórrekin/gaz, hárekin/gaz* (batzuekin)

- **Honékin** konponduta dagok hori. - Baitta zera be!, halako batekin bakarrik ez dok hori konponduko. **Hónekin** jai dagon! ez jonagu ezer konponduko gizonokin.

9 - Motibatibo singularra: *honegáittik, horregáittik, haregáittik.* (bategaittik)

Motibatibo plurala: *hónegaittik, hórregaittik, háregaittik.* (batzuegaittik)

- *Huskerixa horregáittik* hasarratu zara? - *Huskerixia diñok?* Egin destazen **hórregaittik** guztiegaittik hasarratu nok ni.

10 - Destinatibo singularra : *honéntzat, horréntzat, haréntzat* (batentzat)

*honendáko, horrendáko, harendáko* (batendako)

Destinatibo plurala: *hónentzat, hórrentzat, hárentzat* (batzuentzat)

*hónendako, hórrendako, hárendako* (batzuendako)

- *Andra honendáko* erregalua erosi dot. **Hárendako** guztiendako be erositta nago.
- *Karameluak horréntzat*, onduen portau dalako. Geratzen diranak **hárentzat**; guztien artian partidu.

11 - Prolatibua: Kasu honetan ez dago erakusliak erabiltzerik.

### 3.1 - Erakusle arrunten deklinabidia: hau, hori, ha. (4/5)

12 - Inesibua:

Singularra		Plurala	
Bizigabiak	Bizidunak	Bizigabiak	Bizidunak
<i>honétan</i>	<i>honé(n)gan</i>	<i>hónetan</i>	<i>hóne(n)gan</i>
<i>horrétan</i>	<i>horré(n)gan</i>	<i>hórretan</i>	<i>hórre(n)gan</i>
<i>harétan</i>	<i>haré(n)gan</i>	<i>háretan</i>	<i>háre(n)gan</i>

- Etxe eder *horrétan* bizi da nere anaia. (etxe batian)
- Etxe eder *hórretan* bizi leike gustora. (etxe batzuetan)
- Ikasle *horrégan* dauka esperantzarik haundiña. (ikasle batengan)
- Ikasle *hórregan* dauka esperantzarik haundiña. (askorengan)
- Hor(re)tan* giñan, baiña gauzak beste modu batian gertau ziran (TE).
- Horretan*, heldu ziran atzetik ziranak (TE).

13 - Ablatibua:

Singularra		Plurala	
Bizigabiak	Bizidunak	Bizigabiak	Bizidunak
<i>honetátik</i>	<i>honé(n)gandik</i>	<i>hónetatik</i>	<i>hóne(n)gandik</i>
<i>horretátik</i>	<i>horré(n)gandik</i>	<i>hórretatik</i>	<i>hórre(n)gandik</i>
<i>haretátik</i>	<i>haré(n)gandik</i>	<i>háretatik</i>	<i>háre(n)gandik</i>

- Tximinixa *horretátik* ke asko dator (tximinixa batetik)
- Tximinixa *hórretatik* ke asko dator (tximixa askotatik)
- Gizon *horregándik* ez dogu gauza onik etarako (batengandik)
- Gizon *hórregandik* ez dogu gauza onik etarako (batzuengandik)

14 - Adlatibo soilla:

Singularra		Plurala	
Bizigabiak	Bizidunak	Bizigabiak	Bizidunak
<i>honetára</i>	<i>honé(n)gana</i>	<i>hónetara</i>	<i>hóne(n)gana</i>
<i>horretára</i>	<i>horré(n)gana</i>	<i>hórretara</i>	<i>hórre(n)gana</i>
<i>haretára</i>	<i>haré(n)gana</i>	<i>háretara</i>	<i>háre(n)gana</i>

- Herri *honetára* etorri diran guztiak aurkittu eben biharra (herri batera)
- Herri *hórretara* guztietara juatia merezi dau (herri batzuetara)
- Neska *horrégana* noia (batengana)
- Neska *hórregana* noia, jatorrak dira eta (batzuengana)

15 - Muga adlatibua:

Singularra		Plurala	
Bizigabiak	Bizidunak	Bizigabiak	Bizidunak
<i>honetáraiño</i>	<i>honé(n)ganaiño</i>	<i>hónetaraiño</i>	<i>hóne(n)ganaiño</i>
<i>horretáraiño</i>	<i>horré(n)ganaiño</i>	<i>hórretaraiño</i>	<i>hórre(n)ganaiño</i>
<i>haretáraiño</i>	<i>haré(n)ganaiño</i>	<i>háretaraiño</i>	<i>háre(n)ganaiño</i>

- Mendi *honetáraiño* igo ezkerre merezi dau pixka batian gozatzia (bateraiño)
- Etxiak dagoz han; etxe *háretaraiño* heldu eta ezkerrian dakazu (batzuetaraiño)
- Gizon *haréganaiño* hurreratu gaittezen (batenganaiño)
- Preso *hárenganaiño* helduko ete dira ba gure animuak! (batzuenganaiño)



## 3.1 - Erakusle arrunten deklinabidia: hau, hori, ha. (5/5)

15 - Muga adlatibuaren gaiñian eraikixa:

Singularra		Plurala	
Bizigabiak	Bizidunak	Bizigabiak	Bizidunak
<i>honetáraiño</i>	<i>honé(n)ganaiño</i>	<i>hónetaraiño</i>	<i>hóne(n)ganaiño</i>
<i>horretáraiño</i>	<i>horré(n)ganaiño</i>	<i>hórretaraiño</i>	<i>hórre(n)ganaiño</i>
<i>haretáraiño</i>	<i>haré(n)ganaiño</i>	<i>háretaraiño</i>	<i>háre(n)ganaiño</i>

- Mendi *honetáraiño* bidia egiñ arren, ez nago bape nekatuta. (bateraiño)
- Herri *háretaraiño* bidia aldapatsua da, baiña herri polittak dira. (batzuek)
- Mutill *haréganaiño* distanzia haundixa da (batenganaiño)
- Errefuxiatu *hórreganaiño* distanzia be ez da txikixa (batzueganaiño)

16 - Hurbiltze adlatibua: Singularra

Singularra		Plurala	
Bizigabiak	Bizidunak	Bizigabiak	Bizidunak
<i>honetáru</i>	<i>honé(n)ganu</i>	<i>hónetaru</i>	<i>hóne(n)ganu</i>
<i>horretáru</i>	<i>horré(n)ganu</i>	<i>hórretaru</i>	<i>hórre(n)ganu</i>
<i>haretáru</i>	<i>haré(n)ganu</i>	<i>háretaru</i>	<i>háre(n)ganu</i>

- Zatoz leku *honetáru* (bateru)
- Mendi *háretaru* noia, Pirineuetako mendixetaru (batzuetaru)
- Neska *horréganu* noia (batenganu)
- Ume *háreganu* noia, ia zetan dabizen (batzueganu)

17 - Adlatibuaren gaiñian eraikixa:

Singularra		Plurala	
Bizigabiak	Bizidunak	Bizigabiak	Bizidunak
<i>honetá</i>	<i>honé(n)gana</i>	<i>hónetar</i>	<i>hóne(n)gana</i>
<i>horretá</i>	<i>horré(n)gana</i>	<i>hórretar</i>	<i>hórre(n)gana</i>
<i>haretá</i>	<i>haré(n)gana</i>	<i>háretar</i>	<i>háre(n)gana</i>

- Honetá* hauze da egin bihar dozuna (gauza baterako)
- Hori *hórretar* hobeto, beste *háretar* baiño (batzuetar)
- Ume *honégan* daukazun arduria ez da makala (batenganako)
- Preso *háregan* egitten daben ahalegiña txalogarrixa da (batzueganako)

### 3.2 - Erakusle indartuen deklinabidia: hauxe, horixe, haxe. (1/3)

KASUA	HAUXE			
	Singularra		Plurala	
1- Absolut.	hauxe		hónetxek	
2- Partitibua	----		----	
3- Ergatibua	honetxek		hónetxek	
4- Datibua	honetxeri / honitxi		hónetxeri	
5- Genitibua	honetxen		hónetxen	
6- Leku gen.	honetxetako / honetakotxe		hónetxetako / hónetakotxe	
7- Instrum.	----		----	
8- Soziatib.	honetxekin / -gaz		hónetxekin / -gaz	
9- Motibat.	honetxegaittik		hónetxegaittik	
10- Destinat.	honetxentzat / -dako		hónetxentzat / -dako	
	Bizigabiak	Bizidunak	Bizigabiak	Bizidunak
12-Inesibua	honetxetan / honetantxe	honetxe(n)gan	hónetxetan / hónetantxe	hónetxe(n)gan
13-Ablatibua	honetxetatik / honetatitxik	honetxe(n)gandik	hónetxetatik / hónetatitxik	hónetxe(n)gandik
14-Adl. soil.	honetxetara / honetaratxe	honetxe(n)gana	hónetxetara / hónetaratxe	hónetxe(n)gana
15-Muga adl.	honetxetaraíño / honetaraíñotxe	honetxe(n)ganaiño	hónetxetaraíño / hónetaraíñotxe	hónetxe(n)ganaiño
* -M.adl.g.e.	honetxetaraíño / honetaraíñokotxe	honetxe(n)ganaiño / honetaraíño / honetaraíñokotxe	hónetxetaraíño / hónetaraíñokotxe	hónetxe(n)ganaiño / hónetaraíño / honetaraíñokotxe
16-Hur. adl.	honetxetarutz	honetxe(n)ganutz	hónetxetarutz	hónetxe(n)ganutz
17-Adl. g. er.	honetxetarako / honetarakotxe	honetxe(n)ganako	hónetxetarako / hónetarakotxe	hónetxe(n)ganako

#### Oharrak:

(1) Erakusle indartuak, arrunteri **-xe / -txe** atzizkixa ezarriz eratzen dira. Baiña atzizkixori, kasu batzuetan, kasu-markiaren aurretik jartzen dabe batzuek eta atzetik beste batzuek; eta halan erakusle indartu desbardiñak sortzen dira. Absolutuan, ergatibuan eta genitibuan, danok darabigu bardiñ: *hauxe, honetxek, honetxen / horixe, horretxek, horretxen / haxe, haretxek, haretxen...* Beste kasu guztietan ez ostera, erakusle desbardiñak sortuz euskalkixen arabera eta hiztunaren arabera be bai, esango neuke nik. Zein da eibartarrok darabigun praktikia? Jeneralian, kasu-markiaren aurretik jartzen dogu atzizkixori, **horretxetan**, baiña T. Etxebarriak **orretantxe** dakar bere Lexikoian; eta zeinek ez dittu entzun *honitxi, horretarakotxe...* eta halakuak?. Ez dago araurik. Esan deigun, **gehixenetan kasu-markiaren aurretik darabigula**, eta atzian jartzen dogunian leku-denborazko kasuetan jartzen dogula bizidunen deklinabidian baiño gehixago.

(2) **-xe / -txe** atzizkixaren erabilleria be ez dogu danok bardiñ egitten. Badiruri, jeneralian, bokalaren atzetik **-xe** eskatzen dabela eta konsonantiaren atzetik **-txe**. Baiña ez da hori beti kunplitzen.

(3) Erakusle arruntenen antzerako azalpenak emon leikez hemen be. Atal honen atzenian jarri dittugu kasu batzueri (ez daneri) dagokixozen adibide batzuek.

3.2 - Erakusle indartuen deklinabidia: hauxe, **horixe**, haxe. (2/3)

KASUA	HORIXE			
	Singularra		Plurala	
1- Absolut.	horixe		hórretxek	
2- Partitibua	----		----	
3- Ergatibua	horretxek		hórretxek	
4- Datibua	horretxeri / horritxi		hórretxeri	
5- Genitibua	horretxen		hórretxen	
6- Leku gen.	horretxetako / horretakotxe		hórretxetako / hórretakotxe	
7- Instrum.	----		----	
8- Soziatib.	horretxekin / -gaz		hórretxekin / -gaz	
9- Motibat.	horretxegaittik		hórretxegaittik	
10- Destinat.	horretxentzat / -dako		hórretxentzat / -dako	
	<b>Bizigabiak</b>	<b>Bizidunak</b>	<b>Bizigabiak</b>	<b>Bizidunak</b>
12-Inesibua	horretxetan / horretantxe	horretxe(n)gan	hórretxetan / hórretantxe	hórretxe(n)gan
13-Ablatibua	horretxetatik / horretatitxik	horretxe(n)gandik	hórretxetatik / hórretatitxik	hórretxe(n)gandik
14-Adl. soil.	horretxetara / horretaratxe	horretxe(n)gana	hórretxetara / hórretaratxe	hórretxe(n)gana
15-Muga adl.	horretxetaraiño / horretaraiñotxe	horretxe(n)ganaiño	hórretxetaraiño / hórretaraiñotxe	hórretxe(n)ganaiño
* -M.adl.g.e.	horretxetaraiñoko / horretaraiñokotxe	horretxe(n)ganaiñoko	hórretxetaraiñoko / hórretaraiñokotxe	hórretxe(n)ganaiñoko
16-Hur. adl.	horretxetarutz	horretxe(n)ganutz	hórretxetarutz	hórretxe(n)ganutz
17-Adl. g. er.	horretxetarako / horretarakotxe	horretxe(n)ganako	hórretxetarako / hórretarakotxe	hórretxe(n)ganako

3.2 - Erakusle indartuen deklinabidia: haxe, horixe, **haxe**. (3/3)

KASUA	HAXE			
	Singularra		Plurala	
1- Absolut.	haxe		háretxek	
2- Partitibua	----		----	
3- Ergatibua	haretxek		háretxek	
4- Datibua	haretxeri / haritxi		háretxeri	
5- Genitibua	haretxen		háretxen	
6- Leku gen.	haretxetako / haretakotxe		háretxetako / háretakotxe	
7- Instrum.	----		----	
8- Soziatib.	haretxekin / -gaz		háretxekin / -gaz	
9- Motibat.	haretxegaittik		háretxegaittik	
10- Destinat.	haretxentzat / -dako		háretxentzat / -dako	
	Bizigabiak	Bizidunak	Bizigabiak	Bizidunak
12-Inesibua	haretxetan / haretantxe	haretxe(n)gan	háretxetan / háretantxe	háretxe(n)gan
13-Ablatibua	haretxetatik / haretatitxik	haretxe(n)gandik	háretxetatik / háretatitxik	háretxe(n)gandik
14-Adl. soil.	haretxetara / haretaratxe	haretxe(n)gana	háretxetara / háretaratxe	háretxe(n)gana
15-Muga adl.	haretxetaraiño / haretaraiñotxe	haretxe(n)ganaiño	háretxetaraiño / háretaraiñotxe	háretxe(n)ganaiño
* -M.adl.g.e.	haretxetaraiñoko / haretaraiñokotxe	haretxe(n)ganaiñoko	háretxetaraiñoko / háretaraiñokotxe	háretxe(n)ganaiñoko
16-Hur. adl.	haretxetarutz	haretxe(n)ganutz	háretxetarutz	háretxe(n)ganutz
17-Adl. g. er.	haretxetarako / haretarakotxe	haretxe(n)ganako	háretxetarako / háretarakotxe	háretxe(n)ganako

Adibidiak:

- 1 - **Haxe** izan da hori esan dabena.
  - **Hónetxek**, eta ez besterik, dira hondamendi hori egin dabena (TE). -**Horixe** berberori da hondamendi hau ekarri dabena (TE). - **Hórretxek** (dira) lehenengo hona azaldu ziranak (TE).
  - **Haxe** zan ba antxixiketalari onenori!. -Golfua zan baiña **haxe** maitte eban.
  - **Háretxek** izan ziran ha hondamendixa ekarri ebenak (TE).
- 3 - **Honétxek** egin dau oker hori (TE). - **Hónetxek** ekarri dabe kaltia.
  - **Horrétxek** galdu ninduan ni (TE). - **Hórretxek** zerok galdu gaittue gu.
  - **Harétxek** eta ez bestek egiñ eban oker hori (TE). **Háretxek** egiñ eben aurrera.
- 4 - **Honítxi** gertau jako ba lehen kontau detsutena. - **Hónetxeri** jarri detse multia.
- 5 - **Haretxén** onduan daguana da nere andrageixa. - **Háretxen** jarlekuak dira hónek.
- 8 - Hórrekin gaztiokin dogu jarritta geure itxaropena; **hórretxekin**.
- 9 - **Horretxégaittik** esan detsut esan detsutena. **Hórretxegaittik** galdu giñan gu.
- 10 - **Horretxéndako** da nere botua. **Hórretxendako** da mundua, lotsabakuendako.
- 12 - Etxe **honetántxe** bizi izan nintzan neure gazte-denboran.
  - Sinistu gura badozu, **horretántxe** nago neu be (TE). Ez ardurarik euki; **hor(re)tántxe** izango naiz hil arte (TE). Neu be **har(e)tántxe** nago, egixa dala diñuana (TE).
  - Hórrengan gaztiongan dogu jarritta geure itxaropena; **hórretxe(n)gan**.
  - Dibujua gustatzen jakon eta **horretántxe** entretenitzen zan.
- 13 - Goiko mendi **haretxetatik / haretátitxik** nator eta zuek beste urriñeko **háretxetatik** zatozie.

### 3.3 - Adberbixuak erakuslien ordeztuak, erakuslien deklinabidian.

Erabilleriau Eibarko deklinabidiaren barruan azaltziari derriorezkua deritxogu, gramatika arauetatik kanpo egon arren, eibartarron artian, gaur egunian behintzat, hain zabaldua dagan ezker. Toribio Etxebarriak be ezautuko eban seguru erabilleriau, baiña ez zeritxon, itxuria, egokixa idazterakuan erabiltzeko, Lexikoiaren adibidietan ez da behintzat halakorik agertzen. Leku-denborazko kasuetan bakarrik darabigu. Leku edo denborazko adberbixua jartzen dogu aurretik deklinauta (*hamengo*) eta harek determinatzen daben izena atzetik, deklinauta hau be (*etxeko*): *hamengo etxeko, horko etxeko..., oingo asteko* eta abar, *etxe honetako, etxe horretako..., aste honetako* eta abarren pareko. Leku adberbixo arruntekin jarriko dogu, adibidetzako dogun tauliau:

KASUA	Leku-adberbixo arruntekin		
	HAMEN/HEMEN	HOR	HAN
12 - Inesibua	hamen etxian	hor etxian	han etxian
6 - Leku-genitibua	hamengo etxeko	horko etxeko	hango etxeko
13 - Ablatibua	hamendik etxetik	hortik etxetik	handik etxetik
14 - Adlatibo soilla	hona etxera	horra etxera	hara etxera
15 - Muga adlatib.	honaiño etxeraíño	horraiño etxeraíño	haraiño etxeraíño
- M.adl.g.eraikia	honaiñoeko etxeraíñoeko	horraiñoeko etxeraíñoeko	haraiñoeko etxeraíñoeko
16 - Hurbil.adlatib.	honutz etxerutz	horrutz etxerutz	harutz etxerutz
17 - Adlat.gaiñ.er.	honako etxerako	horrako etxerako	harako etxerako

Taula honetan izena (*etxe*) singularrian bakarrik jarri dogu, baiña pluralian bardin-bardin jarri leike, jakiña.

Gehixen darabiguzen kasuak, 12, 6, 13 eta 14a dira.

Bada beste joera barrixago bat be zabalduz doiana: adberbixua deklinau barik jartziarena. Esate baterako: \* *hor etxeko, horko etxeko* edo *etxe horretako* esan biharrian,

\* *hor etxetik, hortik/ko etxetik* edo *etxe horretatik* esan biharrian,

\* *hor etxera, horra/horko etxera* edo *etxe horretara* esan biharrian.

Leku-adberbixuen modu berian darabiguz denbora adberbixuak be.

Adibidiak:

12 - *Oingo astian* bihar larregi egin dot. *Han(go) mendixan* piñu asko dago.

- *Hor(ko) etxe ederrian* bizi da. *Hor(ko) etxe edérretan* bizi dira.

- *Han(go) mendixetan* ibilli gara ederto.

- *Hamen(go) etxian* ez da ezer falta. *Hamen / hamengo etxíetan* beti dago zeozer.

6 - *Horko etxeko* txakurra zittala da. *Horko básarrixetako* txakurrekiñ argi ibilli!

13 - *Hortik / horko tximinixatik* keia dator. *Hortik / horko tximínixetatik* keia dator.

14 - *Hona / hamengo mendira* heldu da artaldia. *Hona / hamengo mendixetara* dakarrez.

### 3.4 - Erakusliak izenaren aurretik eta atzetik, deklinabidian.

Erakuslien deklinabidian sarri txamar darabigu hau moduau. Modu jatorra eta babestu biharrekua. Erakuslia izenaren aurretik eta atzetik jartzen dogu, atzian errepikauta doian erakuslia izenari lotuta doiala. Adibide batzuen bittartez azalduko dot:

#### Izena singularrian doianian.

- 1 - Ikusi dok ze ondo akabauta daguan *hau pieziau?*
- 3 - *Horrék mutillórrek* ez dau gauza onik egingo.
- 4 - Zer pasau jako *harí neskiári?*
- 5 - *Horrén andriórren* jazteko modua barregarrixa be bada.
- 8 - *Honékin gizonónekiñ* ezin dot erabagirik hartu.
- 9 - *Haregáittik txótxoluaeregáittik* gertau jaku gertau jakuna.
- 10 - *Honendáko umiónendako* badaukat ba nik karamelua.
- 12 - *Horré(n)gan gaztiórre(n)gan* daukat nik konfiantzia, ez beste iñongan.
- 13 - *Horrégandik maisuorrégandik* ikasi eban harek ikasi ebana.
- 14 - *Harégana neskiágana* juaten da sarri gure mutilla.
- 17/3 - *Horrénganako neskiórrenganako, harék mutillák* daukan amorixua sekulakua dok.

#### Izena pluralian doianian eta erakuslia 1. edo 2. gradukua bada (hónek edo hórrek), izenak plural hurbilleko markia hartzen dau.

- 1 - Ikusi dok ze ondo akabauta daren *hónek píezok?*
- 3 - *Hórrek mútillok* ez dabe gauza onik egingo.
- 4 - Zer pasau jakue *hóneri néskori?*
- 5 - *Hórren ándron* jazteko modua barregarrixa be bada.
- 8 - *Hónekin gizonokiñ* ez jonagu gauza zuzenik egingo.
- 9 - *Hórregáittik gaztiógáittik* ez bada ezingo dogu aurrera egin.
- 10 - Ekarri dozu ezer *hónendako úmiondako?*
- 12 - *Hórrengan gizonongan* ezin leiken konfiantzarik euki.
- 13 - *Hónengandik ezjákiñogandik* ez dozue askorik ikasiko.
- 14 - *Hórrengana néskongana* juaten da ha pozik.
- 17/3 - *Hórrenganako gaztiónganako* joera zittalori agertzen jon ba *harék txarrixák!*

#### Izena pluralian doianian eta erakuslia 3. gradukua bada (hárek), izenak plural marka normala hartzen dau.

- 1 - Ikusi zuan ze ondo akabauta zegozen *hárek píezak?*
- 3 - *Hárek mútillak* ez euken kulparik.
- 4 - *Háneri néskeri* juan jakuezen haundiustiak.
- 5 - *Háren ándren* jazteko modua barregarrixa be bazan.
- 8 - *Hárekin gizonekin* ez dagon ezer egitterik.
- 9 - *Háregáittik gaztiégáittik* izan ez balitz, ez giñan gagozen moduan egongo.
- 10 - Karameluak eruan genduzen *hárendako úmiendako*.
- 12 - *Hárengan gizonengan* ezin zeikian konfiantzarik euki.
- 13 - *Háregandik éibartarrégandik* jaso dogu guk geure euskeriau.
- 14 - *Hárengana néskengana* juaten zan ha pozik.
- 17 - *Hárenganako úmienganako* euki zeban arduria eskertzekua da.

### 3.5 - Erakusliak izenaren atzetik eta izenari lotuta, deklinabidian.

Izenari 1. eta 2. graduko erakusliak (singularrak: hau, hori...) jartzen detsaguz atzetik izenari lotuta, hau singularrian badago. Asko be asko darabigu deklinabide moduan, baiña **singularrian bakarrik**. Adibide batzuen bittartez azaldu deiran:

- 1 - Eruaizu **piezáu** pabonatzera. Ekarrizu hona **piezíori**. Isildu hari **mozolúori!**
  - Erosizu ba **góniori** erosi bihar badozu!
  - Nundik etara ete eban **izenóri!**
  - Gustora egitten genduan Urtebarri egunian Urkora **juátiori**.
- 3 - Demasa bota desku **mutillónnek!**
  - Amari ez jetsak ba kontau **txótxoluórrek!**
  - Zer daka ba txarrik gure **euskeriónek?**
- 4 - **Andrióni** zer pasatzen jakok baiña?
  - **Gizonórri** pasatzen ez jakonik...!
- 5 - **Gizonónen** harrokerixia ez don ba makala!
  - **Andriórren** lagunarena don hori.
- 8 - **Gizonónekiñ** ezin jonat karrerarik egiñ.
  - **Zittalórrekiñ** ez eizu buru bat egiñ.
  - Burua galduta dabil **neskiórrekin**.
- 9 - **Neskiónegaittik** gauaz burua galduta? ez jok ba merezi!
  - **Mutillórregaittik** egiñ eban alde.
- 10 - **Umiónendako** ekarri dittut karameluak.
  - **Gizonórrendako** biharrian aspertu non eta banajoian kalera!
- 12 - Zer ikusten ete jon **gizonónengan!**
  - **Neskiórrengan** dake konfiantzia jarritta.
- 13 - **Máisuonégandik** ez dogu gauza askorik ikasiko.
  - **Lotsábakuorrégandik** ez dot ezer espero.
- 14 - **Médikuonégana** jende asko etortzen da.
  - Ez zaitte **médikuorrégana** juan, ezjakiña da eta.
- 17 - **Alabionénganako** arduariakin nabill aztorauta.
  - **Amatzákuorrénganako** zer haundirik ez eukan.





## **4 - ZENBATZAILLIEN DEKLINABIDIA**

#### 4.1 - BAT eta BATZUK-en deklinabidia (1/3)

KASUA	BAT			
	mugagabia		mugatu singularra	
1-Absolutua	bat		bata	
2-Partitibua	----		----	
3-Ergatibua	batek		batak	
4-Datibua	bati		batari	
5-Genitibua	baten		bataren	
6-Leku-genitibua	bateko		bateko	
7-Instrumentala	(batez)		batatz	
8-Soziatibua	batekin		batakin	
9-Motibatibua	bategaittik		batagaittik	
10-Destinatibua	batentzat / batendako		batantzat / batandako	
11-Prolatibua	batzat		----	
	Bizigabiak	Bizidunak	Bizigabiak	Bizidunak
12-Inesibua	batian	bate(n)gan	batian	batagan
13-Ablatibua	batetik	bate(n)gandik	batetik	batagandik
14-Adlatibo soilla	batera	bate(n)gana	batera	batagana
15-Muga adlatibua	bateraiño	bate(n)ganaiño	bateraiño	bataganaiño
-M. adl. g. eraik.	bateraiño	bate(n)ganaiño	bateraiño	bataganaiño
16-Hurbiltze.adlat.	baterutz	bate(n)ganutz	baterutz	bataganutz
17-Adl.gaiñ. eraik.	baterako	bate(n)ganako	baterako	bataganako
18-Banatzaillia	bateko	----	----	-----

#### Adibidiak:

- 1 - Ubedak eban **batá**, eta Gollibarrek **hiruá** (karta jokuan) (TE). **Batá** zenbakirik txikixena da.
  - **Bata** ta **bestia** esan dau baiña...(TE). Ez **bata** eta ez **bestia** lagun egokixak gure arterako (TE).
  - **Bat edo beste**, belu baten, agertu ziran (TE). - Gizon ezezagun **bat** etorri zan atzo etxera.
- 3 - Amoategi **batek** zer ez leuke esango, gaurko politiko **batzuen** ustelkerixia ikusiko baleu!
  - **Batak bestia** maitte izatia aintzen desku Ebangelixuak (TE). **Batak** baietz **bestiak** ezetz.
  - Madrildik etorri dan **batek** esan dabenez... **Batek** ez daki nola berba egiñ haregaz (TE).
- 4 - **Bati** baiño gehixagori entzun detsat eze....
- 5 - Nere lagun **baten** semia hil da. **Bataren** eta **bestiaren** ahalegiñari esker zeozer lortu dabe.
- 7 - **Bataz beste** hoge errialian saldu da gaur bildotsa (TE). Zuk dakizun gauza **batez** dihardugu.
- 8 / 1 - Bolibiar **batekin** ezkondu da eibartar gazte **bat**.
- 8 - Hor dabil hori **batakin** eta **bestiakin**.
- 9 - **Bategaittik** zer detsa ba!.
- 10 - Lagun **batendako** dakat gordeta liburuau.
- 12 - **Egunen batian** entzun biharko destaz ba!. Basarri **batian** jaixotakua da nere laguna.
  - Ez zarie gogoratzen zuekin **batian** nintzana Donostian?.
- 13 - **Batetik bestera** badabil hori. Kanpotik etorritako **bate(n)gandik** jaso dogu barrixori.
- 14 - Naparruako mendi **batera** goiaz domekan. - Sasi-mediku **batengana** juan eta hobeto jarri da.
- 15 - Zerbitzu-buru **batenganaiño** heldu ziran paperok, baiña ez gorago.
- 16 - Iparraldeko herri **baterutz** urten eban. Ministro **batenganutz** ei doiaz lapurreta susmuok.
- 17 - Herri txiki **baterako** ez dago hain gaizki be. Neska **batenganako** amorixuak jota zeguan mutillori.

## 4.1 - BAT eta BATZUK-en deklinabidia (2/3)

KASUA	BAT mugatu plurala	
1-Absolutua	bátak	
2-Partitibua	----	
3-Ergatibua	bátak	
4-Datibua	báteri	
5-Genitibua	báten	
6-Leku-genitibua	bátetako	
7-Instrumentala	----	
8-Soziatibua	bátekin	
9-Motibatibua	báte(n)gaittik	
10-Destinatibua	bátentzat / bátendako	
11-Prolatatibua	----	
	Bizigabiak	Bizidunak
12-Inesibua	bátetan	báte(n)gan
13-Ablatibua	bátetatik	báte(n)gandik
14-Adlatibo soilla	bátetara	báte(n)gana
15-Muga adlatibua	bátetaraíño	báte(n)ganaiño
-M.adl.gaiñ. erai.	bátetaraíño	báte(n)ganaiño
16-Hurbiltze adlat.	bátetarutz	báte(n)ganutz
17-Adlat. gaiñ. erai.	bátetarako	báte(n)ganako
18-Banatzailia	----	----

**Oharra:** Izenordaiñ funziñuan *bat*-en plurala *batzuk* da, baiña izen funziñuan *batak*. Bat zein *bi*, *hiru*, *lau*..., izenordaiñ zeregiñaz gaiñera, izen hutsa be izan leike, “bat zenbakixa”; eta bizigabia (peora zenbakixa) edo biziduna (foball-talde bateko jokalarixa) izan leike. Izen hutsa danian, edozein izenen moduan deklinatzen da. Halakuak nekez entzungo badittugu be hor doiaz adibide teoriko batzuk.

Adibidiak:

- 1 - **Bátak** (atezaiñak) garrantzizkuak dira foball-taldietan golik sartu ez deixuen.
  - **Bátak** aldrebes egitten dittu honek umionek eta bihar dan moduan egitten erakutsi bihar jako.
- 4 - **Báteri** (atezaiñeri) sekulako bildurra sartzen jakue penaltixa jaurti bihar detsenian.
  - **Báteri** ezkerrian egin bihar detsazu buztantxuori, umia!
- 5 - **Báten** (atezaiñen) jantzixa ez da beste jokalarixen jantzixaren bardiña.
- 8 - **Bátekiñ** (atezaiñekiñ) egundoko arazua daukagu; edarra gol zaparradia jasotzen doguna!.
- 9 - Oker egindako **bátegaittik** ez deskue txekia ordaindu.

4.1 - BAT eta BATZUK-en deklinabidia (3/3)

KASUA	BATZUK (plurala)	
1-Absolutua	batzuk	
2-Partitibua	----	
3-Ergatibua	batzuek	
4-Datibua	batzueri	
5-Genitibua	batzuen	
6-Leku-genitibua	batzuetako	
7-Instrumentala	(batzuez)	
8-Soziatibua	batzuekin	
9-Motibatibua	batzuegaittik	
10-Destinatibua	batzuentzat / batzuendako	
11-Prolatatibua	----	
	Bizigabiak	Bizidunak
12-Inesibua	batzuetan	batzue(n)gan
13-Ablatibua	batzuetatik	batzue(n)gandik
14-Adlatibo soilla	batzuetara	batzue(n)gana
15-Muga adlatibua	batzuetaraiño	batzue(n)ganaiño
-M.adl.gaiñ. erai.	batzuetaraiño	batzue(n)ganaiño
16-Hurbiltze adlat.	batzuetarutz	batzue(n)ganutz
17-Adlat. gaiñ. erai.	batzuetarako	batzue(n)ganako
18-Banatzailia	----	----

**Oharra:** Taulan *batzuk* (absolutuan) eta *batzuek* (ergatibuan) jarri badittugu be, nahastian darabiguz irizpide zihatz barik, *nortzuk* / *nortzuek*, *zeintzuk* / *zeintzuek* eta *zertzuk* / *zertzuek* izenordaiñetan moduan.

Adibidiak:

- 1 - Ardi-galdu **batzuk** bakarrik agertu dira (TE).
- 3 - **Batzuek** esaten dabe, euskeria dala lehenengo hizketia (TE).
- 4 - **Batzueri** ez jakue gustatzen egixak entzutia.
- 5 - **Batzuen** ganoriakiñ ezin leike asko aurreratu.
- 8 - Hor dabill hori **batzuekiñ** eta **bestiekin**. **Batzuekiñ** ezin leike iñora juan.
- 9 - **Batzuegaittik** balitz ez genduke umorerik be eukiko.
- 10 - Ikasle **batzuendako** dira liburuok.
- 12 - **Batzuetan** ondo eta **beste batzuetan** gaizki, halatxe gabiz aspaldixan.
  - Herri **batzuetan** erabagixak herritar guztien artian hartzen dittue. Erabagitzeko eskumena hobe, iñoiz, persona **batengan** barik **batzuengan** jartzia.
- 13 - Kanpotar **batzuengandik** jaso dittugu hórrek erakutsixok.
- 14 - Mendi **batzuetara** hobe ondo prestanta juatia. **Batzuengana** ezin leike hurreratu be egiñ.
- 15 - Gironako herri **batzuetaraiño** heldu ziran, halakoren batian.
- 16 - Hegoaldeko herri **batzuetarutz** urtetzeko asmua dake.
- 17 - Alkatiak **batzuenganako** daukan jeria beste **batzuenganakua** baiño hobia.

## 4.2 - ASKO eta GITXI-ren deklinabidia.

KASUA	ASKO		GITXI	
1-Absolutua	asko		gitxi	
2-Partitibua	askorik		gitxirik	
3-Ergatibua	askok		gitxik	
4-Datibua	askori		gitxiri	
5-Genitibua	askoren		gitxiren	
6-Leku-genitibua	askotako		gitxittako	
7-Instrumentala	askoz		(gitxiz)	
8-Soziatibua	askokin		gitxikin	
9-Motibatibua	askogaittik		gitxigaittik	
10-Destinatibua	askorentzat / askorendako		gitxirentzat / gitxirendako	
11-Prolatibua	askotzat		gitxitzat	
	Bizigabiak	Bizidunak	Bizigabiak	Bizidunak
12-Inesibua	askotan	asko(ren)gan	gitxittan	gitxi(ren)gan
13-Ablatibua	askotatik	asko(ren)gandik	gitxittatik	gitxi(ren)gandik
14-Adlatibo soilla	askotara	asko(ren)gana	gitxittara	gitxi(ren)gana
15-Muga adlatibua	askotaraiño	asko(ren)ganaiño	gitxittaraiño	gitxi(ren)ganaiño
-M.adl.gaiñ. eraik.	askotaraiño	asko(ren)ganaiño	gitxittaraiño	gitxi(ren)ganaiño
16-Hurbiltze adlatib.	askotarutz	asko(ren)ganutz	gitxittarutz	gitxi(ren)ganutz
17-Adlat. gaiñ. eraik.	askotarako	asko(ren)ganako	gitxittarako	gitxi(ren)ganako
18-Banatzailia	----	----	----	----

**Oharra:** *Asko* eta *gitxi* kontagarri diran izenekin bakarrik erabili leikez: *Mutill asko, gauza gitxi*. Izen kontagaitzen onduan, *haundi, txiki, oso, luze...* darabiguz: *Su haundixa biztu dabe, oso maitte edo maitte-maitte dau bere herrixa, denbora luzian nago zure zaiñ, argi motela dago hemen, bildur haundixa dakat...*

**Adibidiak:**

- 1 - *Asko be asko* itxain dogu zure zaiñ (TE). *Asko* ardura desta ba neri zu hasarratziak! (TE).  
- *Asko* eta larregi egin dozu oiñ artian (TE). *Askotxo* ez detsazu erixten egin detsagun kontuari? (TE). *Askuk* badauka (\**gitxi*) *gitxixa*, antxiñakuak esan eban erara (TE). Lanpostu *gitxi* dago gaur egunian Eibarren. Jende *asko* ala *gitxi* ibilli da, ba, aurten Sanjuanetan?
- 2 - Ez da jende *askorik* ibilli. Diru *askorik* barik juan nintzan eta estu ibilli nintzan Parisen.
- 3 - *Askok* uste dau “amama” dala hemengua. *Askok* nahiko leuke haren erdixa. Jende *gitxik* daki hemen gertatzen dana. *Askok eta askok* nahixago dau dagan biharra banatzia.
- 4 - *Gitxiri* gustatzen jako duako biharra. Gazte *askori* suertau jako Eibartik urten biharra.
- 5 - Gazte *askoren* ametsa da lanpostua lortzia. Jende *gitxiren* eskuetan dago herriko ekonomixia.
- 6 - Herri *askotako* jendia da hamen bizi dana.
- 7 - Erromako uria *askoz* haundixagua Napoles baiño (TE).
- 8 - *Askokiñ* hobe da gogor jokatzia. Diru *gitxikiñ* ezin leike ba millagrorik egin.
- 9 - *Askogaittik* irabazi dogu. Errazoi *askogaittik* erabagi dot hori. *Gitxigaittik* librau gara.
- 10 - Jende *askorendako* da dagan apurra. *Gitxirendako* dira lan-aukerak.
- 11 - *Askotzat* daka bere burua. *Gitxitzat* hartu gaittue.
- 12 - *Askotan* izan naiz etxe honetan (TE). Gizon *gitxirengan* dago botere politikua.
- 13 - Leku *askotatik* etorri da jendia. Jende *askorengandik* heldu jaku diru-laguntzia.
- 14 - Mendi *askotara* juandakua naiz. Jende *gitxirengana* juan leike mesede eske.
- 16 - Hegoalderutz, leku *askotarutz* juateko asmotan da. *Gitxirenganutz* doiaz lapurreta susmuak.
- 17 - Leku *askotarako* balio detsu horrek. *Askorenganako* inbirixia da horrek dakana.

### 4.3 - Beste zenbatzaille zehaztugabe batzuen deklinabidia (1/2)

#### EDOZENBAT

**Zenbat**-en moduan deklinatzen da.

Adibidiak:

1 - Ubideatik gora, pagadi baten, **edozenbat** urritx eta urdin batu genduzen (TE).

#### HAINBAT

**Bat**-en moduan deklinatzen da, mugagabian.

Adibidiak:

1 - **Hainbat** lasterren etorri zaitte (TE). **Hainbat** txarrago baekixan zer egitten ziharduan (TE). **Hainbat** lagun dabil mendixan. **Hainbat** gazte ibilli da jaixetan.

3 - **Hainbatek** esan zeban hamen ez daguala ezer aldatzerik.

4 - **Hainbati** gertau izan jako horixe berori.

5 - **Hainbaten** etxian egoten da konpondu eziña.

8 - **Hainbatekin** jardun dabe negoziua zuzendu nahixan.

12 - **Hainbatetan** esan jako baiña ez dau kasurik egitten. **Hainbatengan** dake konfiantzia.

18 - Diruok banatu dittue. **Hainbana** emon detse bakotxari.

#### HONENBESTE

**Beste**-ren moduan deklinatzen da, mugagabian. Gaur egunian ez dittugu bereizten **honenbeste**, **horrenbeste** eta **hainbeste** eta kasu guztietarako **hainbeste** da gehixen darabiguna.

Adibidiak:

1 - **Honenbeste** ordaindu dot hau tresniau. Nik **honenbeste** jartzen badot zuk beste **horrenbeste**. Sekula ez dot **honenbeste** bihar egin.

6 - Dirua aurreratu zetsan **honenbesteko** bat, sari letz, beste **honenbesteko** bat aurrez kenduta (TE).

8 - **Honenbestegaz** amaitzen dot nere gaurko jarduna (TE).

#### HORRENBESTE

**Beste**-ren moduan deklinatzen da hau be, mugagabian.

Adibidiak:

1 - Ez neban pentsatzen **horrenbeste** hasarratuko zanik hain gitxigaittik (TE).

- **Horrenbeste** guzur esaten dabenez ezin jako ezer siñistu.

8 - **Horrenbestekin** konformauko haiz horraittio.

15 - Ez nekixan **horrenbesteraíño** izan zanik.

#### HAINBESTE

Hirugarren gradukuau be **beste**-ren moduan deklinatzen da, eta **honenbeste** eta **horrenbeste** baiño sarrixago darabigu.

Adibidiak:

1 - Ez neban uste **hainbeste** diru zenduanik (TE). **Hainbeste** bidar esan arren ez destazu jaramonik egin. Ez nekixan **hainbeste** sufridu dabenik.

4 - **Hainbesteri** sartu detse zirixori eze, azkenian herri guztiak siñistu eban.

8 - **Hainbestekiñ** ibilli da mutillori.

12 - **Hainbestetan** esandakua da ba horixe!

15 - Ez dok **hainbesteraíño** izango!

### 4.3 - Beste zenbatzaille zehaztugabe batzuen deklinabidia (2/2)

#### HAMAİKA, HAMAİKATXO (mugagabian deklinatzen dira)

Adibidiak:

- 1 - **Hamaika** gizon galduta badira surra baiño harutzago ikusten ez dabelako (TE).
  - **Hamaika** halako, bost pare t´erdi. **Hamaikatxo**, zahar eta gazte, eder haren ondorian baziran (TE).
- 3 - **Hamaikatxok** ikusiko dau, oindiok, egixa zer dan.
- 4 - **Hamaikatxori** zabaldu jakoz begixak.
- 5 - **Hamaikatxoren** poltsikuak dagoz hutsik.
- 12 - **Hamaikatxotan** juan izan gara perretxikutan.

#### MAKIÑA BAT, MAKIÑATXO BAT

**Bat**-en moduan deklinatzen da, mugagabian.

Adibidiak:

- 1 - **Makiña bat** hiltzen da gerran eta **makiña bat** herri kiskaltzen.
  - **Makiña** bat erregu egin gentsan gelditzeko, baiña dana izan zan alperrik (TE).
  - **Makiñatxo** bat egon egindakua haren zaiñ (TE).
- 3 - **Makiñatxo batek** dauka hemen esatekorik.
- 4 - **Makiñatxo bati** entzun izan detsagu hori.
- 5 - **Makiña baten** karteria gizendu da lapurretan eginda.

#### 4.4 - Zenbatzaille zehaztugabe orokorren deklinabidia: DANA, GUZTIA, OSO (1/4)

Atal honetako taulak banan-banan ikusten hasi aurretik, *dana* eta *guztia*-ren gaiñian zenbaitt alde azalduko dittut, aittatzekuak begittantzen jatazenak. Hónek berbok esanahi bera dake baiña ez dira modu berian erabiltzen. Ikusi deigun berba hónetako bakotxa zelan darabigun:

##### **Dana:**

1 - Zenbatzaille orokorra, bakarrik erabilli bihar da, izenik barik, (izenakin batera zuzena ez dalako) eta erakusliekiñ be erabilli leike, aposiziñuan. Deklinaziño singularra zein plurala hartu leike. Gaur egunian \**mutil danak datoz* (*mutil* izenonekin batera) eta antzerakuak, geruago eta gehixago entzuten badira be, ez dira ba zuzenak: *danak datoz* edo *mutil guztiak datoz* dira erabillera zuzenak.

2 - Erakusliekin batera doianian, erakuslia aurretik eruaten dau, erakuslia zein zenbatzaillia bixak deklinauta. Baiña erabillera modu bi dagoz:

a - Singularrian zein pluralian, ( *erakuslia* + *zenbatzaillia* ) erakuslia eta zenbatzaillia kasu-marka berarekin: *hori dana* eruan dabe; *hau dana* ikusi bihar da; *hórrek danak ez* dabe ezetarako balio.

b - Goikua baiño modu enfatikuagua eta Eibarko euskeran darabiguna. Singularrian eta pluralian ez dogu modu berian erabiltzen.

Singularrian: ( *erakuslia* + *zenbatzaillia* + *erakuslia* zenbatzailliari lotuta ), aurreko zein atzeko erakuslia, bixak deklinauta: *hori danori* eruan dabe, *hau danau* ikusi bihar da.

Pluralian: ( *erakuslia* + *zenbatzaillia* ) bixak deklinauta, hemen atzeko erakusle barik. Erakuslia 1. edo 2. graduakua izan ala 3. graduakua, zenbatzailliak pluraleko kasu-marka diferentia hartzen dau.

- 1. eta 2. graduako erakusle pluralekin ( *hónek*, *hórrek* ), zenbatzailliak plural hurbilleko deklinaziñua hartzen dau: *hónek danok* dira guriak; *hórrek danok* ikasi dabe euskeraz ederto.
- 3. graduako erakusle pluralekin ( *hárek* ), zenbatzailliak plural arruntaren deklinaziñua hartzen dau: *hárek danak* dira guriak; *hárek danak* ikasi dabe euskeraz ederto; *háleri daneri* etorri jakue euren ordua.

##### **Guztia**

1 - Zenbatzaille orokorra bakarrik zein izenakiñ erabilli leike. Eibarko euskeran, jeneralian, izenakin batera darabigu. *Dana* zenbatzailliaren moduan erakusliekin be erabiltzen da, aposiziñuan. Normalian singularrian edo pluralian deklinatzen da: *Herri guztia* dago jaixokin aztorauta; *Gazte guztiak* ez dake aukera bardiña.

2 - Erakusliekin doianerako, *dana* zenbatzailliando esandakuak balio dau. Modu eta erabillera bardiñak:

a - *hori guztia* eruan dabe; *hau guztia* ikusi bihar da; *hórrek guztiak* ez dabe galdu.

b - *hori guztiori* eruan dabe; *hau guztiau* ikusi bihar da / *hónek guztiok* dira guriak; *hórrek guztiok* ikasi dabe euskeraz; *Hárek guztiak* ikasi dabe euskeraz.



## 4.4 - Zenbatzaille zehaztugabe orokorren deklinabidia: DANA, GUZTIA, OSO (2/4)

KASUA	DANA			
	singularra		plurala	
1-Absolutua	dana		danak	
2-Partitibua	----		----	
3-Ergatibua	danak		danak	
4-Datibua	danari		daneri	
5-Genitibua	danaren		danen	
6-Leku-genitibua	daneko		danetako	
7-Instrumentala	(danaz)		(danez)	
8-Soziatibua	danakin		danekin	
9-Motibatibua	danagaittik		danegaittik	
10-Destinatibua	danantzat / danandako		danantzat / danendako	
	bizigabiak	bizidunak	bizigabiak	bizidunak
12-Inesibua	danian	dana(ren)gan	danetan	danengan
13-Ablatibua	danetik	dana(ren)gandik	danetatik	danengandik
14-Adlatibo soilla	danera	dana(ren)gana	danetara	danengana
15-Muga adlatibua	daneraiño	dana(ren)ganaiño	danetaraiño	danenganaiño
-M.adlat.gaiñ.er.	daneraiño	dana(ren)ganaiño	danetaraiño	danenganaiño
16-Hurb.adlatibua	danerutz	dana(ren)ganutz	danetarutz	danenganutz
17-Adlat.gaiñ.era.	danerako	dana(ren)ganako	danetarako	danenganako

**Oharra.** Plural hurbillari dagokixozen formak: absolutuan eta ergatibuan *danok*; eta hurrengo guztiak plural arrunteko *-e*-ren ordeztu *-o*- jarriz eratzen dira (*danori, danon...*).

**Adibidiak:**

- 1 - **Dana**-gurako, ase ezindako harrapatzaille gaizto bat (da) haren uezaba (TE). Ha txotxolua be **Dana-edo-ezerbez** (TE). -Zelan dago ama gaixua? - **dana** biharrian (TE). Bizixa alde batera, **dana** galdu eben (TE). Aspaldixan ikusi ez, eta **dana** galduta billau dot (TE). Umiak **dana** sinisten dabe. *Hónek danok* etorri dira. Egin daben lana **dana-biharrekua** (TE). Zuk **dana** sinisten dozu, *esandako guztia*. **Dan-dana** ikasi dot. *Hau danau* barriro ikusi bihar da. *Hárek danak* dagoz bai txarto, eta aparte laga.
- 3 - *Honek danonek* ez dau ezetarako balio. *Hórrek danok* egin zittuen sekulakuak gaztetan. *Hárek danak* irabazi eben diru asko gerra ostian, otxindu egin ziran **danak**.
- 4 - **Danari** bai esaten detsa horrek. **Daneri** gustau jakue herrixa. *Hori danori* guzurra besterik ez.
- 5 - **Danon artian** konpondu bihar dira herriko arazuak, herrixa **danona** da-eta.
- 6/1 - **Danekua** da hori, biharrerako danian **danak** burua ezkutau nahixan.
- 8 - Berez politta dana **danakin** dago ondo. **Danekin** konpontzen da ondo.
- 10-**Danandako** daka horrek erantzuna. **Danendako** ekarri dittu erregaluak.
- 12-**Danian** da bardiñ; batzuk onerakuak, beste batzuk txarrerakuak (TE). **Danongan** dago gehixago nahixa.
- 13-**Danetik** dago hemen. **Danengandik** ikasi geinke zeozer.
- 14-Zenbat da **danera**?. Makiñak **danengandu** dittue gauza asko (TE). **Danengandu** (egin) da gaur musika ona (TE). Traba gabeko kompetentzia(re)n ondorena da, erreztasun guztien bentajia **danengandutzia** (TE). Euren dana **danengantzia**, lehelengo kristauen legia (TE). **Oharra:** Toribio Etxebarriaren adibide hónetan *danengandu, danengandutzia* eta *danengantzia* baiño hobeto legokez **danenganatu** eta **danenganatzia**.
- 17-Euren artian **danerakua** dago (TE). Kaitano **danerakua** dibuju autuan (TE). **Danenganako** dakan arduriak hartzen dau estu.

4.4 - Zenbatzaille zehaztugabe orokorren deklinabidia: DANA, GUZTIA, OSO (3/4)

KASUA	GUZTIA			
	singularra		plurala	
1-Absolutua	guztia		guztiak	
2-Partitibua	----		----	
3-Ergatibua	guztiak		guztiak	
4-Datibua	guztiari		guztieri	
5-Genitibua	guztiaren		guztien	
6-Leku-genitibua	guztiko		guztietako	
7-Instrumentala	(guztiaz)		(guztiaz)	
8-Soziatibua	guztiakin		guztiekin	
9-Motibatibua	guztiagaittik		guztiegaittik	
10-Destinatibua	guztiantzat / guztiandako		guztientzat / guztiendako	
	<b>bizigabiak</b>	<b>bizidunak</b>	<b>bizigabiak</b>	<b>bizidunak</b>
12-Inesibua	guztian	guztia(ren)gan	guztietan	guztiengan
13-Ablatibua	guztittik	guztia(ren)gandik	guztietatik	guztiengandik
14-Adlatibo soilla	guztira	guztia(ren)gana	guztietara	guztiengana
15-Muga adlatibua	guztiraiño	guztia(ren)ganaiño	guztietaraiño	guztienganaiño
-M.adlat.gaiñ.er.	guztiraiño	guztia(ren)ganaiño	guztietaraiño	guztienganaiño
16-Hurb.adlatibua	guztirutz	guztia(ren)ganutz	guztietarutz	guztienganutz
17-Adlat.gaiñ.erai.	guztirako	guztia(ren)ganako	guztietarako	guztienganako

**Oharra.** Plural hurbillari dagokixozen formak: absolutuan eta ergatibuan *guztiok*; eta hurrengo guztiak plural arrunteko *-e-*ren ordez *-o-* jarritz eraten dira (*guztiori, guztion...*).

**Adibidiak:**

- 1 - Mundu *guztia* dago bildur baten, hirugarren gerria ezautuko ete dogun (TE).
  - Zelakua aurtengo urtia? *-Guztia* biharrekua (TE). *Hori* bihar *guztiori* egin dozu ba alperrik!.
  - Korbata eta *guzti* zoian dotore-dotore (*guzti* mugagabian).
- 3 - Mundu *guztiak* esaten dau lapurretan egindako diruak dittuala horrek.
- 4 - Herritar *guztieri* zuzenduta zeguan manifestua. *Hórreri guztíori* esan jakuen esan biharrekua.
- 5 - Maillasuna gauza *guztien* gaiñetik egon bihar litzake. Herritar *guztien* aurrian agertu zan.
- 6 - Mundu *guztiko* langillioek batu gaitian! Udallerri *guztietako* alkatiak batzekotan dira.
- 7 - *Guztizko* ederra, *guztizko* ikusgarrixa (TE). (Mugagabia *guztiz + ko*). Horretan *guztiz* nator bat zurekin (mugagabian). Ehun bidar jausi zan, eta *hala eta guzti(z)* berak irabazi eban jokua (TE).
- 8 - Nora zoiaz, baiña, *hórrekin* traste *guztiokin*?. Bultza eixozu indar *guztiakin*.
- 9 - Esandako *guztiagaittik* hauxe da erabagi dotena. *Háregaittik guztiegaittik* gagoz gagozen moduan.
- 10-Gu *guztíontzat* egin izan dabe hárek lana. Ume *guztiendako* karameluak ekarri dittu.
- 12-Baztar *guztietan* jardun dabe billa baiña alperrik. *Hórretan herri guztiotan* dihardue “D” ereduak eskolak emoten. *Hárengan guztiengan* jarri genduan geure konfiantza guztia.
- 13-Alde *guztietatik* dator jendia. Bihargin *guztiengandik* jaso eben dirua taillarra jasotzeko.
- 14-*Guztira* pelotari ona: ezker, eskuma, eskuz, paliakin, zeltuagaz (TE). Alde *guztietara* jo arren ez neban nahi nebana topau. Agintari *guztiengana* jo eben laguntza eske.
- 16-Alde *guztietarutz* urtetzen hasi dira guztiak.
- 17-Legegintzaldi *guztirako* izentau dabe udal-gobernua. *Hárenganako guztienganako* dagan deskonfiantziaren errazoiak billatzia ez da ba gatxa.

#### 4.4 - Zenbatzaille zehaztugabe orokorren deklinabidia: DANA, GUZTIA, OSO (4/4)

**OSO**, zenbatzaille orokor moduan, zeozeren osotasuna aitzen emoteko erabili leike, eta izena zatittu leikian gauzaren bat bada bakarrik. Izena singularrian erabiltzen da normalian. *Ura, ardaua, esnia, gogua, indarra, maittasuna, denboria...* ezin leikez zatittu eta halakuekin **guztia** erabiltzen da.

Adibidiak:

- 1 - Lauko *ogi* (\**ososua*) **oso-osua** jan eban ekiñaldi baten (TE).
  - *Egun osua* horretan emon ezkeron egon leike bat ondo informauta.
  - *Etxe osua* jarri eben hankaz gora, baiña ez eben ezer topau.
- 2 - **Osorik** laga zetsan eukan *dana* (TE). (\**Ososorik*) **Oso-osorik** geldittu jako berari *etxia* (TE).
  - *Liburua osorik* irakorri bihar dozu, esaten dabenaz ondo jabetzia nahi badozu.
- 3 - *Herri osuak* hartu eban parte manifestaziñuan.
- 12 - Hain zan egualdixa txakurra eze, *egun osuan* egon giñan etxetik urten barik.

## 4.5 - Zenbatzaille zehaztuen deklinabidia (1/17)

Zenbatzaille zehaztuen deklinabidiaren taulak Eibarko euskeran aurkeztu baiño lehen, euskera batuarekin alderatuta dittugun zenbait berezittasunen nundik-norakuak azaltzia komeni da.

Zenbatzaille zehaztuak, jeneralian, izena deklinatzen dan moduan deklinatzen dira, eta pluralian, izenaren zein izenordaiñaren funziñua izan, forma bera izango dabe. Bada baiña salbuespen bat, euskera batuan, ‘3’ eta ‘4’ zenbatzailliekin daukaguna. Hamen zer diñuan Euskaltzaindiak:

1) *hiru* eta *lau*, izenaren funziñua dakenian, bokalez amaitzen diran gaiñerako edozein izenen moduan deklinauko dira: *hiru*, *hirua*, *hiruak* (abs); *hiruk*, *hiruak*, *hiruek* (erg); *lau*, *laua*, *lauak* (abs); *lauk*, *lauak*, *lauak* (erg), e.a.

2) Izenordain baten funziñua dakenian be beste edozein izen bezela deklinatzen da, ‘zenbatzaille plurala’ darian izan ezik, orduan ‘r’ bat jartzen dalako kasu-markiaren aurretik: *hiru*, *hirua*, *hirurak* (abs); *hiruk*, *hiruak*, *hirurek* (erg); *lau*, *laua*, *laurak* (abs); *lauk*, *lauak*, *laurek* (erg).

Eibarko euskeran, salbuespena , ‘3’ eta ‘4’kin ezezik hónekiñ be badogu: ‘6’, ‘7’ eta ‘8’kin alde batetik eta ‘9’kin bestetik. Halatxe formulauko genduke:

1) ‘3’, ‘4’, ‘6’, ‘7’, ‘8’ eta ‘9’, izenaren funziñua dakenian, bokalez amaitzen diran beste edozein izenen moduan deklinauko dira:.... *sei*, *seixa*, *seixak* (abs); *seik*, *seixak*, *seixak* (erg), e.a.

2) Izenordaiñ baten funziñua dakenian be beste edozein izen bezela deklinatzen da, ‘zenbatzaille plurala’ darian izan ezik, orduan,

- *bedratzia* izan ezik goixan jarritako beste guztietan, ‘r’ bat jartzen da kasu-markiaren aurretik: *sei*, *seixa*, *seirak* (abs); *seik*, *seixak*, *seirak* (erg)...e.a.

- *bedratzia darian*, ‘r’ hori ez dogu danok jartzen, esango neuke gehixenok galdu dogula iñoiz erabili badogu be; orduan, kasu honetan: *bedratzi*, *bedratzixa*, *bedratzi(r)ak* (abs); *bedratzik*, *bedratzixak*, *bedratzi(r)ak* (erg)...e.a.

---

*Bat-en* eta *batzuek-en* taulak (4.1)en aurkeztu dittugu, eta hemen jarriko dittugunak hónetxek dira: *bi*, *hiru*, *lau*, *bost/hamar*, *sei/zazpi/zortzi*, *bedratzi*, *hamaika* eta *hoge*. Erredundante txamarra izango da biharbada hainbeste taula aurkeztia arau orokor batzuek darenian, baiña zenbatzaillioek sarri-sarri darabigunez, eta gure berezittasunak eta fonetismuak azaldu biharra daguan, hauxe dala begittandu jaku modu errez batian agertzeko erarik egokixena.

Taula bakotxaren hurrengo orrialdian, taula horritxi dagokixozen adibidiak jarri dira.

4.5 - Zenbatzaille zehaztuen deklinabidia : **BI** (2/17)

<b>KASUA</b>	<b>Mugagabia</b>		<b>Mugatu singularra</b>	
1-Absolutua	bi		bixa	
2-Partitibua	birik		----	
3-Ergatibua	bik		bixak	
4-Datibua	biri		bixari	
5-Genitibua	biren		bixaren	
6-Leku-genitibua	bittako		biko	
7-Instrumentala	biz		----	
8-Soziatibua	birekin / biregaz		bixakin / bixagaz	
9-Motibatibua	bigaittik		bixagaittik	
10-Destinatibua	birentzat / birendako		bixantzat / bixandako	
11-Prolatibua	bitzat		----	
	<b>Bizigabiak</b>	<b>Bizidunak</b>	<b>Bizigabiak</b>	<b>Bizidunak</b>
12-Inesibua	bittan	bi(ren)gan	bixan	bixa(ren)gan
13-Ablatibua	bittatik	bi(ren)gandik	bittik	bixa(ren)gandik
14-Adlatibo soilla	bittara	bi(ren)gana	birara	bixa(ren)gana
15-Muga adlatibua	bittaraiño	bi(ren)ganaiño	biraiño	bixa(ren)ganaiño
-M.adlat.gaiñ.er.	bittaraiño	bi(ren)ganaiño	biraiño	bixa(ren)ganaiño
16-Hurb.adlatibua	bittarutz	bi(ren)ganutz	birutz	bixa(ren)ganutz
17-Adlat.gaiñ.erai.	bittarako	bi(ren)ganako	birako	bixa(ren)ganako
18-Banatzailia	biko	----	----	----

<b>KASUA</b>	<b>Mugatu plurala</b>		<b>Mugatu plural hurbilla</b>	
1-Absolutua	bixak		bixok	
2-Partitibua	----		----	
3-Ergatibua	bixak		bixok	
4-Datibua	bixeri		bixori	
5-Genitibua	bixen		bixon	
6-Leku-genitibua	bixetako		bixotako	
7-Instrumentala	----		----	
8-Soziatibua	bixekin / bixegaz		bixokin / bixogaz	
9-Motibatibua	bixegaittik		bixogaittik	
10-Destinatibua	bixentzat / bixendako		bixontzat / bixondako	
11-Prolatibua	----		----	
	<b>Bizigabiak</b>	<b>Bizidunak</b>	<b>Bizigabiak</b>	<b>Bizidunak</b>
12-Inesibua	bixetan	bixengan	bixotan	bixongan
13-Ablatibua	bixetatik	bixengandik	bixotatik	bixo(n)gandik
14-Adlatibo soilla	bixetara	bixengana	bixotara	bixo(n)gana
15-Muga adlatibua	bixetaraiño	bixenganaiño	bixotaraiño	bixo(n)ganaiño
-M.adlat.gaiñ.er.	bixetaraiño	bixenganaiño	bixotaraiño	bixo(n)ganaiño
16-Hurb.adlatibua	bixetarutz	bixenganutz	bixotarutz	bixo(n)ganutz
17-Adlat.gaiñ.erai.	bixetarako	bixenganako	bixotarako	bixo(n)ganako
18-Banatzailia	----	----	----	----

#### 4.5 - Zenbatzaille zehaztuen deklinabidia : **BI** (3/17)

Adibidiak:

- 1 - Arazo bakotzak, gitxienez, alde **bi** izaten ditu. *Hiru* seme-alaba ditu Antxonek, seme *bat* eta alaba **bi**. Danbadiakin, begi **bixak** itxi zittuan. Aitta eta ama, **bixak** juan dira Parisera. Gu **bixok** gaittuk eibartarrak.
- 3 - Gazte **bik** jarri eben ikurriña kanpaitorrian. Anai **bixak** jaso eben etxia. Hik eta nik, **bixok** egin juagu biharra hau taillarrau matxan jartzeko.
- 4 - Idazle gazte **biri** emon detse aurten literatura-sarixa. -Zeñi emon detse sarixa? -*Bi* zenbakidunari, **bixari** emon detse, zerari, Luistxori. Ez *bati* bakarrik, **bixeri** emon zetsezen sekulakuak. Alaba **bixeri** eskutik helduta agertu zan. **Bixori** emon deskue hau zeregiñau, eta *bixon* artian egin bihar-ko dogu.
- 5 - **Biren** artian egindakua da hori danori. **Bixaren** estilua gustatzen jatak, presentatzen diranen artian onena dok. Ardantza kaleko **bixaren** parian dago itturrixa. Horko etxe **bixen** bittartetik ikusten da itsasua. Anai **bixen** artian egin zeben dana. **Bixon** artian errezago egingo dogu.
- 6 - Kolore **bittakuak** dira alderdi politiko batzuk, horixa edo/eta gorrixa, komeni ahala. Bidebarrieta **biko** peoria pinttau barri dago. Etxe **bixetako** leihuk barriztau bihar dira, ez *batekuak* bakarrik.
- 8 - Seme **bikin** noia mendira. **Bixakin** ezin dozu, hartizu hirua. Esku **bixekin** egitten dau horrek ondo pelotan. Alaba **bixokin** doia Parisera.
- 9 - Tanto **bigaittik** galdu genduan partidua. **Bixagaittik** ez detsa ardura, hirua be badakazu. Alderdi **bixegaittik** gertatzen dira gertatzen diranak. Gu **bixogaittik** ez balitz hamen ez litzakek iñor mogiduko.
- 10 - Bakaillau kazuelia **birendako** da. **Bixandako** izan da sarixa, onena izan da-eta. Ume **bixendako** prestau eban amak merienda. Ez zaittez hasarratu **bixondako** da-eta.
- 11 - **Bitzat** hartu dot baiña *bosta* zan.
- 12 - Inglaterran emon dittuan uda **bittan** ikasitako inglesakin politto moldatzen da. Uda **bixetan** herri-ko gazte kuadrilla batekin ibilli izanak mesede egin detsa. Jokalari **birengan** lagatzen dabe joko guztia. Bat **bittan** banatzen da.
- 13 - **Bittik** *bat* ustela suertau jaku. Lagun **biregandik** jaso neban notizia hori berori.
- 14 - Alde **bittara** juateko asmua genkan, baiña *batian* bakarrik izan giñan, ezin izan genduan **bixetara** juan. Neska **birengana** hurreratzen zan, batian bategana eta hurrenguan beste bategana. Bai, Petragana eta Mariagana, **bixengana**.
- 17 - Alde **bixetarako** joeria zeukan. Neska **birenganako** amorixuak zeukan mutilla noraezian.
- 18 - **Biko** taldietan antolatu giñan. Peseta **bikuak** ezagutu nittuan nik

4.5 - Zenbatzaille zehaztuen deklinabidia : **HIRU** (4/17)

<b>KASUA</b>	<b>Mugagabia</b>		<b>Mugatu singularra</b>	
1-Absolutua	hiru		hirua	
2-Partitibua	hirurik		----	
3-Ergatibua	hiruk		hiruak	
4-Datibua	hiruri		hiruari	
5-Genitibua	hiruren		hiruaren	
6-Leku-genitibua	hirutako		hiruko	
7-Instrumentala	hirurez		----	
8-Soziatibua	hirukin / hirugaz		hiruakin / hirugaz	
9-Motibatibua	hirugaittik		hirugaittik	
10-Destinatibua	hiru(re)ntzat / hiru(re)ndako		hiruantzat / hiruandako	
11-Prolatibua	hirutzat		----	
	<b>Bizigabiak</b>	<b>Bizidunak</b>	<b>Bizigabiak</b>	<b>Bizidunak</b>
12-Inesibua	hirutan	hiru(ren)gan	hiruan	hirua(ren)gan
13-Ablatibua	hirutatik	hiru(ren)gandik	hirutik	hirua(ren)gandik
14-Adlatibo soilla	hirutara	hiru(ren)gana	hirura	hirua(ren)gana
15-Muga adlatibua	hirutaraiño	hiru(ren)ganaiño	hiruraiño	hirua(ren)ganaiño
-M.adlat.gaiñ.er.	hirutaraiñoko	hiru(ren)ganaiñoko	hiruraiñoko	hirua(ren)ganaiñoko
16-Hurb.adlatibua	hirutarutz	hiru(ren)ganutz	hirurutz	hirua(ren)ganutz
17-Adlat.gaiñ.erai.	hirutarako	hiru(ren)ganako	hirurako	hirua(ren)ganako
18-Banatzaillia	hiruko	----	----	----

<b>KASUA</b>	<b>Mugatu plurala (izenordaiña)</b>		<b>Mugatu plurala (izena)</b>	
1-Absolutua	hirurak		hiruak	
2-Partitibua	----		----	
3-Ergatibua	hirurak		hiruak	
4-Datibua	hirureri		hirueri	
5-Genitibua	hiruren		hiruen	
6-Leku-genitibua	hiruretako		hiruretako	
7-Instrumentala	----		----	
8-Soziatibua	hirurekin / hiruregaz		hiruekin / hiruegaz	
9-Motibatibua	hiruregaittik		hiruregaittik	
10-Destinatibua	hirurentzat / hirurendako		hirurentzat / hirurendako	
11-Prolatibua	----		----	
	<b>Bizigabiak</b>	<b>Bizidunak</b>	<b>Bizigabiak</b>	<b>Bizidunak</b>
12-Inesibua	hiruretan	hirurengan	hiruetan	hiruengan
13-Ablatibua	hiruretatik	hirurengandik	hiruetatik	hiruengandik
14-Adlatibo soilla	hiruretara	hirurengana	hiruetara	hiruengana
15-Muga adlatibua	hiruretaraiño	hirurenganaiño	hiruretaraiño	hiruenganaiño
-M.adlat.gaiñ.er.	hiruretaraiñoko	hirurenganaiñoko	hiruretaraiñoko	hiruenganaiñoko
16-Hurb.adlatibua	hiruretarutz	hirurenganutz	hiruretarutz	hiruenganutz
17-Adlat.gaiñ.erai.	hiruretarako	hirurenganako	hiruretarako	hiruenganako
18-Banatzaillia	----	----	----	----

#### 4.5 - Zenbatzaille zehaztuen deklinabidia : **HIRU** (5/17)

Adibidiak:

- 1 - **Hiru** anai ziran, bata bestia baiño okerraguak (TE). **Hiru** hankako mahaixari ikara eraitzen ei zetsan begirakuna batekin (TE). Ataraizu **hirua**, bestela gorde biharraren gorde biharrez galduko dozu (TE). **Hirua** eta **bosta** antzerakuak egitten dittuzu. **Hiruak** ondo egitten ikasi biharko dozu. **Hiru** bidar egin dot eta **hirúretan** urten jata txarto. **Hiru** lagun dira eta **hirúrak** kantarixak. Bada alkarte bat Euskal Herrixan “**hirurak bat**” lelua beria dabena. Erretiratzeko ordua be bada, **hirurak** dira-eta
- 3 - Maisuetatik **hiruk** bakarrik zekixen euskeraz. **Hiruak** irabazi dau txapelketia. **Hirurak** egitten dabe euskeraz edarto. **Hiruok** alkarrekin amaittuko dogu hau kaxkara batian.
- 4 - **Bati** emotia nahikua ez eta, **hiruri** ez detse ba emon sarixa! **Hiruari** emon detse sarixa ez **hiruri**. **Hiruari** bota detse zigorra, bai, bizkarrian hiru zenbakixa dakanari.
- 5 - **Hiruren** artian egin dabe dana.
- 6 - Lehen gehixago izaten zan baiña **ehuneko hiruko** korritua be ez da gitxi.
- 8 - **Hiru** txakurrok hartu eta **hirurokin** juaten da mendira. Batekin be nahikua lan eta **hirukin** zela juan leike!
- 9 - **Hiruagaittik** ez detsa ardura, **bata** be badaukat oindiok eta.
- 10 - Larregi emoten dabe, **hiruréndako** raziñua **batendako** bakarrik. Hango **hirúrendako** da hau kazueliau. **Hirúondako** laga eben euken diru apurra.
- 11 - **Hirutzat** neukana ez zan ba bosta!
- 12 - **Hiru** bidar egin dot eta **hirúretan** egin dot txarto. **Hirutan** partidu ezkerro, **bittan** baiño zati txiki-xagua. Haize goxua dabil goizeko **hiruretan**. Semiengan laga dabe negoziuaren arduria, **hirúrengan**. **Hiruagan** lagatzen dabe jokuaren antolaketa jokalaria oso ona da-eta.
- 13 - **Hirutatik baten** bakarrik igo genduan goraiño. **Hirutik** bat da bakarrik sanua. **Hirúretatik** gaztie-na da pelotarixa. **Hirúretatik** aurrera ez dot begirik itxi. **Hiruágandik** datorkixe joko guztia. **Hirúrogandik** jasoko dittuzue erresultau onak.
- 14 - **Hamabixetatik hirúretara** nahikua asti dakazu. Seme-alabengana jo eben laguntza eske, **hirúrengana**.
- 17 - **Hirurénganako** arduriak (hiru semerenganako), lana garratz egittera bihartzen zaittu.
- 18 - “Lazpita **hirukuak**” politto egitten dau kantuan ointxe be; habanerak eta Eibarko kantu zaharrak kantatzen maisuak dira. Gordeizu gorde **hiruko** urriori.



## 4.5 - Zenbatzaille zehaztuen deklinabidia : LAU (6/17)

KASUA	Mugagabia		Mugatu singularra	
1-Absolutua	lau		laua	
2-Partitibua	laurik		----	
3-Ergatibua	lauk		lauak	
4-Datibua	lauri		lauari	
5-Genitibua	lauren		lauaren	
6-Leku-genitibua	lautako		lauko	
7-Instrumentala	laurez		----	
8-Soziatibua	lau(re)kin / lauregaz		lauakin / lauagaz	
9-Motibatibua	laugaittik		lauagaittik	
10-Destinatibua	laurentzat / laurendako		lauantzat / lauandako	
11-Prolatibua	lautzat		----	
	Bizigabiak	Bizidunak	Bizigabiak	Bizidunak
12-Inesibua	lautan	lau(ren)gan	lauan	laua(ren)gan
13-Ablatibua	lautatik	lau(ren)gandik	lautik	laua(ren)gandik
14-Adlatibo soilla	lautara	lau(ren)gana	laura	laua(ren)gana
15-Muga adlatibua	lauraiño	lau(ren)ganaiño	luraiño	laua(ren)ganaiño
-M.adlat.gaiñ.er.	lauraiño	lau(ren)ganaiño	luraiño	laua(ren)ganaiño
16-Hurb.adlatibua	laurarutz	lau(ren)ganutz	laurutz	laua(ren)ganutz
17-Adlat.gaiñ.erai.	laurarako	lau(ren)ganako	laurako	laua(ren)ganako
18-Banatzailia	lauko	----	----	----

KASUA	Mugatu plurala (izenordaiña)		Mugatu plurala (izena)	
1-Absolutua	laurak		lauak	
2-Partitibua	----		----	
3-Ergatibua	laurak		lauak	
4-Datibua	laureri		laureri	
5-Genitibua	lauren		lauen	
6-Leku-genitibua	lauretako		lauetako	
7-Instrumentala	----		----	
8-Soziatibua	laurekin / lauregaz		lauekin / lauegaz	
9-Motibatibua	lauregaittik		lauegaittik	
10-Destinatibua	laurentzat / laurendako		lauentzat / lauendako	
11-Prolatibua	----		----	
	Bizigabiak	Bizidunak	Bizigabiak	Bizidunak
12-Inesibua	lauretan	laurengan	lauetan	lauengan
13-Ablatibua	lauretatik	laurengandik	lauetatik	lauengandik
14-Adlatibo soilla	lauretara	laurengana	lauetara	lauengana
15-Muga adlatibua	lauretaraiño	laurenganaiño	lauetaraiño	lauenganaiño
-M.adlat.gaiñ.er.	lauretaraiño	laurenganaiño	lauretaraiño	laurenganaiño
16-Hurb.adlatibua	lauretarutz	laurenganutz	lauretarutz	laurenganutz
17-Adlat.gaiñ.erai.	lauretarako	laurenganako	lauretarako	laurenganako
18-Banatzailia	----	----	----	----

#### 4.5 - Zenbatzaille zehaztuen deklinabidia : LAU (7/17)

Adibidiak:

- 1 - Ondiok **lau** oiñian dabiz han aurrenenguak (TE). *Hirua* ondo geratu da baiña **laua** txikiegixa da. **Laurak** dira Euskal Herrikuak. Lehenago **laurak** ziran bat. **Laurok** juango gara alkarrekin.
- 3 - *Hiruk* lortu ezin dabena, **lauk** lortu leikie biharbada. *Lau* herrialdek, **lauk**, osatzen dabe Hego Euskal Herrixa. Halakoren baten **laurak** egingo dabe bat, **laurok** dake-eta alkarren premiñia.
- 4 - **Lauri** galdetu detset eta **laurak** esan deste ezetz. Hegoaldeko herrialdiori, **laurori** etorri leikigu kaltia Bruselatik.
- 5 - **Lauren** artian errezago egingo dabe. Lau seme-alabena da etxia; **laurena**. **Lauron** artian ondo konponduko gara. **Lauaren** jokua *hiruarena* baiño gehixago gustatzen jata.
- 6 - **Lauko** ogixa ekiñaldi baten sabeleratu ebalako, **Lauko** esaten zetsen bati Eibarren (TE). Makiñatxo bat izardi, gizajuak **laukua** irabazteko (TE).
- 8 - **Lauakiñ**, *hirua(re)n* kiñua (TE). Seme-alabekin, **láurekin**, jua dira Parisera.
- 9 - **Lauagáittik** ez jako ardura, horrek ez daka eta tantorik tutian. **Láuregáittik** ziharduen hárek biharrian jo-ta sua.
- 10 - **Lauréndako** da hau raziñuau. **Láurendako** izan da emon dabena. **Lauandako** bi partidutako zigorra. *Batekiñ* ez daukagu **láurontzat**; beste *hiru* bihar dittugu.
- 11 - **Lautzat** nekana, bata zan.
- 12 - Isasi kaleko **lauan** bizi zan. *Lau* bidar izan naiz, **lautan**, eta behin be ez dot ikusi. Goizeko **laureretan**, eta kanturako gogua dakak?.**Lauarengan** dago joko guztiaren arduria. **Laurongan** dago erantzukizuna. **Láurengan** ikusiko dau jendiak portaera garbixa eta herrixaren aldekoa.
- 13 - **Lautik** *batekua* ez da, ba, asko. **Lauagandik** datorkixe jokorik gehixena. **Lauretatik** aurrera, hobeto ixillik.
- 14 - Hemendik **lauretara** bittarte, badakazu denboria. Lau gazterengana, **lauréngana**, jo genduan laguntza eske.
- 17 - **Lauretarako** etorriko zara horraittiok!. **Láurenganako** zeken arduriak hartzen zittuan estu.
- 18 - **Lauko** taldetan antolatuko gara.

4.5 - Zenbatzaille zehaztuen deklinabidia: **BOST, HAMAR** (konsonantez amait.) (8/17)

<b>KASUA</b>	<b>Mugagabia</b>		<b>Mugatu singularra</b>	
1-Absolutua	bost		bosta	
2-Partitibua	bostik		----	
3-Ergatibua	bostek		bostak	
4-Datibua	bosti		bostari	
5-Genitibua	bosten		bostaren	
6-Leku-genitibua	bostetako		bosteko	
7-Instrumentala	bostez		----	
8-Soziatibua	bostekin / bostegaz		bostakin / bostagaz	
9-Motibatibua	bostegaittik		bostagaittik	
10-Destinatibua	bostentzat / bostendako		bostantzat / bostandako	
11-Prolatibua	bostzat (hamartzat)		----	
	<b>Bizigabiak</b>	<b>Bizidunak</b>	<b>Bizigabiak</b>	<b>Bizidunak</b>
12-Inesibua	bostetan	bostengan	bostian	bosta(ren)gan
13-Ablatibua	bostetatik	bostengandik	bostetik	bosta(ren)gandik
14-Adlatibo soilla	bostetara	bostengana	bostera	bosta(ren)gana
15-Muga adlatibua	bostetaraiño	bostenganaiño	bosteraiño	bosta(ren)ganaiño
-M.adlat.gaiñ.er.	bostetaraiñok	bostenganaiñoko	bosteraiñoko	bosta(ren)ganaiñoko
16-Hurb.adlatibua	o	bostenganutz	bosterutz	bosta(ren)ganutz
17-Adlat.gaiñ.erai.	bostetarutz	bostenganako	bosterako	bosta(ren)ganako
18-Banatzailia	bostetarako	----	----	----
	bosteko			

<b>KASUA</b>	<b>Mugatu plurala</b>		<b>Mugatu plural hurbilla</b>	
1-Absolutua	bostak		bostok	
2-Partitibua	----		----	
3-Ergatibua	bostak		bostok	
4-Datibua	bosteri		bostori	
5-Genitibua	bosten		boston	
6-Leku-genitibua	bostetako		bostotako	
7-Instrumentala	----		----	
8-Soziatibua	bostekin / bostegaz		bostokin / bostogaz	
9-Motibatibua	bostegaittik		bostogaittik	
10-Destinatibua	bostentzat / bostendako		bostontzat / bostondako	
11-Prolatibua	----		----	
	<b>Bizigabiak</b>	<b>Bizidunak</b>	<b>Bizigabiak</b>	<b>Bizidunak</b>
12-Inesibua	bostetan	bostengan	bostotan	bostongan
13-Ablatibua	bostetatik	bostengandik	bostotatik	bostongandik
14-Adlatibo soilla	bostetara	bostengana	bostotara	bostongana
15-Muga adlatibua	bostetaraiño	bostenganaiño	bostotaraiño	bostonganaiño
-M.adlat.gaiñ.er.	bostetaraiñoko	bostenganaiñoko	bostotaraiñoko	bostonganaiñoko
16-Hurb.adlatibua	bostetarutz	bostenganutz	bostotarutz	bostonganutz
17-Adlat.gaiñ.erai.	bostetarako	bostenganako	bostotarako	bostonganako
18-Banatzailia	----	----	----	----

#### 4.5 - Zenbatzaille zehaztuen deklinabidia: **BOST, HAMAR** (konsonantez amait.) (9/17)

Adibidiak:

- 1 - **Bost** atzamar dittugu esku bakotxian (TE). Maiatzaren **bosta**, Santa Kruz eguna (TE). **Bostak** elixako erlojuan (TE). *Bi* bidar **bost** dira **hamar** (TE). *Lau* edo **bost** urte bihar izango ditu hori egi-  
tteko. **Bosta** da zure zenbakixa eta neria **hamarra**.
- 3 - Hogei lagunetik **bostek** bakarrik egin dau biharra itxura batian. **Bostak** egingo dabe biagia alkarre-  
kin. **Bostok** egin biharko dogu biharra gogor proiektua aurrera ataratzia gura badogu.
- 4 - **Bosti** bakarrik emon detse titulua. **Bostari** hobe baloirik ez pasatzia, galdu egitten dau-eta.  
**Bosteri** egokitu jakue erbestera juan biharra.
- 5 - **Hamarren** bat, *hamarretik bat* da izan. **Bostena** da taillarra. **Boston** izenian ipiñiko dogu.  
Famelixako **boston** argazkixa egoki dago hortxe.
- 6 - Ehuneko **bosteko** interesakin ez jako merke urtengo. **Hamarretakua** gustora sartzen da.
- 8 - **Bostekiñ** be pozik, juxtu baiña gaindittu egin dot azkenian asignaturia.
- 9 - **Bostagaittik** be ez jako ardura, ez dau balixo askorik eta.
- 10 - Neurrixan atara, **bostendako** da-eta.
- 11 - **Bostzat** nekana *bixa* zan eta **hamartzat** nekana *hamabosta*.
- 12 - Goizeko **bostetan** esnatzen naiz batzuetan. **Bosténgan** laga dabe ardura guztia, beste asko be han  
ziran arren. **Bost** anai ziran eta **bóstengan** laga eben negoziua.
- 13 - **Hamarretik batek**-edo ataratzen dau karneta lehenenguan.
- 14 - **Bostetara** arteko denboria dakazu biharra amaitzeko.
- 17 - **Bostetarako** agertuko zara, ezta?.
- 18 - **Bostekuakiñ** azkenak egin ditu (TE). Ekarrizu **bostekuori**. Zenbat **hamarreko** hartu dittuk?  
**Bosteko** urriakin irabazi eban, triumfua eban eta.

## 4.5 - Zenbatzaille zehaztuen deklinabidia : SEI, ZAZPI, ZORTZI (10/17)

KASUA	Mugagabia		Mugatu singularra	
1-Absolutua	sei		seixa	
2-Partitibua	seirik		----	
3-Ergatibua	seik		seixak	
4-Datibua	seiri		seixari	
5-Genitibua	seiren		seixaren	
6-Leku-genitibua	seitako		seiko	
7-Instrumentala	sei(re)z		----	
8-Soziatibua	sei(re)kin / seiregaz		seixakin / seixagaz	
9-Motibatibua	seigaittik		seixagaittik	
10-Destinatibua	seirentzat / seirendako		seixantzat / seixandako	
11-Prolatibua	seitzat		----	
	Bizigabiak	Bizidunak	Bizigabiak	Bizidunak
12-Inesibua	seittan	seire(n)gan	seixan	seixa(ren)gan
13-Ablatibua	seittatik	seire(n)gandik	seittik	seixa(ren)gandik
14-Adlatibo soilla	seittara	seire(n)gana	seira	seixa(ren)gana
15-Muga adlatibua	seittaraiño	seire(n)ganaiño	seiraiño	seixa(ren)ganaiño
-M.adlat.gaiñ.er.	seittaraiño	seire(n)ganaiño	seiraiño	seixa(ren)ganaiño
16-Hurb.adlatibua	seittarutz	seire(n)ganutz	seirutz	seixa(ren)ganutz
17-Adlat.gaiñ.erai.	seittarako	seire(n)ganako	seirako	seixa(ren)ganako
18-Banatzailia	seiko	----	----	----

KASUA	Mugatu plurala (izenordaiña)		Mugatu plurala (izena)	
1-Absolutua	seirak		seixak	
2-Partitibua	----		----	
3-Ergatibua	seirak		seixak	
4-Datibua	seireri		seixeri	
5-Genitibua	seiren		seixen	
6-Leku-genitibua	seiretako		seixetako	
7-Instrumentala	----		----	
8-Soziatibua	seiekin / seiregaz		seiekin / seiregaz	
9-Motibatibua	seiregaittik		seiregaittik	
10-Destinatibua	seirentzat / seirendako		seirentzat / seirendako	
11-Prolatibua	----		----	
	Bizigabiak	Bizidunak	Bizigabiak	Bizidunak
12-Inesibua	seiretan	seirengan	seiretan	seirengan
13-Ablatibua	seiretatik	seirengandik	seiretatik	seirengandik
14-Adlatibo soilla	seiretara	seirengana	seiretara	seirengana
15-Muga adlatibua	seiretaraiño	seirenganaiño	seiretaraiño	seirenganaiño
-M.adlat.gaiñ.er.	seiretaraiño	seirenganaiño	seiretaraiño	seirenganaiño
16-Hurb.adlatibua	seiretarutz	seirenganutz	seiretarutz	seirenganutz
17-Adlat.gaiñ.erai.	seiretarako	seirenganako	seiretarako	seirenganako
18-Banatzailia	----	----	----	----

#### 4.5 - Zenbatzaille zehaztuen deklinabidia : **SEI, ZAZPI, ZORTZI** (11/17)

Adibidiak:

- 1 - *Sei* eta *sei*, *hamabi*; eta *sei*, *hamazortzi* (TE). Ekaiñaren *seixa* egun garrantzitsua haren bizitzan. *Sei* bat ordu pasau ondoren gogoratu ziran. *Sei* ume izan zittuen; *seirak* neskak. *Seirak* dira eta oindiok ez da agertu. *Hamar* lagun ziran batzeko, eta *bi* bakarrik eguzen, nun ete ziran beste *zortzirak*?. *Zazpi urtietako* karlistadia. *Zazpirak* bat ala *seirak* bat ?
- 3 - Hogeita hamar gara koruan, baiña *zortzik* bakarrik ikasi dabe piezia.
- 4 - *Seiri* edo *zazpiri* bakarrik esan zetsen gertau zana.
- 5 - *Seiren* artian bardindu eben. *Zazpixon* artian bazeguazen *zortzixak* be tartian.
- 6 - “Putzu” kaleko *seiko* hire dendan izan nok pare bat bidar.
- 8 - *Seirekin* jua naiz mendira. *Seixakin* jai dagok, ez jok bat zuzen joten. *Seixekin* ibilli hari argi, *zéruaren* antzera egitten dittuk-eta.
- 9 - *Zazpixagaittik* ez arduratzeko? neukan triunfo bakarra zuan eta!
- 10 - Bihar pixkat lortu dot: *seirendáko*-edo. *Zortzírendako* izateko bihargin *birendakua* falta. *Seixendako* kamisetak ez dira *zortzixendakuekin* nahastu bihar.
- 11 - *Zazpitzat* neukana *bata* zan, horretantxe zeguan akatsa.
- 12 - Behin baiño gehixagotan izan naiz ni Zuberoan: *seittan* bai. *Seiréngan* laga zittuen ardurua guztiak. Estaziño kaleko *seixan* dauka dendia. Hogeita *hamaseixan* ez zan hamen giro. *Seixetan* jokatu dogu?. Arratsaldeko *seiretan* bero haundixa zeguan oindiok. *Sei* zinegotzi dira eta *seirengan* laga dabe udal-gobernua.
- 13 - *Seiregándik* eritxi ona jaso dot, beste guztiak txarra emon dabe. Agiña-balleko basarritarrak erabili eben auzi luze bat izan zan *seittik-batekuena* (TE). *Seixagandik* joko ona datok beti, jokalariri ona dok-eta. *Seiretatik zortziretara*, ordu *bi*.
- 14 - Hainbat herrittara mogidu gara aste honetan, *seittara* bai. *Seiréngana* jo dogu, gehixagorengana juateko astirik ez dogu izan. *Lautik seira*, *bi*. Hango taberna guztietara jua gara, *seiretara*. *Seirengana* jo dogu, hango guztiengana.
- 17 - Susmuak *seirénganakuak* ziran, beste *hamarrak* ez egozen susmopian. Ekaiñaren *seirako* amaittuta eukiko dot. *Seixaganako* eritxi ona dauka horrek; *seixaren* aldekoa da oso. *Seiretarako* ondo ikasitta nahi dot leziñua. *Seirenganakuak* ziran susmo txarrak, danak zeguzen ustelduta itxuria.
- 18 - *Zazpikuagaz* urten dot (TE). Iparragirrek jarrittako *zortzikua* zuk oiñ kantau dozuna (TE). *Seiko* taldetan antolatu giñan. *Seiko* urria.

4.5 - Zenbatzaille zehaztuen deklinabidia : **BE(D)RATZI** (12/17)

<b>KASUA</b>	<b>Mugagabia</b>		<b>Mugatu singularra</b>	
1-Absolutua	be(d)ratzi		be(d)ratzixa	
2-Partitibua	be(d)ratzirik		----	
3-Ergatibua	be(d)ratzik		be(d)ratzixak	
4-Datibua	be(d)ratziri		be(d)ratzixari	
5-Genitibua	be(d)ratziren		be(d)ratzixaren	
6-Leku-gen.	be(d)ratzitako		be(d)ratziko	
7-Instrum.	be(d)ratzi(re)z		----	
8-Soziatib.	be(d)ratzikin / be(d)ratzigaz		be(d)ratzixakin / -gaz	
9-Motibatib.	be(d)ratzigaittik		be(d)ratzixagaittik	
10-Destinat.	be(d)ratzirentzat / -rendako		be(d)ratzixantzat / -dako	
11-Prolatib.	be(d)ratzitzat		----	
	<b>Bizigabiak</b>	<b>Bizidunak</b>	<b>Bizigabiak</b>	<b>Bizidunak</b>
12-Inesibua	be(d)ratzittan	be(d)ratzire(n)gan	be(d)ratzixan	be(d)ratzixagan
13-Ablatib.	be(d)ratzittatik	be(d)ratzire(n)gandik	be(d)ratzittik	be(d)ratzixagandik
14-Adl. soill.	be(d)ratzittara	be(d)ratzire(n)gana	be(d)ratzira	be(d)ratzixagana
15-Mug adl.	be(d)ratzittaraiño	be(d)ratzire(n)ganaiño	be(d)ratziraiño	be(d)ratzixaganaiño
-M.adl.g.e.	be(d)ratzittaraiñoko	be(d)ratzire(n)ganaiñoko	be(d)ratziraiñoko	be(d)ratzixaganaiñoko
16-Hur.adl.	be(d)ratzittarutz	be(d)ratzire(n)ganutz	be(d)ratzirutz	be(d)ratzixaganutz
17-Adl.g.er.	be(d)ratzittarako	be(d)ratzire(n)ganako	be(d)ratzirako	be(d)ratzixaganako
18-Banatz.	be(d)ratziko	----	----	----

<b>KASUA</b>	<b>Mugatu plurala (izenordaiña)</b>		<b>Mugatu plurala (izena)</b>	
1-Absolutua	be(d)ratziak		be(d)ratzixak	
2-Partitibua	----		----	
3-Ergatibua	be(d)ratziak		be(d)ratzixak	
4-Datibua	be(d)ratzieri		be(d)ratzixeri	
5-Genitibua	be(d)ratzien		be(d)ratzixen	
6-Leku-gen.	be(d)ratzietako		be(d)ratzixetako	
7-Instrumen.	----		----	
8-Soziatibua	be(d)ratziekin / -egaz		be(d)ratzixekin / -xegaz	
9-Motibatib.	be(d)ratziegaittik		be(d)ratzixegaittik	
10-Destinat.	be(d)ratzientzat / -endako		be(d)ratzixentzat / -xendako	
11-Prolatib.	----		----	
	<b>Bizigabiak</b>	<b>Bizidunak</b>	<b>Bizigabiak</b>	<b>Bizidunak</b>
12-Inesibua	be(d)ratzietan	be(d)ratziengan	be(d)ratzixetan	be(d)ratzixengan
13-Ablatibua	be(d)ratzietatik	be(d)ratziengandik	be(d)ratzixetatik	be(d)ratzixengandik
14-Adl. soill.	be(d)ratzietara	be(d)ratziengana	be(d)ratzixetara	be(d)ratzixengana
15-Mug. adl.	be(d)ratzietaraiño	be(d)ratzienganaiño	be(d)ratzixetaraiño	be(d)ratzixenganaiño
-M.adl.g.er.	be(d)ratzietaraiñoko	be(d)ratzienganaiñoko	be(d)ratzixetaraiñoko	be(d)ratzixenganaiñoko
16-Hur.adlat.	be(d)ratzietarutz	be(d)ratzienganutz	be(d)ratzixetarutz	be(d)ratzixenganutz
17-Adl.g.er.	be(d)ratzietarako	be(d)ratzienganako	be(d)ratzixetarako	be(d)ratzixenganako
18-Banatz.	----	----	----	----

#### 4.5 - Zenbatzaille zehaztuen deklinabidia : **BE(D)RATZI** (13/17)

Adibidiak:

- 1 - Hiru bidar hiru, egitten dabe **bedratzi** (TE). **Bedratzi** hillabeteko haurdunaldixaren ondoren, bere jaixo-barrixagaz izan da Arraten. Aurrelarixen artian **bedratzixa** dok inportantiena. **Bedratzi(r)ak** dira eta jaikitze ordua dozu. **Bedratzixak** izaten dira golik gehixen sartzen dabenak.
- 3 - **Hogei** bat lagun gara kuadrillan, baiña **bedratzik** bakarrik egitten dogu euskeraz. **Bedratzixak** ondo egitten jon foballian. **Bedratzi** lagun gara eta **bedratziak** egitten dogu euskeraz. **Bedratzixak** dira jokalarixen artian golik gehixen sartzen dabenak.
- 4 - **Bedratziri** heldu jakuek juiziorako abisua, bestiori ez oindiokan. **Bedratzixari** emon jetsek ostikaria! **Bedratzi** insumiso ziran herrixan eta **bedratzieri** heldu jakue juiziorako abisua. **Bedratzixeri** ez jetsek parkatzen, zelakuak hartzen dittuen!
- 5 - **Bedratziren** artian dago jokua, bestiak kanpuan geratu dira. **Bedratzixaren** burukadak itzalak dittuk gero!. **Bedratzi** ziran eta **bedratzien** artian partidu eben. **Bedratzixena** izaten da jokorik arriskutsuena.
- 6 - Errebaleko **bedratziko** hire tabernan ikusiko juagu alkar. **Bedratzietako** zinera juan naiz; ez naiz berandu etorriko.
- 7 - **Hirurez, laurez, seirez** ....eta **bedratzi(re)z** aspertu bihar naiz ointxe; zenbakiz aspertu.
- 8 - **Bedratzixakin** argi ibilli! **Bedratzi** ikasle zittuan eta **bedratziekin** juan zan Arte-Ederretako Museora. **Bedratzixekin**, danekin, ibiltzen zan estu.
- 9 - **Bedratzigaittik** ez eze **bategaittik** be bardin arduratzen dira. **Bedratzixagaittik** galdu eben partidua; txartxo-be-txarto jokatu eban. Galduta zebizen **bedratziegaittik** mogidu zan jendia.
- 10 - **Bedratzirendako** afarixa enkargau dot. **Bedratzixantzat** zer dok ba pare bat gol sartzia!. **Bedratzi** dira eta **bedratziendako** saritxoren bat egongo da.
- 11 - **Bedratzitzat** geunkana, **seixa** zan; aldrebes zeguan-eta.
- 12 - **Bedratzi** bidar jaso eban, **bedratzittan**, baina ezin izan zeban jarraitu. Zuloaga kaleko **bedratzixan** bizi dok Fraixko. **Bedratzietan** etxera.
- 13 - **Bedratzixetatik** batek bakarrik urten dau txarra. Urkusuko **bedratzittik** hamar bat metro harutzago.
- 14 - Zuloaga kaleko **bedratzira** bialdu bihar dozu hau. **Bostetatik bedratzietara** badakazuz *lau* ordu.
- 17 - Azaruaren **bedratzirako** jai eder bat prestau bihar dogu. **Bedratzietarako** etorriko da.
- 18 - **Bedratziko** taldiak egin zittuen.



4.5 - Zenbatzaille zehaztuen deklinabidia : **HAMAIIKA** (14/17)

<b>KASUA</b>	<b>Mugagabia</b>		<b>Mugatu singularra</b>	
1-Absolutua	hamaika		hamaikia	
2-Partitibua	hamaikarik		----	
3-Ergatibua	hamaikak		hamaikiak	
4-Datibua	hamaikari		hamaikiari	
5-Genitibua	hamaikaren		hamaikiaren	
6-Leku-genit.	hamaikatako		hamaikako	
7-Instrument.	hamaikaz		----	
8-Soziatibua	hamaikakin / -gaz		hamaikiakin / -gaz	
9-Motibatib.	hamaikagaittik		hamaikiagaittik	
10-Destinat.	hamaikarentzat / -dako		hamaikiantzat / -dako	
11-Prolatibua	hamaikatzat		----	
	<b>Bizigabiak</b>	<b>Bizidunak</b>	<b>Bizigabiak</b>	<b>Bizidunak</b>
12-Inesibua	hamaikatan	hamaika(ren)gan	hamaikan	hamaikia(ren)gan
13-Ablatibua	hamaikatatik	hamaika(ren)gandik	hamaikatik	hamaikia(ren)gandik
14-Adlat. soil	hamaikatara	hamaika(ren)gana	hamaikara	hamaikia(ren)gana
15-Mug. adl.	hamaikataraiño	hamaika(ren)ganaiño	hamaikaraiño	hamaikia(ren)ganaiño
-M.adl.g.er.	hamaikataraiño	hamaika(ren)ganaiño	hamaikaraiño	hamaikia(ren)ganaiño
16-Hur.adlat.	hamaikatarutz	hamaika(ren)ganutz	hamaikarutz	hamaikia(ren)ganutz
17-Adl.g.erai.	hamaikatarako	hamaika(ren)ganako	hamaikarako	hamaikia(ren)ganako
18-Banatz.	hamaikako	----	----	----

<b>KASUA</b>	<b>Mugatu plurala</b>		<b>Mugatu plural hurbilla</b>	
1-Absolutua	hamaikak		hamaikok	
2-Partitibua	----		----	
3-Ergatibua	hamaikak		hamaikok	
4-Datibua	hamaikeri		hamaikori	
5-Genitibua	hamaiken		hamaikon	
6-Leku-genit.	hamaiketako		hamaiketako	
7-Instrument.	----		----	
8-Soziatibua	hamaikekin / hamaikegaz		hamaikokin / hamaikogaz	
9-Motibatib.	hamaikegaittik		hamaikogaittik	
10-Destinat.	hamaikentzat / hamaikendako		hamaikontzat / hamaikondako	
11-Prolatibua	----		----	
	<b>Bizigabiak</b>	<b>Bizidunak</b>	<b>Bizigabiak</b>	<b>Bizidunak</b>
12-Inesibua	hamaiketan	hamaikengan	hamaikotan	hamaikongan
13-Ablatibua	hamaiketatik	hamaikengandik	hamaiketatik	hamaiko(n)gandik
14-Adlat. soil	hamaiketara	hamaikengana	hamaiketara	hamaiko(n)gana
15-Mug.adlat	hamaiketaraiño	hamaikenganaiño	hamaikotaraiño	hamaiko(n)ganaiño
-M.adl.g.er.	hamaiketaraiño	hamaikenganaiño	hamaikotaraiño	hamaiko(n)ganaiño
16-Hur.adlat.	hamaiketarutz	hamaikenganutz	hamaikotarutz	hamaiko(n)ganutz
17-Adlat.g.er.	hamaiketarako	hamaikenganako	hamaikotarako	hamaiko(n)ganako
18-Banatzail.	----	----	----	----

#### 4.5 - Zenbatzaille zehaztuen deklinabidia : **HAMAIIKA** (15/17)

Adibidiak:

- 1 - **Hamaika** bidar esan detsat baiña ez dau kasorik egitten. **Hamaika** jokalaria foball talde batian. Athletixak euki eban **hamaikia** bai zana jokalaria abilla. Ha **hamakia** lakorik ez dok harrezkero sortu. **Hamaika** lagun ziran taldean eta **hamaikak** etorri dira afaittara. **Hamaika** gara eta **hamaikok** juango gara alkarrekin.
- 3 - Sasoi bateko Athletiko **hamaikiak** zentratzen zeban moduan, ez dau gaur iñok zentratzen. **Hamaika** ziran eta **hamaikak** esan dabe baietz. Hamaika giñan eta **hamaikok** ikasi genduan hittanua.
- 4 - **Hamaikari** pasau jakok horixe berori. **Hamaikiari** pasaixozu zentrau deixan. **Hamaika** insumiso ziran eta **hamaikeri** jausi jakuen zigorra. **Hamaika** giñan kantu taldean eta **hamaikori** emon zeskuen saritxo bana.
- 5 - **Hamaikaren** bat lagun izango giñan han. **Hamaikiaren** abildadia mira egittekoa dok. **Hamaika** jokalaria ziran eta **hamaiken** kamisetak ostu zittuen.
- 6 - **Hamaiketakua** gustora sartzen da goiz erdixan.

.....

Ikusi: 4.3 (2/2)ko adibidiak.

4.5 - Zenbatzaille zehaztuen deklinabidia : **HOGEI** (16/17)

<b>KASUA</b>	<b>Mugagabia</b>		<b>Mugatu singularra</b>	
1-Absolutua	hoge		hogeixa	
2-Partitibua	hogeirik		----	
3-Ergatibua	hogeik		hogeixak	
4-Datibua	hogeiri		hogeixari	
5-Genitibua	hogeiren		hogeixaren	
6-Leku-genit.	hogeittako		hogeiko	
7-Instrument.	hogeiz		----	
8-Soziatibua	hogeirekin/hogeiregaz		hogeixakin/hogeixagaz	
9-Motibatib.	hogeigaittik		hogeixagaittik	
10-Destinat.	hogeirentzat / hogeirendako		hogeixantzat / -dako	
11-Prolatibua	hogeitzat		----	
	<b>Bizigabiak</b>	<b>Bizidunak</b>	<b>Bizigabiak</b>	<b>Bizidunak</b>
12-Inesibua	hogeittan	hogeire(n)gan	hogeixan	hogeixa(ren)gan
13-Ablatibua	hogeittatik	hogeire(n)gandik	hogeittik	hogeixa(ren)gandik
14-Adlat. soil	hogeittara	hogeire(n)gana	hogeira	hogeixa(ren)gana
15-Mug.adlat	hogeittaraiño	hogeire(n)ganaiño	hogeiraiño	hogeixa(ren)ganaiño
- M.adl.g.er.	hogeittaraiño	hogeire(n)ganaiño	hogeiraiño	hogeixa(ren)ganaiño
16-Hur.adlat.	hogeittarutz	hogeire(n)ganutz	hogeirutz	hogeixa(ren)ganutz
17-Adlat.g.er.	hogeittarako	hogeire(n)ganako	hogeirako	hogeixa(ren)ganako
18-Banatzail.	hogeiko	----	----	----

<b>KASUA</b>	<b>Mugatu plurala</b>		<b>Mugatu plural hurbilla</b>	
1-Absolutua	hogeixak		hogeixok	
2-Partitibua	----		----	
3-Ergatibua	hogeixak		hogeixok	
4-Datibua	hogeixeri		hogeixori	
5-Genitibua	hogeixen		hogeixon	
6-Leku-genit.	hogeixetako		hogeixotako	
7-Instrument.	----		----	
8-Soziatibua	hogeixekin / -gaz		hogeixokin / -gaz	
9-Motibatib.	hogeixegaittik		hogeixogaittik	
10-Destinat.	hogeixentzat / -dako		hogeixontzat / -dako	
11-Prolatibua	----		----	
	<b>Bizigabiak</b>	<b>Bizidunak</b>	<b>Bizigabiak</b>	<b>Bizidunak</b>
12-Inesibua	hogeixetan	hogeixengan	hogeixotan	hogeixongan
13-Ablatibua	hogeixetatik	hogeixengandik	hogeixotatik	hogeixongandik
14-Adlat. soil	hogeixetara	hogeixengana	hogeixotara	hogeixongana
15-Mug.adlat	hogeixetaraiño	hogeixenganaiño	hogeixotaraiño	hogeixonganaiño
-M.adl.g.er.	hogeixetaraiño	hogeixenganaiño	hogeixotaraiño	hogeixonganaiño
16-Hur.adlat.	hogeixetarutz	hogeixenganutz	hogeixotarutz	hogeixonganutz
17-Adlat.g.er.	hogeixetarako	hogeixenganako	hogeixotarako	hogeixonganako
18-Banatzail.	----	----	----	----

#### 4.5 - Zenbatzaille zehaztuen deklinabidia : **HOGEI** (17/17)

Adibidiak:

3 - Hamabost lagunek egiñ ezin leikiana, *hogeik* egin leikie.

4/1- *Hogeixari* premixua emon detse. Zein *hogeiri*, bi *hoge* dagoz-eta?

7/1 - Zuk *hogeitzat* daukazuna hogeta hamarra da, ez da *hogeixa*.

5 - *Hamabost* lagunek ezin eta *hogeiren* artian jaso eben automobilla. *Hogeixaren* azpikaldian egin arraixatxo bat, umetxó!

6 - Bidebarrieta kaleko *hogeiko* peoran jarri dabe anunziua.

9 - Zaldi karrera horretan *hogeixagaittik* edozer jokatuko neuke.

12 - *Hogeixan* amaitzen dan loterixako numerua gustatzen jako Inesi.

13/18 - *Hogeittik* bat ustela da. *Hogeiko hogeiko* aurkittuko dozu hori.

14 - Han herrixan *hogeixetara* jokatzen eben, nik behin be ikusi bakua.

17 - *Hamazazpi* bakarrik badittuzu, *hogeirako* hiru falta dittuzu.

18/1- Ez jata dirua heltzen, *hoge* duro falta jataz; lagaidazu *hogeiko* bat.

## **5 - ADBERBIXUEN DEKLINABIDIA**

## 5.1 - Leku-adberbixuen deklinabidia

### 5.1.1 - Leku-adberbixo arrunten deklinabidia

KASUA	HAMEN/HEMEN	HOR	HAN
12 - Inesibua	hamen / hemen	hor	han
6 - Leku-genitibua	hamengo / hemengo	horko	hango
13 - Ablatibua	hamendik / hemendik	hortik	handik
14 - Adlatibo soilla	hona	horra	hara
15 - Muga adlatibua	honaiño	horraiño	haraiño
- M.adl.g.eraikia	honaiñoko	horraiñoko	haraiñoko
16 - Hurb. adlatibua	honutz	horrutz	harutz
17 - Adlat.gaiñ.eraikia	honako	horrako	harako

Ikusi: 3.3 - Adberbixuak erakuslien ordeztuak, erakuslien deklinabidian.

Adibidiak:

12 - **Hamen** nun izan zan beste denbora baten herri haundixa (TE).

- Ni egon naiz **hamen** eta zu egon zara **han** (TE).

- **Hor** dator errenka zuen ardi galdua (TE). **Hor** zure ibilleren ondoria (TE).

- **Han** bera nun datorren! (TE).

12/13 - **Hemen, hemendikuok**, danok osasunagaz (TE).

6 - Hizketa hau da **hamengua** (TE). **Hemengo** jendia bihargiña da. Ni ez naiz **hemengua**.

- Ni naiz **hamengua**, zu zara **horkua**, eta ona izango da bakotxa bere aldetik ibiltzia (TE).

- **Hango** inguruak zoragarriak dira. Hi ez haiz ba **horkua!** **Horko** gaztiak burrukarriak dira.

13 - **Hamendik** Elgetara, ordu biko bidia (TE). **Hamendik** dabill aspaldiko Fraisko (TE).

- Mendixen **hamendiko** aldetik (TE). Juari **hemendik!**. **Hemendik** aurrera argi ibilli!.

- **Hortik**, eguzki aldetik dator argitasuna (TE). Jaungoikua oso ona da; gauza guztiak Jaungoikuak egiñak; **hortik** gauza guztiak onak izan biharra (TE).

- **Handik** nator bildurrez beteta (TE). **Handik hona**, hiru orduko bidia (TE).

- Elgoibarren **Andikao** esaten jakon basarrixa, ibaixan **handikua** (TE).

- **Handik** baiño hobeto ikusiko dozu **hemendik**.

14 - Etorri zaittez **hona**, gauza bat esan bihar detsut (TE). Ez hari **hona** etorri barrero!

- **Horra** nator neu eta esango detsut zer dan egixa (TE).

- **Hara** nun datorren gure ardi galdua (TE). **Hara** zer diñuan jakintsu honek (TE).

- **Hara** nere azkenengo berbia (TE). Nora euzkixa, **hara** zapixak (TE).

- Juan zakiraz **hara!** (TE). **Hara** eta **hona** pasian ibiltzen da sarri.

15 - Lurrak **honaiñok**, horregaittik hamen Finisterrae (TE). Legia eta Profetak **honaiñok**; Juan ezkerro grazia (TE). **Hamendik haraiñok** da gure saila (TE). Zelan etorri zara **honaiño**?

- **Hemendik haraiñoko** distantzia, ez da makala gero!.

16 - Mutil koskorra **harutz** bialdu dogu (TE). **Harutz** eta **honutz** asko mogitzen da hori.

- **Harutz** eta **honuzkuak**, batera, kontu hobia dau (TE).

17 - Norako dira hónek piezok, **honako** ala **horrako**? - **Harako** beste alderako.

## 5.1.2 - Leku-adberbixo indartuen deklinabidia

KASUA	HAMENTXE/HEMENTXE	HORTXE	HANTXE
12 - Inesibua	hamentxe / hementxe	hortxe	hantxe
6 - Leku-genitibua	hamengotxe / hemengotxe	horkotxe	hangotxe
13 - Ablatibua	hamenditxik / hemenditxik	hortitxik	handitxik
14 - Adlatibo soilla	hona(t)xe	horra(t)xe	hara(t)xe
15 - Muga adlatibua	honaiñotxe	horraiñotxe	haraiñotxe
- M.adl.g.eraikia	honaiñokotxe	horraiñokotxe	haraiñokotxe
16 - Hurbiltze adlatib.	----	----	-----
17 - Adlat.gaiñ.eraikia	honakotxe	horrakotxe	harakotxe

Adibidiak:

12 - **Hamentxe** jarriko zara zu, nere onduan (TE).

- **Hementxe**, toki honetantxe, hórrek mendi guztiok ikusten dirala,bazkaldu bihar dugu!(TE).
- **Hortxe** egongo zara sekula alde egin barik ñora (TE). **Hortxe** dagok kokkia.
- **Hantxe** jausi nintzan danen barregarri (TE). Zoiatz *hara*; **hantxe** esango detsue zer egin.

6 - Txirixo-kalekua, **hamengotxia** zan Toribio Etxebarria.

- Ikusten dozu han kamiño onduan dagan basarrixa? **hangotxia** zan amandria.
- Kantoi horretan dagan etxia ikusten don? **Horkotxia** zonan aittitta.

13 - Hator ona! **hemenditxik** ikusiko don hobeto.

- **Hortitxik** azaldu dira gure atsekabe guztiak (TE).
- Latzak gertau ziran han eta **handitxik** etorri jakuzen gure gaurko arazuok.

14 - **Honaxe** etorri bihar litzateke, ikustera nola diran gauzak (TE).

- **Honatxe** ekarri bihar destazu, nere etxera, letriak aintzen daben dirua (TE). \***Onantxe** dakar berak Lexikoian.
- Itxaidazu; ez etorri, neu noia **horratxe**.
- **Haratxe** juaterik ez neban ba nahi, baiña eruan egin ninduen.

15 - **Honaiñotxe** hazi zan ibaixa azkenengo ufalian. **Honaiñokotxe** urak izan ziran.

5.1.3 - “Ber- “ aurrizkidun leku-adberbixo indartuen deklinabidia

KASUA	BERTAN	BERTANTXE
12 - Inesibua	bertan	bertantxe
6 - Leku-genitibua	bertako	bertakotxe
13 - Ablatibua	bertatik	-----
14 - Adlatibo soilla	bertara	bertara(t)xe
15 - Muga adlatibua	bertaraiño	bertaraiñotxe
- M.adl.g.eraikia	bertaraiñoko	bertaraiñokotxe
16 - Hurbiltze adlatibua	bertarutz	-----
17 - Adlat.gaiñ.eraikia	bertarako	bertarakotxe

Adibidiak:

12 - **Bertan** bazkalduko dogu, iñora jua barik (TE).

- Bide zabala eregi zan ezkeru, Eibartik **bertan** dago Arrate (TE).
- Ointxe **bertan** erakutsiko detsut. **Hamentxe bertan** laga neban eta oiñ ez dot topatzen.
- Etxetik **bertantxe** genduan eskolia, Godoiñekua esaten jakon etxe haundi baten (TE).
- Urten Elgoibartik eta **ber-bertan** dago nik esaten detsuten etxia (TE).
- Alargundu zanian, **bertan behera** laga dana eta fraille sartu zan (TE).

6 - **Bertako** jendia (TE). **Bertako** ipoiña (TE).

- Gure hizketia **bertakua** ete da? (TE).
- Aspaldixan **bertako** eginda dago (TE).

13 - **Bertatik** deittuko detsazu. “**Bertatik bertara**” Andoni Aizpuruk aurkezten daben telebista programiaren izena da.

14 - Han bádago, **bertara** jua eta ikusi egingo dogu.

15 - Eibartik Donostiaraiño **bertaraiño** jua giñan oiñez.

17 - Hónek piezok **bertarako** egitten dittugu, ez kanporako.



## 5.1.4 - Leku-adberbixuen deklinabidia; galdetzailliak eta eratorriak (1/2)

KASUA	NUN	IÑUN	EDONUN
12 - Inesibua	nun	iñun	edonun
6 - Leku-genitibua	nungo	iñungo	edonungo
13 - Ablatibua	nundik	iñundik	edonundik
14 - Adlatibo soilla	nora	iñora	edonora
15 - Muga adlatibua	noraiño	----	----
- M.adl.g.eraikia	noraiñoko	----	----
16 - Hurb. adlatibua	norutz	----	edonorutz
17 - Adlat.gaiñ.eraikia	norako	iñorako	edonorako

Adibidiak:

- 12 - **Nun** jaixo zan Iparragirre? (TE). Hor **nun**, ibilli eta ibilli, agertu garan (TE).  
 - Hau mundua, **nun** dana dan hirutxurra (TE).  
 - Zaiñ eta zaiñ eta **nun danik bez** (TE). Haren etxia, gaur **nun danik bez** (TE).  
 - **Iñun** ikusi ez dan gauzia, zuk diñozuna (TE). **Iñun** ez dot halakorik ikusi.  
 - Egun guztian billa ibilli gara eta **iñun** be ez dogu agertu (TE). \*Ez dogu agertu hori arraro txamarra egitten jaku; ez dogu topau edo ez da agertu-edo izan bihar litzakialakuan gare.  
 - **Iñun** ikusi dozue gure mutilla?  
 - Eguzkialde hartan, **edonun** mallubixak; basoko mallubi gozuak (TE).
- 6 - **Nungua** haiz hi, txotxó? - Ni Gollibarkua (TE). **Nungo** ogixa da hau?  
 - Nik ez dot **iñungo** barbarik apurtu. Ez dabe **iñungo** hirutxurrik egiñ, hala badirudi be.  
 - **Iñungo** arriskurik ba ete dago? -Ez, ez dago **iñungo** arriskurik.  
 - Nungua ete da hori? -Batek daki!... **edonungua**.
- 13 - **Nundik** agertu ziran hona lehenengo gizonak? (TE).
- 13/14 - **Nundik nora** habill hi egun guztian? (TE).  
 - **Nundik nora** asmau dozu hori guzurrori?(TE).  
 - **Iñundik iñora** izan ezin **leikian** gauzia, ez batera eta ez bestera (TE). (*Leike* normalagua dogun arren *laike* be badarabigu Eibarren; adibide honetan *laike* dator Lexikoian).
- 13/15 - Esaixozu honi **nundik noraiño(k)** izango dan bide barrixa (TE).
- 14 - **Nora** zoiiaz oporretan? **Edonora** juan neike, baiña ez naiz biharbada **iñora** be juango.  
 - Ez dau urtetzen **iñora** alargundu zanetik (TE).  
 - Domekan bazoiiaz **iñora**? **Iñora bez**, etxian egongo naiz.
- 15 - **Noraiño** juateko asmua dakazu? - Tontorreraiño.  
 - **Noraiñokua** ete da hau bidiau?
- 17 - **Norako** bidia ete da hau? **Iñorako bez**, amaittu egitten da-eta.

5.1.4 - Leku-adberbixuen deklinabidia; galdetzailiak eta eratorriak (2/2)

KASUA	NUNBAITT	NORABAITT	NUNAHI	NORANAHI
12 - Inesibua	nunbaitt / nunbaitten	----	nunahi	---
6 - Leku-genitibua	nunbaitteko	----	----	---
13 - Ablatibua	nunbaittetik	----	----	---
14 - Adlatibo soilla	nunbaittera	norabaitt	----	noranahi
15 - Muga adlatibua	nunbaitteraiño	----	----	---
- M.adl.g.eraikia	nunbaitteraiñoko	----	----	---
16 - Hurb. adlatibua	nunbaitterutz	----	----	---
17 - Adlat.gaiñ.eraikia	nunbaitterako	----	----	---

Adibidiak:

12 - **Nunbaitten** sortu zan euskaria (TE). **Nunbaitten** (*nun edo nun*) egon bihar dau.  
 - **Nunahi** (*edonun*) berriz be esango dot hamen esan dorana, egixa dalako (TE).

6 - **Nunbaittekua** izango da hori be eta errespetua zor jako.

13 - **Nunbaittetik** agertu ziran hona be gizonak (TE).  
 - **Nunbaittetik** (*nun edo nundik*) sartu bihar dogu.

14 - **Nunbaittera** urten dau iñori ezer esan barik.  
 - **Nuonora** (*nora edo nora*) urten dau ezer esan barik iñori (TE).  
 - Guazen, **norabaitt** joko dogu; ez gara galduko (TE).  
 - **Noranahi** juanda be, jakitziak lagunduko desku (TE).  
 - Nora zoiazie oportetan? Juango gara **nunbaittera / norabaitt**, ez gara urten barik geratuko.

16 - Nora ete doia ha txakurra? Badoia **nunbaitterutz**; ez da galduko.

17 - Badakitt **nunbaitterako** asmotan zana, baiña ez dakitt norako.

## 5.2 - Denbora-adberbixuen deklinabidia

### 5.2.1 - Denbora-adberbixuen deklinabidia; galdetzailiak eta eratorriak

KASUA	NOIZ	IÑOIZ	EDONNOIZ <sup>(1)</sup>	NOIZBAITT	NOIZNAHI <sup>(2)</sup>
12-Inesibua	noiz	iñoiz	edonoiz	noizbaitt / noizbaitten	noiznahi
6-Leku Genit.	noizko	iñoizko	edonoizko	noizbaitteko	noiznahiko
13-Ablatibua	noiztik	----	----	----	----
15-Muga adlat.	noiz arte	----	----	----	----
17-Dest.adl.g.er.	----	----	edonoizerako	noizbaitterako	noiznahirako
--- Dest.ines.g.er.	noizko	----	----	----	----

**Oharrak:** <sup>(1)</sup> “*Edonoiz*” ez da Eibarren erabiltzen, taulan jarri eta adibidiak emon dittugun arren.  
<sup>(2)</sup> ”*Noiznahi*” Toribio Etxebarriak dakarren arren gitxi darabigu, eta gitxiago oindiok 6. eta 17. kasuetan.

#### Adibidiak:

- 12 - *Noiz* etorriko zara bazkari bat alkarrekin egin deigun? (TE).  
 - *Noizian behiñ* agertzen da laguntzera (TE). *Noiz edo noiz* egitten dau bisittaren bat.  
 - *Noizik behin* agertzen da laguntzera (TE).  
 - Gehixago *iñoiz* (*ez* naiz) ni agertuko etxe honetara (TE). *Ez* eizu *iñoiz* holakorik egiñ.  
 - *Iñoiz* bihar baldin badozu nere laguntasuna, berba bat dozu nahikua (TE).  
 - *Iñoiz* ikusi izan dittugu partidu hobiak.  
 - *Edonoiz* dago ha prest laguntzeko.  
 - *Noizbaitt* agertuko naiz herrira (TE).  
 - *Noizbaitten*, ez dakitt zein urtetan, izanda nago haren etxian (TE).  
 - *Noiznahi*, Jauna, a(g)indirazu zeure borondatia(re)n behian (TE).
- 6 - *Noizko* erretratuak ete dira hónek?. *Noizkuak* dira kontatzen diharduzun ipoiñok?  
 - Egitten zittuan *noiz edo noizko* bisita háretako batian agertu zittuan bere asmuak.  
 - *Noizian behingo* jan-da-eranak ezin dau kalte haundirik egin.  
 - *Iñoizko denboran* ni biharrian baziñaz...(TE).  
 - Ez oinguak bakarrik, *edonoizkuak* izan leikez hórrek arazuok.
- 13 - *Noiztik* dakizu zuk horren barri?.  
 - *Noiztik nora* ni zure laguna? (TE). *Noiztik nora* iraungo daben kontratuak, izentau biharra dogu, gero auzixetan ez ibiltzeko (TE).
- 15 - *Noiz arte* dago liburutegixa zabalik?. *Noiz arte* iraungo dau kontratuak?.
- 17 - *Edonoizerako* izan leike hori jantzixori. Hobe dozu hori *noizbaitterako* gordetzia.  
 - *Noizko* amaittu bihar dira ba hónek piezok?. *Noizko* baiña, zure asmo onak? beti bixarko?.

### 5.2.2 - Denbora-adberbixo arrunten deklinabidia (1/3)

KASUA	ASPALDI	ATZO	AURTEN	BETI	BIXAR
12-Inesibua	aspaldi/aspaldixan	atzo	aurten	beti	bixar
6-Leku Genit	aspaldiko	atzoko	aurtengo	betiko	bixarko
13-Ablatibua	aspalditik	atzotik	aurtendik	(betittik)	bixartik
15-Muga adlat	---	atzo arte	aurten arte	----	bixar arte
17-Dest.adl.g.er.	---	----	----	----	----
-- Dest.ines.g.er.	---	atzoko	----	betiko	bixarko

KASUA	GAUR	GERO	IGEZ	LEHEN	OIÑ
12-Inesibua	gaur	gero	igez	lehen / lehenian	oiñ
6-Leku Genit	gaurko	geroko	igezko	lehengo	oingo
13-Ablatibua	gaurtik	----	igeztik	lehendik	oindi(txik)
14-Adlat.soilla	----	gerora	----	lehenera	----
15-Muga adlat	gaur arte	gero arte	----	----	oiñ arte
17-Dest.adl.g.er.	---	----	----	----	----
-- Dest.ines.g.er.	gaurko	geroko	----	----	oingo

**Oharra:** Badira, jakiña, beste denbora-adberbixo batzuek be; baiña ez dittugu danak taulan jarriko, izan be, jarritakuen kasu-marka berberak hartzen dittue-eta gitxi-gora-behera.

#### Adibidiak:

- 12 - **Antxiña** ohittutzen zan eliza barruan hildakuak lurperatzia (TE).
- **Antxiñan** jende gitxiago zanetik, gauza asko ziran errezaguak (TE).
  - **Aspaldi** ez zara agertu honutz (TE). **Aspaldixan** lanari igesik dabill (TE).
  - **Atzo, atzo, atzo, / atzo** hil ziran milla atso...(TE).
  - **Atzo** gertau zan baiña gaur arte ez dau iñok jakiñ.
  - **Aurten** gari asko izan da (TE). Ez da hartu **aurten** gaztaiñarik (TE).
  - **Behiñ**, mendixan gindoiazela, hartu ginduzen euri haundi batek (TE).
  - Ez **behiñ**, askotan izan naiz haren etxian (TE). **Behiñ baten / behin batian**, Peru eta Marixa juan ziran ferixara eta erosi eben txahal txikixa...(TE). Zenbat bidar izan zara Donostian ? **Behiñ be ez** (TE). **Behiñ edo behiñ** mozkortzen zan, gizon ona izan arren (TE).
  - Kukuak **beti** soiñu bat (TE). **Beti-beti** denborak iraungo daben beste (TE).
  - **Bixar** ezkontzen da, andrakume politt bategaz (TE).
  - Jan-da-eran eta droga haundiko egunak, **bixamona** garratza (TE).
  - Agertu bat egingo detsut **etzi**, Jaungoikuak gura badau (TE).
  - **Gaur** da, **bixarko atzo** eta **atzoko bixar** (TE). **Gaur egunian** ez da toki urriñik (TE).
  - Lehenengo izan zan berbia eta **gero** haren bittartez gauzak (TE). **Gero** etorriko naiz (TE).

## 5.2.2 - Denbora-adberbixo arrunten deklinabidia (2/3)

- 12 - **Igez, aurten** baiño urte hobia izan zan basarrirako (TE).  
 - Lanian ekiñ baiño **lehen** esan bihar zenduan hori (TE).  
 - Nahi dana gertauta be, gu **lehenian** (TE).  
 - Alperrik esango dabe nahi dana, ni beti **lehenian** nago (TE).  
 - **Oiñ**, teillatu gaiñian adarra jarri dogunetik, guazen jan-eranera (TE).  
 - **Oiñ aurretik** be baziran horretariko matasak (TE).  
 - **Oiñ dala** hiru urte, gaur bezelako egun baten, holako lekutan izan nintzan (TE).  
 - **Oiñ ezkerik**, egositta egongo da okelia (TE). **Oiñ ezkerikan** aberastuko zan (TE).  
 - **Oiñ ezkerro** mutill haundi eginda eukiko dozu semia (TE).  
 - **Orduan** bai izango da gure poza! (TE). **Orduantxe** galdu zan betiko (TE).  
 - Halatxe ziran gauzak **orduan**.
- 6 - **Antxiñakua** zan Unzagako Torria, baiña Portalekua **antxiñakua(g)ua** (TE).  
 - **Antxiñakuak** ez zittuen guk dittugun burukomiñ asko (TE).  
 - **Aspaldikua** nok ni auzo honetan (TE).  
 - **Atzoko** ogixa baiño hobia **gaurkua**.  
 - **Aurtengua** da hamen daukaten salgei guztia (TE).  
 - Osagilliak esan zetsan, **behinguan** osatuko ebala (TE). **Behingo** jan-eranek ez daka kalterik.  
 - Haren parrandak ez ziran **behin edo behinguak** bakarrik.  
 - Eta entzun eban **Betiko**(are)n hotsa, zein zan harutz eta honutz Baratzan haizia hartzen (Gen. 3,8) (TE). Badakar gaur be, guzurti horrek **betiko** ipoiña (TE).  
 - Zer dogu bazkaittan? - **betikua** (TE). **Betikuk** jarrittako legia gurasuak ondraztia (TE).  
 - **Bixarkuari** begira dihardut zeregiñ honetan (TE). **Bixarko** eguna, egun haundixa da.  
 - **Bixamoneko** egin biharrak zittuan goguan eta goiz erretirau zan.  
 - **Gaurkuaz** gaiñera, **bixarkua** eta **etzikua** be jai haundixak dittugu.  
 - **Gaurkua** bada ogixa, gitxiegi izango dogu (TE). **Gaurkua** egiñ dogu behintzat (TE).  
 - **Gaurko** eguna egun ederra da.  
 - **Gerokuk** ez eban estutzen, alperrik esan kristau ona zala (TE).  
 - **Geroko** zeregiñak laga **geroko**.  
 - **Igezko** Sanjuanak, **aurtenguak** baiño hobia.  
 - **Lehenguan** topau neban gizajua dana jausitta (TE). **Lehengo egunian** etorri jakun kontuak eskatzen.  
 - **Oingo** gaztiak makiña bat burukomiñ biharra billatzeko. **Oiñguan** ez detsa parkatuko (TE).  
 - Zuk diñozun gauzia **oiñgotxe-oiñgotxia** (TE).  
 - Ez hari **orduko** gauzekin etorri, aldatu egin dittuk eta.
- 13 - **Antxiñatik** datorren ohittura bat dogu hori (TE).  
 - **Aspaldittik** naiz ni hamen zure zain (TE).  
 - **Atzotik** aurrera gauzak ez dira lehengo moduan.  
 - **Aurtendik** hasitta, urtero juango gara hor zihar udan.  
 - **Bixartik** aurrera ipiñi bihar ei dabe lege barrixori.  
 - **Gaurtik** aurrerako pieza guztiak kromau egingo dittugu. **Gaurtik** Arrate egunera 40 egun.  
 - Ez jako oiñ agertu gaixuori, **igeztik** dabill makal txamar.  
 - **Lehendik** etorren ohittura hori gure artian (TE).  
 - **Oiñditxik** esaten detsut, ez naizela juango ha badoia (TE).  
 - **Orduandik** ez dot ikusi gehixago zuen aitta (TE).

## 5.2.2 - Denbora-adberbixoko arrunten deklinabidea (3/3)

14 - *Gerotik gerora...*(Axular). Ha zan zittala, **gerora** oso gozatu zan (TE).

- Zuzendu zalakuan baiña **lehenera** bueltauta dago barriro.

15 - *Atzo arte* ez genduan ezer jakin.

- *Aurten arte* urtero euki izan dittugu pelota partiduak sanjuanetan eta gero be izango dittugu.

- Gaurko nahikua egin dogu eta **bixar arte**. - Agur, bai, **bixar arte**.

- *Harañegun antxitxik* ez dok Fraisko etxeratu **gaur arte**.

- *Gero arte* esanda aldendu zan guregandik oiñ dala hiru urte eta ez dogu gehixago ikusi.

- Agur ba! **Gero arte!** (TE).

- *Oiñ arte* (ez dot) ikusi iñoiz halakorik (TE). **Ointxe arte** ez naiz konturatu.

- *Ordura arte* sekula halakorik ikusi barik genden.

17 - *Ordurako* benderatuta eukan izan eban gaitza (TE).

- *Atzoko* amaittuta eguazen hónek piezok.

- Juan da **betiko**, ez dakigu nora (TE). Iñor ez gara **betiko**. Bakiak egin dittue **betiko**.

- **Betiko** hasarratu dira.

- *Bixarko* edo *etziko* eginda nahiko nittukez. Ez **bixarko** laga gaur egin zeinkiana.

- *Gaurko* eginda egon bihar zan biharrori.

- Ez **geroko** laga; hobe ointxe egittia.

- *Oingo* amaittuta egongo zalakuan nenguan ni.

# II - Eibarko euskeriaren entonaziñua





## 1 - AZENTUA

Edozein hizkuntzak edo berbetak bere-beria daben entonaziño berezkua dauka, bestiangandik bereizten dana. Hizkuntza bakoitxaren barruan bertan izaten da zenbait dialekto, eta dialekto hórrek, eurok, bata bestiangandik azentuatze aldetik bereizten dira. Sarrittan, hizkuntza bateko eta besteko berba baten entonaziñua azentu erabilleriaren bidez bereizten da eta entonaziño horrek erakusten desku zein dan berbeta batekua eta zein bestekua.

Ikusi deigun, -eta horretarako azentu grafikuak jarriko dittugu hobeto ikusteko-, esate baterako, frantsesezko *madám* eta inglesezko *mádam*, eta bardin bardin idazten badira be, azentu prosodiko nagusi edo gorena silaba desbardiñetan jarritta daroie eta horretxek bakarrik be erakusten desku zein dan frantsesezkoa eta zein inglesezkoa. Beste bat: frantsesez *originál* eta inglesez *original*, inglesez *évidence* eta frantsesez *évidéce* (amaierako -e hori mutua da), frantsesez *lymphatique* eta inglesez *Lmphatic* eta abar eta abar. Jakiña, hortik aparte bakoitxaren ahoskera edo pronunziaziño partikularrak dagoz, baiña guk entonaziño kontua bakarrik aztertzen dihardugu eta nahikua da horixe argi ikusteko zelan azentu bittartez bereizten dan berbeta desbardiñetako entonaziñua. Eta, hor, frantsesezko *évidéce* horretan agertzen dan lehelengo azentua, badakizue ez dala entonaziño-azentua, halako tinbre berezi bat izaten daben azentu “agudo” deitzen dana baiño, eze, entonaziño-azentua nagusixa *-dén-*silaba horretan daroia.

Hortan, esan geinke, berba batian, eta bardin esaldi edo frase batian, azentuen bidez sortzen dala entonaziñua. Jakiña, guk, euskeran ez daukagu azentu ortografikorik, zorionez bihar bada, eze, hainbeste euskalki eta azpieuskalkiren artian azentuatze eta entonaziño hain desberdin eta ugarixa daukagulako ez litzake erreza izango gure azentuatze kontua. Horrela, euskera batuan be ez da azentu ortografikorik erabiltzen nahiz eta euskaldun barri askok azentuatze modu bat eskatu daben, erdal entonaziñotik kanpo berba egin ahal deixen eta nolabaitteko euskal azentuatze jatorraren jabe izan, baiña hori gatxa da, benetan. Hala eta guztiz be badihardue euskaltzain batzuek euren ahalegiñetan, batez be Txillardegik, Jose Ignacio Hualdek eta Iñaki Gamindek.


Horregaittik, guk, euskeran, gaurkoz, azentu prosodikua bakarrik daukagu eta tokixan tokiko eta leku bakoitxeko erara erabiltzen dittugu azentuok. Eibarren bertan, gure euskal eibarrera modulaziño haundikua da, ikaragarritzko gora-beheradun entonaziñua dauka-eta. Oso eufonikua da. Esango neuke, badittuala Eibarko euskera jator eta petuak bost-sei azentu desbardin, eta esaldi edo frase luze txamar bat pentagrama batian aztertuko bagendu, sekulako modulaziñua daukala ikusiko genduke. Hor izango gendukez azentu goren edo nagusixak (prinzipalak), eta hórren azpikaldian beste benderatu batzuk, tartian, atonuak (tono barikuak), baiña atono batzuek beste atonago batzuen gaiñetik izaten diranez, hárek be, ez gorenak, baiña bai euren azpikaldeko atonuak baiño nagusitxuagoak. Silaba bat atonua bada, haren ondoko beste bat nagusixagua dala dakigu, baiña bere azpiragoko beste atonago bat sintagma barruan baldin btan *plazamútilá*. Lehelengo bixak bakarrik entzunda okerrik barik jakingo genduke bata eibartar peto batek esan dabela, bestia bergararrak eta atzenengo bixok gure ingurukuak ez diran batzuek.

Hor ikusten da, nola azentuen bittartez, bakoitxak bere-beria daben berezko entonaziñua daukala. Eta hau berba soill edo bakarretan, baiña perpausa edo oraziño oso batian sintagmak alkarri lotuta doiazenian, orduan sekulako modulaziñua sortzen da, halako gora-beherak dittuan tonuen aldetiko ondulaziñua, eta horixe da entonaziñua, ixa-ixa esango neuke aparteko melodixia. Honetan bada halako musikalitasun edo musikalidade bat, notak gora eta behera erabiltzen dittugunez, -eta badittugu eibarreraz, lehen esan dogun moduan, bost-sei bat tono desbardin- (gehixago ez bada), azentuak zela darabiguz-

naren arabera emoten detsagu gure berbetiari halako nortasun berezixa, eta, halaxe, berbeta bakoitzak bere entonaziño partikularra dauka. Zegaittik esaten da erderaz *elgóibar* eta *elgéta* eta eibarreraz *élgoibar*, *élgoibarrera*, *élgoibarkua* eta abar eta *élgeta*, *élgetara*, *élgetakua* eta hala? Ba erdeldunak eta eibartar euskaldun petuak entonaziño diferentia daukagulako. Esango al genduke erderaz honako hau? “voy a élgueta”? Ez, erdeldunak barre egingo leskukie-eta. Baiña bestaldera, gaur eguneko gazterixa euskalduna erdal entonaziñuan jausten da eta euskeraz diharduanian be, eibartar peto-peto batek esango leukian letz, erdal “tonadiákin” egitten dau berba. Halaxe, *élgoibar* esan biharrian, *elgóibar* esaten dau: “Elgóibarrera noia”. Baiña hau berba bakar eta oraziño laburra danian erdi-kalte da, eze perpausa edo jardunaldi luzian diharduanian, euskeraz jardun arren be, badiruri erderaz diharduala eta eibartar nagusi txamarrori miñ emoten desku belarrira.

Ikusi dogunaren ondoren esan deigun, berriro, oraziño luze batian azentu bat baiño gehixago dittugula eta bata bestiagandik diferentiak gaiñera. Beti izango dogu azentu goren edo dominante bat, eta bestiok haren azpizan egongo dira. Esate baterako, ikusi eibarrerazko esaldi hau:

***-Mendíxetatík otsúak jatxi díra aurtengó neguán.***




Esaldi horretan bi silaba bakarrik markau doraz, **-dí-** eta **-an**, baiña dudarik ez da azentu goren, nagusi edo dominantia **-di-** dala, nahiz eta atzenengo **-an** be enfasi berezikua dan eta beste guztiak baiño markauagua, baiña **-di-** silabaren azpizan gelditzen dana. Horretara, **-di-** silabako azentu nagusi horren azpizan dagoz beste danak, batzuk bestiak baiño goratxuago edo beheratxuago, edozein modutan be gora-beheradun modulaziño baten barruan. Eta enunziau batian silaba azentuau bat daguala esaten badogu, horrek esan nahi dau horren azpizan azentu bako bat edo beste daguala. Errezago ipintzeko esan deiguzen bi silabako hónetxek:

- 1) - *óndo, txárto, zúzen, óker, ázkar, árin, Bílbon...*
- 2) - *agúr, hatór!, Mirén!,*

Hor, lehelengo errezkada edo illarako berbak aurrekaldeko silaban daroie azentua eta ondorengua, esan leike, atonua edo tono bakua dala. Bigarren illaran, ostera, bestaldera gertatzen da, atzen silaban daroie azentua eta lehelenguak atono letz agertzen dira.

Baiña gatozen berriz men-di-xe-ta-tik berba deklinaua aztertzen eta egin deigun Eibarko entonaziñuari dagokixon halako eskala musikal bat, baiña berba horixe bakarrrik hartuta, ze, ondorengo beste berba batek jarraitzen detsanian atzen silabaren tonua aldatu egin leike, entonaziño atalian geruago ikusiko dogun moduan. Ia ba:



Hor ikusten da, argi, bost silabako berba deklinau bakar batian bost tonu-altura desbardin dittugu-

la. Bost azentu diferention artian bigarren silabakua da gorenena, indartsuena, dominantia, prinzipala, zera, 5 numeruakin markautakua, hau da, **-di-**, eta horren azpitan dagoz beste danak. Azentu dominante hori daroian **-di-** silabia sintagma barruan bigarren silabia bada be, 5 numerua jarri detsat, tonuak batetik bostera maillatuta dagozelako ( beherengotik gorenera ) eta **-tik-** atzen silabia da tonu bajue-na daroiana, **-men-** silabia bera baiño be beherago edo azpirago. Hortan, gorenengo **-di-** silabiaren eta beherengo **-tik-** silabiaren artian kokatzen da beste hiru tonu diferention mailladi edo eskalia. Hau danau argi ikusi ahal izango genduke linguistikan entonaziño azterketan erabili izan dan soinu-tresna aproposa bagendu.

Hor, bihar dan moduan begiratzen badogu, ikusi ahal izango dogu nolako sobre-esdrujula dan sintagma hori eta, geruago, entonaziño atalian agertuko dot nola garan eibartarrok *proparoxitonuak* (esdrujuluak), horretarako joera aparta daukagulako.

Nik ez dot tema hau gehixago sakondu nahi, iñor zorabixau ez deiran, eta gitxiago azentuaren gaineko tratau bat emon; zera bakar bakarrik, gaintxotik ez bada be, eibarrerak azentu kontuan eta, batez be, entonaziñuan dittuan partikularidade edo berezittasunak agertu eta ahal danik eta errezen aztertu. Horretxegaittik, ez gara sartuko intensidadeko azentu kontuetan, ritmo kontuetan, ezta bestelako batzuetan be.

Eta guazen beste azentu klase batera.

## 2 - AZENTU DIAKRITIKUA

Oin dala ixa 22 urte egin neban Eibarko azentu diakritikuari buruzko lan bat eta Euskaltzaindiak ‘EUSKERA’ aldizkariko liburuxka batian, separata moduan, argitaratu eban 1979xan. Nere lan horren izenburua AZENTU DIAKRITIKOA EIBARKO EUSKARAN zan. Hor begiratu nahi leukianak nekez dauka, eze aspaldi agortu zan.

Dana dala, gaurko ataltxo honetan zerbait aztertuko dogu.

Azentu diakritikuaren bidez berba baten esanahixa aldatu egitten da. Esate baterako ez da bardiña guretzat, eibartarrantzat, txokúa eta Txókua esatia. Lehelengua edozein baztar izan leike, baiña bigarrena Untzaga plazan daukagun taberna baten izena da, eta ez dittugu bardin entonatzan, eta berbetan dihardunian bakoitxaren tonadiak esaten desku garbi zein tokittara jua bihar garan, adibidez: “txokóra noia” esaten bada, baztar batera da, eta “txókora noia” esaten bada danok dakigu Txoko izeneko tabernara izango dala.

Ez dira bardiñak bótia (pelotiaren bótia) eta botía (jazteko oiñetakua), edo artía (arbolia) eta ártia (arte), edo basúa (arboladixa) eta básua (edalontzixa) eta abar. Hor ikusi geinke, garbi, zelan azentua silaba batian edo beste batian juatiak esanguria ziharo aldatzen dabela, bi gauza desbardiñen esangurak dirala. Baiña ez hori bakarrik, berba bakoitxa deklinau geinke eta azentudun silabiak markauko dau beti, okerrik barik, konzepto bera agertuaz eta mantenduaz. Ikusi:

<u>arboladixa</u>	<u>edalontzixa</u>
bas <u>ú</u> a	básua
basórik	básorik
bas <u>ú</u> ak	básuak
basuári	básuari
basuáren	básuaren
basóko	básoko
basuágaittik	básuagaittik
basuántzat	básuantzat
basuándako	básuandako
basúan	básuan
basótik	básotik
basóra	básora
basóraiño	básoraiño
basórutz	básorutz
basoráko	básorako

Eta horrela, bardin bardin deklinatzen dira azentu diakritikua daroien berbak. Baiña emon deigun azentu diakritikodunen berba zerrenda edo listatxo bat, nik jasota daukarazenetatik batzu-batzuk:

artía (arbolia, zuhaitza)	ártia (arte mundua: musikia, pinttura...)
azía (barazkixa)	Ásia (lurraldia, kontinentia)
astekúa (aste bateko zerbait)	hástekua (hasierakua)
astía (zazpi eguneko epia)	hástia (hasieria emotia)
autúa (barrixa, albistia)	áutua (automobilla, kotxia)
barría (barre algaria)	bárria (burdiñazkua/tabernako bárria)
basúa (mendixa, arboladixa)	básua (edalontzixa)
....	.....
hegúa (txorixarena)	hégua (iparraren beste muturrekua)
elixía (mezia emoteko lekua)	élixia (helizea, errota)
emía (arra ez dana)	émia (M letria)
erría (erretakua, erre dana)	érria (R letria)
....	....
fruterúa (fruta saltzaillia)	frutérua (fruta ontzixa)
grazía (barreguria emoten dabena)	grásia (lantegixetako koipia)
joyerúa (joya egillia)	joyérua (joya edo bitxi-ontzixa)
kalía (kale izena mugatuta)	kália (lora klase bat; huts egittia)
katía (lotzekua)	kátia (examiñetako suspensua)
kokúa (momorrua, bitxua )	kókua (tropikoko fruta klase bat )
kumía (animalixen umia )	kúmia (umetxuaren ohetxua: sehaska)
ligía (galtzak eusteko lokarrixa)	lígia (foballeko torneua)
Lórena (Lore neskiarena)	Loréna (Frantziako lurralde bat)
markúa (negar malkúa)	márkua (kuadro baten ertz ingurua)
....	....
pagátzia ( pagadixa )	páгатzia (pagu bat egin biharra)
polizía (ertzaintza)	pólizia (poliza bat, seillua)
porrúa (zirixa sartu, engañau; barazkixa)	pórrua (zigarrua)
purúa (zigarro purúa)	púrua (garbixa, mantxa bakua)
solúa (landatzeko lurraldia)	sólua (kantari bakarraren kantua)
teía ( infusiñorako té bedarra)	téia (T letriaren izena )
txístua (instrumento musikala)	txistúa (ahoko glanduletako ura)
zerúa (firmamentua)	zérua (numerua)

Hor ba, zerrendatxo horretan, ze argi ikusten dan azentu diakritikuak eragitten daben esanahi diferentia, silaba batian edo bestian juan ezkeru. Ez dagoz danak, hórrek baiño gehixago dira nik Eibarren jasotakuak.

Baiña ikusi deigun nolan bereizten dittuan azentu diakritikuak singularrak eta pluralak adjetibo eta izenordain edo pronombre erakuslietan (demostratibuetan):

<u>Singularra</u>	<u>Plurala</u>
honék badaki (batek)	hónek badakixe / datoz (batzuek)
horrék “ “	hórrek “ “
harék “ “	hárek “ “

Hor ikusten dan letz, pluralian, *absoluto* eta *ergatibo* kasuak bardin entonatzan dira, baiña hórrek bixok singularrarekin bereizten dira azentuaren bidez.

Ikusi, ondoren:

Singularra

hau honéna da (batena)  
 hau horréna da “  
 hau haréna da “

Plurala

hau hónena da (batzuenan)  
 hau hórrena da “  
 hau hárena da “

Singularra

honén etxia (batena)  
 horrén etxia “  
 harén etxia “

Plurala

hónen etxia (batzuenan)  
 hórren etxia “  
 háren etxia “

honéna (batena)  
 horréna “  
 haréna “

hónena (batzuenan)  
 hórrena “  
 hárena “

etxe honetáko (bateko)  
 etxe horretáko “  
 etxe haretáko “  
 honékin /-gaz (batekin)  
 horrékin/-gaz “  
 harékin /-gaz “

etxe hónetako (batzuetako)  
 etxe hórretako “  
 etxe háretako “  
 hónekin/-gaz (batzuekin)  
 hórrekin/-gaz “  
 hárekin/-gaz “

honegáittik (bategaittik)  
 horregáittik “  
 haregáittik “

hónegaittik (batzuegaittik)  
 hórregaittik “  
 háregaittik “

honéntzat/-dako  
 horréntzat/-dako  
 haréntzat/-dako

hónentzat/-dako  
 hórrentzat/-dako  
 hárentzat/-dako

bizidun / bizigabe

honéngan / honétan  
 horréngan / horrétan  
 haréngan / harétan

bizidun / bizigabe

hónengan / hónetan  
 hórrengan / hórretan  
 hárengan / háretan

honegándik / honetátik  
 horregándik / horretátik  
 haregándik / haretátik

hónegandik / hónetatik  
 hórregandik / hórretatik  
 háregandik / háretatik

honégana / honetára  
 horrégana / horretára  
 harégana / haretára

hónegana / hónetara  
 hórregana / hórretara  
 hárenaga / háretara

honéganaiño / honetaraiño  
 horréganaiño / horretaraiño  
 haréganaiño / haretaraiño

hóneganaiño / hónetaraiño  
 hórreganaiño / hórretaraiño  
 háreganaiño / háretaraiño

honéganutz / honetarutz  
 horréganutz / horretarutz  
 haréganutz / haretarutz

hóneganutz / hónetarutz  
 hórreganutz / hórretarutz  
 háreganutz / háretarutz

honéganako / honetárako	hóneganako / hónetarako
horréganako / horretárako	hórreganako / hórretarako
haréganako / haretárako	háreganako / háretarako

Bada beste hitz edo berba mordua azentuaren bidez esanguria aldatzen dabena, nahiz eta bardin bardin eskribiduta izan, baiña bata ergatibo singularra izango da eta bestia plurala (plurala danian nahiz kaso *absolutuan* nahiz *ergatibuan* bardin izaten da). Hau, beti-beti, ergatibuaren **-k** hartu baiño lehen hiru silabako berbia danian gertatzen da. Hona hemen, batzu-batzuk:

Ergatibo singularrian

abaríak  
 aberátsak  
 abióiak  
 abogáuak  
 adardúnak  
 adaríxak  
 afaríxak  
 agindúak  
 agiríxak  
 aguazíllak  
 aguríak

betikúak  
 duakúak  
 erregíak  
 fededúnak  
 gaztaidúnak  
 ikazdúnak  
 jatordúak  
 kafezkúak  
 Ermukúak  
 Lasturkúak  
 mesedíak  
 orrazíxak  
 Pariskúak  
 sukanpáiak  
 tornerúak  
 udakúak  
 zortzikúak

Pluralian

abáriak  
 abératsak  
 abíoiak  
 abógauak  
 adárdunak  
 adárixak  
 afárixak  
 agínduak  
 agírixak  
 aguázillak  
 aguíriak

betúkuak  
 duákuak  
 errégiak  
 fedédunak  
 gaztáidunak  
 ikázdunak  
 jatórduak  
 kafézkuak  
 Ermúkuak  
 Lastúrkuak  
 mesédiak  
 orrázixak  
 Parískuak  
 sukánpaiak  
 tornéruak  
 udákuak  
 zortzíkuak

Hor ikusi leikianez, berba *paroxitono* danak *proparoxitono* (esdrújulo) bihurtu dira, atzen hirugarren silaban azentua kargatzen dabela. Ondorengo beste hónetan be bardin gertatzen jaku. Ikusi:

gizónak  
 mutíllak  
 umíak  
 edurrétan (mugagabia)  
 izotzétan “

gízonak  
 mútillak  
 úmiak  
 edúréretan  
 izótzétan

Badira beste izen eta gatzizen propio bitxi batzuk, azentua silabaz aldatu ezkerre esangura ziharo diferentia hartzen dabenak:

Túrkuá (turkiarra)

Elorríxo (Bizkaiko herri bat)

Turkúa (Plaentxiako errekadista famosua)

Elórrixo (Eibarren bizi izan zan dendari elorrixotar bat)

Azentu diakritikodun edo berba pariak deitzen dan eibarrerazko berbeta portaeria gehixago ikusi nahi leukianak, Euskaltzaindixak argitaratu zestan lehen aittatutako AZENTU DIAKRITIKOA EIBARKO EUSKARAN titulodun liburuxkia begiratu baiño ez leukake, han bertan pillo ederra aurkituko leuke-eta.



### 3 - ENTONAZIÑUA

Oiñ arte ikusi dogun azentu kontuakin zuzen-zuzenian, igarri barik eta poliki-poliki, edozein modutan be, entonaziño munduan sartuta ibilli gara, baiña atal barri honetan berba bakarretatik perpausa edo oraziño osuetara joko dogu. Hor ikusiko dittugu eibarrera jatorraren kurba melodikuak, sintagmetako kate fonikuak eta abar nola eratzen dittugun.

#### 3.1 - BERBA ALKARTUAK

Berbak, sarritan, eurak berez dittuen azentu nagusixak silabaz aldatzen dittugu, Eibarren, ondoko beste berba batekin lotzen diranian eta kurba melodikua aldatzen dabe. Horretarako, eta errezago ikusi deiguzen, silabetan zatituta jarriko dittugu. Esate baterako:

bi- <b>zá</b> -rra	baiña	arto- <b>bí</b> -za-rra
mu- <b>tí</b> -lla	“	plaza- <b>mú</b> -ti-lla
mu- <b>ti</b> -lla	“	mari- <b>mú</b> -ti-lla
gi- <b>zó</b> -na	“	basa- <b>gí</b> -zo-na
txa- <b>kú</b> -rra	“	basa- <b>txá</b> -ku-rra
ka- <b>tú</b> -a	“	basa- <b>ká</b> -tu-a
buz- <b>tá</b> -na	“	txori- <b>búz</b> -ta-na
haun- <b>dí</b> -xa	“	buru- <b>háun</b> -di-xa
lu- <b>zí</b> -a	“	hanka- <b>lú</b> -zi-a
zu- <b>rí</b> -xa	“	musu- <b>zú</b> -ri-xa

Hiru silabako berba *paroxitono* guztiekin gertatzen da hori. Baiña ikusi deigun zela portatzen diran bardin-bardin oraziño normaletan hartuta be edonolako berbak:

- |   |                                |
|---|--------------------------------|
| - Gizon horrek hanká <b>luzía</b> dauka.          | - Hankal <b>ú</b> zia da.      |
| - Simonen txakurrak buru haund <b>í</b> xa dauka. | - Buruh <b>áun</b> dixa da     |
| - Zuk beso <b>mót</b> za daukazu.                 | - Bes <b>ó</b> motza zara.     |
| - Horrek begi bak <b>á</b> rra ete dauka?         | - Begi <b>bá</b> karra diruri. |
| - Ardau egarr <b>í</b> xa daukazu?                | - Ardau <b>é</b> garri zara.   |
| - Harek buru mak <b>ú</b> rra dauka               | - Burum <b>á</b> kurra da.     |

Argi ikusten da, gaiñera, berbok alkartzen diranian, berba konposatuak esdrujulo bihurtzen dirala. Hortik aparte, adibidez, “*hanka luzía dauka*” esaten danian *hanka* izena da eta *luzía* adjetibua, baiña berba alkartu bihurtzen danian, honela, *hankalúzia*, orduan bikote osua dogu adjetibo eta hori aldaketiori azentu nagusixa silabaz aldatu danian gertatzen da.

Oiñ arte ikusi dogun danaren eta ikusiko dogunaren inguruan esan biharra daukagu, dihardugun azentu eta entonaziño kontu honetan gu ez gabizela iñolako gauzarik eta legerik asmatzen, eibartarrak mende luzietan zihar sortuz eta eratuz geuganaíño ekarri daben tonada berezixaren arau eta legiak jaso eta azaldu baiño ez dogula egitten. Horregaittik, eta kastellanuak dittuan moduan, guk ez daukagu azentu grafikorik, baiña bai belarriz ikasi eta erabillixak dittugun ohitturazko azentuatze lege fijuak.

Ni seguru nago ehun eibartar peto bialdu, bakoitza bere aldetik, esate baterako, Guadalajara lurraldera eta handik bueltan ez leukiela esango, batak be-ez, “Guadalajáran egon gara”, nahiz eta *Guadalajára* dan erdal entonaziño zuzena, dan-danak, seguru gero, “Guadalájaran egon naiz” tonadikin esango leskukie, horixe da-eta hemengo entonaziño jatorra. Baiña hori geruago aztertuko dogu nahikua sakon, zela eta nola gertatzen dan jakitzeko. Beti esan dot nik, azentu legedi hau eibartar peto jatorregandik entzunaren entzunaz eta erabillixaz ikasten dala.

### 3.2 - KATE FONIKUAK

Berbaldi jardun batian goragoko eta beheragoko azentu desbardiñak daukaguz eta hórrek danok kurba melodikuak eraten dittue, eibartar petuak esaten daben moduan “tonada” bat, baiña tonada-kate hori, hain zuzen, **kate-foniko** bat da, esaldi batian berbak nolabaitt -entonaziño barruan- alkarri lotuta doiaz-eta.

Esaldi bateko perpausa edo oraziño bat sintagmaz eratuta dago, zera, zentzunezko hitzen konbinaketa bat, eta sintagma bakoitxak beste batekin halako eten bat egitten dau. Oraziño batian hainbat eten (pausa, koma, punto...) egon leikez, tarte bakoitxa sintagma bat dalarik. Sintagma bakoitxak bere kate-fonikua mugatzen dau. Horrela, zenbat sintagma diran, hainbat kate-foniko izango dittugu: hiru sintagma badittu, hiru kate-foniko izango dira eta, lau badittu, lau. Ia ejenplotxo bat:

*- Aurtengo negua biguna dalako, eta edurrik ez, gripe asko dago.*

Esaldi hori modu askotara esan eta pronuntziau geinke, patxadaz eta sintagmak zatittuz, edo bizkorrago eta sintagma luziaguak egiñaz, baiña, sinple eta gehixegi konplikau barik hartu deiguzen hiru sintagma nagusixenak eta, horretara hiru kate-fonikotan banatuta izango dogu esaldi osua:

a) *- Aurtengo negua biguna dalako / eta edurrik ez / gripe asko dago.*

Baiña esaldi horretan sintagmen zatiketa eta mugaketa gehixago egingo bagendu, orduan kate foniko gehixago eta batzuetan diferentiak sortzen dittugu. Ikusi:

b) *- Aurtengo negúa / biguná daláko / eta edúrrik ez / gripe ásko dágo.*

Hor, lau sintagma hórretako bakoitxa, batak bestiarekin zer-ikusirik ez daukala moduan hartuta, hau da, bata bestiagandik independente, bakoitxa zentzunezko berba-konbinaketaz eratuta dago, eta jakiña, lau kate-foniko daukaguz, sintagma bakoitxari bere kate fonikua dagokixolako. Baiña euren entonaziñua be aldatu egin da gaiñera.

Guk, a) esaldixa honela ahoskatu eta esan geinke barra-barrako jardun batian:

*- Aurtengoneguabigunadalakó / etaedurrikéz / gripeaskodágo.*

b) esaldixan: *-aurtengonegúa / bigunadaláko / etaedúrrikéz / gripeáskodágo*

Baiña esaldi dana, osotasun batian esanda, bihar dan moduan entonau bihar bagendu, honela genduke:

*- Aurtengo neguá biguna dalakó, eta edúrrik éz, gripe asko dágo. Edo (dagó)*

Hor, esaldi osua zentzun bete batian esanda dago, sintagma bakoitxa ondorengo bestiakin zerikusian (alkarren independenzia barik esanda), esangura osua perpausa biribil baten barruan eta moltzu sintaktiko zentzunezkuan. Atzen perpausa edo oraziño hau, jakiña, ez da azentu haundidun esaldixa, zera, gora-beheradun azentu makalak daukaz, tontor haundiko azentu-kurbarik ez daukalako:

- aurtengo negu / á / biguna dala / kó, / eta e / dúr / ik / ez, gri / pe / ás / ko / da / go

Grafiko horretako esaldixak, eibarrera petuan, bi tono mailla bakarrik agertzen dittu: aurtengo

negu sintagma zatixa lau-laua da -tono gora-behera bakua-, baiña amaittu -á goixan dabela egitten dau; hortxe, -á horretan dau lehelengo tontorra. Zegaittik hori, b) ejenpluan negúa dala amaitzen baeban (-a behian dabela) entonaziñuan? Bai ba, ondorengo beste sintagmarik kontuan hartu barik zalako ha, baiña oinguan biguna dalakó sintagmiak jarraitzen detsa eta honek benderatzen dau, kondizionau egitten dau, beste eufonixa batian esan dalako esaldi osua, eta jakiña, bigarren sintagma honi be bardiña gertatzen jako bere ondoren datorkixonaren aurrian, ondorengo eta juntagaillu edo konjuntziñua doiakixelako, eta halaxe ondorengiak, bata bestiaren jarraixan. Orduan, biguna dala sintagma zatixa be laua da, gora-beheradun entonaziñorik bakua, eta amaierako -ko jasotzen jako goragoko mailara.

Begira, beste esaldi bat:

- Zúk ekárri dozún ogíxa da háú

- Zuk e ka rri do zun o gi xa da hau.

Baiña:

- Zuk ekarri dozún ogixá oso óna dá.

- Zuk ekarri do zun ogi xa oso o na dá.

Hor ikusten da, argi, azentu makala (ahula) daroian silaba bat, -xa- mugatua, gogor eta altu bihurtzen dala, batzuetan, berba-moltzu baten ondoren beste bat datorkixonian eta hau adjetibauta gertatzen danian, esanahixa aldatuz. Baiña esanahi hori desbardin bihurtzen danian ikusten da hobeto aldaketa hau. Ikusi:

- Zuré aittá etxían dágo.

- Zu ré ai ttá e txí an da go

Baiña, hori esaldixori galdera edo pregunta bihurtuko bagendu, hona hemen zer gertatzen dan eta nola aldatu entonaziñuak bere barruan dittuan kurba melodikuak:

- Zuré aittá etxían dagó?

- Zu ré ai ttá etxi án da gó?

Guk Eibarren ez dogu al galdera partikulia erabiltzen (esate baterako: “zure aita etorri al da? kurba melodikuakin ) eta esaldixaren tonu aldetiko ondulaziñua beti atzen silabia jasota eta indartuta esaten dogu.

Azentu kontuan zegozer ikusi dogu lehenago: azentu bariak, apalak, ahulak, azentu indartsuak, nagusixak edo dominantiak, baita silaba atonuak eta tono markauak be, baiña ez gara sartu -gehi-xago ez konplikatziarren- intensidadeko azentuetan, amaiera transiziñokuetan, ez kantidadekontzeptuetan, eta ezta ritmuak zer ikusi daukan be, zegaittik eze oiñ artekua nahikua dala uste dot. Bardin esango neuke, sintagma kontuan be, nahikua garbi ikusi dala uste dot-eta zelan kate foniko bat silabaz osatzen dan; esaldi bateko pausak edo etenak be kate fonikuak mugatzen dittuela eta, orduan, unidade

melodikuak kate fonikuakin bat egitten dabela; kate foniko bat bera perpausa edo oraziño oso bat izan leikiala be bai eta, jakiña, gehixenetan, oraziño bateko bi eten normalek tonokurba baten barruan legoken bi talde foniko eratzen dittuala.

Oiñ arte ikusittakuaren ondoren esango dogu, silaba-kopuru bardiña dauken bi kate-fonikok -euren jardunian-, bardin txamar irauten dabela. Gaiñera, kate-fonikua, egon be, jakiña, silabaz antolatuta dago. Adibidez, ondorengo sei silabako bi perpausa desbardiñ hónek jardunaldi denpora bardiña dauke, kate-foniko bardintxuak diralako:

- Da-bi-lle-na da-bil = zer-e-sa-na da-go (bixak iraupen bardiña)

Azentua, eta berakin entonaziñua nabarmen aldatzen da, berba bat ondorengo baten dependenzian agertzen danian. Ez da bardin, berbia bakarrian jua edo jardunaldi baten barruan beste batzuen zerikusixan datorrenian, ez bardin entonatzeko dira-eta. Ikusi:

- goixián
- goixián etorri dána.
- goixián etorri dán gizona
- goixián etorri dan, gizoná Aitorren aitta da.

Nahikua da, seguru. Horregaittik, aurrera joko dogu eta, beste barik, horixe, eibarrera praktikua-  
ren entonaziño munduan sartuko gara, geure entonaziño jatorraren arauak erakutsizaz.

### 3.3 - EIBARKO EUSKERIAREN 15 ENTONAZIÑO ARAU

#### 3.3.1 - 1. Araua - Agintera eta Erregu esaldixak

Bai agintera eta baita erreguzko esaldixak sortzen ditudunian be, bat eta bi silabako berbak deklinau ondoren hiru silabako *paroxitono* bihurtzen diranian, azentu prinzipala, indartsuena, atzen silaban kargatzeko joeria (tendencia) daukagu Eibarren. Ondorengo ejenpluetan ez dogu kurba melodikorik egingo, azentu nagusixaren silabia markauta azaldu bakarrik. Kontuz, agintera eta erreguzko esaldixak diranian:

Adibidez: ogíxa, esnía, ixíllik, María... zu > zurékin, ha > harékin, kale > kaléra...

- |                                  |                   |                                |
|----------------------------------|-------------------|--------------------------------|
| - emoixozu ogixá!;               | -ekarrizu esniá!; | -egon zaittez ixillík!.        |
| - geldi egon zaittez mesedéz!;   |                   | -etorri hari bixar goixián!    |
| - ez egizu bildurrik euki Mariá! |                   | - etorri azkar Jesúsá!         |
| - etaraizu txakurrá kalerá!      |                   | -ez gero neri guzurrik esán... |
| - kontuz ibillí Mirén!           |                   | -eta ez berandú etorrí!        |

Gaur egunian gaztiak erderaz moduan entonatzten dittue hórrek esaldixok:

- “emoixozu ogíxa”; -“ekarrizu esnía”(léche); -“egon zaittez ixíllik”(callándo)
- “ez egizu bildúrrik eúki Mariá” (“María”) - “etorri ázkar Jesúsá” (“Jesúsa”)
- “kontuz ibílli Míren” (Míren) ... -ez berándu etórri” (“no vengas tárde”)

Hónek azken esaldixok erderakadak dira entonaziño aldetik.

Eibarren, ondo dakigunez, eta norbaitzueri harrigarri egitten bajatzue be, Dólores, Bártolo, Áreta, Úmaixo eta abar entonatzten dira, baiña agintera eta erreguetan lehen esan dogun legia betetzen da, atzen silaban azentu nagusixa kargauaz:

- poztu zaittez Dolorés! - egon hari trankil Bartoló! -hator azkár Umaixó!

Ia, erregu eta errekomendaziñozko beste esaldi jator batzuk:

- |  |                                  |
|--|----------------------------------|
| - kontuz ibilli zaittez mutill horrekín. | - hobe dozu hementxé geldí egón. |
| - hobe zendukíe hainbeste ez erán.       | - mesede egingo deskú mendixák.  |

#### 3.3.2 - 2. Araua - Galderazko esaldixak

- |                                      |                                      |
|--------------------------------------|--------------------------------------|
| - nahi dozú nerekín etorrí?          | - etorriko ziñake nerekín?           |
| - zetan ibilli ziñán atzó goixián?   | - Ibilliko gara Karmelekín?          |
| - zure amák Joxepa dauka izená?      | - ekarriko destazu ogixá?            |
| - hau mutillau zure anaia dá?        | - zure anaia da hau mutilláú?        |
| - Mikel zán atzo etorri zan mutillá? | - atzo etorri zan mutillá Mikel zán? |
| - zure izená esango destazú?         | -esango destazú zure izená?          |
| - hik esan duaná egixa dók?          | -egixa dók hik esan duaná?           |
| - bixár nora juango gará?            | - nora juango gará bixár?            |

Normalian, ez aginterarik eta ezta galderarik be ez daguanian, zera, esaldi *neutra* danian “izéna”, “esango destázu”, “esan duána”, “juango gára” eta abar esaten dira (*paroxitono* erara), baiña galde-

ria egiten danian sortzen da halako berba akaberen silabia indartziaren joeria. Hor atzenengo hiru esaldixetan ikusten da argi nola dagan halako tendentzia berezi hori esaldixa hasi orduko; hasieratik dator galderiaren entonaziño berezixaren intenziñozko tonadia. Esate baterako, hartu deigun -egixa dók hik esan duaná? Hor, ez daroia kargadun azentua duaná atzen silaban bakarrik, baita hasierako egixa dók horretan be, eta zegaittik? Ba, galderia hasi orduko entonaziño berezi horren bendian dagualako esaldi osua eta, jakiña, esaldixori bi sintagmatan zatituko bagendu, garbi ikusiko genduke zelan mantentzen dan entonaziño-lege hori. Ikusi:

- egixa dók? ' -hik esan duaná? = -egixa dók hik esan duaná?

Hor, aurreko bi sintagmok, nahiz eta bi kate fonikotan banandu badittugu be, nahitta nahi ez ondorengo sintagma osuaren eufonia barruan dago eta, jakiña, geure berbeta moduaren karakterraren bendian daguan bez, azentua atzen silabetan juateko joeran daroia. Azken batian, funtziño sintaktikuak kondizionatzen dau azentua.

Baiña, hala eta guztiz be, badira lege hori betetzen ez daben esaldi motz batzuk, baiña beti zela?, nora? nundik? noraiño? zenbat?... galdetzailiekin hasitta:

-Zéla zábiz? - Nóra goíaz? -Núndik dator -Zénbat balío dau?

Atzen silaban azentua kargatziaren eibartarron joeria hobeto ikusteko hona hemen honako ejemplo hau, esaldi bat luzetuz-luzetuz juanda:

- etarako dozu txakurrá?
- etarako dozu txakurrá kalerá?
- etarako dozu txakurrá kalerá geró?
- etarako dozu txakurrá kalerá geró arratsaldián?

Sarri pentsatzen dot Aragoiko zenbait lurraldetan gordetzen dan azentuaketa berezixa ez ote dan euskeriak antxina lagatako arrasto fosilizaua, ze, han normala da honako entonaziño berba egittia: - "qué, vienes conmigó?"

### 3.3.3 - 3. Araua - Agurrak, Saluduak eta Eufixak (interjeziñuak)

- Egunón María, ondo zabíz?!
- Gero arte Josú! eta ondo ibillí!
- Kontuz Bixenté, argí ibillí!
- Agúr Matildé, eta ondo bizi!
- Eufí, hau da sasoiá háú...!
- Enéé, hori da umé ederrá! baiña:
- Éúp! Iñór badagó etxián!
- “Agur Mariá, graziáz betiá, Jauna da zurekín...”!
- Kaixo Felipé! -Kaixó!
- Oso ondo Edurné!
- Aupa Marinó, zaka gogór!
- Kaixo Aná, zer modúz!?
- Epa, egunón!
- Éne, zu be hemén zagóz!
- Eéh! nor dabil hór!

Hamen be, aurreko arau bixetan letz, bat, bi eta hiru silabatan osatzen diran berbekin gertatzen da atzen silaban azentua indartzia.

Baiña lau silaba edo gehixagoko berbak diranian, orduan ez da arau hori mantentzen eta esaldixaren atzen silabia *paroxitonua* da (grabia) edo *proparoxitonua* (esdrujulua edo sobre-esdrujulua), berbia bera bakarrik zela azentuatzen dan halaxe izango da galderetan, aginteran, erreguetan eta halakuetan:

- Juango gará Jose Ántoniókin?    > Juango ga / ra / Jose / An / toni / o / kin?
- Bazatóz nerekín Barzelónnara?    > Baza / tóz / nere / kín / Barze / ló / na / ra?
- Guazen alkarrékin Ermúraiño!        > Gua / zen / alka / rre / kin / Er / mu / rai / ño!
- Aldé deigún buziñétatik!            > Al / de / dei / gun / buzi / ñe / ta / tik!

Baiña:

- Ezagutzen dozúz Tolosako Aratostíak?    > Ara / tos / ti / ak?
- Ezagutzen dozúz Tolosako Aratostíak?    > Ara / tosti / ak?

Badira hiru silabako erderazko persona izenak, baiña atzen silabia diptongoz ahoskatzen diranez, Eibarreraz esaten dittugunian hiatua egitten dogu eta, orduan, lau silabako bihurtzen dittugu. Hórretan kásuotan, hiato garbi-garbixa egitten dogu eta *paroxitonuak* balitzaz moduan pronunziatzen dittugu eta azentu nagusixa atzen aurreko silaban kargauko dogu. Ikusi:

Erderaz: Venáncia, Ignácio, Floréncio, Toríbia, António, Serápio...

Baiña eibarrerazko agintera, galdera eta halakuetan:

- Kaixó Benanzía!
- Egunón Inazío!
- Zer modúz Florenzío?
- Guazen Toribío!
- Ondó Antonío?
- Kontuz Serapío!

Eibarko euskera jator eta petuan halaxe da, eta kitto!

Antxiña batian, seguru asko, guázen! lekuan guazén! esaten zan, aginterazko entonaziñuaren joera jatorrian, beste hónek moduan: zatóz!, hatór!, egón!, zoiáz!, eta, halaxe, guazén! baiña guk guázen! esaten ezagutu dogu.

### 3.3.4 - 4. Araua - Harridurak (admiraziñuak)

Hamen be bi eta hiru silabako berbekin amaitzen diran esaldixetan:

- Zer egin dozu, Angél!
- Zelakó arbola haundixá!
- Ené, ze mahaí luziá!
- Hau egin dá mutíl ederrá!
- Hori dá gauzá polittá!
- Ai, hau bai ogí gozuá!
- Ené! zé pasau jako horrí!
- Enebá, hori da guzúr garauá!

### 3.3.5 - 5. Araua - Ezezko esaldixetan

Ezezko esaldixetan, batez be amaierako berbia bi silabakua danian, orduan beti oxitonoz (agudo) entonauko da, zera, atzen silaban kargauko da azentu dominantia, eta hiru silabakua danian, beti ez bada be, joeria halaxe izango da, oxitonoz.

- Gaur ez nago ondó. Atzo ez neban ikusí zuré amá. Zuek ez zabizie txartó.
- Zure amá ez neban ikusí atzó.
- Horí frakiorí ez da baltzá. Gaur iñor ez da hemén. Gaur hamén ez da iñór.
- Esan dorana ez da guzurá. Ez naiz juango zurekín. Oiñ ez da eurirík.
- Ez dakigu Mikel nun dabillén. Ez dakit nun dan zure etxiá.
- Ez nekixan zu han ziñanik. Hau ez da nere anaiá.

Baiña:

### 3.3.6 - 6. Araua - Erderaz 3 silabako “oxitonuak” diranian

Erderaz hiru silabako izenetan atzen silabia danian azentuduna, Eibarko euskeran *paroxitono* bihurtzen dittugu dan-danak, zera, atzen aurreko silabia indartzen dogu:

- Isabél → **Isábel**, Marisól → **Marísol**, Anabél → **Anábel**, Serafín → **Seráfin**,
- Jericó → **Jeríko**, SanMartín → **SanMártin**, SantaInés → **Santá(i)ñes** ...
- Balentín → **Baléntin**, Nicolás → **Nikólas**, Barrabás → **Barrábas** ...
- DonMartín → **DonMártin**, DonJulián → **DonJulían**, DonJosé → **DonJóse**...

Eta hiru silabako euskal izenak:

**-Asíer, Imánol, Martxélin, Oníntza, Katálin,**

**-Isábel** etorri da. **-Marísol** ikusi dot. **-Seráfin** dator. **-Hor Imánol** dabil.

( Baiña: Isabél neska ona da. Serafín gure laguna da... eta abar )



### 3.3.7 - 7. Araua - Erderaz 4 silabako *oxitonuak* diranian. (hirukuak moduan)

Lau silabako erderazko *oxitonuak* (*aguduak*) diranian, eibarrera jatorrian *paroxitono* bihurtzen dira, zera, atzen bigarren silaban hartzen dabe azentu nagusixa:

- Anaisabél → *Anaisábel*, Josemanuél → *Josemánuel*, Joserramón → *Joserrámon*,
- Joseandrés → *Joseándres*, Calatayúd → *Kalatáyud*, Abderramán → *Abderráman*,
- Benicasín → *Benicásin*, JoseJulián → *JoseJúlian*, Valladolid → *Valladólid*,
- Alfajarín → *Alfajárin*, Benicarló → *Benicárlo*, Jerusalén → *Jerusálen* ...

Eta, euskerazkuak: *Mallagárai*, *Arakístain*, *Arriáran*, *Etxegárai*,

Eta deklinaziño osuan silaba berberian mantentzen dogu azentu nagusixa.

Adibidez:

- Gure behian bizi da *Joseándres* izeneko bat.
- *Josemánuelekin* txuleta ederrak janda gagoz.
- *Abderrámanek* inperio haundixa sortu eban Hispanian.
- Zaragozako *Alfajáriñetik* sarritan pasau gara autuan.

### 3.3.8 - 8. Araua - Berba proparoxitonuak (esdrujuluak)- (Esdrujulo eta sobre-esdrujuluak)

Eta, atal honetan, eibartarron entonaziño-mundu berezi eta autentikuan, geure-geurian, sartuko gara.

Lehenago esana daukat, eibartarrok *proparoxitono* (esdrujulo) izateko joeria daukagula berbetan, eta horren seiñale da erderazko berba proparoxitono dan-danak be halaxe mantentzen dittugula geure euskeran eta ez dittugula sekula be azentuatze kontuan aldatzen. Gaiñera, berbiak deklinabide osuan mantentzen dau *proparoxitonotasuna*, zera, ez dau galtzen esdrujulotasuna.

#### 3.3.8.1 - 3 silabako *proparoxitonuak*

- Córdoba → *Kórdoba*, Báltico → *Báltiko*, Génova → *Génova*,
- Cándido → *Kándido*, pértiga → *pértiga*, Biblia → *Bíblia*
- Córcega → *Kórzege*, Nínive → *Nínive*, póliza → *póliza*

Eta, hórren deklinabide osuan ez dogu galtzen atzen aurreko hirugarren silaban azentua jartzeko joeria. Orduan, honela deklinatzen dittugu:

- *Kórdoba*, *Kórdobara*, *Kórdobatik*, *Kórdobarako*, *Kórdobaraiño*...
- *Kándido*, *Kándidogana*, *Kándidogandik*, *Kándidoganako*, *Kándidoganaiño*...
- *Bíblia*, *Bíblia*, *bíblíkua*, *Bíblíakua*, *Bíblíxan*, *Bíblíxatik*, *Bíblíxarako*...

Baiña, hona hemen, hiru silabako euskal izen propio (personen eta leku-izen) *proparoxitono* jator batzuen zerrendatxo bat:

- *Áreta*, *Úreta*, *Bártolo*, *Dólores*, *Úrzelai*, “*Óndarru*”, “*Méndaro*”, *Kájoitxu*, *Úmaixo*, *Élgeta*, *Élgoibar*, *Íbargaiñ*, *Úbitxa*, *Lézeta*, *Ázittain*, *Tútulu*, *Bílbozar*, *Úrkusain*, *Krábelin*, *Pítxargaiñ*..., *láugarren*, *bósgarren*, *séigarren*, *ehúngarren*..., *Txómintxo*, *Kátillu* ...

Ejenpluak:

- *Áreta* baserrikeri *áretatarrak* deitu izan jakue.
- *Bártolokin* berba egittia asko gustatzen jata, asko daki-eta.
- Gure aldameneko *Dóloresek* nahikua dauka bakarrik gelditu zanetik.
- *Kájoitxuk* haiña erretratu ez dot uste beste iñok etara dabenik.
- *Úmaixok* musikako bandan joten eban, eta loterixia saldu be bai.
- Badira *Élgetatik Élgoibarrera* biharrera egunero doiazenak.
- “*Tútuluko* estratia” berba jarduna oso erabillixa da Eibarren.
- *Ázittain* gure etxetik kilometro batera dago.
- Josemánuel *láugarren* gelditu zan karreran.

### 3.3.8.2 - 4 silabako proparoxitono jatorrak

Eibarren peto-peto diran lau silabako *proparoxitono* izen batzuk hemen:

- *Ikástola, Zulúeta, Jardíñeta, Lizárreta, Larráñeta, Gallástegi, Albístegi, Aríkitxa Aránburu, Aizpúrua, Barínaga, Arízaga, Bilbátua, Ezénarro, Gojénola, Ibárkurutz, Pakómio, bibótia, makíllia, tortíllia, bakíllaua, bonbíllia, kuadérnua, ugézaba,*

Eta, hórren deklinabide osuan silaba berian mantentzen da azentua. Hartu deigun gaur egunian jente askok txarto darabilen izen bat. Ikastola.

Jente askok txarto darabil izen hau, “*ikastólia*”, “*ikastólatik*”, “*ikastólako*”, “*ikastólara*” eta horrelako tonadiakin darabilrelako, baiña jatorra, beste honetara da:

- Ikástola, ikástolia, ikástolatik, ikástolara, ikástolakua, ikástolarutz...*

Eta bardin Zulueta be, era jatorra ondoko hau dalako:

- *Zulúeta, Zulúetak, Zulúetanera, Zulúetanekua, Zulúenatian, Zulúetanetik..*

Baiña, ikusi hónek bestiok:

- *láugarrena, bósgarrena, seígarrena, ehúngarrena..., Bílbozarra, kákazarra, bílbotarra, éatarra, cúbatarra, límatarra, cúzcotarra..., tórtolosa, txábolia, tónbolia, txápligua, bérbetia, hízketia, líburua..., ástelena, mártitzena, éguastena, dómekia... báserrixa, érrokia, lástoteixa, úsateixa, báskalteixa, zálditeixa, txákilletan, búrruketan...*

Baiña: Marín, Pekín, París, Turín, Dublín eta halako bi silabadun erdal *oxitonuak* diranian: *marín-darra, pekíndarra, parístarra, dublíndarra* eta horrela egitten dabe jentilizuetan.

### 3.3.8.3 - 5 silabako proparoxitono jatorrak

#### 3.3.8.3 a) Atzen hirugarren silaban azentu nagusixa daroienak

- *Galdarámiño, Arixúleta, estaziñua, Andikótxea, Garaikóetxea, Aiagáldea, Salabérria, Etxebérria, Zarrabéitia, Undabéitia, Martíniano, Amañaérreka, semeálabak, plazamútila, neskamútila, marimútila, Txanogórritxo, plazagízona, Andramárixak, Astesántua, Garizúmia, udabárrixa, uda-ázkena, kakaúmia, umekákia, umemókua, basagízona, andrakúmia, umepétrala,*

*hankalúzia, burugógorra, tripazórrixak, buruháundixa, kakaúsaiña, neskakóskorra, mutilkóskorra, hankalátraba, kanpolárrosa, kokomókua, karamélua, marraskíllua, karramárrua, kakalárdua, bonbardéua, sumarínua, penagárrixa, Birgiñápia, okelájana, astakúmia, katakúmia, txakurkúmia, gorabéria, sanopótrua, masmaétxia, barregárrixa, negargárrixa, barregúria, negargúria, koskorrékua, muzturzíkíña, hankakójua, biziklétia, tanborrádia, arboládixa, Otxagábia, mantekíllia, mermeládia, maratíllia, okelájana, hipertrófia, kakalárrixa, txixalárrixa, ormabáztarra, kalebárrena, ipurdíkua, matraillékua, andafuéria, hankagórrixa, sendabédarra, sokasáltua, txitxalápurra, basakátua, basaóllarra, aittaiñarreba, amaiñarreba, amesétia, Asuérreka, badaézpada / “porsiákaso” nahiz eta erderaz “por si acaso” izan...*

- *Durangókua, Bergarákua, Mutrikúkua, Zumaixákua, Tolosákua, Bermeókua, Arabákua, Bariñákua, Iruñákua, Zegamákuia, Legazpíkua, Añorgákua ...*

### 3.3.8.3 a bis) Bost silabako erdal-izen *paroxitonuak* diranian

Bost silabako erdal-izen paroxitonuak diranian, Eibarko euskeran, beti-beti proparoxitono bihurtzen dittugu, hau da, atzen hirugarren silaban kargatzen dogu azentu nagusixa:

<u>Erderazkuak</u>	<u>Eibarko euskeran</u>
Calcul-Mecáno	Calculmécano
Montecasíno	Montecásino
José Querido	Josekérido
Guadalajára	Guadalájara
Sierra Neváda	Sierranévida
Navacerrada	Navacérrada
Puentelarreína	Puentelárreina
Torrelavéga	Torrelávega
Torremolínos	Torremólinos
Torrelagúna	Torreláguna
Doña María	Doñamária
Sacamantécas	Sakamántekas
Marimoréna	Marimórena
Rompecabéza	Ronpekábeza
Santa María	Santamária
Por si acaso	Porsiákaso
americano	ameríkano / ameríkanua
anatomista	anatómista / anatómistia
analfabeto	analfábeto / analfábetua
anacoreta	anakóreta / anakóretia

### 3.3.8.3 b) Atzen laugarren silaban azentu nagusixa daroienak

- *txirrínbolia, txirrínboletan, karnábaletan, Sanjósietan, Sanpédruetan, Sanándresetan, korápillua, armárixua, lotsábakua, mormórixua, kanpántorria, Olásokua, Artázokua, Sanférmiñetan, Sanmígeletan, Sanrókietan, afáriketan, Amériketan... begíbakua, hankábakua, burúbakua, besóbakua...*

- *hirugarrena, zazpigarrena, zortzigarrena, hamargarrena, hogéigarrena, ehúngarrena, millágarrena...*

- *durángoarra, mutríkuarra, ( Bérgarra, Zúmaixarra, Tólosarra,) Berméotarra, arábatarra, plaéntxiarra, bitórixarra, donóstiarra, zaldíbartarra, mendárotarra...*

- Erderatiko hónek proparoxitonuok: *bolígrafua, fotógrafua, gramófonua, fonógrafua, kalígrafua, termómetrua, kilómetrua, milímetrua, hektómetrua, dekámetrua, dekálogua, parámetrua, pirómanua, melómanua, astrónomua, astrólogua, filósofua, neurólogua, sikólogua...*

### 3.3.8.3 c) 5 silabakuetan, aurrengo silaban daroienian azentu dominantia:


- *kánposantua, píparpotia, txíplixaplia, úsasgoria, úsasberia, zírriparria, Píparkalia...*

### 3.3.8.4 - 6 silabako proparoxitonuak

Atal honetan, atzen laugarren silaban azentu nagusixa daroien 6 silabako berbak emongo dittugu:


- *Txirixókalia, Indiánokua, Bidebárrixeta, Donostíakua, Kakalárdokua, Birgiñápekua, analfábetua, akupúnturia, sakamántekasa, portamáletasa, hankazgórakua, Amabírgiñia, ariápekua, Donibánekuia, Txantoiánekuia, ayuntámentua, udalétxekua, estaziñokua, hamazázpigarren, hamazórtzigarren, hemerétzigarren, hogetábagarren, hogetábigarren, hogetáirugarren, hogetálaugarren, hogetábosgarren, hogetáseigarren...*

Sei silabako berba hórretan azentu bat baiño gehixago dago, gitxienez bi, baiña dominantia, prinzipala edo gorenak bakarrik jarri dogu, erreztearren, nahiz eta atzen aurreko bigarren silaban beste azentutxo prosodiko bat daroian. Baiña, kurba gaillurra atzen aurreko laugarren silaban izango dau, eta hórren kate fonikoko tonu gorabeheria hauxe litzateke, eta danentzat balio dau:



Baiña, badira lehelengo silaban daroienak azentu nagusixa, edo beste modu batera esanda, atzen aurreko seigarren silaban daroienak:

- *Árraguetakua, Bílbozarrekua, Ótolaerdikua: gánorabakua...*



**3.3.9 - 9. Araua - 7 silabako sobre-esdrujuluak**

Arau honetan, hona hemen, atzen aurreko seigarren silaban azentu nagusixa daroien 7 silabako berbak:

*-hoetázazpigarren, hoetázortzigarren, hoetámaikagarren, hoetámabigarren, hoetámairugarren, hoetámalaugarren, hoetámabosgarren, hoetámaseigarren*

**3.3.10 - 10. Araua - Lau silabako erderazko oxitonuetatik datozen euskal-esdrujuluak.**

Lau silabako erdal berba *oxitonuak* (aguduak) amaieran *-ción* diptongua daroienian, Eibarko euskeran diptongo hori desegiñ eta 5 silabako *proparoxitono* bihurtzen dittugu berba mugatu bakuan eta 6 silabako berba mugatuan:

**erderazkuak**

ventilación  
composición  
motivación  
animación  
jubilación  
modulación

**eibarreraz**

bentiláziño/-ñua  
konposíziño/-ñua  
motibáziño/-ñua  
animáziño/-ñua  
jubiláziño/-ñua  
moduláziño/-ñua

### 3.3.11 - 11. Araua - Hiru silabako erdal berba *oxitonuak* diranian

Hiru silabako erdal berba *oxitonuak* (*aguduak*) diranian eta amaieria *-ción* diptongoz egin, eibarreraz 5 silabako esdrújulo bihurtzen ditugu:

<u>erderazkuak</u>	<u>eibarreraz</u>
atención	atenzínua
clonación	klonazínua
emoción	emozínua
estación	estazínua
invasión	inbasínua
ocasión	okasínua
oración	orasínua
plantación	plantazínua
relación	relazínua
trancisión	tranzisínua
vocación	bokazínua

### 3.3.12 - 12. Araua - Lau silabako erdal berba *oxitonuak* diranian

Lau silabako erdal *oxitonuak* (*aguduak*) diranian eta amaieria *-dor* desinenziaz egin, eibarreraz 6 silabako sobresdrújulo bihurtzen ditudugu, zera, atzen aurreko laugarren silaban kargatzen dogu azentu tonikua:

<u>erderazkuak</u>	<u>eibarreraz</u>
animador	animádoria
atracador	atrakádoria
consolador	konsoládoria
consumidor	konsumídoria
violador	bioládoria
ordenador	ordenádoria
gobernador	gobernádoria

**KONTUZ:** Honaiño heldu eta aurrera jo baiño lehen agertu bihar dogu gaur egunian gazte askok, eta hain gazte ez diran batzuek be bai, Eibarren erdal tonadaz erabiltzen dituduela hórrek berbok:

<u>Erderakadia / txarto</u>	<u>Eibarrera jatorrian</u>
- <i>hamen animazínua bihar da.</i>	- animáziñua bihar da
- <i>Josek jubilazínua hartu dau.</i>	- jubiláziñua hartu dau
- <i>bentilazínua txarto dabil</i>	- bentiláziñua ondo dabil
- <i>animadória oso ona zan</i>	- animádoria oso ona zan
- <i>bioladória harrapau dabe</i>	- bioládoria harrapau dabe

### 3.3.13 - 13. Araua - Bost silabako erdal berba *oxitonuak* (*aguduak*) diranian

Bost silabako erdal berba *oxitono* edo *aguduak* diranian, eibarreraz 7 silabako bihurtzen dira eta atzen bosgarren silaban daroie azentu nagusixa:

<u>erderazkuak</u>	<u>eibarrera jatorrian</u>
universidad	unib <u>é</u> rsidadia
oportunidad	oport <u>ú</u> nidadia
peligrosidad	peligr <u>ó</u> sidadia
inutilidad	inut <u>í</u> lidadia
consideración	konsid <u>é</u> raziñua
falsificación	falsif <u>í</u> kaziñua
calcificación	kalsif <u>í</u> kaziñua
clasificación	klasif <u>í</u> kaziñua
amonestación	amon <u>é</u> staziñua
manifestación	manif <u>é</u> staziñua

-TXARTO legokez eta ez dira eibarrera jatorrak *konsideraziñua*, *falsifikaziñua*, *manifestaziñua* eta halako entonaziñoz esandakuak; zera, ez dira eibarrera jatorreko tonadadunak erderazko oxitono hórren silaba (-ción) berberetan jartzen bajakue azentu nagusixa. Bost silabako erdal oxitono hórrek Eibarko euskeran beti sobre-esdrújulo dira.

### 3.3.14 - 14. Araua - Bost silabako erdal berba *paroxitonuak* diranian

Bost silabako erdal berba *paroxitonuak* (*llanuak*) diranian, eibarreraz, berba mugatuan, beti beti, 6 silabako bihurtzen dittugu eta atzen aurreko laugarren silaban kargatzen dogu azentu nagusixa:

<u>Erderazkuak</u>	<u>Eibarrera jatorrian</u>
anatomía	anat <u>ó</u> mixia
autonomía	auton <u>ó</u> mixia
astrología	astrol <u>ó</u> gixia
economía	ekon <u>ó</u> mixia
filosofía	filos <u>ó</u> fixia
fotografía	fotogr <u>á</u> fixia
desesperante	desesp <u>é</u> rantia
escapate	eskap <u>á</u> ratia
esperantista	esper <u>á</u> ntistia
serotonina	serot <u>ó</u> nia
americano	amer <u>í</u> kanua

Baiña, erdal berba hori 6 silabakua izan arren, atzen silabia diptongua baldin bada, orduan eibarreraz 7 silabako bihurtzen da eta horrek atzen aurreko bosgarren silaban kargatzen dau azentu nagusixa:

- Ambulatorio ' *Anbulátorixua*, Igualatorio ' *Igualátorixua*...

- TXARTO legokez eta ez dira eibarrera petuak *anatomía*, *desesperántia*, *amerikánua* eta horrelako entonaziñoz esandakuak.

Hona hemen atzen aurreko laugarren silaban azentu nagusixa kargatzen daben 6 silabako beste euskal berba batzuk, eibarrera jatorrian esanda.

- *Ibarránelua, Irumúgarrieta, Aramáixokua, antiéuskalduna, Valladolidzkua, Otxandíxokua, Aranégitarra, hogetázazpixa, hogetázortzixa ...*

### 3.3.15 - 15. Araua - Sei silabako erdal berba *paroxitonuak* diranian

Sei silabako erdal berba *paroxitonuak* (*llanuak*) diranian, Eibarko euskal entonaziño jatorrian, mugatuan, 7 silabako bihurtzen dira eta azentu nagusixa atzen aurreko bosgarren silaban hartzen dabe:

#### Erderazkuak

antropología  
arqueología  
hematología  
mecnografía  
analfabetismo

#### eibarrera petuan

antropología  
arkeología  
hematología  
mekanografía  
analfabetismo

Ez dira entonaziño jatorrekuak *antropologíxia, arkeologíxia, analfabetísmua* eta halakuak, agertu dogun erregliaren modura baiño.



### 3.4 - EIBARKO LEKU-IZEN BATZUEN ETA ABIZENEN ENTONAZIÑO JATORRA

#### 3.4.1 - Eibarko leku-izen batzuen entonaziño jatorra

- Áreta, Úbitxa, Úmaixo, Ibárkurutz, Íbargaiñ, Pítxargaiñ, Tútulukua, Úrkusain, Kalébarrixa (Victor Sarasketa / Grabadores kalia), Káskarraingua, Músateixa, Bílbozar, Kálamua, Árragueta, Asuérreka, Iparrágirre, Élgetakalia, Jardíñeta, Lizárreta, Aríkitxa, Aritxúleta, Aríatza, Bidebárrixeta, Txántxazelai, Krábeliñ, Asoláberri, Asóliartza, Ábontza, Bírgiñapia, Apálatei, Pipárkalia,

Eta: *Usártza* esaten da, baiña inesibuan *Úsartzan* egon gara,  
*Untzága* “ “ “ “ *Úntzagan* ibili gara

#### 3.4.2 - Eibarren ezagunen dittugun abizenen entonaziñua

Eta honaiño heldu ondoren ez dau merezi gehixago konplikatzerik. Horregaittik, beste barik eta amaitzeko asmotan, atzen atal honetan Eibarren ezagunen dittugun euskal apellido batzuk eibarrerazko entonaziño jatorrian nola diran agertuko dittugu. Horretarako, apellido edo deitura bakoitxari dagokixon silaba tonikuan azentu grafikua jarriko detsagu:

##### 4 silabako abizen paroxitonuak

- Abasólo, Abendíbar, Abrizkéta, Adarrága, Agerrétxe, Aginága, Agirrétxe, Akarrégi, Albizúri, Aranberri, Aranzábal, Aristóndo, Arriáran, Artaméni, Aiestáran,

##### 4 Silabako abizen proparoxitonuak

- Abáitua, Aizpúrua, Ajúria, Alústiza, Añíbarro, Aránburu, Arízaga, Argárate, Aróstegi, Azkárate, Azkárraga, Barínaga, Bilbátua, Ezénarro, Gallástegi,

##### 5 silabako abizen proparoxitonuak

- Abarrátegi, Aberásturi, Abiráneta, Aginágalde, Agirrèbeña, Agirrèzabal, Amuátegi, Aizarnázabal, Amutxástegi, Anabítarte, Anaságasti, Andikótxea, Aranzíbia, Araólaza, Ariztégieta, Ariztímuño, Aiarzáguena, Balanzátegi, Balenzíaga, Barandíaran

##### 6 silabako abizen sobredrujuluak

- Abanzábalegi, Agirreázaldegí, Agirrèsarobe, Aldabáldetrekú, Ariznábarreta, Arruábarrena, Barruétabeña, Berezíartua, Gaztelúrrutia, Gerrikábeitia, Madinábeitia,

##### 7 eta 8 silabako abizen sobredrujuluak

- Agirrègabiria, Agirrègomezkorta, Arizméndiarrieta, Agirrèzabalaga,

### 3.5 - ENTONAZIÑUAK SINTAXIXAN DAUKAN ERAGIÑA

Sarrittan tonada enfatiko berezi batek oraziño bateko sintaxi kontuari lotuta dagon “galdegai” edo “elemento inquirido” deitu izan danaren funtziña betetzen dau, sintaxi hori bape aldatu barik.




Esate baterako, honako esaldi honetan esan geinke:

- a) - Aitta gaur etorri da. ( Beste barik, **noiz** da galdegaixa: gaur etorri da-eta )
- b) - Aitta etorri da gaur. ( Beste barik, **nor** da galdegaixa: aitta etorri da-eta )

Baiña entonaziño bidez -sintaxixa aldatu barik- betetzen dogu funtziño hori, honela:

- a) Áitta etorri da gaur. ( **A**itta etorri dala diño (ez ama edo beste iñor)
- a) Aittá etorri da gaur. ( **G**aur etorri dala diño, atzo ez, baiña gaur bai)

## 3.6 - ZENBAITT ESALDIEN ENTONAZIÑO-KURBAK

1 - Mendíxetatík otsúak jatxi díra aurtengó neguán2 - Baiña, **mendixetatik** sintagma bakarrik hartu ezkerro:3- -Aurtengó neguá biguna dalakó eta edúrrik éz, grípe ásko dágo.

4-a

- Zúk ekárrri dozún ogíxa da háu

- Zuk e ka rri do zun o gi xa da hau

4-b

- Zuk ekarri dozún ogixá oso óna dá

- Zuk ekarri do zun ogi xa oso o na da

---

5-

- Zuré aittá etxián dágo

- Zu re ai tta e txi an da go

---

6-

- Zuré aittá etxián dagó?

- Zu re ai tta e txi an da go ?

---

7-

- Juango gará Jose Ántoniókin?

- Juango ga ra Jose An toni o kin ?

---

8-

- Bazatóz nerekin Barzelónara ?

- Baza toz nere kin Barze lo na ra ?

---

9-


- Guázen alkarrékin Ermúraiño !

- Gua zen alka rre kin Er mu rai ño !


---

**10-**


Aldé deigún buztin<sup>ñe</sup>etatik !




**11-**



**12-**



**13-**



## 3.7 - ADIBIDIAK EIBARRERAZKO TONADA PETUAN

- **Amá**, etorri zaitte biz**kór**. Etorri zaitte hon**á**, eta eizu ber**bá** !
- Gaur ez zarie juañ **ñorá**? Umia be ez da juañ **Ikástolara** ?
- Umi**á** ez dag**ó** zure**kín**? Aittak**ín** dag**ó**? (edo aitt**á**kin dag**ó**?)
- Bazat**óz** ger**ó** mendir**á** nere**kín** ? Etorriko zar**á** Tomas**á**?
- Etorri zaittie nere etxer**á** eta nahiku**á** barr**é** egingo dogu!
- Z**atóz** hon**á** eta egon zaitte geldir**ík** , Amai**á**!
- Nun dago zure am**á**?; gaur ez dot ikus**í**, Jesus**á**.
- **Hónek** **ú**miok ez dabe nahi zure**kín** ibill**í**, Josun**é**.
- Nik ez dot nahi etxi**án** eg**ón**, kaler**á** juátia nahi **dót**.
- Ez zaittie berand**ú** etorr**í** Jaion**é**.
- Kaixo Mir**én**! Ene, kaixo Julit**á**! Mallag**á**rai ikusi doz**ú** ?
- Egun**ón** Matild**é**! Danok ondo zarie etxi**án**? Danok ond**ó**?
- “Erriko tabern**ía** errem**á**tera atara dab**é**” ( Toribiok )
- “**Á**tzetik gaizk**í** esatia, ez dago ond**ó**” (Toribiona)
- “**Amá**bost mist**é**rixoko erros**á**rixua **é**rresatzen zan har**én** (**há**ren) etxi**án**” (T.E.)
- Gaur ezi**ñá** daukat eta **hú**rrenguan juango gar**á** **É**lgoibarrera.
- Gure gazte **dén**boran **é**rreketan ibiltzen gi**ñán**.
- Zuk ekarri doz**ún** ogix**á** ez da txarr**á**.
- Horr**ék** mutill**ór**rek Ser**á**fin dauka izen**á** eta har**ék** neski**ák** Mar**ís**ol.
- **E**gixa da zuk esan dozun**á** ? - Atzo ez giñan etorr**í** berand**ú**.
- Susan**á**, bixar deittuko dets**út**. Eg**ón** (**é**gon) trank**íl**, Susan**á**!
- Jose**mí**gel Mariais**á**belen anaia (nebia) **dá**.
- Zegaittik esan dozu hor**í** ? - Zegaittik esan dor**án** (dot**én**) hor**í**?
- Gaur goizi**án**, As**í**er ikusi dot. -Noiz ikusi doz**ú**? - Gaur goiz**ían**.
- Euskal Herr**í**xa eta Euskal**é**rrixa ez dira bard**ín** **é**ntonatzen Eibarr**én**.

- **Ú**rkusaiñetik gora **K**rábeliñera jo genduan eta **h**ándik **K**álamuaraiño.
- Gaur egunian zer dauka Eibarr**é**k **É**lgoibarrek ez daukan**í**k?
- Eibarr**é**k bere euskal **b**érbeta jatorr**á** galduko bal**é**u, ez litzake lehengu**á** izángo.
- Hir**ú**garren **p**ísora errez doia, baiña **l**áugarrenetik **b**ósgarreneraíño nekez.
- **I**kástolako **ú**miak ez dakarre euskera hain on**í**k. Oso **é**rderatua dakarre.
- Euskald**ú**n **g**éhi xenak analf**á**betuak izan dira **é**uren **h**íz kuntzan.
- Josek**é**ridokin eta **K**ándido Eg**ú**renekin berba egittia **g**rán dia da.
- Amer**í**kanuak nagusi dira mundu**á**n, baiña **h**árerri be **z**égozer gertauko jak**ú**e.
- Torrem**ó**linosen eta Benid**ó**rren Eibarr**é**n baiño **é**uskera **g**éhi xago entzun izan **d**ót. Bai, uste dot hem**é**n bert**á**n baiño euskald**ú**n **g**éhi xago izaten dal**á** sarrit**á**n.
- Donost**í**ako parte zaharre**k**ó Santa**M**aría elix**í**a txikixa baiña politt**á** da.
- Lokal honet**á**n hobeto egongo giñake bentil**á**ziñuakin. **T**úfua dago hem**é**n.
- Euskal Herri**x**án ez da tranzisi**ñ**orik izan dan**í**k ask**ó** igártzen.
- Gaur**k**ó egunian orden**á**doriekin (orden**á**dorez) eskribitzen dau jente ask**k**ó. Eskrib**í**tzeko mákiñia, nahiz eta elektr**ó**nikua iz**á**n, **á**tzian geldittu da.
- Ez jako **á**tzekuari **l**árregi beg**í**ratu bihar, **á**urrekuari bai**ñ**ó.
- Jose Luisek kartog**r**áfixia ikasten dihardu. Eta zer egingo dau kartog**r**áfixiak**í**n?
- Eibarr**é**n badaukagu unib**é**rsidad**í**a; Unib**é**rsidade Labor**á**la.
- Eibark**ó** mend**í**xetan guk, antxi**ñ**á, pag**ú**a, har**í**tza eta gaztai**ñ**ía ugari ezagutu genduan. Oiñ pi**ñ**úa **b**ésterik ez daukagu eta geure **á**rbola aut**ó**ktono gitxi.
- Eibark**ó** **err**ékia **l**úr pían doia, **t**únelian sartuta, baiña guk agir**í**xan ezagutu genduan. Esango neuke Euskal Herri**x**án herri **b**ákarra dal**á** halakorik gertatzen jakon**í**k.
- It**á**liako Dol**ó**mitetan Marino Lejarreta karrera inport**á**ntia irab**á**zitta dago.
- Motek**á**sinotik Calcul**m**écanora berrehun metro baiño git**x**íago egongo dir**á**.



# Bibliografixia



**DEKLINABIDIAZ:**

ARANBERRI F., 1996, *Ermua eta Eitzako euskara*. Ermuko udaleko euskara batzordea.

EIBARKO UDALA, 1997, *Eibarreraz idazteko oiñarrizko erizpidiak*.

ETXEBARRIA TORIBIO, 1963-64, *Flexiones verbales y Lexicón del euskera dialectal de Eibar*.

Euskera VIII-IX. Berrargitarapena 1986.

EUSKALTZAINDIA-GRAMATIKA BATZORDEA, 1987, *EGLU-I (eraskina), 4-Deklinabideko taulak*.

EUSKALTZAINDIA-GRAMATIKA BATZORDEA, 1993, *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*.

LARRAÑAGA J., 1998, *Antzuolako hizkera*. Antzuolako Udala.

LASPIUR I., *Euskara Ikasbidea*. (546 orrialde DIN A-4), argitaratu gabea.

UNED-BERGARA, 1988, *Bergarako euskera*. Euskal Kultur Departamentuaren Argitalpenak.

## ENTONAZIÑUA ETA AZENTUAZ:

- ALTUBE, S., 1929, *Erderismos*. Euskera-X urtea, I-IV zenbakixa.  
L. Villasanteren hitzaurriakin 1975ean berrargitaratua.
- ALTUBE, S., 1932, *El acento vasco (en la prosa y el verso)*. Euskera-XIII urtia.
- ALTUBE, S., 1934, *Observaciones al tratado de Morfología Vasca de R.M.Azkue*, IV. kapitulua.  
Bermeo. (Faksimile ediziñua 1969, La Gran Enciclopedia Vasca).
- AZKUE, R. M<sup>a</sup>, 1931, *Del acento tónico vasco en algunos de sus dialectos*.  
Euskera-XII urtia, bi partetan.
- ELORDIETA G., GAMINDE I. eta HUALDE J. I., 1998, *Euskal azentua gaur eta bihar*. Euskera-43,  
399-423.
- ETXEBARRIA, J. M., 1991, *Zeberio haraneko euskararen azterketa etno-linguistikoa*. Ibaizabal.
- ETXEBERRIA G., 1998, *Orixeren neurtitz ikasketak eta teoria*. Egan 3/4.
- ETXEBERRIA P., 1998, *Mintzakantuaren oharmena*. Euskera-43, 424-437.
- GAMINDE I., 1995, *Bizkaieraren azentu-moldeez*. Labayru, Bilbo.
- GAMINDE I., 1997, *Mendebaldeko azentuak*. Mendebalde Kultur Elkarte, Bilbo.
- GAMINDE I., 1998, *Euskaldunen azentuak*. Labayru, Bilbo.
- HUALDE, J. I., 1994, *Euskal azentuak eta euskara batua*. Euskera-39.3, 1549-1568.
- HUALDE, J. I., 1994, *Euskal azentu ereduaren sailkapenerako*. Euskera-39.3, 1569-1578.
- HUALDE, J. I., 1995, *Euskal azentuaren sailkapenaz eta historiaz*. Gómez eta Lakarra arg., Euskal  
Dialektologiako Kongresua.
- HUALDE, J. I., 1997, *Euskararen azentuerak*. Donostia eta Bilbo. Gipuzkoako Foru Aldundia eta  
Euskal Herriko Unibertsitatea.
- LASPIUR, I., 1979, *Azentu diakritikua Eibarko euskararen*. Euskera-24-1, 175-268.
- LASPIUR, I., 1999, *Eibarrera jatorraren bidetik*. ...eta Kitto! Euskara Elkarte
- MITXELENA L., 1977, *Fonética Histórica Vasca* (2. argitarapena). Donostia.
- OÑEDERRA L., 1998, *Ahoskera lantaldearen errendapen txostena* (1).  
Euskera-43, 265-274.
- OÑEDERRA L., 1998, *Ahoskera lantaldearen errendapen txostena* (2).  
Euskera-43, 379-388.
- OÑEDERRA L., 1998, *Prosodiaren oraina eta ahoskera arauak*. Euskera-43, 439-449.
- ORMAECHEA N. (ORIXE), 1918, *Acento vasco*. RIEV IX, 1-15.
- ORMAECHEA N. (ORIXE), 1933, *El acento vasco (Juicio de la obra del Sr. Altube sobre el tema)*.  
Euskera, XIV, 266-275.
- ORMAECHEA N. (ORIXE), 1953, *Paroxitonas y esdrújulos vascos*. Gernika, XXIV.
- TXILLARDEGI, 1984, *Euskal azentuaz*. Elkar, Donostia.
- TXILLARDEGI, 1987, *Azentuari buruzko proposamen bat*. ELE-II, 5-21, AEK
- TXILLARDEGI, 1992, *Ahoskera baturantz*. ELE-X, 47-73, AEK.



*Al danean al dan bezela ekin diote,  
eibartarrek (euskeraz), burdin-langintzan,  
saldu-erosietan, baita langilleen defentzarako  
mitin ta itzaldi guzietan ere*

(Seber Altube)



Eibarko Udala  
Euskara Batzordea